



MORFOSINTAXIAREN INGURUKO ZALANTZAK ETA ARGIBIDEAK

Ikasmaterialen Aholku Batzordea
Estilo-liburuaren zazpigarren atala

MORFOSINTAXIAREN INGURUKO ZALANTZAK ETA ARGIBIDEAK

Patxi Petirena

Ikasmaterialetako hizkuntzaren
egokitasun-irizpideak finkatzeko
Aholku Batzordea



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2011

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

<<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>>

Argitaraldia: 1.a, 2011ko apirila
Ale kopurua: 2.000 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet: www.euskadi.net
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposizioa: Grafo, S.A.
Inprimaketa: Grafo, S.A.
ISBN: 978-84-457-3156-7
Lege-gordailua: BI-1378-2011

Sarrera

Hezkuntza-jarduna artez eta moldez aurrera eramateko, ikasmaterialak behar-beharrezkoak dira, edozein dela ere jarduten den herria eta hizkuntza. Ikasmaterial sinple-sinpleak izan litezke, edota landuagoak; euskarri idatzian etor litezke, edo teknologia berrien formatu sofistikatuagoetan. Kontua da hezkuntza-lanak beharrezko duela tresna hori.

Ikasmaterialetako hizkuntzaz ari garenean inork ez du zalantzarik egiten, bestalde, material horrek kalitatekoa izan behar duela. Guztiok dakigu ikasmaterialek zenbaterainoko garrantzia duten eskolaldian; eta ez bakarrik eskolako eginahalean irakasle-andereñoen helduleku nagusi direlako (oraindik ere), baizik eta berak direlako, oro har, ezagutzaren eta komunikazioaren oinarri. Ezin ahaztu, era berean, egunerokotasunean eta gizartean duten efektu biderkatzailea. Hortxe dago haien baliorik handiena. Edozein hezkuntza-sistemak, beraz, tentuz eta mimoz zaindu behar duen egitekoa da ikasmaterialen kalitatearena. Ikasmaterial zuzen eta egoki bat atontzea, ordea, ez da egiteko erraza. Idazte-lana bere osotasunean ezagutzen duenak ongi daki zer-nolako lan eskerga pilatzen den prozesu horretan.

Euskarazko lanetan, gainera, hizkuntza gutxitua den aldetik, ardur handiagoa eskatzen du egiteko horrek. Alde batetik, argitaratze-lanetan maiz izaten direlako batere euskararik ez dakiten arduradun eta langileak (lerro-jauzien arteko silaba-banaketa bera ere zaila da kontrolatzen modu horretako jendearentzat); bestetik, oinarrizko irakaskuntzan uste baino ugariagoa delako itzulpena, eta, jakina, halakoetan ugari direlako hutsak eta errakuntzak, itzulpen-lanak dakarren hizkuntza kodetze- eta deskodetze-prozesuen berezitasunagatik; euskararen egoerak berak ere badu eraginik, eta agian bera dugu arazorik larriena: testu zuzenak, egokiak eta ulergarriak nahi ditugu, baina oraindik borrokan gabiltza bitarteko dugun tresnarekin berarekin, euskararekin alegia.

Eta testu zuzena ez ezik, testu ulergarria eta egokia ere behar da; alegia, euskal hitzun edo erabiltzaile estandarraren intuizio linguistikoarekin bat datorren testua osatu behar dugu. Nola kudeatu eta bideratu hori guztia?

Horretaz kezkaturik hasi zen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, EIMA programaren ildotik, estilo-liburu bat atontzen. Estilo-liburu hori osorik eratu eta amaitu arte argitaratu gabe eduki ordez, gaika ari da gauzak lantzen eta, gaiak zoritu ahala, kaleratzeko bidean jartzen. Horrela etorri dira liburuki-aleok: *Ortotipografia* (Joxe Ramon Zubimendi, 2004), *Kalko okerrak* (Juan Garzia, 2005), *Onomastika* (Alfontso Mujika, Ane Goenaga eta Andres Alberdi, 2005), *Letra larriak erabiltzeko irizpideak* (Alfontso Mujika, 2008), *Estandarizatu gabeko solasak nola eman ikasliburuetan* (Andres Alberdi, 2009). Aste batzuk baino ez dira igaro orain hurrengo (seigarrena) argitaratu dela: Jose Ramon Etxebarriaren *Zientzia eta Teknikako Euskara Arautzeko Gomendioak*.*

Haien osagarri dator Patxi Petrirenaren *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak* izeneko hau, estilo-liburuaren zazpigarren atala. Orain artekoek hizkuntza idatziaren konbentzio-alderdiari begiratu izan diote gehienbat —*Ortotipografia*, *Onomastika*, *Letra larriak erabiltzeko irizpideak*, *Estandarizatu gabeko solasak nola eman ikasliburuetan*—; honek, berriz, zuzentasunari eta egokitasunari begiratzen dio gehiago, lehenagoko *Kalko okerrak* liburukiak bezala.

Zabala da morfosintaxia. Zabala eta bizia. Izan ere, egunero sortzen eta agertzen dira premia eta erabilera berriak, eta hitzunen joerak ere aldatuz doaz ezinbestean. Horregatik ondu da lan hau, kontsulta-iturri bat izateko —ez bakarria eta erabakigarriena, jakina, honen gaineratik baitaude betiere Euskaltzaindiaren arau-gomendioak—, eta ikasmaterialgintzako lantaldeentzat eta argitaletxeetako zuzentzaile-orratzaileentzat bateragune izateko, noski. Ez ziren jasoko ikasliburugintzan ageri diren akats eta zalantza-kasu guztiak, ezta hurrik eman ere, ezinezkoa baita hori, baina zinez saiatu gara jaso direnek oinarri zurrak izan dezaten bermatzen.

Izenburuak berak dioenez, ez da, inondik inora, euskal morfosintaxiaren goitik beherako azterketa bat; hori baino xumeagoa du helburua.

* EIMAREN estilo-liburuaren atal hauek helbide elektroniko honetan daude: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-euskara/eu>. Behin orri horretara iritsita, klikatu honako esteka honetan: Eskola-materialen estilo-liburua.

Liburukian ageri diren gramatika- eta estilo-kontuen iturburuan, ikasmaterial izateko onespren eske EIMARI aurkezten zaizkion testuetan eginiko bilketa-lan zabal bat dago, eta liburuki honetan ageri diren auzigaiak hizkuntzazko onspen-aztertzaileek beren eguneroko lanean atzemandako hizkuntza-arazo eta estilo-gorabeherak dira hausnargai. Horietan murgildu da Patxi Petrarena.

Euskaltzaindiaren goi-gidaritza, bermea eta oniritzia nahi izaten du Sailak, Euskararen Legearen espirituari jarraikiz, eta Akademiak egindako gomendioei orpoz orpo jarraitzen saiatzen da beti. Beste liburuekin egin bezala, Euskaltzaindiari aurkeztu zaio honako liburuki hau ere, irizpen eske. Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak aztertu du lana, eta egokia iruditu zaio bertan jasotzen dena. Aldeko irizpen horrekin batera, zenbait hobekuntza-proposamen egin ditu Akademiak, puntu jakin batzuetan, eta horiek guztiak zintzoki hartu dira kontuan eta baita dokumentura ekarri ere. Horrenbestez, beharrezkoa iruditu zaio Gramatika batzordeari molde eta egiteko jakina duen liburu honen mugak ere ondo zedarritzea, hizkuntzazko araugintzak sendo behar baititu oinarriak finkatu. Testuinguru osoaren jabe egiteko, honatx, irakurle, hitzez hitz, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak esana:

Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak xeheki aztertu du *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak* argitaragaia, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak galde egindakoari erantzuna ematen dio idazki honen bidez.

Gramatika batzordeak uste du, bai lan honen gainean bai honen antzekoak izan daitezkeen beste batzuen gainean oniritzia eskatzen zaionean, nekez eman dezakeela behar bezala funtsatutako irizpena, non eta ez duen hausten eskuartean dituen gainerako lanak aurrera ateratzeko lehenagotik finkatutako prozedura; izan ere, gai korapilatsuak dira horrelakoetan aztertzen direnak, berezko azterketa sakona beharko luketenak.

Hori garbi utzirik, Gramatika batzordeak esan behar du, lan honi dagokionez, egokia aurkitu duela, Euskaltzaindiak orain arte batasunerako eman dituen arauak errespetatzen baititu.

Nolanahi ere, puntu asko daude lan honetan gramatikarekin lotzen direnak, Gramatika batzordeak oraingoz bere sakontasunean aztertu ez dituenak. Kontu horietaz bere garaian esango du Gramatika batzordeak esan behar duena, egoki ikusten baldin badu.

Gauzak horrela, eta kontuan izanik batzordekideek izan dituzten eztabaidak, batzorde honek uste du erabilitako arrazoibidea indartzeko behin eta berriz ematen diren adibideak, bakoitzari dagokion testuinguruan, ez beste batean, ulertu behar direla beti; eta ematen zaien interpretazioarekin, ez beste batekin. Lanak berak zehazten ditu bai testuingurua, bai interpretazioa. Horrela bakarrik bereizten ahalko dira adibide egokiak eta egokiak ez direnak. Eta, gainera, zerbait egokia ez dela esaten denean, eta aldamenean egokia ez bide den adibide horren ondoan beste adibide bat egokitzat jotzen denean, bistan da adibide hori bezala euskarak izan ditzakeela beste hainbeste adibide, esamolde edo esapide hor berean, adierazi nahi den gauza bera adierazteko.

Argi utzi nahi genuke liburuan badirela mota desberdineko arauak:

- Zuzentasuna begiz jotzen dutenak.
- Egokitasuna helburu dutenak.
- Zuzentasunak eta egokitasunak irekiak uzten dituzten ateen artean, argitaratzaileek egiten dituzten aukerak, zenbaiten artean batzuk hautatuz. Horretarako badute, noski, eskubide osoa, baina arau hori argitaletxearen kontua dela garbi utzi nahi genuke, ez Euskaltzaindiarena.

Euskaltzaindiak, noizbait beharrezko ikusten badu, eta egoki, lan honetan ageri diren puntuez bere iritzia adieraztea, eta hemen ematen diren gomendioak, edo beste batzuk, behar den mailan arautzea, hala egingo du.

Donostian, 2010eko abenduaren 10ean
Euskaltzaindiaren Gramatika batzordea

Besterik ez, honenbestez. Beti bezala zeu zara, irakurle, gai hauetan unean uneko epaile eta eragile nagusi. Zeuk ikusiko duzu argibide

eta gomendio hauek noraino diren zure beharretarako egoki, eta zer neurritan hobekizun. Eguneroko idatz-langintza saiatuak erakusten digu argien, guztioi, honelako gomendioen irismena eta balio-indarra zenbaterainokoa den. Errespetu handia diogu idazle trebatuaren bere baitariko esperientziari. Badakigu, jakin, gomendioak bidea egiten laguntzeko direla: lagungarri izan behar dutela, ez bidegile saiatuaren behaztopa-harri. Euskararen onerako, ahalegin honetan asmatu izana da gure uste eta desio bakarra. Zernahi dela ere, jakizu zure ekarpen baliotsuak jasotzeko prest gauzkazula noiznahi. Hemen gauzkazu: huiseus4@ej-gv.es.

Gasteizen, 2011ko urtarrilaren 10ean

Cándido Hernández
Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria

Hitzaurrea	21
Eskertza	23
1. Perpausen sintaxia	25
1.1. Juntagailuak, menderagailuak eta lokailuak	25
1.1.1. Lokailua eta menderagailua batera?	25
1.1.1.1. <i>Izan ere + bait-?</i>	25
1.1.1.2. <i>Ezen</i>	26
1.1.1.3. <i>Alegia + -(e)la?</i>	26
1.1.1.4. <i>Noski + -(e)la?</i>	27
1.2. Juntagailuen inguruko zenbait zalantza	27
1.2.1. Deklinabide-hondarkien ezabatzea juntaduran	27
1.2.2. <i>Ez... ez... / ez... ez eta... (ere)</i>	29
1.2.3. <i>Edo/ala</i> galderetan	30
1.2.4. <i>Edo/ala</i> galderetatik kanpo	30
1.2.5. Hautakaria ez baizik eta emendiozkoa eskatzan dutenak	31
1.2.6. <i>Nahiz eta zein</i>	31
1.3. Menderagailuen inguruko zenbait zalantza	33
1.3.1. Perpaus osagarriak	33
1.3.1.1. <i>-(e)la</i> eta <i>-(e)na</i>	33
1.3.1.2. <i>*-(e)laren, *-(e)naren</i> → <i>-(e)lako, -(e)n</i>	34
1.3.1.3. <i>*-(e)laz, *-(e)naz</i>	35
1.3.1.4. <i>-(e)lal/-(e)nik</i>	36
1.3.1.5. Aditz-izena eta <i>-(e)la</i> : «egitea» eta «egin(go) duela», «egin daitezela»	37
1.3.1.6. <i>-(e)la</i> osagarriak <i>izan</i> aditzarekin	38
1.3.1.7. <i>Delako(a), direlako(ak)</i>	39
1.3.1.8. «Eskerrak ... <i>-(e)la</i> », «eskerrak ... <i>-(e)n</i> »	39
1.3.2. Zehar-galderak	39
1.3.2.1. <i>Ote</i>	39
1.3.2.2. «Noiz den» eta «zer den»	41
1.3.2.3. <i>-(e)n</i> ezin deklinatu	42

1.3.2.4.	<i>-(e)netz</i>	42
1.3.2.5.	« <i>Ea... -(e)n</i> », « <i>ba... ere</i> »	42
1.3.3.	Perpauis erlatiboak	43
1.3.3.1.	Izen ardatzaren ondotik doazenak.....	43
1.3.3.2.	Alferrikako erlatiboak saihestu	44
1.3.3.3.	Erlatiboetako komunztadura-arazoak.....	46
1.3.3.4.	Zehar-galdera behar lukeen tokian sartzen den erlatiboa	47
1.3.3.5.	<i>-(e)neko</i>	48
1.3.3.6.	<i>Urtebetetze, urtemuga, urteurren eta mendeurren</i> ..	48
1.3.4.	Konparazio-perpauisak	49
1.3.4.1.	<i>Baino</i>	49
1.3.4.2.	«Nor baino nor gehiago»	49
1.3.4.3.	«Baino gehiago» / «Zer beste(rik)».....	50
1.3.4.4.	«*Hori gutxi <i>balitz</i> » → «Hori gutxi <i>balitz bezala</i> »	50
1.3.4.5.	<i>Bailitzan, bailitzen, bailiran, bailiren</i>	50
1.3.4.6.	<i>Zenbat eta...</i> , <i>orduan/hainbat eta</i>	51
1.3.4.7.	«Dutena baino» / «duten baino».....	52
1.3.4.8.	Alferreko <i>-(r)ik</i>	52
1.3.4.9.	<i>Beste eta adina</i> konparazio konplexuetan	53
1.3.4.10.	<i>Berdin</i> : «bestearen berdina», «bestearen ?desberdina»	53
1.3.4.11.	Zenbatasunezko konparazioa mugagabeko izenen artean.....	54
1.3.4.12.	«Batek baino gehiagok».....	55
1.3.4.13.	Adibideak aurkezteko, ez erabili <i>bezalako</i>	55
1.3.4.14.	«Esan duen bezala», «esan duenez»	57
1.3.4.15.	<i>Legez</i>	58
1.3.4.16.	<i>Zer eta zein</i> , konparazioaren lagungarri	58
1.3.4.17.	« <i>Nabiago izan</i> », « <i>nabien izan</i> »	59
1.3.5.	Ondorio-perpauisak	59
1.3.5.1.	<i>Hain...</i> * <i>-(e)la</i>	59
1.3.6.	Denbora-perpauisak.....	60

1.3.6.1.	<i>Bitartean</i>	60
1.3.6.2.	<i>Dagokionez/dagokionean</i>	61
1.3.6.3.	Denbora-perpaus zalantzakoak.....	62
1.3.6.4.	«Ikasi ahala»	62
1.3.7.	Baldintza-perpausak.....	63
1.3.7.1.	-(e)z <i>gero</i>	63
1.3.7.2.	<i>Ezean, ezik</i>	64
1.3.7.3.	<i>Ba-</i> , aurkaritzako lotura?	65
1.3.8.	Kontzesio-perpausak	66
1.3.8.1.	<i>Baldin</i> , kontzesio-perpausetan ez	66
1.3.8.2.	Kontzesio-perpausak eta aurkaritzakoak	66
1.3.9.	Moduzko perpausak.....	67
1.3.9.1.	-(e) <i>larik</i>	67
1.3.9.2.	-(e) <i>n moduan</i> , -t(z) <i>eko moduan</i>	68
1.3.9.3.	<i>Nola</i> ... -(e) <i>n</i> eta -(e) <i>nez (gero)</i>	69
1.3.10.	Aditz-izena oinarri duten menderatu batzuk.....	69
1.3.10.1.	-t(z) <i>ekotan</i>	69
1.3.10.2.	-t(z) <i>en/-t(z)era/-t(z)eko</i>	70
1.3.10.3.	-t(z) <i>erakoan</i> , -t(z) <i>ean</i> eta - <i>tutakoan</i>	71
1.3.10.4.	-t(z) <i>erako/-t(z)eko</i>	72
1.3.10.5.	-t(z) <i>earen/-t(z)eko</i>	72
2.	Galdegai/mintzagai jokoa	75
2.1.	Osagaien ordena-aldaketa aditz-lokuzioetan.....	75
2.1.1.	<i>Lan egin, lo egin, parte hartu</i>	75
2.1.2.	- <i>ta/- (r)ik</i> + <i>egon</i>	76
2.1.3.	<i>Gai izan, prest egon</i>	77
2.2.	Aditzaren lekua aginte- eta galde-perpausetan.....	77
2.3.	Aditzaren lekua baietza galdegai denean.....	79
2.4.	«Badago» eta «zer dago»	80
3.	Kategoria gramatikalak: izena	83
3.1.	Bizidunak eta bizigabeak	83

3.2. Izen-elkarketa eta adjektibo erreferentzialak.....	85
3.3. Nominalizazioa aditzaren ordeztan (eta perpausaren ordeztan).....	86
3.4. Nominalizazioa eta izenlagunak.....	88
3.5. Aditza isildua duten tituluak	89
4. Izenordaina	91
4.1. Pluraleko pertsona-izenordainak singularrekoen ordeztan	91
4.2. Izenordain zehaztugabeak	91
4.2.1. <i>Zer/zein</i> eta <i>nor/zein</i>	91
4.2.2. <i>Nor(tzuk), zer(tzuk), zein(tzuk)</i>	93
4.2.3. Galderetako itzuli bihurriak	93
4.2.4. <i>Ezer</i> eta <i>zerbait</i>	94
4.2.5. <i>Norbaitetaz, zerbaitetaz</i>	95
4.2.6. <i>Ezer/edozer</i>	95
4.2.7. Galdetzailak neurriekin: <i>zer, zenbat, zenbateko, *zein</i>	96
4.3. <i>Besterik</i> nola komunztatu	97
4.4. <i>Norbera, norberaren</i> eta <i>nor bere</i>	98
4.5. <i>Bakoitza, batbedera</i>	99
4.6. Erakusleak izenordain	100
4.6.1. <i>Hau/bori/hura</i> banaketa eta <i>hura/bera</i> banaketa	100
4.6.2. <i>Haren/bere</i> banaketa	101
4.7. Elkarkariak	102
4.7.1. <i>Elkar</i>	102
4.7.2. <i>Elkar aurrizki?</i>	104
4.7.3. <i>Bata bestea</i>	105
4.8. Bihurkariak	105
4.8.1. <i>Bere burua</i> eta <i>beren burua</i>	105
4.8.2. <i>Geure burua, zeuen burua, beren burua</i>	106
5. Determinatzaileak	107
5.1. Deklinabide mugatua eta mugagabea	107
5.1.1. Inesibo plurala eta mugagabea: <i>taldeetan/taldetan</i>	107

5.1.2. Kasu instrumentaleko mugagabeak	108
5.1.3. Kasu instrumentaleko mugatuak	110
5.1.4. Postposizioak: «kableen bidez», «kable bidez»	110
5.1.5. Unitateak mugagabeen: <i>eurotan, litrotan</i>	111
5.1.6. Zenbatzaileak eta deklinabidea: singularra eta mugagabea neurriekin.....	111
5.1.6.1. «Hiru egunean», «bost euroan», «bi litroan»	111
5.1.6.2. Galdetzailea bera nola	112
5.2. Mugagabea eta <i>-a</i> organikoa	113
5.3. Singularra eta plurala	114
5.4. Artikuluarekin ala artikulurik gabe?	115
5.4.1. Adjektiboen indargarriak: <i>alaen, halako,</i> <i>ez bestelako, ez bestelbesten</i>	115
5.4.2. <i>Deitu (iritzi), esan, izena izan</i>	116
5.4.3. Zenbakiak eta letrak: <i>adierazi, hasi, bukatu</i>	117
5.4.4. <i>Bihurtu</i> aditzarekikoak	118
5.4.5. Aditz-lokuzioak: <i>jauzi egin, lan egin, zintz egin</i>	118
5.4.6. Superlatiboak	119
5.4.7. Zenbakiak, kopuruak eta mugatzailea.....	121
5.4.8. Izen berezi artikuludunak	122
5.4.9. Maileguen deklinabidea.....	124
5.5. Noiz <i>-a</i> eta noiz <i>bat</i>	124
5.6. Erakusleak	126
5.6.1. Deixi arrunta	126
5.6.2. Hiru graduak anafora eta kataforetan: <i>hau, hori eta hura</i>	126
5.6.3. <i>Horietaz</i> (zenbaitetan <i>horiez</i>)	128
5.6.4. <i>Honako (gai) hau</i>	129
5.6.5. <i>Ber(a)/berdin</i>	130
5.7. Zenbatzaile zehaztuak	132
5.7.1. Ehunekoak.....	132
5.7.2. <i>Bat</i> eta <i>bana</i>	133

5.7.3.	Zenbakiak eta komunztadura	135
5.7.3.1.	Zenbatzaile arruntak	135
5.7.3.2.	Numero-komunztadura zenbait aditzekin: <i>iraun, balio izan, kosta(tu)</i>	135
5.7.3.3.	Zatikiak	136
5.7.4.	Neurri-sintagmak	137
5.7.5.	Multiplen adierazpena: «bi halako» eta «halako bi» ereduak	140
5.7.6.	«Esku bete», «metro bete», «astebete»	140
5.7.7.	«Hamar bat», «hamarren bat»	141
5.7.8.	<i>Erdi</i> : «Erdiak etorri dira»	142
5.8.	Zenbatzaile zehaztugabeak	143
5.8.1.	Mugagabea eta aditzaren komunztadura	143
5.8.2.	<i>Bat</i> eta <i>batzuk</i> / <i>-(r)en bat</i> eta <i>-(r)en batzuk</i>	143
5.8.3.	<i>Batzuez</i> (* <i>batzuetaz</i>)	144
5.8.4.	<i>Makina bat</i>	144
5.8.5.	<i>Ugari</i>	144
5.8.6.	<i>Franko</i>	146
5.8.7.	<i>Nabiko</i>	146
5.9.	Zenbatzaile orokorrak	147
5.9.1.	<i>Dena(k)/guztia(k)</i>	147
5.9.2.	<i>Oso/guzti</i>	148
5.9.3.	Absolutiboa eta inesiboa denborazkoetan: «egun guztia» eta «egun guztian»	149
5.10.	Determinatzaile zehaztugabeak: <i>beste</i>	149
5.10.1.	«Besteak» eta «beste batzuk»	149
5.10.2.	<i>Beste</i> eta <i>gehiago</i> zenbatzaile zehaztuekin	150
5.10.3.	<i>Beste</i> eta kalkoak	150
6.	Adjektibo-sintagma	153
6.1.	Izenondoak	153
6.1.1.	Izenondoaren kokagunea	153
6.1.2.	Herritarren izenak: <i>-ar, -tar, -dar, -oztar</i>	155

6.1.2.1.	<i>-(t)ar</i> atzizkiaren erabilerak eta mugak	155
6.1.2.2.	Bestelako jende-izenak: <i>frantses, katalan, judu</i> .	157
6.1.3.	<i>-dun</i> atzizkiaz osaturiko izenondoak	158
6.1.4.	Izenondoaren generoa	158
6.1.5.	Izenondoen konparazio-gradua eta superlatiboa	159
6.1.6.	Izenondoa hitz-elkarketaren barruan	161
6.1.7.	Izenondoa postposizio-egituraren barruan	162
6.1.8.	Izenondoak atributu eta aditzondo: mugagabeak eta mugatuak	163
6.2.	Izenlagunak	165
6.2.1.	Noiz <i>-ko</i> eta noiz <i>-en</i>	165
6.2.2.	Neurriak: «hamar euroko kafea» eta «hamar euroren kafea»	166
6.2.3.	Zenbait zalantza <i>-ko</i> eta <i>-zko</i> direla eta	166
6.2.4.	Ez nolana erabili <i>-zko</i>	168
6.2.5.	«Hamabost herriko» eta «hamabost herritako»	169
6.2.6.	Zenbatzaile zehaztugabeak eta <i>-ko</i> : <i>zenbat/zenbateko</i> ; <i>hainbeste/hainbesteko (asko/handia)</i>	171
6.2.7.	Neurriak izenlagun eta predikatu-osagarri	171
6.2.8.	Forma-aldaerak: <i>aurren/aurreneko, azken/azkeneko</i> , <i>leben/lebenengo, lebenbiziko</i>	172
6.2.9.	<i>-ekiko</i> , izenlagun eta batzuetan adizlagun	172
7.	Adberbio-sintagma	175
7.1.	Aditzondoak	175
7.1.1.	<i>Inoiz</i> eta <i>noizbait</i>	175
7.1.2.	Ez alferrik erabili <i>-ki</i> atzizkia	175
7.1.3.	<i>Bakarrik</i> eta <i>soilik</i>	176
7.1.4.	<i>Oraindik</i> eta <i>artean</i> ; <i>dagoeneko</i> eta <i>ordurako</i>	177
7.2.	Adizlagunak	177
7.2.1.	Noiz <i>-raino</i> eta noiz <i>arte</i>	177
7.2.2.	Zenbakiekin, <i>-ra(ino)</i> ala <i>arte?</i>	178
7.2.3.	<i>Non</i> eta <i>nondik</i>	180

7.2.4. Soziatiboa (<i>zerekin</i>) eta zenbait muga-arazo	180
7.2.5. Instrumentalaren inguruko zalantzak	183
7.2.6. Motibatiboa (<i>-gatik</i>) eta muga-arazoak	184
7.2.7. <i>Norako/zertarako</i> eta <i>norentzat/zerentzat</i>	187
7.2.8. Prolatiboa, atributua eta <i>bezala</i>	187
7.3. Postposizioak	189
7.3.1. <i>Arabera</i>	189
7.3.2. <i>Artean</i>	190
7.3.3. <i>Bitartez</i>	191
7.3.4. <i>Buruz</i>	192
7.3.5. <i>Gain</i> eta <i>gainera</i>	192
7.3.6. <i>Barne</i>	193
7.3.7. <i>Zehar</i>	193
7.3.8. Postposizioak eta juntadura	194
8. Aposizioa	195
8.1. Izen-aposizioa vs izenlaguna	195
8.2. Izen-aposizio batzuk	195
9. Aditza	197
9.1. Erregimenaren ingurukoak	197
9.1.1. Bihurkari eta elkarkaririk eza: «ikusitzaiz»?, «ikusitza gara»?	197
9.1.2. Aditzen erregimenari dagozkion zenbait xehetasun ...	198
9.1.3. Aditza+ <i>-arazi</i> : forma eta erregimena	199
9.1.3.1. Forma	199
9.1.3.2. Erregimena	200
9.1.3.3. Premiarik gabe, ez erabili	200
9.2. Aditzaren modua	201
9.2.1. Ahalera eta aditz-perifrasi modalak	201
9.2.2. Subjuntiboa: noiz <i>-(e)n</i> eta noiz <i>-(e)la</i>	202
9.2.3. Agintera	203
9.2.4. Aginterazko adizki trinkotuak	203

9.3. Adizki jokatu gabeak	205
9.3.1. Aditzoinen forma	205
9.3.2. Aditzoina noiz (oro har)	206
9.3.3. Aditz laguntzailea isiltzean, aditzoina ala partizipioa?..	207
9.3.4. Aditz laguntzailea isiltzean, aspektua berdindu	207
9.3.5. Aditz-izena vs «partizipioa (+ <i>izan</i>) + -a»	208
9.3.6. «Egin ala ez» egituran, aditz-izenik ez	209
9.3.7. Partizipioa predikatu-osagarrian	209
9.3.8. Partizipioa eta kasu instrumentala	210
9.4. Adizki jokatuak: aspektua eta <i>tempusa</i>	210
9.4.1. Erdarazko «orainaldi historikoa»	210
9.4.2. Orainaldi narratiboa	211
9.4.3. Kalkulu-problemen formulazioa	211
9.4.4. Gertakizun-aspektuaren balio bereziak: ustea	212
9.5. <i>Lo egin</i> erako aditz-lokuzioak	213
9.6. Aditz modalak	214
9.6.1. Erregimena: <i>nabi izan, behar izan, abal izan</i>	214
9.6.2. Oinarriko aditzaren forma	215
9.6.3. Gertakizun-aspektua eta alegiazko formak	215
9.6.4. «Beharrezko» eta «ezinezko»; «ikusi beharreko» eta «ikusi ezineko»; «ezin ikusizko»	216
9.7. Alokutiboa	216
Eranskina	219
Definizioak: moldeak eta joskerak	221
Aurkibide xehea	229

Hitzaurrea

EIMArean estilo-liburuaren atal berri hau ez da, inondik inora, euskal morfosintaxiaren goitik beherako azterketa bat. Izenburuak berak dioenez, hori baino xumeagoa du helburua, eskolaren esparruan sorturiko eskaera bati erantzun nahi baitio. Liburukian ageri diren gramatika- eta estilo-kontuen iturburuan, ikasmaterial izateko onespeneke EIMArri aurkezten zaizkion testuetan eginiko bilketa-lan zabala dago: hizkuntzazko onespene-aztertzaileek atzemandako hizkuntz-arazo eta estilo-gorabeherak dira liburuki honetako aztergaiak, eta horien inguruko argibideak eman ditugu, al bait aukerarik seguruenak eskaintzeko asmoz.

Ikasmaterialgintzaren errealitateak markatu du, beraz, liburu honen ildoak. Unibertsitate aurreko ikasle-irakasleek eskuetan izango dituzten eskola-materialetarako prestatua da, batez ere, ikerketa sakonetan murgiltzeko asmorik gabe. Lagungarri izan nahi du ikasmaterialak atontzen ari diren irakasle eta testugileentzat nahiz argialetxeetako orrazketa-arduradunentzat.

Zabala da morfosintaxia, bihurtune eta adar ugariakoa. Zabala eta bizia, gainera; dinamikoa. Izan ere, egunero agertzen dira premia eta erabilera berriak, eta hiztunen joerak ere aldatuz doaz.

Praktikan, hizkuntzaren molde eta erabilera gehienegokitasunari eta gramatikaltasunari buruzko adostasun handia aurkitzen dugu. Baina, hizkuntzaren kode-balio oinarrizkoena bermatzen duen adostasun-gune finko horretatik urrundu ahala, lausotuz eta zalantzagarriago bilakatuz joaten dira gauzak. Eta hori sarri gertatzen zaio ikasmaterialtako hizkuntza moldeekin egunero lehian dabilenari. Berezkoa eta etengabea den hizkuntzaren barruko lehiaz eta tirabiraz gainera, hizkuntza hori aurrez (oso) ibilia ez den eremuetan ibili beharren beharrak are zailago bihurtzen du egitekoa, askotan zalantza eta ezinegon bilakatzeraino.

Horregatik ondu da lan hau, kontsulta-iturri izateko —ez bakarrik eta erabakigarriena, jakina, honen gaintik baitaude betiere Euskaltzaindiaren arau-gomendioak—, eta ikasmaterialgintzako lantaldeentzat eta

argitaletxeetako zuzentzaile-orriztaileentzat bateragune izateko. Ez ziren jasoko ikasliburuetan ager daitezkeen akats eta zalantza-kasu guztiak, ezinezkoa baita hori, baina saiatu gara jaso direnei oinarri on bat bermatzen.

Gramatika-kontuak dira gorabehera batzuk (adibidez, *-(e)laz, *-(e)laren...); estilo-aukerak dira beste batzuk (esate baterako, *balitz bezala* vs *bailitzan*, *etorri den zurrumurrua* edo *etorri delako zurrumurrua*, alferrikako erlatiboak saihesteko gomendioa, etab.). Ez ditugu berariaz bereizi gramatika-kontuak eta estilo-kontuak; liburukiaren xede erabat praktikoak eta liburuki honen hartzaileen ezaugarriek eraman gaituzte horretara.

Nolanahi ere, egindako hautuetan eta eskainitako gomendioetan —gramatika-epai zein estilo-lehenespen—, beti saiatu gara haiek oinarri teorikoetan funtsatzen (eta dagokien aipamen bibliografikoa egiten). Batzuetan, gisa denez, kontuak argi samar daude; halakoetan, gehienetan, Euskaltzaindiaren arauak edota EGLU liburukiak izan dira erreferentzia nagusia. Beste batzuetan, kontu gramatikalak berak ere ez baitira sarri erraz ebaztekoak izaten, autore jakin batek edo batzuek eskaintzen duten bidea erakutsi dugu; inoiz, geuk argudiatu behar izan ditugu egokitasun-irizpide funtsatuak. Gomendio-kontu huts direnetan, malgu jokatu dugu hobespenetan, biderik erabat itxi gabe.

Adibideak sailkatzeko orduan erabilitako zeinuen esanahia honako hau da:

(*) Arauz edo gramatikaz okerra den forma:

*Hain ederra da, **denak liluratzen dituela**. (EGLU)

*Gauzak hobetzen **ari direnaren seinale** da hori. (Euskaltzaindiaren 116. araua)

***irakasleek** esaten ari **zirena** (gramatika)

***ezer** ekar dezakezu (gramatika)

(?) Arauz edo gramatikaz zalantzakoa den forma:

?**behar** legez

behar den legez

?Honakoa esan zuen.

Hau esan zuen.

Honako hau esan zuen.

(▼) Beste aukera baten aldean desegokitzat jotzen dena, nahiz gramatikak onartu:

▼Idatzi lasterkari bakoitza helmugara iristeko ordena adierazten duen zenbakia.

Esan zenbatgarren iritsi den helmugara lasterkari bakoitza.

▼Fonema kontsonantikoak 24 diren bitartean, bokalikoak 5 dira.

Fonema kontsonantikoak 24 dira; (eta) (fonema) bokalikoak, berriz, 5.

(#) Zuzena da eta egokia, baina ez du adierazten une horretan esan nahi dena:

#Zeure hizkuntza aukera ezazu.

Aukera ezazu hizkuntza.

#Zuk besterik ez dakizu.

Zuk beste inork ez daki.

Bestalde, lanaren bukaeran, eranskin bat gehitu dugu, «Definizioak: moldeak eta joskerak» izenekoa, Juan Garzia Garmendiak horretaz berariaz prestatutako txosten batean oinarritua.

Azkenik, «aurkibide xehe» bat prestatu dugu, gai jakin bat nahi denean hura errazago aurkitzeko, hala paperean nola sarean jarriko den PDFan. Aurkibide horretan, alfabeto-ordenan zerrendaturik daude gaiak, eta bakoitza zer ataletan dagoen adierazten da. Dokumentu digitalean bilatuz gero, hitza aurkibide xehean seinalatuko du lehenik aplikazioak, zer ataletan ageri den erakusteko.

Eskertza

Luze jo du liburu hau egiteak. 2002ko udan eskuratu zidan EIMArekin koordinatzaile Andres Alberdik berrogeita hamalau orrialdeko dokumentu bat. Hasierako dokumentu haren birmoldatze-, berritze-, zuzentze- eta osatze-lana izan da nirea, betiere EIMako Aholku Batzordearekiko elkarlanean.

Itxura hartzen hasi zenetik, ez dago esan beharrik aldaketak, hobekuntzak eta bertsioak ugari izan direla bidean. Ezin ukatu liburukiak irabazi baino ez duela egin bere ibilian.

Jende askoren laguntza izan dut lan hau burutzeko, eta ezinbestekoa dut haien aipamena egitea:

a) Lehenik eta behin, EIMAKo Ikasmaterialen Aholku Batzordeko kideak: Juan Garzia Garmendia, Xabier Mendiguren Bereziartu, Joxe Ramon Zubimendi Imaz eta Andres Alberdi Gorostiaga. Testua goitik behera miaturik eta kritikaturik, hamaika zuzenketaren eta hobekuntzaren egile eta eragile izan dira. Haien laguntza eta jakintza gabe, ez nuen lan hau burutuko.

b) Orobat, beren ekarpen-kritikak egin dituzten iritzi-emaileak:

EIMAKo hizkuntza-aztertzaileak

Elhuyar Fundazioa (Saroi Jauregi eta Alfontso Mujika)

Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzua (Inma Errea, Patxi de Vicente eta Miren Iriarte)

Eusko Legebiltzarreko itzultzaile-zuzentzailea (Jesus Mari Agirre)

Euskal Herriko Unibertsitatea (Jacinto Iturbe)

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (Patxi Salaberri)

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (Martin Rezola)

Arabako Foru Aldundia (Joxe Mari Berasategi)

Berrria egunkaria (Irene Arrarats)

Euskal Irrati Telebista (Asier Larrinaga)

c) Euskaltzaindiko Gramatika batzordearen izenean lan hau aztertu duten Patxi Goenaga, Itziar Laka eta Pello Salaburu jaun-andreak, beren kritika eta ekarpen erabakigarriengatik.

Horieta guztiena da lan honen balioaren parte handi bat. Eskerrik asko, eta aurreragoko beste lan zabalago baten oinarria izan dadila hau.

Patxi Petrirena

1. Perpausen sintaxia

1.1. Juntagailuak, menderagailuak eta lokailuak

Bi perpausen artean, juntagailuak (*eta, edo, baina...*) eta menderagailuak (*nabiz eta, bait-, -(e)n, -(e)la, -(e)lako...*) ager daitezke. Baliabide horiekin gauzatzen ditugu juntadura eta menderakuntza, hurrenez hurren. Juntagailurik eta menderagailurik gabe ere lot daitezke perpausak, alborakuntzaz. Juntagailuak erabili zein ez, badira beste lotura-elementu batzuk perpausen arteko eta are paragrafoen arteko erlazio semantikoak bideratzen dituztenak: lokailuak. Adibidez, *gainera, bestalde* eta *halaber* emendiozko lokailuak, *berriz, aldiz* eta *ostera* aurkaritzako lokailuak, *beraz* ondoriozkoa, *izan ere* kausazkoa eta beste. Euskaltzaindiak berariaz aztertuak ditu *Euskal Gramatika - Lehen Urratsak-III* liburukian (EGLU-III).

1.1.1. Lokailua eta menderagailua batera?

1.1.1.1. *Izan ere + bait-?*

Egoki da *izan ere* lokailuarekin *bait-* menderagailua erabiltzea? EGLU-III liburukiak (192. or.) ez du aukerarik egiten, baina hango adibide guztietan eta *Orotariko Euskal Hiztegiko* gehienetan *izan ere* bakarrik ageri da, eta halaxe erabiltzea gomendatzen dugu. Puntuazioaren aldetik, gutxienez puntu eta koma jartzen da bi perpausen arteko mugan, eta sarritan puntua¹.

¹ «Lokailuak, koma artean», esan ohi da. Zehaztu beharra dago esaldian tarteki denean joaten dela lokailua koma artean; esaldiaren hasieran jarritz gero, aurretik puntu eta koma edo puntua izango du (aurreko esaldiarekiko mugan):

[...]; lana, **izan ere**, amaituta dago.

[...]. Lana, **izan ere**, amaituta dago.

[...]; **izan ere**, lana amaituta dago.

[...]. **Izan ere**, lana amaituta dago.

Gauza bera esan daiteke, beste lokailu bat aipatzeagatik, *beraz* ondoriozkoaz. Esaldiaren barruko hiru posizioetatik edozeinetan dagoela ere (hasieran, tartean zein amaieran), aurreko esaldiarekiko mugan puntu eta koma edo puntua jartzea dagokio.

Amaitu ditut lanak; **beraz**, liburuak uztera noa.

Amaitu ditut lanak. **Beraz**, liburuak uztera noa.

Amaitu ditut lanak; **banoa**, beraz, liburuak uztera.

Amaitu ditut lanak. **Banoa**, beraz, liburuak uztera.

- (1) a. ▼Etsi beharko duzu; **izan ere**, beti izan **baita** hori horrela.
- b. ▼Etsi beharko duzu. **Izan ere**, beti izan **baita** hori horrela.
- c. Etsi beharko duzu; **izan ere**, beti izan **da** hori horrela.
- d. Etsi beharko duzu. **Izan ere**, beti izan **da** hori horrela.

1.1.1.2. *Ezen*

Ezen lokailua ere (ahozkoan *ze* esaten da sarri) menderagailurik gabe erabiltzen da, kausazko zentzua duenean. Hona adibide bat:

- (2) Adinak burua flakatu bide dio; **ezen hasia da** bere aldeko ez dituen gizonik aipatuenean preso ematen eta hilarazten.

Ondoriozkoa denean (*nonen* baliokide), orduan bai, orduan *bait-*edo *-(e)n* menderagailua eramaten du berekin:

- (3) Hain zorrotz eta zehatz egin zuen horren guztiaren galdea, **ezen** jakin-min hutsa baino zerbait gehiago **erakusten baitzuen**.

1.1.1.3. *Alegia* + *-(e)la*?

Orotariko Euskal Hiztegiak dioenez, *alegia* lokailua ez da testuetan agertu XIX. mendearen bukaera arte. Askotan *-(e)la* menderagailuarekin batera agertzen da, baina gabe ere joan daiteke.

- (4) Gorputzaren heriotza huskeria hutsa **dela(,)** **alegia**, eta gizon bati gerta dakioken gauzarik ezdeusena **dela** noski hiltzea.
- (5) **Alegia**, ez **diote** arretarik jartzen mekanismoaren eragingarrita-sunari, osagarrien antolamenduari baizik.

Zenbaitetan, perpaus osoari ez, baizik eta perpaus barruko sintagma jakin bati dagokion azalpen bat lotzen du *alegiak*². Halakoetan, koma soil bat jartzen da askotan (6a), baina bidezko ez ezik egokiago ere izan liteke puntuazio zorrotzagoa erabiltzea (6b):

Amaitu ditut lanak; liburuak uztera noa, **beraz**.

Amaitu ditut lanak. Liburuak uztera noa, **beraz**.

² Aurreko (4) adibidean ere, *-(e)la* menderagailuarekin lotutako mendeko perpaus batekin doanez *alegia*, esan liteke sintagma bati dagokiola.

- (6) a. Justiziaren sinboloa, balantza **alegia**, ezin ordezka liteke beste edozein gauzakiz; orga batez, adibidez.
 b. Justiziaren sinboloa —balantza, **alegia**— ezin ordezka liteke beste edozein gauzakiz; orga batez, adibidez.

Perpau bati badagokio *alegia*, perpau hori puntu-komekin edo puntuarekin mugatzen da; hartara, lokailuaren beraren ondoan jar daiteke koma:

- (7) a. ▼Besterik gabe idatzi nuen, ez zidan lan handirik eman **alegia**.
 b. Besterik gabe idatzi nuen; ez zidan lan handirik eman, **alegia**.
 c. Besterik gabe idatzi nuen. Ez zidan lan handirik eman, **alegia**.

1.1.1.4. *Noski + -(e)la?*

Okerrak dira *«Noski etorriko dela» eta *«Noski baietz!» perpauak (adibidez), nonbait «Jakina etorriko dela», «Jakina baietz!» eta «Horixe baietz!» jatorren analogiaz zabalduak azken urteotan (ikus EGLU-V, 61.-62. orrialdeak).

Hona hemen *noski* lokailuaren erabilera arrunt bat:

- (8) Eta nire hitzek, **noski**, zabortegian amaituko dute.

1.2. Juntagailuen inguruko zenbait zalantza

1.2.1. Deklinabide-hondarkien ezabatzea juntaduran

Izen soilak nahiz kasu-sintagmak junta ditzake *eta* juntagailuak, Euskaltzaindiaren 111. arauak dioenez («Izen-sintagmen arteko juntadura dela eta»):

- (9) a. [etxe eta jauregi]ak (izen soilak)
 b. [etxeak] eta [jauregiak] (kasu-sintagmak)

Izen soilak juntatzean, hots, azkenak bakarrik daramanean deklinabide-marka, gainerakoek mugagabea joan behar dute, inoiz ez artikularekin:

- (10) a. *lehengusua eta lagunei
 b. *lehengusuak eta lagunei
 c. lehengusu eta lagunei

Juntagaiak pluralak direnean, izen soilak juntatzea aski ohikoa da. Izen bati dagozkion bi izenondo ere erraz junta daitezke modu berean:

- (11) hegazti eta narrastiak
- (12) lan zail eta astunak

Juntagaiak singularrak direnean, izen soilak ez baizik kasu-sintagmak (deklinatuak) juntatzea gomendatzen du Euskaltzaindiaren 111. arauak.

- (13) itsasoan eta lehorrean bizi diren animaliak
- (14) Errealitatea eta fikzioa elkartzen ditu.

Gomendatzekoa ez ezik, jokabide egoki bakarra da hori zenbaitetan, esanahia dela eta; esaterako, batura baino gehiago bereizketa adierazten dugun honetan:

- (15) a. *Etxe eta kalean berdin jokatu behar da. (*Ez du berdin jokatzen etxe eta kalean).
- b. Etxean eta kalean berdin jokatu behar da.

Juntagai batzuk singularrak eta beste batzuk pluralak direnean ere, denak deklinaturik ematea gertatzen da argiena:

- (16) a. lehengusu eta lagunei (= «lehengusuei eta lagunei» ulertzen da, ez «lehengusuari eta lagunei»)
- b. lehengusuari eta lagunei
- (17) a. alkate eta zinegotziek («alkateek eta zinegotziek» ulertzen dugu)
- b. alkateak eta zinegotziek

Postposizioekin, orobat da gomendagarri (eta zenbaitetan nahitaezko) izen bakoitza deklinatzea:

- (18) a. irakasle eta ikasleen arteko harremana (= «irakasleen eta ikasleen arteko harremana»)
- b. irakasleen eta ikasleen arteko harremana
- c. *irakaslea eta ikasleen arteko harremana
- d. irakaslearen eta ikasleen arteko harremana
- (19) a. *diskoa eta liburuaren berri
- b. diskoaren eta liburuaren berri

Izen-juntaduran, isildu daitezke zenbatzaile zehaztugabeak (*hainbat, asko...*), baina ez zenbatzaile zehaztuak:

- (20) a. **hainbat** sagar eta udare
b. **hainbat** sagar eta **hainbat** udare
- (21) a. *sagar eta udare **bat**
b. sagar **bat** eta udare **bat**

Aditzaren komunztadurari dagokionez, plurala egoki izanik ere (a), singularreko komunztadura normala da izen abstraktuak juntatzen direnean (EGLU-IV, 53. orrialdea):

- (22) a. Hori egiteko, kemena eta adorea **behar dira**.
b. Hori egiteko, kemena eta adorea **behar da**.
- (23) a. Euskarak lege-egoera hobea eta gizarte-babes zabalagoa **lortuko ditu**
b. Euskarak lege-egoera hobea eta gizarte-babes zabalagoa **lortuko du**.
c. Euskarak lege-egoera hobea **lortuko du**, eta gizarte-babes zabalagoa.

1.2.2. *Ez... ez... / ez... ez eta... (ere)*

Ohikoak ditugu egitura banakari hauek, baiezka nahiz ezezka (EGLU-IV, 73. or.; *Euskal estilo libururantz*³, 61 or.):

<i>bai... bai...</i>	<i>ez... ez...</i>
<i>bai... eta bai...</i>	<i>ez... eta ez...</i>
<i>bai... bai eta... ere (baita... ere)</i>	<i>ez... ez eta... ere (ezta... ere)</i>

Hutsegite hau ikusten da han-hemenka *bai eta* nahiz *ez eta* erabiltzean: *ere* ez eranstea. Adibide honetako (b) aukeran ageri da huts hori, berezko (a) eta (c) moduak nahastearen ondorio-edo.

- (24) a. Ez du zerikusirik, **ez** itxuran, **ez** edukian.
b. *Ez du zerikusirik, **ez** itxuran, **ezta** edukian.
c. Ez du zerikusirik, **ez** itxuran, **ez eta** edukian **ere**.
- (25) a. Ordu kopuru hori betetzen ez dutenei **ez** zaie **ez** ziurtagiririk **ez** titulurik emango.
b. *Ordu kopuru hori betetzen ez dutenei **ez** zaie **ez** ziurtagiririk **ezta** titulurik emango.

³ALBERDI, Xabier; SARASOLA, Ibon: *Euskal estilo libururantz*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2001.

- c. Ordu kopuru hori betetzen ez dutenei ez zaie ziurtagiririk emango, ez eta titulurik ere.

Puntuazioari dagokionez, *ez... ez...* segidak komekin mugatu ohi dira. Hala ere, zenbait egitura lotuk etenik gabeko segida eskatzen du (ikus, adibidez, 25. adibideko (a) kasua).

- (26) Ez hotz ez bero utzi ninduela, horixe zen, ordea, nik Coppolaren filmaz gogoratzen nuen gauza ia bakarra.
- (27) Hotz-beroa ez hotz ez bero zen.
- (28) Aurkezpena ez zen ez politikaririk ez idazlerik azaldu.

1.2.3. *Edo/ala* galderetan

Juntagailu hautakarietan, *edo* da zabalena, eta beti da zilegi. *Ala* markatuagoa da, eta galderetan erabiltzen da hautakari-balioarekin (galdera zuzenetan nahiz zehar-galderetan). Baiezko perpausetan, beste balio bat izaten du *ala* juntagailuak, hurrengo puntuan ikusiko dugunez.

Galderetan, *ala* da hobestekoa elkar baztertzen duten aukerak adierazteko, *edo* zilegi izanik ere (*Gramatika bideetan*⁴, 215. or.):

- (29) Zein nahi duzu: hau *ala* hori?
- (30) a. Bazatoz, *ala* hemen geldituko zara?
b. Bazatoz? *Ala* hemen geldituko zara?
- (31) Onura *ala* kaltea ekarriko du horrek?
- (32) Ez dakit hori ona *ala* txarra den.

1.2.4. *Edo/ala* galderetatik kanpo

Galdera eta zehar-galderetatik kanpo, bi kasutan agertzen da *ala* (Alberdi eta Sarasola⁵, 104):

—Ipar-ekialdeko euskalkietan, *zein* esanahiarekin (orobatasuna adieraziz):

- (33) Mozkortzea orori gerta dakiguke: aberats *ala* pobre; lanetik *edo* lanik gabe bizi.

⁴ GOENAGA, Patxi: *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia, 1980.

⁵ *Op. cit.*

—Hautakari gisa, *edo* ere zilegi den tokian, aukerak areago markatzeko (funtsean zehar-galdera modukoak direla esan daiteke):

- (34) a. Zeuk ikusi izena hatxerekin jarri *edo* hatxerik gabe.
b. Zeuk ikusi izena hatxerekin jarri *ala* hatxerik gabe.

- (35) a. Izan *edo* ez izan: horixe da kontua.
b. Izan *ala* ez izan: horixe da kontua.

Ez da egoki *ala* erabiltzea honelakoetan:

—Bi perpausetan *edo* agertzen den egitura honetan:

- (36) *Edo* denok elkartzen gara, *edo* hemen ez dago zer eginik.

—Berez elkarren kontrako izanagatik ere, egiazki aukera adierazten ez duten hauetan:

- (37) Hil *edo* biziko auzia dugu hau.
(38) Goiz *edo* berandu, ikasiko du.
(39) Lehentxeago *edo* geroxeago, etorriko da.
(40) Testu motaren arabera, modu batera *edo* bestera agertzen dira ezau-garriok.

1.2.5. Hautakaria ez baizik eta emendiozkoa eskatzen dutenak

Emendiozko juntagailua erabili beharreko perpausetan hautakaria erabiltzen da inoiz. Okerrak dira halakoak, *ala* erabili zein *edo* erabili:

- (41) a. *Ez *da* gauza bera «hogei ber bi» *ala* «hogei bider bi».
b. Ez *dira* gauza bera «hogei ber bi» *eta* «hogei bider bi».
(42) a. *Han ziren Agirre, Arangoa *edo* Arrieta *bezalako* idazle ezagunak.
b. Han ziren zenbait idazle ezagun, hala nola Agirre, Arangoa *eta* Arrieta.

Ikus 1.3.4.13 puntua ere: «Adibideak aurkezteko, ez erabili *bezalako*».

1.2.6. *Nabiz* eta *zein*

EGLUk juntagailu hautakarien artean sartzten ditu *nabiz* eta *zein* (EGLU-IV, 119. or.; hemen ez gara *nabiz* menderagailuaz ari, jakina). Horretaz gainera, «balio banakaria» ere aitortzen die (EGLU-IV, 176. or.); bereziki, juntagai bakoitzaren aurrean errepikaturik agertzen

direnean. Orduan, *dela... dela...*, *bai... bai...* eta antzeko formulen pareko dira *nabiz... nabiz...* eta *zein... zein...*

Hala... nola... edo nola... hala... korrelazioa izan ezik, errepikapenezkoak dira beste egiturak (*bai... bai...*, *nabiz... nabiz...*; *zein... zein...*).

- (43) a. ▼**bai** kontratupekoiei **zein** funtzionarioei
- b. kontratupekoiei **zein** funtzionarioei
- c. **bai** kontratupekoiei, **bai** funtzionarioei
- (44) a. ▼Asko erabiltzen da egitura hori, **bai** ahoz **zein** idatziz.
- b. Asko erabiltzen da egitura hori, **bai** ahoz, **bai** idatziz.
- c. Asko erabiltzen da egitura hori, ahoz **zein** idatziz.
- d. Asko erabiltzen da egitura hori, ahoz **nahiz** idatziz.

Juntagai biek in joan daitezke *nabiz* eta *zein*, edo tartean bakarrik. Biek in doanean, juntagai bakoitzeko, koma bat erabiltzea dagokio.

- e. Asko erabiltzen da egitura hori, **zein** ahoz, **zein** idatziz.
- f. Asko erabiltzen da egitura hori, **nahiz** ahoz, **nahiz** idatziz.

Beste esanahi batekin ere erabiltzen da *zein... zein...* korrelazio-egitura: *batzuk... besteak...* esanahiarekin, alegia.

- (45) Denok gara horren errudun, **zein** gehiago, **zein** gutxiago.

Korrelaziorik ez da hausten, jakina, *nola... hala...* edo *hala... nola* esapidearen kasuan. Egitura hori konparaziozkoa da jatorrian, baina emendioa edo orobatasuna adierazteko ere erabiltzen da:

- (46) Egin bedi zure nahia, **nola** zeruan **hala** lurrean.
- (47) **Nola** bata **hala** besteak, biek ekartzen dituzte opariak eta jostailuak.
- (48) Bazuen gatza, **hala** ahoz **nola** idatziz, genero hori lantzeko.

Halakoetan, tarteko komarik gabe utz litezke bi elementuak (konparaziozkoetan, berriz, jartzea da gomendioa).

Aparteko sail batekoa dugu adibideei sarrera ematen dien *hala nola* hau (ikus 1.3.4.13):

- (49) Han eta hemen badira mendi-gailur batzuk, **hala nola** Gunnbjorn Fjeld izenekoa, 3.700 metrora in igotzen dena.

Ohar bat egin behar da azken erabilera horretaz ere: ez da egoki gaztelaniazko «así como» emendiozkoa itzultzeko, eta kalko okertzat hartu behar dira honelakoak:

- (50) a. *Han ziren Urlia eta Sandia, hala nola Berendia.
- b. Han ziren Urlia eta Sandia, bai eta Berendia ere.

1.3. Menderagailuen inguruko zenbait zalantza

1.3.1. Perpaus osagarriak

1.3.1.1. *-(e)la* eta *-(e)na*

Adierazpen-perpausetako menderagailu ohikoena, *-(e)la*, bestelako perpaus menderatu batzuetan ere agertzen da (denborazkoak, moduzkoak...).

a) Egokiak dira «Lehen aldia da etorri dela» erako perpausak (EGLU-V, 50. or.), nahiz eta zenbaitetan zuzendu izan diren, erlatiboa bakarrik zelakoan zilegi («Lehen aldia da etorri dena»). Beste hurrenkeran, jakina, erlatiboa bakarrik egin daiteke («Etortzen den lehen aldia da»).

- (51) Lehen aldia da hori esaten dizudala.
- (52) Bigarren aldia zen zutaz lotsatzen nintzela.
- (53) Lehenengo aldia da itsasontzian ibiltzen naizela.

b) Denbora-tartea adierazten duen *-(e)la* hau ere egokia da (Alberdi eta Sarasola, 171):

- (54) Badira bi urte zigarrorik erre ez dudala.
- (55) Mendeak dira euskaldunak hara joaten hasi zirela.

c) Aldiz, guztiz okerra da honelako erlatiboetan *-(e)la* erabiltzea:

- (56) a. *Badu lagun bat igeltseroa dela.
- b. Badu lagun bat igeltseroa dena⁶.

⁶ Esaldi hori egokia da aurrekaria absolutiboan doanean, harekin komunztadura eginez. Kasu horretatik kanpo, ordea, ez dago halakorik egiterik.

- c. Badu lagun bat **igeltseroa**.
- d. Badu lagun **igeltsero** bat.

Orobat da okerra honako perpaus hau:

- (57) a. *Donostiako Zinemaldian izan naiz, **dela munduko garrantzitsuena**.

Erlatibo gisa eman nahi bada, ez dagokio *-(e)la* menderagailua. Horrez gainera, erosoago dator aposizio-egitura, baina komunztadura gordez:

- b. ▼Donostiako Zinemaldian izan naiz, **munduko garrantzitsuena**.
- c. Donostiako Zinemaldian izan naiz, **munduko garrantzitsuenean**.
- d. Donostiako Zinemaldian izan naiz, **munduko garrantzitsuena den horretan**.

Erabil daiteke *bait*- erlatiboa ere, ipar-ekialdean aski ohikoa (EGLU-V, 240.-247. eta 268. orrialdeak). Halako *bait*- erlatiboek anbiguotasun-puntu bat izaten dute batzuetan, kausa-zentzua ere har dakiekeenez.

- e. Donostiako Zinemaldian izan naiz, **munduko garrantzitsuena baita**.

Erlatibo esplikatzaileen erabilerari buruz, ikus *Kalko okerrak* liburukia ere (84.-86. orrialdeak).

d) Honako *-(e)la* hau erdararen kalko nabarmena da:

- (58) a. *Kontuz, **bero(a) dagoela!**
 b. Kontuz, **bero(a) dago (eta)!**

1.3.1.2. *-(e)laren, *-(e)naren → -(e)lako, -(e)n

Perpaus osagarri izenlagunetan *-(e)n* eta *-(e)lako* dira lotura egokiak, eta ez *-(e)naren eta *-(e)laren. Halaxe dio Euskaltzaindiaren 116. arauak («-eLAKO eta -eN atzizkiak izenak gobernatu-eriko perpaus osagarrietan»). Bien arteko aukerari buruz, *-(e)lako* atzizkia euskalki guztietan erabili izan dela dio, eta *-(e)n* atzizkiaren erabilera gehienbat mendebaldeko euskalkietakoa eta berriagoa dela.

- (59) a. *Datorren urtean **ezkonduko zarelaren zurrumurrua** hedatu da.
 b. Datorren urtean **ezkonduko zarelako zurrumurrua** hedatu da.
 c. Datorren urtean **ezkonduko zaren zurrumurrua** hedatu da.
- (60) a. *Gauzak hobetzen **ari direnaren seinale** da hori.
 b. *Gauzak hobetzen **ari direlaren seinale** da hori.

- c. Gauzak hobetzen **ari direlako** seinale da hori.
- d. Gauzak hobetzen **ari diren** seinale da hori.

Arauan izen hauek ageri dira perpaus osagarri izenlagunak hartzen dituztenen adibide: *aitzakia, albiste, berri, damu, esperantza, froga, hitz, iritzi, irudipen, itxaropen, itxura, kezka, konfiantza, kontu, marka, promesa, seinale, sentimendu, susmo, uste, zantzu, zurrumurru...*

Izenari perpaus osagarria *-(e)n* bidez lotzen zaion kasuren batean, perpaus hori erlatibotzat ulertzeko modukoa izaten da. Anbiguotasun hori saihesteko, *-(e)lako* erabil daiteke (osagarrian beste sintagmaren bat agertzeak ere desegiten du anbiguotasuna).

- (61) a. Zabaldu duten zurrumurruak kalte egin digu⁷.
- b. Zabaldu dutelako zurrumurruak kalte egin digu.
- c. Epea zabaldu duten zurrumurruak kalte egin digu.
- d. Epea zabaldu dutelako zurrumurruak kalte egin digu.

Inoiz, *-(e)lako* + *izena* egiturako izena isildu eta *-(e)lako* erabiltzen da; bai eta *-a* artikulua horren ordez erakuslea eman ere (EGLU-V, 149. or.).

- (62) Egia da Maite eta Koldo **banandu direlako**?
- (63) Eskaintzaren on-gaitzak aztertzen **ari nintzelako** egin nuen.
- (64) **Ezin izan zuelako hori** ez du inork sinetsi.

1.3.1.3. **(e)laz*, **(e)naz*

Perpaus osagarriaren *-(e)la* menderagailuari eta zehar-galderaren *-(e)n* menderagailuari ezin zaie atzizkirik erantsi.⁸ Alegia, adierazpen-perpaus osagarriak eta zehar-galderak ez dira deklinatzen, izen-sintagmei bakarrik eransten baitzaizkie kasu-markak (EGLU-V, 58. eta 94. or.). Behin baino gehiagotan egiten da huts hori *ohartu, konturatu, jabetu* eta kideko aditzen osagarriekin: «zerbaitetaz ohartu» esaten da, baina okerrak dira «*falta zelaz ohartu» modukoak:

⁷ Batetik, erlatibotzat har dezakegu *zabaldu duten*, eta, bestetik, *zurrumurru* izenaren osagarritzat. Bigarren modu horretan bakarrik har daiteke (61b), *-(e)lako* loturagatik. Anbiguotasunik ez dago (61c) aukeran ere, *epea* hitza agertzean ez baitago perpausa erlatibotzat hartzerik.

⁸ Izenlagunak egiteko erabili ohi den *-ko* izan ezik (ikus aurreko puntua, 1.3.1.2).

- (65) a. *Norbait **falta zelaz** ohartu zen.
 b. Norbait **falta zela** ohartu zen.
 c. Ohartu zen norbait **falta zela**.
- (66) a. *Konturatu behar genuke (**zer**) **galtzen ari garenaz**.
 b. Konturatu/jabetu behar genuke **zer ari garen galtzen**.

1.3.1.4. *-(e)la/-(e)nik*

Adierazpen-perpauk osagarrian *-(e)la* ez ezik *-(e)nik* menderagailua ere erabil daiteke ezezkako perpauk nagusi batzuekin. EGLU-Vek dioenez (69.-76. or.), Hegoaldekoa da *-(e)nik* hori, eta azken mendeetakoa.

- (67) **Hil denik** ez dut behintzat entzun.

EGLUren arabera, predikatu motak agintzen du zein den erabili beharreko menderagailua. Ustea edo iritzia adierazten duten predikatuek (*uste izan, pentsatu, iritzi, iruditu, eman, gogoak eman...*), ezezka, *-(e)nik* menderagailua hartzen dute erabilera horretan⁹.

- (68) Ez du ematen **ezer dakitenik**.
 (69) Ez zait iruditzen **hori egin behar dugunik**.

Ahaztu, duda egin, duda izan, egia izan erako predikatuek, berriz, *-(e)la* osagarria izaten dute normalean:

- (70) Ez zait ahaztu **bilera dugula**.
 (71) Ez da dudarik **etorriko dela**.
 (72) Ez da egia lagunak **zain daudela**.

Eta beste zenbait predikatuk, azkenik —*esan, entzun, ikusi, jakin...*—, menderagailu bat zein bestea onartzen dute, eta esanahian bada ñabardura bat¹⁰.

- (73) a. Ez dute esan **Mikel etortzekoa denik**.
 b. Ez dute esan **Mikel etortzekoa dela**.

⁹ Galdera baldin bada, ordea, *-(e)la* erabiltzen da (EGLU-V, 72. or.): «Ez zaizu iruditzen berandu dela?».

¹⁰ EGLU-V liburukian ematen da bereizkuntza horren berri (73.-76. or.), horretarako zailtasunak aitorturik ere. Funtsean, badirudi ezeztapenaren esparrutik kanpo gelditzen dela (73b) esaldian «Mikel etortzekoa dela» perpauk osagarria («haiek esan izana» predikatua ezeztatzen da, ez besterik); hartara, irekirik uzten da beste predikatu batzuetarako bidea (bestek esan izana, uste izatea, egia izatea...). Horregatik esaten da *-(e)la* perpauk presuposizioetarako esparrua libre uzten duela; egiaren presuposizioa adierazten duela esan izan da, baina «bestelako edozein presuposizio ere izan dezake hor leku» (EGLU-V, 76. or.).

Perpau nagusiak ezezkoa izan behar du, betiere, *-(e)nik* erabiltzeko osagarrian. Baiezkoetan, *-(e)la* bakarrik erabiltzen da¹¹. Beraz, ez da zuzena honako hau:

- (74) a. *Euskal nazioaren funtsa euskara denik gutxitan jartzen da zalantzan.
- b. Euskal nazioaren funtsa euskara dela gutxitan jartzen da zalantzan.
- c. Gutxitan jartzen da zalantzan euskara dela euskal nazioaren funtsa.

1.3.1.5. Aditz-izena eta *-(e)la*: «egitea» eta «egin(go) duela», «egin daitezela»

Predikatu batzuek bitara onartzen dituzte perpau osagarriak: modu jokatuan («egin duela», «egingo duela», «egin daitezela...») eta jokatu gabean («egitea», «egiteko...»). Hori gertatzen da, adibidez, *erabaki* eta *agindu* aditzekin.

- (75) a. **Bihar egitea** erabaki du.
- b. **Bihar egingo duela** erabaki du.
- (76) a. **Etxean gelditzeko agindu** ('manatu') zion.
- b. **Etxean geldi zedila agindu** ('manatu') zion.
- (77) a. **Beti han bizitzea agindu** ('promes egin') zion.
- b. **Beti han biziko zela agindu** ('promes egin') zion.

Antzera gertatzen da *espero izan* predikatuarekin ere (nahiz erabilera berri samarra izan). Zenbaitetan aditz-izenezko perpau bat izaten da *espero izan* predikatuaren osagarri, baina *-(e)la* duen perpau osagarri bat ere izan daiteke.

- (78) a. Denek espero zuten noizbait **txapeldun izatea**. (anbigua)
- b. Denek espero zuten noizbait **txapeldun izango zela**¹².

¹¹ Gaur egun, baiezko perpausetan, *ukatu* aditzarekin ere erabiltzen dute zenbaitek *-(e)nik* osagarria: «Ukatu egin du hori esan zuenik». Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak 1994an aurkeztutako lan batean, «bultzatu behar ez litzatekeen jokabidea» dela dio (*Euskera* aldizkaria, 39. liburukia, 960.-961. or.), eta *-(e)la* arruntari eustea gomendatzen dugu: «Ukatu egin du hori esan zuela» (edo «Ukatu egin du hori esan izana»).

¹² *Espero izan* predikatuaz, esan beharra dago ez dela egokiena desira adierazteko eta zerbait opa izateko, hor baititugu horretarako «*-ko ahal*», «*ea -(e)n*» eta subjuntiboa (zenbait kasutan).

- a. #Espero dugu/dezagun asmatzea.
- b. #Espero dugu asmatuko duela/duzula...
- c. *Espero dezagun asmatuko duela/duzula...
- d. Asmatuko ahal du/duzu!

1.3.1.6. *-(e)la* osagarriak *izan* aditzarekin

Izan aditza tartean duten perpaus kopulatiboetan ere osagarri jokatua agertzen da zenbaitetan. Esate baterako, honelako itzulietan:

(79) **Kontua da** aberastu egin dela.

(80) **Gertatzen dena da** gutxi irakurtzen dela.

(81) **Nik entzun dudana da** tren hau Orion gelditzen dela.

Bestelako batzuetan, ordea, arrotz gertatzen da *-(e)la* perpaus bat *izan* aditzaren osagarri, eta egokiago gertatzen dira *-t(z)ea*, *-tu izana...*

(82) a. *Azken aldaketa egoitza **berria zabaldu dutela da**.

b. **Egoitza berria zabaltzea** (*izan*) da azken aldaketa.

(83) a. ▼Haren kezka **gaizki jokatu duela da**.

b. ▼**Gaizki jokatu duela** da haren kezka.

c. ?Haren kezka da(:) **gaizki jokatu duela**.

d. Haren kezka zera da: **gaizki jokatu duela**.

e. **Gaizki jokatu izana** da haren kezka.

f. **Gaizki jokatu izana** du kezka.

g. **Gaizki jokatu izanaren** kezka du.

h. **Gaizki jokatu duelako** kezka du.

(84) a. ▼Ondorioa **bietara egin daitekeela da**.

b. ▼**Bietara egin daitekeela** da ondorioa.

c. ?Ondorioa da(:) **bietara egin daitekeela**.

d. Ondorioa zera da: **bietara egin daitekeela**.

e. **Bietara egin daitekeela** ondorioztatu dute/da/dugu...

(85) a. ▼Hipotesietariko bat **hilketa izan dela da**.

b. ▼**Hilketa izan dela** da hipotesietariko bat.

c. ?Hipotesietariko bat da(:) **hilketa izan dela**.

d. Hipotesietariko bat **zera da: hilketa izan dela**.

e. Hipotesietariko bat **zera da: hilketa izatea**.

f. **Hilketa izatea** da hipotesietariko bat.

g. **Hilketa** da hipotesietariko bat.

h. Hipotesietariko bat **hilketa da**.

e. Ea asmatzen duen/duzun!

f. Asma dezazula!

Besterik dira «susmoa izan», «irudipena izan», «esperantza izan» eta halako predikatuak; halakoetan, berezkoa da *-(e)la* erabiltzea:

(86) Susmoa dut gaizki jokatu duela.

(87) Irudipena dut bietara egin daitekeela.

1.3.1.7. *Delako(a), direlako(ak)*

Euskarak oraindik beretu ez dituen hitzen ondoan, *delakoa* makulua erabiltzen da zenbaitetan, 'izenekoa, deritzona, esaten zaiona...' adierazteko.

(88) Hitzetik hortzera dabil gaur egun wifi delakoa.

Beste batzuetan, hitz bat bere hartan hartu dela adierazteko baliatzen da *delako* (edo *direlako*, hala badagokio), erakuslearekin batera sarritan:

(89) Erfjord-ek iradoki du «*laido*» *direlako horiek* (zeinak grekozko kodize batean gorderik baitaude) ebanjelio galduak direla.

1.3.1.8. «Eskerrak... *-(e)la*», «eskerrak...*-(e)n*»...

«Eskerrak» predikatuak *-(e)n*, *-(e)la*, *-(e)nik* eta *-(e)nari* osagarriak hartzen ditu kasuan kasuko hizkeran (EGLU-V, 56. eta 76. orriak). «Beharrik» predikatuak, berriz, *bait-* eta *-(e)n*. Aniztasun horretatik bat aukeratu behar eta, *-(e)n* hobesten dugu.

(90) a. Eskerrak etorri den.

b. Beharrik etorri den.

1.3.2. Zehar-galderak

1.3.2.1. *Ote*

Zalantza adierazten du *ote* partikula modalak. EGLU-IIk dioenez (515. or.), «gogoeta moduko bat eransten dio galderari *ote* partikulak, berarekin zalantza, susmoa edo horren antzeko zerbait daramana»; partikula horren egitekoa «ez da galdera markatzea», baizik eta «galderari zalantza-kutsu hori eranstea».

(91) Garaiz ailegatu ote da?

(92) Aski izango ote ditugu bi ogi?

Halako galderetako zenbait erretorikoak izaten dira, erantzunik espero ez dutenak edo begi-bistako erantzuna dutenak.

(93) Zergatik *ote* naiz honen tontoa?

(94) Asko *ote* da urtean liburu bat irakurtzea?

Perpaua ezezka ematen denean, hain zuzen ere, baiezko erantzuna iradoki ohi da. Hona hemen esaldi bera baiezka eta ezezka:

(95) Albisteak zientziarekin zerikusia duelako *ote* da? (zalantza)

(96) Ez *ote* da albisteak zientziarekin zerikusia duelako? (baiezko erantzunaren aurreikuspena)

Harridura, enfasia eta ironia ere adieraz daitezke *ote* erabilita (EGLU-II, 516. or.):

(97) Beti horrela ibili behar *ote* dugu, bada?

(98) Zenbat bertso ez *ote* zituen jarri Basarrik!

(99) Egia *ote* da, bada! ('Horixe egia dela!')

(100) Isilduko *ote* da noizbait...

Predikatu batzuekin, *-(e)la* perpau baten tokian joan daiteke *ote ...-(e)n* (ikus EGLU-V, 83. eta 106.-107. orriak):

(101) Bera *ote* den nago.

(102) Iruditu zait sartu *ote* den.

(103) Entzun dut *nor*bait atxilotu *ote* duten edo.

(104) Oker *ote* dabilen susmoa dut.

Aditza isilduta ere erabiltzen da *ote*.

(105) Nekaturik *ote*?

Aditza isilduta ere, *ba-* agertuko da baietza bada galdegai («Ba *ote*?» galdera soila ere egiten da):

(106) a. *Itxaropenik *ote*?

b. Itxaropenik **ba** *ote*?

c. **Ba** *ote* itxaropenik?

Informazio eskeko galdera zuzena egiten denean, hala nola matematikako kalkulu-problemetan, ez da egoki *ote* erabiltzea:

- (107) a. #Kutxa bakoitzean, 10 ontzi sartzen dira. Zenbat sartuko ote dira 35 kutxatan?
 b. Kutxa bakoitzean, 10 ontzi sartzen dira. Zenbat sartuko dira 35 kutxatan?

1.3.2.2. «Noiz den» eta «zer den»

Zehazki denbora adierazten ez duten perpaus batzuetan ere erabiltzen du zenbaitek *noiz* galdetzailea.

- (108) Esan ezazu **noiz diren** bi zuzen elkarren perpendikular. ('noiz esaten den ... direla')
- (109) Badakit **noiz den** poliedro bat piramide(a).
- (110) Ordenantzak zehazten du **noiz den nahitaezkoa** euskaraz jakitea lanpostu bakoitzean jarduteko.

Egokiagotzat jotzen ditugu, aukeran, honelakoak:

- (108) —Esan ezazu **zer baldintza bete behar dituzten** bi zuzenek elkarren perpendikular izateko.
 —Esan ezazu **zer ezaugarri dituzten** zuzen perpendikularrek.
 —Esan ezazu **zer diren** zuzen perpendikularrak.
- (109) —Badakit **zer poliedro den** piramidea.
 —Badakit **piramidea nolako poliedroa den**.
 —Badakit **zer eratako poliedroa den** piramidea.
 —Badakit **zer baldintza bete behar dituen** poliedro batek piramidea izateko.
- (110) —Ordenantzak zehazten du **zer kasutan den nahitaezkoa** euskaraz jakitea lanpostu batean jarduteko.
 —Ordenantzak zehazten du **zer lanpostutan jarduteko den nahitaezkoa** euskaraz jakitea.

Okerrik ere aurkitu daiteke halako esaldi batzuetan. Honako honetan, adibidez: *noiz* eta *ala* ezin dira batera joan zehar-galderan:¹³

- (111) a. *Badakit azaltzen **angelu bat zorrotza, kamutsa ala laua noiz den**.
 b. Badakit esaten **angelu bat zorrotza, kamutsa ala laua den**.
 c. Badakit azaltzen **zer diren angelu zorrotza, angelu kamutsa eta angelu laua**.

¹³ Ikus ALBERDI, Andres: *Oinarrizko Gramatika*, Elkar, Donostia, 2008 (84. or.).

1.3.2.3. *-(e)n* ezin deklinatu

Zehar-galderak ezin dira deklinatu (ikus, besteak beste, EGLU-V, 94. or., eta liburuki honetako 1.3.1.3 puntua). Beraz, okerrak dira honelako perpausak:

- (112) a. *Erromantzea **nongoa denari** begiratzen dio.
b. Kontuan hartzen du erromantzea **nongoa den**.
- (113) a. *Nora **joango denik** ez diezazuket esan.
b. **Nora joango den**, ez diezazuket esan.
c. Ez diezazuket esan **nora joango den**.

Partitiboaren kasuan, okerra da, beraz, *-(e)n* menderagailuari *-(r)ik* atzizkia erantsi eta (113a) gisako perpausak egitea:

- (114) a. #Ez nekien **etorriko zinenik**.¹⁴
b. Ez nekien **etorriko zinen**.
c. Ez nekien **etorriko zinenetz**.
d. Ez nekien **etorriko zinen ala ez**.

1.3.2.4. *-(e)netz*

Ekialdeko euskalkietan, *-(e)n ala ez* zehar-galderaren baliokide da *-(e)netz*. Euskara baturako, baztertu egin da *-(e)netz* aldaera (Euskaltzaindiaren 115. araua).

- (115) Esan perpausok **zuzenak direnetz**.

1.3.2.5. «Ea... *-(e)n*», «ba... *ere*»

Zenbaitetan zehar-galderaren forma hartzen duen esaldi honek bestelako adierazpideak ere baditu. Esate baterako, kontzesio-perpausaren forma duen (b) aukera (ikus EGLU-VI, 263. orrialdea):

- (116) a. Etxera inguratuko natzaio, **ea zerbait behar duen**.
b. Etxera inguratuko natzaio, **zerbait behar badu ere**.

Halakoetan, alegiazko forman ere ager daiteke aditza (*balu, balitz...*):

- (117) a. Ahalik eta egoerarik hoberenean eraman behar da atal erauzia erietxera, **ea berriro jartzea posible den**.

¹⁴ Okerra da esaldi hori (b), (c) eta (d) aukeren ordez erabiltzeko. Zuzena litzateke «Ez nekien etorriko zinema» esaldiaren esanahi bertsukoa balitz.

- b. Ahalik eta egoerarik hoberenean eraman behar da atal erauzia erietxera, **berriro jartzea posible balitz ere**.

1.3.3. Perpaus erlatiboak

1.3.3.1. Izen ardatzaren ondotik doazenak

Perpaus erlatiboak izen ardatzaren aurretik ematen dira ohiko moduan —erlatibo arrunt esango diegu—, baina eman daitezke izen ardatzaren ondotik ere —apozizioko erlatibo gibeleratu¹⁵ esaten zaie EGLU-V liburuan (214. or.)—.

- (118) a. Bila ezazue **haurren artean arrakasta handia izan duen liburu bat**.
b. Bila ezazue liburu bat, **haurren artean arrakasta handia izan duena**¹⁶.

Izen ardatza aurretik emate hori —(b) moldea— lagungarri izan daiteke perpausa errazago ulertzeko; erlatiboa luzea denean, batez ere.

- (119) Urte berean —1596an, alegia— agertu zen Iruñean beste liburu bat, **euskararentzat balio handiena duena**.
- (120) Ezagutzen dut emakume bat, **bere alaben liburuak irakurriz literaturari afizioa hartu diona**.
- (121) Ezagutu dut jendea, **egunero bere bizitzari edertasun-gradu bat gehitzen saiatzen zena**.
- (122) Ez dakit herrerik izango den munduan, **bertako hizkuntza baliatu nahian ibili eta bertako literatura zaharrari euskaldunok baino jaramon gutxiago egin dionik**.

¹⁵ Molderik arruntenez ari gara hemen. Bada beste erlatibo bat ere izen ardatzaren eskuinetik doana, baina ez apoziziozko deritzon modu horretan, baizik eta izenondo bat balitz bezala, determinatzailearik gabeko izenari zuzenean erantsirik. Gure adibidearen kasuan, hauxe litzateke: «Bila ezazue liburu *haurren artean arrakasta handia izan duen bat*». Gaur egungo testuetan ez dugu hainbeste ikusten molde hori, baina tradizioan aski erabilia izan da (ikus adibideak EGLU-V liburukiko 178.-180. orrialdeetan).

¹⁶ Koma jar daiteke, adibide horretan jarri dugun bezala, izenaren eta haren eskuinean doan erlatiboaren artean; esaldi luzeetan, batik bat (120, 121, 122...).

Joskera horretan, dagokion izen ardatzarekiko komuntadura gordetzen du perpaus erlatiboak: izena kasu absolutiboan izaten da (*nor-zer*), eta erlatiboak *-(e)na* forma hartzen du. Izena, bestalde, ez da zentzuz guztiz espezifikotzat hartzekoa izaten; haren determinatzailea, gehienetan, *bat/batzuk*, *-a* generikoa, zenbaki bat (mugagabea) edo *hainbat*, *asko*, *gutxi* eta gisako zenbatzaile zehaztugabe bat izaten da (ikus *Kalko okerrak* liburukia, 84.-86. orrialdeak). Izen ardatza partitiboan ere ager daiteke (perpaus nagusia ezezkakoa bada, beti), eta orduan *-(e)nik* forma hartzen du erlatiboak (122, 126 eta 127 adibideak). Puntuazioari dagokionez, perpaus nagusiaren eta erlatiboaren artean koma jar daiteke, luzeraren eta muga markatzeko premiaren arabera.

- (123) Ezagutzen dut **lagun bat**, irakurritako liburu guztiak besteri uzten dizkiona.
- (124) Ikusi ditut **film asko**, hasi orduko aretotik ateratzeko gogoia eman didatenak.
- (125) Etorriko da **eguna(,)** denok ere batera jokatuko duguna.
- (126) Ez dago **irakurlerik** hori ulertuko duenik.
- (127) Bada **libururik** gai hori argitzen duenik.

1.3.3.2. Alferrikako erlatiboak saihestu

Galdegaia seinalatzeko erlatiboazko itzulietara jotzeko joera indartu da erabilera batzuetan, eta horri buruzko ohartarazpena egina dago estilo-liburuetan¹⁷. Hitz-ordenaren ohiko jokia lehenesten dugu ikasmaterialetan ere, oro har, galdegaia seinalatzeko:

- (128) a. ▼Hura izan da ekarri duena.
 b. **Hura** ekarri du. **Huraxe** ekarri du.
 c. **Hark** ekarri du. **Harexek** ekarri du.
- (129) a. ▼Ni izan naiz ekarri duena/dudana.
 b. **Nik** ekarri dut. **Neuk** ekarri dut.

¹⁷ Honela dio, adibidez, Xabier Alberdik (*Euskal estilo libururantz*, 212. or.): «'Gobernua da eztabaida piztu duena' tankerakoan ordez, hobe da galdegai-sistema arruntaz 'Gobernuak piztu du eztabaida' edo estilo zuzenaz baliatzea, galdegaia aditzaren aurreko lekuan jarritz».

Halako perpausetan, zenbat eta luzeago izan erlatiboa, orduan eta atzerago agertzen da aditza. Perpausa arinago gertatzen da, oro har, erlatiborik gabe, elementu nagusiak menderakuntzako egituran sartu gabe¹⁸.

- (130) a. Argazki haietariko batzuk dira orain Zarauzko erakusketan **jarri dituenak**.
b. Argazki haietariko batzuk **jarri ditu** orain Zarauzko erakusketan.
- (131) a. Konpainia batekin egindako telefono-deien kostuak **grafiko honek adierazten dituenak dira**.
b. Konpainia batekin egindako telefono-deien kostuak **adierazten ditu** grafiko honek.
c. Grafiko honek **adierazten ditu** konpainia batekin egindako telefono-deien kostuak.

Galderetan ere, aukeran, egokiago gertatzen da erlatiborik gabeko bidea, lehenago agertzen baita galderako gako-hitza:

- (132) a. ▼**Zein da Nerearen etxetik okindegira dagoen distantzia?**
b. **Zer distantzia dago** Nerearen etxetik okindegira?
c. **Zer bide dago** Nerearen etxetik okindegira?
d. **Zenbat (bide) dago** Nerearen etxetik okindegira?

Izenondoa perpaus erlatiboan eman beharrik ez da gehienetan:

- (133) a. ▼**Txikiak direnak**, haizeak eramanda, esparru handietan sakabanatzen dira.
b. **Txikiak**, haizeak eramanda, inguru zabalean hedatzen dira.
- (134) a. ▼**Badira gaitz batzuk(,) kutsagarriak direnak**.
b. **Badira gaitz (batzuk) kutsagarriak**.
c. **Gaitz batzuk kutsagarriak dira**.
- (135) a. ▼**Garestiak diren** banaketa-sareen bidez ekarri behar izaten da energia.
b. **Banaketa-sare garestiak** behar izaten dira energia ekartzeko.

¹⁸ Adibide adierazgarri hau ematen du Xabier Alberdik (212. or.): «DESEGOKIA (esaldi luzea). Gainerako partiduak PP konbentzitzen saiatuko dira, alderdi hau izan baita HBren eta EAJren arteko elkarriketak Ajuria Eneko Ituna bera kolokan jarri dutela kritikatu duena. EGOKIA. Gainerako partiduak PP konbentzitzen saiatu dira, alderdi honek kritikatu baititu HBren eta EAJren arteko elkarriketak, Ajuria Eneko Ituna bera kolokan jarri dutela esanez».

Perpaus erlatiboa beharrezko gerta daiteke, hori bai, izenondoak beste osagarri batzuk badaramatza berekin.

- (136) a. #Inork pentsa lezake **dirutan aberatsak** direla jakintsuenak.
b. Inork pentsa lezake **dirutan aberats(ak)** direnak direla jakintsuenak.
- (137) a. #Idatzi **zatiki bakoitzaren bi zatiki** baliokide.
b. Idatzi **zatiki bakoitzaren baliokide diren bi zatiki**.
- (138) a. #Lortu nahi duen helburua **lortzeko, euskara egokia** behar dugu¹⁹.
b. Lortu nahi duen helburua **lortzeko egokia den euskara** behar dugu.

Izenlagun batek adieraz badezake perpaus erlatiboaren esanahia, arinago gelditzen da esaldia.

- (139) a. Aintzat hartu behar dira **talde-dinamikatik sortzen diren** eraginak.
b. Aintzat hartu behar dira **talde-dinamikaren** eraginak.

Oro har horrela izateak ez du esan nahi debekatua dagoenik erlatiboa erabiltzea:

- (140) Hau da lehengoan gomendatu nizun liburua.

Halakoetara alferrik eta sarriegi jotzeari irizten diogu desegoki.

1.3.3.3. Erlatiboetako komunztadura-arazoak

Komunztadura okerrak ikusten dira testuetan, perpaus erlatiboetarako dagokienez, honelako ingurumarietan: *-t(z)en ari izan* esapidea (141. adibidea), *-eta(ri)ko bat* (142), *dagoki/dagokie* bereizketa (143), hitz-elkarketa (144. adibidea)...

- (141) a. ***ikasleek esaten ari zirena**
b. **ikasleak esaten ari zirena**
- (142) a. ***ezagutzen ditudan handienetariko bat**
b. **ezagutzen dudan handienetariko bat**
- (143) a. ***ikasleei dagokionez**
b. **ikasleei dagokienez**

¹⁹ Esaldi horrek ez du (b) esaldiaren esanahi bera. Egitura hau du: [Lortu nahi duen helburua lortzeko], [euskara egokia behar dugu]. Bestek, berriz, egitura hau du: [Lortu nahi duen helburua lortzeko egokia den euskara] [behar dugu].

- (144) a. *Kalkula ezazu hiru autok dituzten gurpil kopurua.
 b. ?Kalkula ezazu hiru autok duten gurpil kopurua. [?hiru autok zer gurpil kopuru duten].
 c. Kalkula ezazu hiru autok zenbat gurpil dituzten.²⁰

Komunztadura okerrerako bidea ematen dute, orobat, honelakoek:

- (145) a. *ekartzeko esan dizkidazun liburuak
 b. ekartzeko esan didazun liburuak
 (146) a. *konpontzerik ez daukazun gauzak
 b. konpontzerik ez daukazun gauzak

Erlatiboan sartutako perpausa zein den ikusi behar da:

(liburuak) ekartzeko esan didazu
 [(*liburuak*) ekartzeko esan didazu]n liburuak

1.3.3.4. Zehar-galdera behar lukeen tokian sartzen den erlatiboa

Zehar-galderaz emateko diren perpaus batzuetan, erlatibora jotzen da, inguruko erdaren eraginez. Zenbaitetan, esan nahi denaz bestelako zerbait esatea ere gerta daiteke. Adibidez, garbi ikusten da ez direla gauza bera «Esadazu nahi duzuna» eta «Esadazu zer nahi duzun», baina sarriegi aurkitzen ditugu lehenbizikoaren tankerakoak, bigarrena esan nahi delarik:

- (147) a. *Ez dago garbi egin behar duena.
 b. Ez dago garbi zer egin behar duen.
 (148) a. ▼Izendatu ornodunen taldekoak direnak.
 c. Adierazi zein diren ornodunen taldekoak.
 (149) a. ▼Idatzi ordu bakoitzean gosaltzen duen haur kopurua.
 b. Kalkulatu zenbat haurrek gosaltzen duen/duten ordu bakoitzean.
 (150) a. #Kontuz idazten duzunarekin.
 b. Kontuz zer idazten duzun.

Honako kasu honetan, zehar-galdera ez ezik, moldaketa handiagoa ere behar da:

²⁰ Adibide horretan eta antzekoetan, «zenbat zer dituzten» zehar-galdera da adierazpide egokiena (ikus 1.3.3.4 puntua). *Kopuru* hitza bera ezinbestean erabili beharra oso gutxitan gertatuko da. Honelako esaldi batean, apika: «Zer zenbakiren multiplo da hiru autok dituzten gurpilen kopurua?».

- (151) a. ▼Idatzi lasterkari bakoitza helmugara iristeko ordena adierazten duen zenbakia.
 b. ▼Idatzi lasterkari bakoitza helmugara zer ordenatan iritsi diren adierazten duen zenbakia.
 c. Esan zenbatgarren iritsi den helmugara lasterkari bakoitza.

1.3.3.5. *-(e)neko*

Tokia eta denbora adierazten duten erlatiboetan, *-(e)n* loturari *-ko* eransten zaio zenbaitetan. Anbiguotasunen bat saihesteko balio dezake horrek (152); bestela, ez da beharrezko (EGLU-V, 196. or.):

- (152) a. Ederrak izan ziren lagun atzerritarrak ezagutu zituen jai haiek.
 (lagun atzerritarrak jaiak ezagutu)
 b. Ederrak izan ziren lagun atzerritarrak ezagutu zitueneko jai haiek. (norbaitek lagun atzerritar batzuk ezagutu jaietan)
- (153) a. ▼Ondo miatu dute haurra galdu deneko ingurua.
 b. Ondo miatu dute haurra galdu den ingurua.
- (154) a. ▼Ez naiz gogoratzen semea jaio zeneko egunaz.
 b. Ez naiz gogoratzen semea jaio zen egunaz.

Tokia eta denbora adierazten duten erlatiboetatik kanpo, okerra da *-(e)n* erabili beharrean *-(e)neko* erabiltzea:

- (155) *Ez zuen ezagutu lurrean hilda zegoeneko gizona.

Beste batzuetan, izen baten aztarna dago *-(e)neko* loturan (*garai, une, denbora...*): «haurra zeneko» esatean, adibidez, «haurra zen garaiko» esaten ari gara. Halakoetan ez dago *-ko* kentzerik.

- (156) Asmatu eta idatzi ohar bat zure aitonari, gaztea zeneko argazki bat eskatzeko. ('gaztea zen garaiko')
- (157) Etorri berriaren aurpegitik ez da agurra egin dueneko irribarrea ezabatu. ('agurra egin duen uneko')

1.3.3.6. *Urtebetetze, urtemuga, urteurren eta mendeurren*

Gehienetan *-en* izenlaguna hartzen dute *urtemuga, urtebetetze, urteurren* eta *mendeurren* hitzek: «jaiotzaren urteurrena», «heriotzaren mendeurrena».... Perpaus bat dutenean osagarri, *-(e)n* eta *-(e)neko* loturak erabiltzen dira. *Orotariko Euskal Hiztegiko* bi adibideetan

-(e)n ageri da *urtemuga* hitzarekin, eta XX. Mendeko Euskararen Corpusean, berriz, -(e)neko (bestelako adibideak dira gehienak, iturri batean nahiz bestean; -(r)en genitiboa hartzen dutenak alegia).

- (158) La Bastille frantses lokabetuen eskuetan **erori zen urteurrenekoa**, uztail honen hamalaugarrena.
- (159) Astarloa **hil zen urteurrenean**, bagilaren 2an edo hurrengo domekan, [...] bigira bat egin.
- (160) Bertso hori, Miren Irurtiak egina, hantxe dago **erori zeneko mendeurrenean** plaka batean grabatua.
- (161) Pozik aurkezten dugu gaur egitasmo hori gauzatzen duen argitalpena, **frantziskotarrak Arantzazun gaudeneko 5. mendeurrena** ospatzen ari garela (1502-2002).

1.3.4. Konparazio-perpauusak

1.3.4.1. *Baino*

Konparazio-perpausetan, *baino* hitzak berekin dakar *-ago*. Ez dira gomendatzekoak honelako itzuliak (EGLU-V, 409. or.):

- (162) a. *Lagundu baino, kalte egiten du.

Baino erabiltzekotan, «baino gehiago» edo «baino areago» erabiltzea da egokiena (konparazio moduan aurkezteko), edo, bestela, hauetako bat (gauza bat ukatu eta bestea baieztatzeko):

- b. Lagundu barik, kalte egiten du.
- c. Lagundu beharrean, kalte egiten du.
- d. Lagundu ez, baizik (eta) kalte egiten du.
- e. Lagundu ordeztan, kalte egiten du.
- f. Laguntzeko ordeztan, kalte egiten du.
- g. Laguntzeko partez, kalte egiten du.

1.3.4.2. «Nor baino nor gehiago»

Beste esapide hau ere behin baino gehiagotan irakurtzen eta entzuten da *-ago* gabe, baina desagokitzat jotzen da (EGLU-V, 407. or.):

- (163) a. *Gogor ari dira biak, nor baino nor.
- b. Gogor ari dira biak, nor baino nor gehiago/indartsuago/bizkorrago.

1.3.4.3. «Baino gehiago» / «Zer beste(rik)»

Honako adibide honetan, ez dago konparaziorik, eta, beraz, ez dagokio *baino gehiago* erabiltzea. Falta den zerbaitetaz galdezka ari garenez, *zer beste(rik)* da erabiltzekoa.

- (164) a. *Esan marrazkikoak baino zer gauza gehiago behar den mendirako.
b. Esan zer beste(rik) behar den mendirako, marrazkiko gauzez gainera.
c. Esan beste zer behar den mendirako, marrazkiko gauzez gainera.
d. Esan, marrazkiko gauzez gainera, zer (beste/besterik) behar den mendirako.

1.3.4.4. «*Hori gutxi balitz» → «Hori gutxi balitz bezala»

Ez da egoki «Hori gutxi balitz bezala» esapideari *bezala* kentzea (EGLU-V, 371. or.). Osorik esan behar da, edo, bestela, «Hori nahikoa/aski ez dela» edo «Hori nahikoa/aski ez eta...» erabili.

- (165) a. *Berandu etorri da, eta, hori gutxi balitz, ahaztu egin zaio eskatutakoa ekartzea.
b. Berandu etorri da, eta, hori gutxi balitz bezala, ahaztu egin zaio eskatutakoa ekartzea.
c. Berandu etorri da, eta, hori nahikoa/aski ez dela, ahaztu egin zaio eskatutakoa ekartzea.
d. Berandu etorri da, eta, hori nahikoa/aski ez eta, ahaztu egin zaio eskatutakoa ekartzea.

1.3.4.5. *Bailitzan, bailitzen, bailiran, bailiren...*

Forma arazotsutzat jotzen ditu Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak *bailitzen (bailitzan), bailiren (bailiran), bailuen* eta kidekoak, eta tradizio urria dutela dio (EGLU-V, 371. orrialdea). Beraz, «balitz bezala» erakoak dira gomendatzekoak ikasliburuetarako.

- (166) a. ▼urrezkoa bailitzen/bailitzan
b. urrezkoa balitz bezala
(167) a. ▼ikusezinak bailiren/bailiran
b. ikusezinak balira bezala

1.3.4.6. *Zenbat eta...*, *orduan/hainbat eta...*

Korrelaziozko konparazio modu honetan, aurrekarian *zenbat eta* agertu behar du, eta ez *gero eta* (EGLU-V, 438. or.):

- (168) a. ***Gero eta** gehiago ikasi, nota hobeak aterako dituzu.
b. **Zenbat eta** gehiago ikasi, nota hobeak aterako dituzu.
c. **Zenbat eta** gehiago ikasi, **orduan eta** nota hobeak aterako dituzu.
d. **Zenbat eta** gehiago ikasi, **hainbat (eta)** nota hobeak aterako dituzu.

Bigarren partean ere ez da egoki *gero eta*. Forma egokiak *orduan eta*, *hainbat eta* dira; bestela, zuzenean erants daiteke bigarren partea, aurreko adibideko (b) aukeran bezala.

- (169) a. ***Zenbat eta** gehiago ikasi, **gero eta** nota hobeak aterako dituzu.
b. **Zenbat eta** gehiago ikasi, **orduan eta** nota hobeak aterako dituzu.
c. **Zenbat eta** gehiago ikasi, **hainbat (eta)** nota hobeak aterako dituzu.

Hauxe da, beraz, halako korrelazioen oinarrizko eskema (forma posible guztien berri izateko, ikus EGLU-V, 432.-438. orrialdeak):

zenbat eta ...-ago, (orduan eta) ...-ago
zenbat eta ...-ago, (hainbat eta) ...-ago

Ordenari dagokionez, toki batean baino gehiagotan joan daiteke mintzagaia (adibide honetan, *korrontea*). Egokiena *zenbat eta ...-ago* egituraren aurretik (b) edo ondotik (c) ematea da, ez tartean (a):

- (170) a. ▼**Zenbat eta korrontea azkarragoa izan**, orduan eta higitzeko ahalmen handiagoa.
b. **Korrontea zenbat eta azkarragoa izan**, orduan eta higitzeko ahalmen handiagoa.
c. **Zenbat eta azkarragoa izan korrontea**, orduan eta handiagoa higitzeko ahalmena.

Lehenbiziko partean ere isildu daiteke aditza:

- d. **Zenbat eta azkarragoa korrontea**, orduan eta handiagoa higitzeko ahalmena.

1.3.4.7. «Dutena baino» / «duten baino»

Ez da egoki *-a* mugatzailea sartzea honelako konparazio-perpauetan (ikus EGLU-V, 281. or.):

- (171) a. *Aldamenekoek uste dutena baino hobeto bizi gara.
b. Aldamenekoek uste duten baino hobeto bizi gara.

Konparazioaren erreferentzia aditzezko esapidea da halakoetan, eta ez *-a* artikulua dagokion izen bat (*uste duten baino, nahi dugun baino, esaten duten baino, dirudien baino...*). Forma artikuludunaren eta artikulurik gabearen arteko aldea ikus daiteke adibide honetan:

- (172) —Nolako autoa erosi duzu?
—Nahi nuena baino merkeagoa, nahi nuen baino garestiago.

Lehenbiziko parteko *nahi nuena* guztiz egoki da, artikuluekin, *zer* adierazten baitu: «nahi nuen autoa», «nahi nuena». Bigarren partean, berriz, *nola* adierazteko, *nahi nuen baino...* erabili da.

1.3.4.8. *Alferreko* *-(r)ik*

Absolutibo mugagabea ematekoa da zenbatasunezko konparazioan agertzen den izen-sintagma, eta ez partitiboan.

- (173) a. ▼Nik ez dut zuk adina buruhausterik izan.
b. Nik ez dut zuk adina buruhauste izan.

Partitiboa erabil daiteke, aldiz, *askori* erantsita («Ez zaio asko/askorik inporta»), eta *gehiagori* erantsita ere bai zenbaitetan:

- (174) a. Ez zaio asko inporta.
b. Ez zaio askorik inporta.
(175) Ez du deus gehiagorik galdetzen.

Partitiborik gabe erabiltzea dagokio *ezein* izenordainari ere:

- (176) a. ▼ezein irizpiderik aintzat hartu gabe
b. ezein irizpide aintzat hartu gabe
c. inolako irizpiderik aintzat hartu gabe
d. inongo irizpiderik aintzat hartu gabe
(177) a. ▼Ez dago beste ezein aukerarik.
b. Ez dago beste aukerarik.

1.3.4.9. *Beste* eta *adina* konparazio konplexuetan

Sintagma konplexua baldin bada konparazioaren oinarri, *beste* edo *adina* erabiltzea baino egokiago gertatzen da korrelaziozko egitura erabiltzea (*zenbat...*, *hainbeste...*):

- (178) a. ▼Kolorezta ezazu goiko irudiko marrazki berdin(ak) beste laukitxo.
b. ▼Kolorezta ezazu goiko irudiko marrazki berdin(ak) adina laukitxo.
c. Kolorezta ezazu goiko irudian marrazki berdin diren/dauden adina/ beste laukitxo.
d. Goiko irudian zenbat marrazki berdin diren/dauden, hainbeste laukitxo kolorezta ezazu.
e. Kolorezta itzazu laukitxoak: goiko irudian zenbat marrazki berdin (diren/dauden), hainbeste (laukitxo).

1.3.4.10. *Berdin*: «bestearen berdina», «bestearen ?desberdina»

Bi gauzaren berdintasuna adierazteko, «Hau eta bestea berdina dira» esaten dugu. Elementuetako bat hartzen dugunean mintzagai, «Hau bestea bezalakoa da» adierazpidea da ohikoena, baina erabiltzen da «Hau bestearen berdina da» ere. Ez da egoki, ordea, horren analogiaz *-(r)en desberdin* egitura erabiltzea, aukera egokiago asko baitago:

- (179) a. ▼Inguratu, ilara bakoitzean, ereduaren desberdina den elementua.
b. Inguratu, ilara bakoitzean, ereduaren aldean desberdina den elementua.
c. Inguratu, ilara bakoitzean, eredia bezalakoa ez den elementua.
d. Inguratu, ilara bakoitzean, eredia ez bezalakoa den elementua.
e. Inguratu, ilara bakoitzean, ereduaz bestelakoa den elementua.

Bortxatua gertatzen da *-(r)ekiko desberdin* egitura ere, eta arrunta-goetara jotzea da egokiena:

- (180) a. ▼Garapen afektiboa kognitiboarekiko desberdina da.
b. Garapen kognitiboa eta afektiboa desberdinak dira.
c. Garapen kognitiboa eta afektiboa bi gauza (desberdin) dira.
d. Bi gauza dira, aski bestelakoak, garapen kognitiboa eta garapen afektiboa.
e. Ez dira gauza bera garapen kognitiboa eta garapen afektiboa.

Okerra da *-(e)z desberdin*:

- (181) a. ***Zutaz** desberdina da / ***Hartzaz** desberdina da.
b. ▼**Zurekiko** desberdina da / ▼**Harekiko** desberdina da.
c. **Zure aldean**, desberdina da / **Haren aldean**, desberdina da.
d. Desberdina da **zure aldean** / Desberdina da **haren aldean**.
e. **Zu ez bezalakoa** da / **Hura ez bezalakoa** da.
f. **Ez da zu bezalakoa** / **Ez da hura bezalakoa**.

1.3.4.11. Zenbatasunezko konparazioa mugagabeko izenen artean

Zenbatasunezko konparazioa, eskuarki, mugatzailea daramaten sintagmen artean egiten da («Emakumeak gehiago dira gizonak baino»). Baina konparazioa egin daiteke, egitura lotuagoan, determinatzailerik gabe mugagabeen doazen izenen artean ere («Gizon baino emakume gehiago dago»). Kasu batean nahiz bestean, berdintasuna gordetzen da konparagaien artean: biak mugatua edo biak mugagabea. Hona hemen literaturako adibide batzuk, konparagai mugagabeen jokia erakusten dutenak.

- (182) **Gizon bezainbertze emazteki** bazen.
(183) Lurrak, ona izateko, behar du **buztin adinbat hondar**.
(184) Izan ere, benetako jakintsuak beti baitu **erantzun baino galdera gehiago**.

Absolutiboan ez ezik, ergatiboan eta beste kasuetan ere egiten dira horrelako konparazioak:

- (185) **Neska baino mutil gehiagok** hautatzen dute lanbide-heziketa.

Ez dira aukerarik egokienak, beraz, adibide hauetako (a) eta (c) perpausen tankerakoak:

- (186) a. ▼**Gizonezkoak** baino emakume gehiago joan da.
b. **Gizonezko** baino emakume gehiago joan da.
c. ▼**Emakume** gehiago joan da **gizonezkoak** baino.
d. Emakume gehiago joan da **gizonezko** baino.
(187) a. ▼**Zenbat ogitarteko** gehiago jarri dituzte **opilak** baino?
b. **Zenbat ogitarteko** gehiago jarri dituzte **opil** baino?

Honelako konparazio konplexuetan ere ikus ditzakegu konparagaiak mugagabeen:

(188) **Itsasoan ur tanta diren adina urte** igarota ere hemen egon behar dut?²¹

1.3.4.12. «Batek baino gehiagok»

«Bat baino gehiago» esapidean, bi elementuek deklinabide-atzizki bera eramatea da lege orokorra (EGLU-V, 420. or.): «bat baino gehiago», «batek baino gehiagok», «bati baino gehiagori»... Atzizki luzeen kasuan egiten da salbuespenen bat («bat baino gehiagorentzat»...).

(189) Haurdun egon izan direnetan, oso boteretsu sentitzen direla aitortu izan dit **ama batek baino gehiagok**.

(190) Ni bezalako turista **bati baino gehiagori**, zer pentsa ematen zion.

Baino gehiagoren aurreko elementua edozein dela ere, joera nagusi hori bera erakusten dute adibideek: bi elementuak deklinatzea.

(191) **Hirurehun ibaik baino gehiagok** hornitzen dute aintzira.

(192) **Hamahiru milioi musulmanek baino gehiagok** ihes egin zuten Pakistanera.

Izenlagunetan, ordea, *gehiago* hitzari bakarrik eransten zaio *-ko* atzizkia:

(193) a. Elkartean badira **65 urte baino gehiagoko** pertsonak.

b. *Elkartean badira **65 urteko baino gehiagoko** pertsonak.

1.3.4.13. Adibideak aurkezteko, ez erabili *bezalako*

Kalko desegokia da *bezalako* konparazio-hitza erabiltzea zerbaiten adibide bat edo batzuk aipatzean (EIMaren *Kalko okerrak*, 74; *Berriaren estilo-liburua*, 205). Konparazio-zentzurik izanez gero, egokia da *bezalako*, baina halako zentzurik batere gabe aurkitzen dugu, maiz, testuetan. Kasuaren arabera, honelako antolatzaileak erabil daitezke: *esate baterako*, *esaterako*, *besteak beste*, *bala nola*...

(194) a. *Horretaz gainera, superfosfatoa **bezalako** ongariak erabiltzen dira.

b. Horretaz gainera, superfosfatoa **eta beste** ongari batzuk erabiltzen dira.

c. Horretaz gainera, superfosfatoa **eta halako** ongariak erabiltzen dira.

²¹ Kardaberazena da adibide hori (*Ejertzizioak*, II). Beste modu batzuetan ere esan liteke hori: «Itsasoan dauden ur-tantak adina urte», «Itsasoko ur-tantak adina urte»...

- (195) a. *Protozooak, *Paramecium* hau **bezala**, organismo zelulaniztunak dira.
 b. Protozooak, **hala nola** *Paramecium* hau, organismo zelulaniztunak dira.
 c. Protozooak —*Paramecium* hau, **esaterako**— organismo zelulaniztunak dira.
 d. Protozooak organismo zelulanitzak dira; **esate baterako**, *Paramecium* hau.
- (196) a. *Venezia eta Genova **bezalako hiriak** Asiarekiko eta Afrika iparraldearekiko merkataritzaren gune bilakatu ziren.
 b. Venezia eta Genova **hiriak, esaterako**, Asiarekiko eta Afrika iparraldearekiko merkataritzaren gune bilakatu ziren.
- (197) a. *Europako gerra zela medio, Paristik alde egin behar izan zuen, eta urte haiek Salamanca, Bilbo, Bartzelona eta Malaga **moduko hirietan** etengabe bidaiatzen igaro zituen.
 b. Europako gerra zela medio, Paristik alde egin behar izan zuen, eta urte haiek etengabe bidaiatzen igaro zituen; **besteak beste**, Salamancan, Bilbon, Bartzelonan eta Malagan izan zen.

Ageri denez, «X moduko» eta «X bezalako» erabiltzean, perpausaren antolamendua trabatu ere egiten da. Perpausa errazago ulertzen da hitz generikoa adibideen aurretik ematen bada. Bi puntuak ere erabil daitezke zenbaitetan.

- (198) a. *Hil ondoren ere, haren omenezko zenbait erakusketa egin ziren Bilbo, Oviedo, Madril eta Bartzelona **moduko hirietan**.
 b. Hil ondoren ere, haren omenezko erakusketak egin ziren **zenbait hiritan; besteak beste**, Bilbon, Oviedon, Madrilen eta Bartzelonan.
 c. Hil ondoren ere, haren omenezko erakusketak egin ziren **zenbait hiritan, hala nola** Bilbo(n), Oviedo(n), Madril(en) eta Bartzelona(n).²²
 d. Hil ondoren ere, haren omenezko erakusketak egin ziren **zenbait hiritan**: Bilbo(n), Oviedo(n), Madril(en), Bartzelona(n) eta beste(tan).

Era honetako perpausak, berriz, egokiak dira, konparazio-zentzua ere badute eta: elementu bat, aldi berean, adibide eta konparazioaren erreferentzia da (adibide hori ematen da konparagai bakartzat).

²² *Hala nola* erabiltzean, haren ondorengo izenak absolutiboan ematea guztiz zilegi da, edozein kasutan joanik ere izen horien aurrekaria (adibidean, *biri*). Bestalde, (d) adibidean, bi puntuak aukera ematen dute izenak komunztaduratik libre uzteko ere.

- (199) **Zu (zaren) bezalako artista batek** aise egingen du. ('Zu artista zara; nolako artista zaren ikusita...')
- (200) **Donostia bezalako hiri batean**, normala da hori. ('Den bezalako hiria da Donostia; halako hiri batean...')
- (201) **Hau bezalako gai bat** ezin da lau hitzetan kitatu.

Hona literaturako adibide bi, XX. *Mendeko Euskararen Corpusetik* hartuak:

- (202) Zer pozgarriago aita batentzat, bere alaba **zu bezalako gizon bati** emaztetzat ematea baino?
- (203) **Zu zaren bezalako jaun aberats eta egokiari**, zeinek esan liezaioke ezetzik?

1.3.4.14. «Esan duen bezala», «esan duenez»

Konparazio-baliorik gabe, *-(e)nez* loturaren funtzioarekin erabiltzen da batzuetan *-(e)n bezala* (EGLU-V, 376.-377. or.), eta orobat *-(e)n moduan* eta *-(e)n legez*. Aditzak *-(e)la* osagarria har dezakeen kasuetan gertatzen da hori:

- (204) a. Aurreko puntuan, **ikusi dugu** otsoa kanidoen familiako ugaztuna **dela**.
 b. Aurreko puntuan **ikusi dugunez**, otsoa kanidoen familiako ugaztuna da.
 c. Aurreko puntuan **ikusi dugun bezala**, otsoa kanidoen familiako ugaztuna da.
- (205) a. **Ohartuko zineten** gai hau eztabaidagarria **dela** oso.
 b. **Ohartuko zinetenez**, gai hau eztabaidagarria da oso.
 c. **Ohartuko zineten bezala**, gai hau eztabaidagarria da oso.
- (206) a. Gauza **jakina da** azido zitrikoak C bitaminaren eragina areagotzen **duela**.
 b. Azido zitrikoak, **jakina denez**, areagotu egiten du C bitaminaren eragina.
 c. Azido zitrikoak, **jakina den bezala**, areagotu egiten du C bitaminaren eragina.

Zenbait kasutan, nolana ere, desberdin uler daitezke *-(e)nez* eta *-(e)n bezala*, bigarrenarekin geure burua inplikatzeko baitugu adierazpenean:

- (207) a. Zuzendariak **esan duenez**, denon ardura da gelak txukun egotea.
 b. Zuzendariak **esan duen bezala**, denon ardura da gelak txukun egotea. ('hala esan du, eta hala deritzot nik ere')

1.3.4.15. *Legez*

a) «Gura duzun legez». Bizkaierazko konparazio-morfema da *legez*. Aditz modalekin, laguntzaile eta guzti erabiltzen da nagusiki, eta hala gomendatzen dugu. EGLU-Vek dioenez (365. orrialdea), testuetan «oso lekukotasun gutxi agertzen dira» laguntzailerik gabekoenak.

- (208) a. ?**gura** legez
 b. **gura duzun** legez

- (209) a. ?**behar** legez
 b. **behar den** legez

b) «Atzo legez» eta «beti legez» esapideak dira tradiziozkoak, eta berriagoak dira «atzoko legez» eta «betiko legez» formak, EGLU-Vek dioenaren arabera (358. orrialdea). Aldaera berria «atzoko moduan» eta halakoen analogiaz sortua izan daitekeela dio.

1.3.4.16. *Zer* eta *zein*, konparazioaren lagungarri

Konparaziozko galdera batzuetan, elkarren kontra jarritako bi elementutatik bat hautatzeko eskatzean, ezinbestekoa ez bada ere, *zer* edo *zein* erabili ohi da joskera errazteko.²³

- (210) a. Gaua ala eguna **duzu nahiago?**
 b. Gaua ala eguna, **zer duzu nahiago?**
 c. Gaua ala eguna: **zer duzu nahiago?**
 d. **Zer duzu nahiago?** Gaua ala eguna?
 e. **Zer duzu nahiago:** gaua ala eguna?
- (211) **Zein** duzu nahiago: atzokoa ala gaurkoa?

²³ Puntuazioaren aldetik, koma soila eskas gertatzen da (210d) eta (210e) adibideen kasuan. Batez ere, ondokoa deikitzen har daitekeen galderetan: «Zer iruditu zaizu, polita?». Hobe da bi partetan egitea galdera: «Zer iruditu zaizu? Polita?».

1.3.4.17. «Nahiago izan», «nahien izan»

Bizpahiru ohar egin beharra dago *nabiren* konparatiboari eta superlatiboari buruz:

a) Ordenari dagokionez, «zer nahiago duzu» erabiltzen da hizkera batzuetan, eta «zer duzu nahiago» beste batzuetan:²⁴

(212) a. Zer **nahiago duzu**: telebista ala irratia?

b. Zer **duzu nahiago**: telebista ala irratia?

b) *Nahien* superlatiboa erabili behar den zenbaitetan *nahiago* erabiltzen da, oker (Xabier Alberdi, *Euskal estilo-libururantz*, 171. or., eta liburuki honen 6.1.5 puntua). Gaztelaniaz adierazpide bera dute bi ideiek, eta hortik datorkigu interferentzia.

(213) a. *Aukera ezazu **nahiago duzun gela**.

b. Aukera ezazu **nahien duzun gela**.

c. Aukera ezazu **gogokoen/gustukoen duzun gela**.

d. Aukera ezazu **gehien gustatzen zaizun gela**.

(214) Jaka da gazte-jendeak **nahien** (gustukoen, gogokoen) duen eski-herria.

c) «Joan nahi du» eta «joatea nahi du» bereizten diren modu berean bereiztekoak dira «nahiago du joan» ('bera joan') eta «nahiago du joatea» ('beste norbait joatea'). Ikus *Kalko okerrak*, 64.-65. orrialdeak.

(215) Ez zen zuzenean plazara joan; **nahiago zuen** bueltatxo bat eman.

(216) Dena den, etxean **egon** baino nahiago dut Baionan **ibili**.

(217) Neskak **nahiago zuen** dirua neronek zintzoki **irabaztea**.

1.3.5. Ondorio-perpausak

1.3.5.1. *Hain... *(e)la*

Ez da zuzena *-(e)la* menderagailua ondoriozko perpausetan (EGLU-V, 450. orrialdea). Nahikoa da bi perpausak elkarren ondoan ematea, menderagailurik gabe, hurrenkera batean zein bestean.

(218) a. *Hain ederra da, **denak liluratzen dituela**.

²⁴ Alde horretatik, *lo egin*, *lan egin* eta antzeko lokuzioen tankerakoa da (ikus 9.5 eta 2.1.1).

- b. Hain ederra da, **denak liluratzen ditu**.
- c. Hain da ederra, **denak liluratzen ditu**.
- d. **Denak liluratzen ditu**, hain da ederra.

Ohar bat «hain ederra da» / «hain da ederra» hitz-hurrenkeraz: EGLU-Veko adibideetatik, berariaz asmatuek ez, baina literaturatik harturikoek «hain da ederra» moldea erakusten digute nagusiki.

(219) Itsasoak osin bat zirudien, **hain zegoen bare eta baketsu**.

Menderakuntzaz baliatzekotan, *bait-* eta *-(e)n* menderagailuak ditugu halakoetan egoki, aukeran ditugula, gainera, *non* eta *ezen* lokailuak.

- (220) a. Hain da ederra, **(non/ezen) denak liluratzen baititu**.
- b. Hain da ederra, **non/ezen denak liluratzen dituen**.

1.3.6. Denbora-perpauzak

1.3.6.1. *Bitartean*

Denbora adierazteko erabiltzen da *bitartean*, eta ez da hain egoki bi perpausen aurkaritza edo aldea adierazteko baliatzea²⁵.

- (221) a. ▼Fonema kontsonantikoak 24 **diren bitartean**, bokalikoak 5 dira.
- b. Fonema kontsonantikoak 24 **dira, eta** (fonema) bokalikoak 5.
- c. Fonema kontsonantikoak 24 **dira**; (eta) (fonema) bokalikoak, **berriz**, 5.

Perpauaren arabera, *bitartean* baino egokiago izan daitezke *eta* nahiz *baina* juntagailuak, *berriz* eta *ostera* aurkaritzako juntagailuak...

- (222) a. ▼Bat eragozpenen aurrean **orekatu egiten den bitartean**, besteak indar eta kemen handiagoa hartzen du.
- b. Bat eragozpenen aurrean **orekatu egiten da**; besteak, **ordea**, indar eta kemen handiagoa hartzen du
- (223) a. ▼Islandia lurralde ezezagun eta hotza **da**, Kalifornia munduko tokirik ezagunenetarikoa eta klima epelekoa **den bitartean**.
- b. Islandia lurralde ezezagun eta hotza **da, eta** Kalifornia, **berriz**, munduko tokirik ezagunenetarikoa eta klima epelekoa.

Benetan denbora adierazteko da egoki *bitartean*:

²⁵ Ikus *Kalko okerrak* (83. or.). EGLUren arabera, tradizioan bada adibideren bat aurkaritza-balioa duena, baina «esan behar da, hori bai, denborazkoa duela oinarrizko balioa» (EGLU-VI, 116. or.).

- (224) Erabiltzaileak informazioa irakurtzen **duen bitartean**, birusa disko gogorrean kokatzen da, abiadura izugarrian.

Bi zentzu izan ditzakeenik ere bada. Berez, denborazkotzat hartzen dira halakoak, eta nahasgarri dira besterik adierazi nahi bada.

- (225) Alde batek Eguzkiaren argia hartzen **duen bitartean**, beste aldea ilunpean gelditzen da.

1.3.6.2. *Dagokionez/dagokionean*

Moduzkoetan, *dagokionez* da erabiltzekoa; *dagokionean*, berriz, denborazkoa da, *Hiztegi Batuaren* arabera (ikus *egon* sarrera) eta EGLUren arabera²⁶. Honelako perpausetan erabiltzen da *-(e)nez*, komunztadura zainduta: «hari dagokionez», «haiei dagokienez».

- (226) Denok gara berdinak eta desberdinak: berdinak gure duintasun ontologikoari **dagokionez** —*homines, cives*— eta desberdinak gure baliabideei, joerei eta irriki **dagokienez**.

Dagokionean, esan bezala, denbora adierazteko erabiltzen da gehienbat, eta lekua ere adieraz dezake zenbaitetan, izena isildutako erlatibo moduan: «dagokion unean» edo «dagokion tokian» esanahia izan dezake.

Zuzentzekoak dira, beraz, honelakoak:

- (227) a. *Testu mota bakoitzak bere berezitasunak ditu, bai **egoera komunikatiboari dagokionez** eta bai **egitura, antolaketa eta hizkuntz-unitateei dagokionean** ere.
b. Testu mota bakoitzak bere berezitasunak ditu, bai **egoera komunikatiboari dagokionez** eta bai **egitura, antolaketa eta hizkuntz-unitateei dagokienez** ere.

Ekialdeko euskalkietan, *doakionez* ere erabiltzen da, *dagokionezen* esanahi berarekin:

- (228) **Euskal Kultur Erakunde**ari *doakionez*, 2003a zinez aberatsa izan da.

²⁶ Honela dio (EGLU-VI, 81.-82. or.): «*Horri dagokionez* esan ohi da, esate baterako, eta *ez horri dagokionean*, orain berriki azken forma hau zabaltzen hasia den arren. Testuinguruak besterik ez diorenean, denborari egiten dio erreferentzia *dagokionean* formak ere, eta 'dagokion denboran' esan nahi du».

1.3.6.3. Denbora-perpau zalantzakoak

Denborazko egiturak duda sortzen du definizio-kutsuko zenbait esalditan, baina ezin dira halakoak okertzat jo. Baldintzazkoak ere erabiltzen dira funtzio berarekin.

- (229) a. Bi angelu osagarri dira **haien batura angelu zuzena (90°) denean**.
b. Bi angelu elkarren osagarri dira (**baldin eta**) **haien batura angelu zuzena (90°) bada**.

Bestela, «deritze» eta «esaten zaie» aditzak erabil daitezke (ikus 5.4.2. ere):

- c. Angelu osagarri deritze **baturik angelu zuzena (90°)osatzen dutenei**.
d. Angelu osagarri esaten zaie **baturik angelu zuzena (90°)osatzen dutenei**.

Hona hemen beste adibide bat:

- (230) a. Bi zatiki baliokide dira **kantitate bera adierazten dutenean**.
b. Bi zatiki baliokide dira **kantitate bera adierazten badute**.
c. Zatiki baliokide deritze **kantitate bera adierazten dutenei**.
d. Zatiki baliokide esaten zaie **kantitate bera adierazten dutenei**.

Beste hurrenkera batean ere eman daitezke halakoak, definizio eratik aldendurik:

Bi angelu, **baturik angelu zuzena (90°)osatzen dutenean**, angelu osagarriak dira.

Bi zatiki, **kantitate bera adierazten badute**, baliokideak dira.

Perpau batzuek moldaketa handiagoa eskatzen dute:

- (231) a. ▼Ikaskuntza eraginkorra gertatzen da **dakigunarekin erlazionatzen denean**, praktikarekin lotzen **denean**, eta ikaslearen heldutasun-mailari egokitzen **zaionean**.
b. Ikaskuntza, eraginkorra izateko(tan), **lehendik dakigunarekin uztartu behar da**, praktikarekin lotu, eta ikaslearen heldutasun-mailari egokitu.

1.3.6.4. «Ikasi ahala»

Aditz-partizipioari *ahala* erantsita (edo *ahalean*, hizkeraren arabera), denborarekin batera aurreratuz doan zerbait ematen dugu aditzera. Ez

da aditz jokatuarekin erabiltzen, partizipioarekin baizik (ikus *Hiztegi Batua*: ahala 2). Okerra da, beraz, (233a) adibidea.

(232) Adinean aurrera joan ahala, ohiturak aldatu egiten dira.

(233) a. *Egiten duzun ahala konturatuko zara.

b. Egin ahala konturatuko zara.

Horretan, desberdinak dira *ahala* eta perpausari zentzu bertsua ematen dioten *-(e)n heinean* eta *-(e)n neurrian*, azken biok beti aditz jokatuaren ondoan baitoaz:

(234) Urruntzen ari ginen heinean, lasaitasun handiagoa sentitzen genuen.

(235) Bizitzaren maila gora doan heinean, handitu egiten da halako gaitzak izateko arriskua.

1.3.7. Baldintza-perpausak

1.3.7.1. *-(e)z gero*

Baldintza adierazteko, adizki jokatzeko formak ez ezik, jokatu gabekoak ere erabiltzen dira: *-(e)z gero*, nagusiki, baina baita *-t(z)ekotan* eta *partizipioa + ezean* egitura ere. Adizki jokatzeko baldintza esplizituagoa da, agerian baitu denborari, aspektuari eta pertsoneri buruzko informazioa.

(236) a. Kalkulagailua erabiliko dut, irakasleak **uzten badit**. (adizki jokatzuz)

b. Kalkulagailua erabiliko dut, irakasleak **utziz gero**. (adizki jokatugabez)

Aurrerago azaltzen den moduan (1.3.10.1 puntua), «irakasleak uztekotan» ez da aurreko bi perpaus horien baliokidea; beste zerbait adierazten du. Adibidez, «Irakasleak kalkulagailua uztekotan, eskatu egin beharko diogu».

Adizkia jokatzean, zaindu egin behar da komunztadura hau: indikatiboko baldintzak ezin du alegiazko ondorioa eraman, edo alderantziz. Gorabehera hori azalduta dago *Kalko okerrak* liburukian (65. or.), *Baldintza* puntuan, eta orobat EGLU-II liburukian (369. orrialdea).

(237) a. *Saiatzen bada, lortuko luke.

b. *Saiatuko balitz, lortuko du.

- c. Saiatuko **balitz**, lortuko **luke**.
- d. Saiatzen **bada**, lortuko **du**.

Hori, etorkizunera begirako baldintzetan. Iraganeko baldintzen kasuan, bi modu daude ondorioa (ezin betezkoa) adierazteko, Euskaltzaindiaren 42. arauak dioenez:

- (238) a. Garaiz **esan bagenio**, lehenago **etorriko zatekeen**.
- b. Garaiz **esan bagenio**, lehenago **etorriko zen**.

Arau horrek berak argi esaten du ez direla zuzenak, aldiz, honelakoak: «Oraintxe bertan gustura joango nintzen mendira». Halakoetan, «joango nintzateke» da aukera zuzen bakarra.

Esanahiaren aldetik, zenbaitetan, aski hurbil daude *-(e)z gero* baldintzazkoa eta moduzko lotura hauek: *-(e)z*, *-(r)ik*, *-ta/-da*:

- (239) a. **Hala eginez gero**, 15 gradu baino gehiago okertzen dugu enborra.
- b. **Hala eginez**, 15 gradu baino gehiago okertzen dugu enborra.
- c. **Hala eginik/eginda**, 15 gradu baino gehiago okertzen dugu enborra.
- (240) a. Irudimenezko istorioak erabili ordeztakari errealak **erabili balira**, emaitza berdinak lortuko ote ziren?
- b. Irudimenezko istorioak erabili ordeztakari errealak **erabiliz gero**, emaitza berdinak lortuko ote ziren?
- c. Irudimenezko istorioak erabili ordeztakari errealak **erabiliz**, emaitza berdinak lortuko ote ziren?
- d. Irudimenezko istorioak erabili ordeztakari errealak **erabilirik/erabilita**, emaitza berdinak lortuko ote ziren?

Denborazko esanahia ere badu *-(e)nez gero* egiturak ('denez geroztik', 'denetik'):

- (241) Mundua mundu **denez gero**, hori horrela da, eta mundua mundu **deino**, hala izango da.

1.3.7.2. *Ezean, ezik*

Ezezko baldintza adierazten dute *ezean* eta *ezik* loturek, aditz-partizipioarekin:

- (242) a. **Kontratua sinatu ezean**, ez du lanik egingo.
- b. **Kontratua sinatu ezik**, ez du lanik egingo.

Bietan erabiliena *ezean* da. Gainera, *ezean*, aditz-partizipioaren ondoan joateaz gain, aditzik gabe ere joan daiteke, partitiboarekin. *Ezik*, berriz, beti partizipioarekin eta gehienbat *izan ezik* forman erabiltzen da.

- (243) a. **Kontraturik ezean**, bestelako agiriren bat erakutsi behar da.
b. ***Kontraturik ezik**, bestelako agiriren bat erakutsi behar da.
c. **Kontraturik izan ezik**, bestelako agiriren bat erakutsi behar da.

Okerra da, beraz, *ezik* soila erabiltzea honelakoetan, *izan ezik* erabili ordez (Euskaltzaindiaren 16. araua: «Zu izan ezik»):

- (244) a. *Libre dut hilabete osoa, **jaiegunak ezik**.
b. Libre dut hilabete osoa, **jaiegunak izan ezik**.
(245) a. *zamalanak/autobusak... **ezik** (aparkatzea debekatua)
b. zamalanak/autobusak... **izan ezik**
(246) a. *astegunak/astegunetan **ezik**
b. astegunetan **izan ezik**

Ezean ere oker erabilia dago aipaturiko bi ingurumarietatik kanpo; alegia, ez badoa aditz-partizipioaren ondoan (247b, 248c) edo partitiboarekin (248b). Bi erabilera horiexek erakusten ditu *ezean* sarrerek *Hiztegi Batuan*.

- (247) a. ***Gaur ezean**, bihar egingo dugu.
b. **Gaur egin ezean**, bihar egingo dugu.
(248) a. ***hori/horren ezean**
b. **halakorik ezean**
c. **hori/halakorik izan ezean/ezik**

1.3.7.3. *Ba-*, aurkaritzako lotura?

Bitartean denborazkoarekin gertatzen den modu bertsuan (ikus 1.3.6.1 puntua), *ba-* baldintzazkoa ere erabiltzen da zenbaitetan aurkaritza adierazi nahian, desegoki²⁷:

- (249) a. ▼Atzo burtsak behera **egin bazuen**, gaur susperraldia izan du.

²⁷ Ikasmaterialetarako desegoki deritzogu, ezohikoa eta anbigua den aldetik, nahiz halako adibiderik aurkitu daitekeen literaturan eta jasorik dagoen EGLU-VI liburukian (19. orria): «Koxeren anaiak euskara ongi ematen badu, berak doi-doia murduskatzen du».

- b. Atzo burtsak behera egin zuen; gaur, **berriz/ostera**, susperraldia izan du.
- c. Atzo burtsak behera egin **bazuen ere**, gaur susperraldia izan du.

1.3.8. Kontzesio-perpauzak

1.3.8.1. *Baldin*, kontzesio-perpauzetan ez

Kontzesio-perpauzetan, *Orotariko Euskal Hiztegiak* dioenez, baldintzazkoetan baino askoz gutxiago agertzen da *baldin* partikula.

- (250) a. ▼Zuk hala **baldin** badiozu ere, ez da hala.
- b. Zuk hala **badiozu ere**, ez da hala.

1.3.8.2. Kontzesio-perpauzak eta aurkaritzakoak

Kontzesio-perpauzen bidez adierazten dena aurkaritzako juntagai-luen eta lokailuen bitartez ere adieraz daiteke:

- (251) a. Ez zigon kasurik egin, behin eta berriz **eskatu genion arren**. (menderakuntza: kontzesio-perpauza)
- b. Behin eta berriz **eskatu genion arren**, ez zigon kasurik egin. (menderakuntza: kontzesio-perpauza)
- c. Behin eta berriz **eskatu genion**, **baina** ez zigon kasurik egin. (juntadura: aurkaritza)
- d. Behin eta berriz **eskatu genion**; **hala ere**, ez zigon kasurik egin. (lokailua: aurkaritza)

Aurkaritzako juntaduraren bidez adieraz daitekeena kontzesiozko menderakuntzaz adieraztean, zenbait huts egiten da, ez dagokion perpauza emanik kontzesiozko gisa —adibide honetan, zentzugabea da (b) aukera—:

- (252) a. Partida hasi orduko min hartu zuen, **baina** jokatzeko jarraitu zuen.
- b. *Min hartu zuen partida hasi orduko, **nahiz eta** jokatzeko jarraitu zuen.
- c. Jokatzeko jarraitu zuen, **nahiz eta** partida hasi orduko min hartu (zuen).

Horrelako arazoaren jatorria, itzulpenetan behintzat, gaztelaniaz *aunque* loturak duen balio bikoitza da: kontzesioa (*nahiz eta*) eta aurkaritzakoa (*baina*).

1.3.9. Moduzko perpausak

1.3.9.1. *-(e)larik*

Berez, ekialdeko euskalkietakoa da *-(e)larik* menderagailua. Esanahiaren aldetik, batez ere modua edo denbora adierazten du, baina beste ñabardura batzuk ere bai. EGLU-VIren arabera, «*-(e)la* eta *-(e)larik* (...) hainbat zirkunstantzia adieraz ditzaketen forma irekiak dira —testuinguruaren arabera, denbora, modua, azalpena, baldintza eta horrelakoak adierazteko balio dutenak—»²⁸. Denbora adierazten ez duenean, askotan baliokide du *-(e)la*, euskalki gehienetan erabilia.

- (253) Aurpegiaren isla antzematen nion, kokotsa bular gainaren kontra **zue-larik** (zuela).
- (254) Atezaina begirada beldurtiz hurbildu zitzaien, eskuan linterna **zeramalarik** (zeramala).
- (255) Zure zain **nengoelarik** (nengoela), Axun pasatu da.
- (256) Gelan sartu **zelarik** (*zela), isiltasun handi bat egin zen.
- (257) Norbait biziki argala **delarik** (*dela), erraten da hezur eta larru dela.

Hona hemen bestelako ñabardurak dituzten erabilera batzuk:

- (258) Hain ona **delarik**, nola ez maita?
- (259) Oraindik haurra **delarik**, zaharrek bezala hitz egiten du.

Lehenbizikoan (258), moduzko zentzua hartzen diogu (*izanda*, *izanik*), eta kausa eta baldintza ere aipatzen ditu EGLUk. Halako

²⁸ Pasarte osoa dakargu hona (82. or.): «Adibide batekin azal daiteke hori: ‘Gaixo zegoenean’ esaldia entzutean, denborarekin lotzen dugu berez, perpaus nagusiaren zain egon gabe —eta horrela ulertuko dugu, honek besterik iradokitzen ez badu—. ‘Gaixo zegoelarik’ esaldia entzunda, berriz, zirkunstantzia bat adierazten duela jabetzen gara, bai, baina ez dakigu zehazki zein zirkunstantzia, hori perpaus nagusia entzun-eta jakingo baitugu: ‘Gaixo zegoelarik, etxean geratu zen atzo Mikel’ entzuten badugu, esate baterako, mendekoak azalpen bat ematen duela ulertzen dugu —‘gaixo zegoenez’ esaten denean bezala—; ‘Gaixo zegoelarik, lanera joan zen Mikel egunero bezala’ entzunda, berriz, balio kontzesiboa ematen diogu mendekoari, are gehiago *ere* lokailua eransten badiogu —‘gaixo zegoelarik ere’ esaten badugu, alegia—; ‘Gaixo zegoelarik, amak zaintzen zuen Mikel txikitari’ perpausuan, oster, denborazko balioa atzemango dugu, ‘gaixo zegoenean’ entzuten dugunean bezala».

batzuk sailkatzea aski zaila dela dio. «(...) kausazkotzat jo dugun adibidea baldintzazkoa ere izan daiteke: *Hain ona bada, nola ez maita?*».

Beste perpausean, berriz (259), kontzesio-zentzua ematen du *-(e)larik* menderagailuak («Oraindik haurra bada ere, zaharrek bezala hitz egiten du»). Halakoetan, sarri *ere* erantsita indartzen da kontzesio-zentzua.

Tradizio oso urrikoak dira, eta sarri kalko oker baten ondorio, honelakoak:

(260) a. *Leihotik erori zen, hanka hautsi **zuelarik**.

Emendiozko juntadura da halakoak adierazteko biderik egokiena; eskuarki, aditz laguntzaileetariko bat isilduta:

b. Leihotik erori zen(,) **eta** hanka hautsi.

c. Leihotik erori, **eta** hanka hautsi **zuen**.

1.3.9.2. *-(e)n moduan, -t(z)eko moduan*

Gaztelaniazko «de forma/modo que sean» esapidearen nolabaiteko itzulpen gisa, tankera honetako perpaus behartuak ikusten dira testuetan:

(261) a. *Jar itzazu zuzen gorriak, koadroan, **simetria-ardatz izango diren moduan**.

b. *Jar itzazu zuzen gorriak, koadroan, **simetria-ardatz izan daitezen moduan**.

(262) a. *Margotu itzazu bi marrazkiak **goikoak hiru simetria-ardatz eta behekoak bat izango dituzten moduan**.

Subjuntiboko aditzik ez du onartzen euskaraz *-(e)n moduan* egitura erlatiboak («*izan daitezen moduan»), eta gertakizun-aspektua ere desegoki gertatzen da («izango dituzten moduan»), adibide horiek erakusten dutenez. Hona zenbait aukera egoki:

b. Margotu itzazu bi marrazkiak, goikoak hiru simetria-ardatz eta behekoak bat **izateko moduan**.

c. Margotu itzazu bi marrazkiak, goikoak hiru simetria-ardatz **dituela** eta behekoak bat.

d. Margotu itzazu bi marrazkiak: goikoak hiru simetria-ardatz **izan behar ditu**, eta behekoak bat.

- e. Margotu itzazu bi marrazkiak: **izan ditzala** goikoak hiru simetria-ardatz, eta behekoak bat.
- f. Margotu itzazu bi marrazkiak, **halako moduan non** goikoak hiru simetria-ardatz **izango dituen** eta behekoak bat.
- g. Margotu itzazu bi marrazkiak goikoak hiru simetria-ardatz **izan ditzan** eta behekoak bat.

Adibide horretako (f) aukerari buruz, aipatzekoa da *Hiztegi Batuan* azpisarrerara hauek dituela, besteak beste, *halako* sarrerak: *halako eran... non, halako gisan... non, halako moldez... non*.

- (263) a. *Marraztu ezazu angelu lau bat, eta zatitu ezazu bi angelu zuzen **sortuko diren eran**.
- b. Marraztu ezazu angelu lau bat, eta zatitu ezazu bi angelu zuzen **sortzeko eran**.

1.3.9.3. *Nola ... -(e)n eta -(e)nez (gero)*

Egungo testu idatzietan gehienbat *-(e)nez (gero)* egitura erabiltzen den tokietan, kausazko zentzuarekin, *nola -(e)n* forma ere erabili da literaturan (EGLU-VI, 194.-195. orriak). Euskaltzaindiaren JAGONET kontsultagunean Gramatika batzordeak emandako erantzun batean, erregistro desberdinetakoak izan daitezkeela aipatzen da (*nola ...-(e)n* apalagokoa).

- (264) a. Nola ez **naizen** garaiz etorri, deus gabe gelditu naiz.
- b. Garaiz etorri ez **naizenez (gero)**, deus gabe gelditu naiz.

1.3.10. Aditz-izena oinarri duten menderatu batzuk

1.3.10.1. *-t(z)ekotan*

Baldintza-zentzua duenean, *-t(z)ekotan* ez da *-(e)z gero* mendera-gailuaren baliokide, eta, beraz, ezin da erabili haren ordeztan.

- (265) a. Zer egingo zenuke bakarrik **geldituko bazina?**
- b. Zer egingo zenuke bakarrik **geldituz gero?**
- c. *Zer egingo zenuke bakarrik **gelditzekotan?**

Perpau nagusiak adierazten duena baino geroago gertatuko den zerbait adierazten du, egoki erabilia dagoenean, *-t(z)ekotan* baldintzak, eta *behar* edo *nahiren* bidezko parafraasiarekin ordeztu daitezke halakoetan.

(266) Garaiz **ailegatzekotan**, oraintxe atera beharko duzu. ('garaiz ailegatu nahi baduzu')

Perpau nagusian eta mendekoan aditz bera agertzen da behin baino gehiagotan:

(267) **Etortzekotan**, orain etor dadila. ('etorri behar badu')

(268) Inork **egitekotan**, hark egingo zuen.

Baldintzazkoak ez diren esanahiak ere baditu, bestalde, *-t(z)ekotan* loturak: «Joatekotan nintzen» («joateko asmotan» edo «joateko zorian»); «Hamarretan elkartzekotan gelditu gara» («hamarretan elkartzea hitzartu dugu»).

1.3.10.2. *-t(z)en/-t(z)era/-t(z)eko...*

Aditz-izena oinarri duten osagarrietan, badira euskalkien araberako aldaerak. Esate baterako, bizkaieraz «bazkaltzen noa» esan ohi dena «bazkaltzera noa» esaten da gainerako euskalkietan. Antzera gertatzen da beste kasu batzuetan ere, nahiz beti ez den hain erraza euskalki-banaketa egitea; oro har, *-t(z)era* sarriago erabiltzen da ipar-ekialdekoetan:

- (269) a. **eskatzera** ausartu, **eskatzen** ausartu
b. **joatera** utzi, **joaten** utzi
c. **ikustera** bildu, **ikusteko** bildu
d. **egitera** limurtu, **egiteko** limurtu
e. **egitera** aholkatu²⁹, **egitea** aholkatu

Formarekin batera, esanahia ere aldatzen da batzuetan; esate baterako, *abaztu* aditzarekin:

- (270) a. Ahaztu egin zait makinaz **idazten** (lehen banekien; orain, berriz, ez).
b. Ahaztu egin zait makinaz **idaztea** (idatzi behar nuen, eta ez naiz oroitu).

Bestelako ñabardurak ere badira:

- (271) a. Zaila da basakatuak **ikustea** (ez da erraza hori gertatzea; ez da sarri ikusten).

²⁹ *Hiztegi Batuan* ageri diren adibideak: «norbaitek norbait zerbait *egitera* aholkatu»; «aholkatu zuen Adam hark ere *bar zezan* sagar hartatik». Bestalde, *prest egon* esapidearekin, ekialdeko euskalkietan «prest nago hori *egitera*» ereduak ageri da «prest nago hori *egiteko*» ereduarekin batera (*Orotariko Euskal Hiztegia*).

- b. Basakatua zaila da **ikusten** (ezaugarri hori du, besteak beste, basakatuak).

Gaur egun, tradizio eskaseko esapide batzuk aurkitzen dira testuetan; baliokide naturalagoak dituztenean, baztertzekoak dirudite:

- (272) a. ▼Zortziehun ikasle dituen ikastetxe batean, **erdiak geratzen dira bazkaltzeko**.
b. Zortziehun ikasle dituen ikastetxe batean, **erdiak geratzen dira bazkaltzen/bazkaltzera**.
c. Zortziehun ikasle dituen ikastetxe batean, **erdiak geratzen dira bazkarran**.
- (273) a. ?Ondo egin zenuen ez joaten.
b. Ondo egin zenuen ez joanda.
c. Ondo egin zenuen ez joatea.
d. Ondo egin zenuen ez joatearekin.
e. Ondo egin zenuen joan gabe geratuta.
f. Ondo egina, zure aldetik, ez joatea.

Bukatu eta *gelditu* aditzekin, modu bat baino gehiago dago: «edatez gelditu», «edatetik gelditu».

1.3.10.3. *-t(z)erakoan, -t(z)ean* eta *-tutakoan*

Denbora adierazten duen aditz-izenezko egitura orokorra, euskalki guztietan erabiltzen dena, *-t(z)ean* da. Hortik aurrera, euskalki batzuetan *-t(z)erakoan* ere erabiltzen da, eta orobat aditz-partizipioari erantsitako *-takoan*, bakoitza bere ñabardurarekin: *-t(z)erakoan* esatean gertaera baten aurre-aurreko unea adierazten da, eta *-takoan* esatean, berriz, ondorengo denbora. Batzuetan ez da batere erraza *-t(z)ean* eta *-t(z)erakoan* bereiztea.

- (274) a. Jangelatik **irteterakoan**, atea ezin aurkiturik ibili da.
b. **Irtetean**, itxi atea.
c. Autotik **irtendakoan**, maletategiko atea ireki du.

Ekintza batek dirauen bitarteko aldiberekotasuna adierazi nahi denean, *-t(z)ean* da erabiltzekoa, eta ez *-t(z)erakoan*:

- (275) a. ▼Zer ikasi dugu **aldizkariak egiterakoan**?
b. Zer ikasi dugu **aldizkariak egitean**?

- (276) a. ▼Hiztunak bere barrena erakusten du **perpau**s**ak osatzerakoan**.
 b. Hiztunak bere barrena erakusten du **perpau**s**ak osatzean**.

Oraingo hiztun batzuek, dirudienez, *-t(z)erakoan* darabilte forma orokortzat; baina orokorra *-t(z)ean* da.

1.3.10.4. *-t(z)erako/-t(z)eko*

Aurreko puntuan ikusitako okerbide beretik, *-t(z)eko* erabiltzea dagokion tokian *-t(z)erako* erabiltzen da zenbaitetan, desegoki.

- (277) a. *karlismoa **aztertzerako** garaian
 b. karlismoa **aztertze**ko garaian
 c. karlismoa **aztertzean**
- (278) a. *masa **neurtzerako** orduan
 b. masa **neurtze**ko orduan
 c. masa **neurtzean**

Jakina, *-(t)zerako* lotura egokia eta beharrezkoa da batzuetan: «zu etortzerako» esatean (gipuzkeraz erabiltzen da, gehienbat) ‘zu etortzen zarenerako’ adierazten dugu. Hona hemen adibide egoki pare bat:

- (279) a. Zu **etortzerako**, gu asper-asper eginda egongo gara.
 b. Zu **etortzen zarenerako**, gu asper-asper eginda egongo gara.
 c. Zu **zatozenerako**, gu asper-asper eginda egongo gara.
 d. Zu **etorri orduko**, gu asper-asper eginda egongo gara.

1.3.10.5. *-t(z)earen/-t(z)eko*

Izen frankorekin ditugu euskaraz era honetako segidak: *aditz-izena + genitibo-lotura + izena* (aditz-partizipioarekin ere egiten dira batzuk: «irakurri beharra», «irakurri nahia»...):

- (280) irakurtze**ko** premia
 irakurtze**aren** plazera
 irakurtze**ko** irrika
 irakurtze**aren** ondorioa, irakurtze**aren** ondorioz
 irakurtze**ko** ohitura

Azkenaldian, alferrikako zenbait kalko zabaltzen ari dira, usadioaren aurka doazenak:

- (281) a. ▼Joango naiz zuekin, baina mendira **igotzeko baldintzarekin**.
 b. Joango naiz zuekin, baina mendira **igotzekotan**.
- (282) a. ▼Jendearen parte-hartzea **bultzatzeko helburuarekin**, galdetegi bat prestatu dugu.
 b. Jendearen parte-hartzea **bultzatzeko**, galdetegi bat prestatu dugu.
 c. Jendeak errazago **parte hartzeko**, galdetegi bat prestatu dugu.

Genitiboaren aukerari dagokionez, kontuan izan behar da esanahi-desberdintasunak badirela zenbait kasutan:

- (283) a. gerrara **joateko arriskua** (hori gertatzeko arriskua)
 b1. gerrara **joatearen arriskua** (gerrara joatea den arriskua)
 b2. gerrara **joatearen arriskua** (gerrara joateak dakarren arriskua)

Beste batzuetan, esanahian ez dago alderik, eta izenari berez zein lotzen zaion ikusi behar da. Izen sail handi batekin *-ko* bidez egiten da lotura hori: *-t(z)eko* forma hartzen du osagarriak, eta maiz *zertarako* galdera onartzen du:

- (284) joateko gogoa / asmoa / desira / borondatea
 irauteko indarra / ahala / boterea
 gelditzeko eskubidea
 alde egiteko erabakia / deliberoa
 mintzatzeko modua / moldea / era / tankera
 erretzeko ohitura

Inoiz, beste egitura ere onar dezakete horietariko batzuek, bestelako esanahi batekin: «irautearen indarra». Funtsean, izen gobernatzaile bakoitzaren semantikaren arabera erabakitzen dira aukerak. Besteak beste, *-t(z)earen* hartzeko, adiera abstraktuko izena behar du (*arrisku*, *mesede*, *onura*, *abantaila*, *kalte*, *zorigaitz...*). Kasu askotan, *-t(z)eko* da aukera bakarra esanahi horretan:

- hori bultzatzeko helburua / #hori bultzatzearen helburua [zergatik bultzatzen den hori]
 ezkontzeko baldintza / #ezkontzearen baldintza [?!]

2. Galdegai/mintzagai jokia

2.1. Osagaien ordena-aldaketa aditz-lokuzioetan

2.1.1. *Lan egin, lo egin, parte hartu*

Izena + egin erako aditz-lokuzioetan (*lan egin, lo egin, parte hartu...*), osagaien hurrenkera aldatu egiten da batzuetan, galdegaiaren arabera. Esate baterako, *parte hartu* lokuzioa bitara ager daiteke perpausetan: ohiko hurrenkera horretan (a), edo lokuzioaren osagai den izena eskuinera aldaturik (b):

- (285) a. Munduko kirolaririk onenek **parte hartu** dute.
b. Gaur hogeï mila hegazkinak **hartu** dute **parte**.

Bigarren modu horretan, gehiago markatzen da galdegaiak («hogeï mila hegazkinak»). Aditz-lokuzio batzuek dute halako ordena-aldaketak egiteko aukera, ez denek, eta lokuzio berak ere joko desberdina izan dezake hizkeren arabera. Oro har, zenbat eta ihartuago egon lokuzioa, orduan eta aldagaitzagoa da ordena. Ikus liburuki honetako 9.5 puntua ere.

Ihartuen adibide dira *hitz egin, huts egin* eta *hots egin*, hurrenkera horretan agertzen baitira maizenik tradizioan, galdegai markatuarekin ere.

- (286) Ezpain-dardarka **hitz egin** zuen.

Bestelako portaera ageri du, esanahi bera izanik, *berba egin* lokuzioak:

- (287) Une horretan, inozotasuna albo batera utzi eta duintasunez **egin** zuen **berba**.

Bietara erabiltzen dira *lan egin, lo egin* eta *parte hartu* aditzak. Adibide hauek ageri dira XX. Mendeko *Euskararen Corpusean*, besteren artean:

a) Galdegaiak ez du ordena aldarazten (azpimarraturik eman dugu galdegaiak):

- (288) a. Itsasok, erdi sekretuan horrenbeste maite zuen emakumeak, gela berean lo egin zuen.
b. Peillen, Sarasola, Irigoien eta Altunak parte hartu dute eztabaidan.
c. Zaharrak ez ziren lo egon, baina gazteak ernaiago zeuden oraindik eta kementsu lan egin zuten.

b) Galdegaiak ordena aldarazten du:

(289) a. Luzaroan egin zuen lo.

b. Gernikako eskola guztiek hartu zuten parte.

c. Erljio-alorrean Zaitegik berak egin zuen lan batez ere.

Bi erabilerak dira zilegi, baina ordena aldatuz galdegaia argiago marka daiteke. Jo dezagun perpaus hau:

(290) a. Mundu osoan, 5-15 urte bitarteko 250 milioi haurrek lan egiten dute.

Horrela esanda, bi ñabardura hauek izan ditzake perpausak: «hainbeste haur *lanean* aritzen dira» eta «*hainbeste haur* aritzen dira lanean». Nahi badugu, gai horretaz hitz egiten ari garela, kopuruaren handia azpimarratu (aipatutako bigarren aukera), ordena honek ez digu zalantzarik uzten:

b. Mundu osoan, 5-15 urte bitarteko 250 milioi haurrek egiten dute lan.

2.1.2. *-ta/-(r)ik + egon*

«Lotuta egon», «azaldurik egon» eta antzeko predikatuetan (*partizipioa+ -ta/- (r)ik+ egon*), hurrenkera hori ez du aldatzen partizipioaren osagarriak, eskuarki, ez bada enfasi bereziren bat adierazi nahi:

(291) a. Estu-estu lotuta daude bi gai horiek.

b. ▼Estu-estu daude lotuta bi gai horiek.

(292) Bideoa sei zati edo atal nagusitan banatuta dago.

(293) Hogei kapituluz osaturik dago liburua.

(294) Stockholm 14 uhartez osatuta dago, eta uharteok 53 zubiren bitartez lotuta daude.

(295) Liburuan, azalduta dago gorabehera hori.

Galderetan, zilegi da, batzuetan, galde-hitza bakarrik ezartzea galdegaigunean³⁰:

(296) Zenbateraino daude lotuta ariketa fisikoa eta osasuna?

³⁰ Beste batzuetan, galde-hitza ezin da bereizi: «*Zerez osatuta* dago sistema hori?» galdetzen da, eta ez «**Zerez* dago *osatuta* sistema hori».

2.1.3. *Gai izan, prest egon...*

Gai izan eta *prest egon* moduko aditz-lokuzioek hurrenkera hori dute arrunta (a). Beste aukera, posible bada ere (b), oso markatua gertatzen da:

- (297) a. Gizakia **gai da** edozertarako. / Gizakia edozertarako **gai da**.
b. Gizakia edozertarako **da gai**.

Esanahi-bereizkuntzarik egin daiteke inoiz, baina ez da kasurik ohikoena:

- (298) a. Ni, orain, **prest nago** laguntzeko.
b. Ni orain **nago prest** laguntzeko. ('orain', galdegai markatua)

Perpau honetan, adibidez, «aspalditik» bereziki nabarmentzen da (c) aukeran, baina (a) eta (b) aukeretan ere gauza bertsua ulertzen dugu:

- (299) a. Okerrenerako **prest zegoen aspalditik**.
b. Aspalditik **prest zegoen** okerrenerako.
c. Aspalditik zegoen **prest** okerrenerako. / Aspalditik zegoen okerrenerako **prest**.

2.2. Aditzaren lekua aginte- eta galde-perpauetan

Aginte- eta galde-perpauetan, dagokion baino atzerago kokatzen da sarritan aditza, baiezko perpau arrunten ereduari jarraitzeagatik edo.

a) Aginte-perpauaren eta baiezko perpauaren arteko aldea, zenbaitetan, aditzaren tokia baino ez da, idatzizkoan betiere (ahozkoan, berriz, intonazioaz ere baliatzen gara). Hala gertatzen da adizki trinkoekin eta aditz jokatugabeekin egindako perpauetan. Aginte-perpauetan, aditzak aurrean joan behar du.

- (300) a. Etxean **zaude**. (baiezko perpaua)
b. **Zaude** etxean. (aginte-perpaua)
- (301) a. Esamolde bakoitza bere esanahiarekin **lotu**. (jarraibideetan, izenburuetan...)
b. **Lotu** esamolde bakoitza bere esanahiarekin. (agindua)
- (302) a. Bakoitzaren sinonimo bat **eman**. (hau da egin beharrekoa: ...)
b. **Eman** bakoitzaren sinonimo bat. (egin hau: ...)

Aditz jokatzeko aginte-perpauzetan, aditz laguntzaileak erakusten du agindua dela, baina antolamenduak ere egokia izan behar du: aditza aurretik, enfasia ekintzan jarri nahi bada.

(303) a. **Goza ezazu** liburu honetaz.

b. ▼**Liburu honetaz goza ezazu**³¹.

(304) a. **Aukera ezazu** (zeure) hizkuntza. ('egin ezazu hizkuntza-aukera')

b. #**Zeure hizkuntza aukera ezazu**. ('zeurea aukeratu, eta ez beste bat' esateko, ez bestetarako)

Aurreko adibidean (304a) ikusi dugun bezala, perpauseko elementuetako bat galdegai nabarmendua denean, aditzaren aurretik joan behar du hark: «Zeurea aukeratu» (ez beste bat), «horrekin lotu» (ez beste ezerekin)...

Gainerakoan, aditza aurren-aurrena ematea da, oro har, joera:

(305) **Itxi begiak**, eta **bilatu** zeure kidea lagunen artean.

b) Galde-perpauzetan, aditzak adierazten duenaren baietz-ezetzeta bada kontua, aurrean kokatzen da aditza. Horrekin batera, *al* partikula erabiltzea ere lagungarri gerta daiteke, perpaus luzeetan bederen, hasieratik bertatik erakusten baitigu galdera bat irakurtzen ari garela eta ez baieztapen bat.

(306) **Ibil (al) daiteke** autoa gurpil karratuekin?

(307) **Izan (al) daiteke** zatiketa baten hondarra 6?

(308) a. **Erabil (al) daiteke** metodo hori beste problema batzuk ebazteko?

b. #Metodo hori erabil (al) daiteke beste problema batzuk ebazteko?

c. #Metodo hori beste problema batzuk ebazteko erabil (al) daiteke?

Perpauzaren beste sintagma bat baldin bada galdegai, aditzaren aurretik doa:

(309) a. **Antzarak** ikusi (al) dituzu? ('antzarak' da kontua)

b. **Ikusi (al) dituzu** antzarak? ('ikusi' da kontua)

Partitiboarekin ez dago alderik galdegaiari dagokionez (partitiboa ezin liteke izan galdegai):

³¹ Izatekotan ere, beste aukera hau izango genuke, «liburu honetaz» mintzagai hanpatutzat harturik: «Liburu honetaz, goza ezazu».

- (310) a. **Ez du dirurik ekarri.**
 b. Dirurik ez du ekarri.
 c. **Ez du ekarri dirurik.**
- (311) a. Antzararik ikusi (al) duzu?
 b. **Ikusi (al) duzu antzararik?**
- (312) a. Hiru angelu zuzen dituen laukirik **egin (al) daiteke?**
 b. **Egin (al) daiteke** hiru angelu zuzen dituen laukirik?

Honako perpaus honetan, egoki idatzia izatekotan, perpaus osagarria galdegai dela pentsatu behar da («hori esaten al du?», eta ez «esaten al du hori?»).

- (313) Idazleak behatzaile ona izan behar duela esaten al du testuak?

2.3. Aditzaren lekua baietza galdegai denean

Aditzaren baietza baldin bada galdegai, eten bat behar du aditzaren aurrean. Aditza esaldi-hasieran ez badao, beraz, puntuazioak markatu behar du eten hori:

- (314) **Asmatu du** zer tresna behar duen.
- (315) a. **Sartu da** gaur arraina portuan. ('bai, sartu da')
 b. Gaur, **sartu da** arraina portuan.

Mintzagai/galdegai eskemaren araberakoa izan behar du ordenamenduak.

- (316) **Identifikatzen (al) dituzte** zentzumen-organoen oinarrizko atalak? (bai ala ez?)
Identifikatzen dituzte (, bai, zentzumen-organoen oinarrizko atalak).

Eta berdin galdera espliziturik ez denean³²:

- a. **Identifikatzen dituzte** zentzumen-organoen oinarrizko atalak.
 b. **#Zentzumen-organoen oinarrizko atalak identifikatzen dituzte.**
- (317) a. **Ikasi ditu** Europako ibaien izenak.
 b. **#Europako ibaien izenak ikasi ditu.**

³² Gorabehera hau sarri agertzen da irakasleen gidaliburuetako ebaluazio-irizpideetan, trebetasun-lorpenak markatzeko erabiltzen diren esapideetan. Alde horretatik, zehar-galdera da egokiena askotan: «**Ea identifikatzen dituzten(etz)** zentzumen-organoen oinarrizko atalak», «**Ea ikasi dituzten(etz)** Europako ibaien izenak»...

Adizki trinkoen kasuan, perpausaren hasieran kokatzeaz gain, *ba-*aurrizkia ezartzen da galdegaia baiezkotasuna dela adierazteko:

- (318) a. *Zentzumen bakoitzaren organoa zein den **dakite**.
b. **Badakite** zein den zentzumen bakoitzaren organoa³³.
c. Zentzumen bakoitzaren organoa zein den **badakite**.
- (319) a. *Shakespearek ere euskaraz **daki**.
b. Shakespearek ere **badaki** euskaraz.
- (320) a. *Marra zuzen segitzen **daki**.
b. **Badaki** marra zuzen segitzen³⁴.
c. Marra zuzen segitzen **badaki**.

2.4. «Badago» eta «zer dago»

Egon, eduki eta *ukan/izan* aditzekin ere, baietza adierazteko modua «badago zera» eredia da, oro har, eta ez «zera dago».

- (321) a. *Oraindik sarrerak daude (salgai)³⁵.
b. Oraindik **badira/badaude sarrerak** (salgai).
- (322) a. #Txakolina dago³⁶.
b. **Bada(go)/badugu txakolina**.
c. Txakolina **bada(go)/badugu/badaukagu**.

Beste taxu batekoak dira honelakoak, ez baitute bereziki baiezkoa azpimarratzen: «arazo bat dago hor», «arazoak dituzte lanean», «nik telebista daukat gelan»....

Galderetan ere, bai/ez erakoak direnean, *ba-* sartu beharra dago (EGLU-I, eranskinak, 33. or.):

³³ Kontuan izatekoa da, berriz ere, zehar-galdera izan litekeela aukerarik egokiena: «**Ea badakiten** zein den zentzumen bakoitzaren organoa».

³⁴ Inoiz, beste aukera ere zilegi da, enfasi-joko berezi batengatik: «Sakatzen daki horrek!» (hala nola esaten baita «Sakea da hori!»).

³⁵ Esaldi egokia izan daiteke, aldiz, «Hemen sarrerak daude salgai» (*sarrerak* dela galdegai).

³⁶ Zerbaiten baietza adierazi nahi dugu hor. Bestelako egoera batean, esan dezakegu, adibidez, «txakolina dugu (gaur bazkaritan)», bazkari horretako edaria zein izango den adierazteko («ez ardoa», adibidez), edo «arkumea daukagu» («arkumea da gaurko jakia»). Baina errotulu baterako (b) eta (c) egiturak behar ditugu.

- (323) a. *Ogia dago/daukagu?
b. **Bada/badago/badugu/badaukagu** ogirik?
b'. Ba al da/dago/dugu/daukagu ogirik?
c. Ogirik bada/badago/badugu/badaukagu?
c'. Ogirik ba al da/dago/dugu/daukagu?
- (324) a. *Lanerako joan-etorrietan garraio publikoa erabiltzeko **aukerarik daukazu?**
b. **Baduzu aukerarik** lanerako joan-etorrietan garraio publikoa erabiltzeko?
c. **Erabil (al) dezakezu** garraio publikoa lanerako joan-etorrietan?

3. Kategoria gramatikalak: izena

3.1. Bizidunak eta bizigabeak

Euskarazko deklinabidean, bizigabeak eta bizidunak modu banatan jokatzen dira leku-denborazko kasuetan: «etxean» esaten dugu baina «pertsonean», ez «pertsonean»³⁷. Gizakiari eta animaliei dagozkienetan erabiltzen dira bizidunekiko atzizkiak (-*gan*, -*gandik*, -*gana*), ez landareei eta naturari dagozkienetan.

(325) **Lagunengan** aurkitu dut kontsolamendua.

Badut konfiantza **zuan**.

Gurasoengandik datorkio zaletasuna.

(326) **Basoetan** aurkitzen dute babesia. (*basoengan)

Ingurumenean eragina izaten dute isurketa horiek. (*ingurumenarengan)

Begirada **landarera** zuzendu zuen. (*landarearengana)

Nolanahi ere, hizkuntzarako bizidun izatea ez dago hertsiki biologiari loturik. Oro har, aurreko paragrafoan esandakoa betetzen da, baina bizidunaren tratamendua har dezake izen batek euskaraz beste hainbat berezitasunengatik: pertsonifikazioa, sinbolismoa, animismoa... Esan daitezke, adibidez, honelakoak:

(327) Mesede handiak jasotzen ditugu **Eguzkiarengandik**.

Nahiz eta orokorrean bizigabe moduan jokatuko dugun:

(328) Lurra ez dago batere gertu **Eguzkitik**.

(329) Crema eman behar da **eguzkitik** babesteko.

Multzoak eta erakundeak ere bizidunen moduan deklinatzen dira zenbaitetan, eta honelako bitasunak gerta daitezke:

(330) a. **Gobernutik** dator gutun hau.

b. Ez dugu ezer onik espero **Gobernuarengandik**.

(331) a. Ez dago aparteko albisterik **taldean**.

b. Sinesmen handia dut **taldearengan**.

³⁷ Hor 'gizaki' adieraz ari gara, jakina, eta ez gramatikako «lehen (bigarren, hirugarren) pertsona» modukoez.

Baina ezin da ontzat eman nola edo halako izaki biziduntzat hartzerik ez dagoen izenak izen bizidunen moduan jokatzeara:

- (332) a. ***araudi formalenganako** gaitzespena
b. **araudi formalen** gaitzespena
c. **araudi formalen** aurkako jarrera
- (333) a. *Pentsaerak eragina du **sentipenengan**.
b. Pentsaerak eragina du **sentipenetan**.
- (334) a. *Elementuen hurrenkerak ez du eraginik **emaitzarengan**.
b. Elementuen hurrenkerak ez du eraginik **emaitzan**.
- (335) a. *Indar batek **gorputz batengan** duen eragina.
b. Indar batek **gorputz batean** duen eragina.
c. Indar batek **gorputz baten gainean** duen eragina.

Azken kasu horretan, (c) aukeraren aldaera bat espezializatu da zehaztasun bila (*non vs zeren gain*):

- d. Indar batek **gorputz baten gain** duen eragina.

Bestalde, izena, biziduna izanik ere, pluralean bizigabe gisa deklinatzen da baldin eta taldea, generoa, espeziea edo, oro har, izaera kolektiboa adierazten badu.

- (336) **Emakumeetan**, Etxebeite izan da lehena; **gizonetan**, berriz, Gartzia.
- (337) Txinan, **ahateetan** gertatu dira hegazti-gripearean agerraldi gehienak. Analisisietan aurkituriko birusa **gizakietara** igarotzen den barie-tatekoa da.
- (338) **Mutiletatik**, Urko hautatu dugu.
- (339) Gaixotasun hori, batez ere, **zakurretan** eta **katuetan** aztertu da.

Halakoetan, deklinabide-atzizkiaren ordez (*-etan, -etatik...*), *artean* postposizioa erabil daiteke (*-en artean, -en artetik...*).

Elkar izenordaina *-gandik* eta *-gana* atzizkiekin jokatzen da izen bizigabe bati dagokiolarik ere, mendebaldeko euskalkietan bederen (EGLU-I, 237). Erabiltzen da *bata bestetik* ere, eta ekialdean *elkarretatik* edo *elkarretarik*. (Ikus 4.7.1 puntua ere).

- (340) a. Galaxiak **elkarrengandik** urruntzen ari dira.
b. Galaxiak **bata bestetik** urruntzen ari dira.
c. Galaxiak **elkarretatik/elkarretarik** urruntzen ari dira.

3.2. Izen-elkarketa eta adjektibo erreferentzialak

Erdaraz adjektibo erreferentzial deritzenak (izen batetik eratorritako izenondoak) hainbat modutan ematen ditugu euskaraz. Nagusiki, bi bide hauek ditugu:

a) Erdaraz izenondo dena euskaraz ere izenondo egin, maileguan harturik (a) edo euskal ordaina sorturik (b):

- (341) a. sistema **metriko**, bilera **formal**, bonba **atomiko**, energia **nuklear**...
b. sistema **hamartar**, bektore **angeluar**...

b) Joskeraz baliatu: izen-elkarketa egin (a), edo izenlagun moduan eman osagarria (b), edo, beharrezko baldin bada, perpaus moduan ere bai (c):

- (342) a. **lurralde**-batasun (*batasun lurraldetar), **nerbio**-sistema (▼*sistema nerbio*)...
b. **harrizko** egitura (*estructura pétrea*), **unibertsitateko** ikasketak (*estudios universitarios*), **amaren** maitasuna (*afecto materno*)...
c. **energia nuklearra** erabiltzearen **aurkako** proposamena (*propuesta anti-nuclear*), **bi urtez behingo** lehiaketa (*concurso bianual*)...

Aukeran, izen-elkarketa du euskarak halako kontzeptuak adierazteko bide behinena³⁸, eta lehenestekoa da, argia gertatzen denean: *kultura-aste* (▼*aste kultural*), *eboluzio-prozesu* (▼*prozesu ebolutibo*), *telefono-dei* (▼*dei telefoniko*).

Aukera horrek baditu, ordea, bere mugak. Batzuetan, delako izenondoa oso urrun sentitzen delako oinarriko izenetik: ?*nukleo-energia* ez baizik *energia nuklear* esaten dugu. Beste batzuetan, sintaktikoa da eragozpena: *rock-musika* esaten dugu, baina graduatzaile bat sartzekotan «musika hori oso rockeroa da» esatea beste aukerarik ez dago.

³⁸ Hona zer dioen, besteak beste, Euskaltzaindiaren 25. arauak («Hitz elkartuen osaera eta idazkera»), sarreran: «Baliabide indartsua da hitz-elkarketa, erdarazko hainbat hitzarte euskaraz eroso eta labur azaltzeko. Erdal izen-komplementazio askoren ordaina, esate baterako, horrela ematen du euskarak: *guraso-elkarte*, *telefono-zenbaki*, *garapen-maila*, *zerga-biltzaile*. Aukera paregabea eskaintzen du, orobat, erdal 'izen + adjektibo erreferentzial' egiturak ordezkatzeko: *esku-lan* (*trabajo manual* / *travail manuel*), *abo-literatura* (*literatura oral* / *littérature orale*), *ekonomi teoria* (*teoría económica* / *théorie économique*), etab. Bide honi eutsi behar litzaioke orain ere, ahal den guztian, erdal hitz-moldaera arrotzen menpekoegi bihurtu nahi ez badugu».

Maileguzko izenondoa izenaren eskuinetik eman behar da beti; bestela, hitz-elkarketara edo sintaxi-bidera jo:

(343) *sozial arazo
gizarte-arazo
arazo sozial

(344) *sindikal arlo
sindikatu-arlo, sindikalismo (-arlo), sindikatuen arlo
arlo sindikal

3.3. Nominalizazioa aditzaren ordeztan (eta perpausaren ordeztan)

Nominalizazioaz hitz egitean, aditz bat izen bihurtzeaz ari gara, eta horrekin batera (edo horren ondorioz) perpaus bat izen-sintagma bihurtzeaz:

Aditz-joskera	Izen-joskera	
<i>(aditza, perpausa)</i>	<i>(aditz-izena, perpausa)</i>	<i>(izena, nominalizazioa)</i>
irakurri	irakurtze	irakurketa
lasai irakurri	lasai irakurtzea	irakurketa lasaia
etorri	etortze	etorrera
lagunak berehala etorri	lagunak berehala etortzea	lagunen berehalako etorrera

Hizkuntza-eragiketa hori zilegi da, noski, bere neurrian, baina estiloaren aldetik desegoki gertatzen da, euskaraz, neurritz gain erabiliz gero³⁹. Aukeran, aditzetan (eta perpausetan) oinarrituriko estiloa argiago eta biziago gertatzen da izenetan eta izen-sintagmetan oinarriturikoa baino. Hona hemen adibide bat:

- (345) a. euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteko testuak sortzeko diru-laguntzak
b. euskarazko irakurketa eta idazketaren irakaskuntzarako testuen sorkuntzarako diru-laguntzak

³⁹ Horri buruz, hainbat estilo-liburutan egin dira urteotan oharrak eta iruzkinak. Ikus, besteak beste, *Joskera lantegi* (489), *Euskal estilo-libururantz* (223), *Berriaren estilo-liburua* (25), *IVAPeko estilo-liburua* (131), *Kalko okerrak* (86)...

Nominalizazioaz hitz egitean ez gara, beraz, aditz-izenez ari. Aditz-izenak (*irakurtze, irakaste...*) aldi berean izen eta aditz dira, eta bien osagarriak har ditzakete. Nominalizazioan, berriz, guztizko izen bihurtzen da aditza, eta izenari dagozkion osagarriak bakarrik har ditzake.

Morfologiaren aldetik, aditzetik izena eratortzea da nominalizazioaren lehen pausoa; eratorpen horretan *-keta, -pen, -era, -mendu, -kuntza eta -zio* atzizkiez baliatzen gara, nagusiki. Bigarren pausoa, esan bezala, joskerari dagokio: osagarriak izanez gero, aditzaren osagarri diren guztiak izenaren osagarri bihurtu behar dira. Hor sortzen dira arazorik handienak nominalizazioekin, eta, sarritan, atzera aditza edo gutxienez aditz-izena berreskuratzea beste aukerarik ez dugu euskaraz:

- (346) a. *hotze(ta)ko gordeketa (*conservación en frío*)
 b. ▼hotze(ta)ko kontserbazioa
 c. hotze(t)an gordetzea
- (347) a. ?emakumeen instituzioetako parte-hartzea
 b. emakumeek instituzioetan parte hartzea

Nominalizaziorako joera indar handikoa da inguruko erdaretan, eta horrek ondorioak dakartza euskarara, itzulpenaren bidez eta bestela. Zenbaitetan, gainera, hizkera jasoagoa delakoan jokutzen da hala, baina kontrakoa da emaitza. Euskarak berezkoago du, izan ere, aditzean oinarritutako joskera.

- (348) a. negozio baten **sorrerarako** lehen pausoa
 b. negozio bat **sortzeko** lehen pausoa (hobeto)
- (349) a. programaren **erabilera** egokirako zenbait ohar
 b. programa egoki **erabiltzeko** zenbait ohar (hobeto)
- (350) a. Liburu bat **erosteagatik**, beste bat opari.
 b. Liburu baten⁴⁰ **erosketagatik**, beste bat opari.
 c. Liburu bat **erosita**, beste bat opari.
 d. Liburu bat **erosiz gero**, beste bat opari.

⁴⁰ Ekialdeko euskalkietan, aditz-izenak ere hartu ohi du *-en* genitiboa, eta (a) aukeran ere «liburu baten erosteagatik» esaten da eredu horretan.

Aditzaren orde z izena erabiltzean, harekin batera beste aditz hutsalago bat sartzen da askotan (*egin, izan, burutu, gauzatu, jasan, gertatu, suertatu...*). Horrek ere astundu egiten du testua:

- (351) a. ▼2008. urtera arteko kontratu-luzapena *egin* du.
b. 2008. urtera arte luzatu du kontratua.
- (352) a. ▼Egutegi baten burutzapena *lortzea* da helburua.
b. Egutegi bat prestatzea/osatzea/betetzea da helburua.
- (353) a. ▼**Aldaketa** handiak *jasan* ditu egutegiak.
b. Asko **aldatu** da egutegia.

Kalko okerrak liburukiaren 86.-89. orrialdeetan aurkituko du irakurleak azalpen gehiago.

3.4. Nominalizazioa eta izenlagunak

Sintaxiari eta estiloari osotara eragiten dio nominalizatzeko joera itsuak: hizkera abstraktuagoa gertatzen da, eta *-ko/-en* lotura asko erabili beharra dago, osagarriak izenaren inguruan biltzeko.

- (354) a. ▼Inguruko animalia eta landareekiko errespetuzko zainketa-ohiturak garatzea.
b. Inguruko animalia eta landareak errespetuz zaintzeko ohiturak indartzea.
- (355) a. ▼Badirudi forma horren aldeko **hautespena** *egin* dela naturan.
b. Badirudi forma hori **hautatu** duela naturak.
c. Badirudi forma horren **alde egin** duela naturak.
d. Badirudi naturak forma horren **hautua egin** duela.

Ikus dezagun, adibide batean, osagarri guztiak izenlagun bihurtu beharrak zer eragozpen dakarren, eta zein den irtenbidea: izen-egituratik aditz-egiturara aldatzea.

- (356) a. *[Benito Lertxundiren bisitak] asko urritu dira azken hamarkadan.

Osagarri hori («estudiora») aditzarekin joatekoa da, eta ezin liteke izenarekin lotu; beraz, solte dago perpaus horretan. Bestalde, izenari lotzekotan, izenlagun bihurtu behar da («estudiorako»), baina horrek ere badu

bere eragozpena, esan nahi denaz bestera uler baitaiteke: «(inork) Lertxundiren estudioira egindako bisitak».

- b. ▼[Benito Lertxundiren estudiorako bisitak] asko urritu dira azken hamarkadan.

Izen-egituratik aditz-egiturara aldatuta (*bisita* izenaren orde *bisitatu* edo *-ra jo* aditzak erabilia), egokiago emango dugu perpausa⁴¹:

- c. Benito Lertxundik askoz gutxiagotan **bisitatu du estudioa** azken hamarkadan.
d. Benito Lertxundik askoz gutxiagotan **jo du estudioira** azken hamarkadan.

Aurreko perpausoko arazo bera dugu, nominalizazio desegokiaren ondorioz, honako testu honetan ere (errotulu bat da). Osagarri bat («18 urtetik beherakoei») *salmenta* izenari lotu gabe gelditzen da (a) kasuan, *saltzea* aditz-izenari loturik ematekoa baita (b). Halakoak sarritan gertatzen dira aditzaren orde nominalizazioa erabiltzean, kasu honetan bezala.

- (357) a. *18 urtetik beherakoei edari alkoholduen **salmenta** debekaturik.
b. Debekaturik dago 18 urtetik beherakoei edari alkoholduen **saltzea**.

3.5. Aditza isildua duten tituluak

Osagarriak nahitaez lotu beharra perpaus josian gertatzen da. Zilegi da osagarriren bat solte uztea aditz-isiltzea gertatzen den kasuetan: izenburuak, sintaxitik bereizitako zerrendatzeak... Alegia, ezin dugu ontzat eman, aurreko puntuan esandakoaren haritik, «Hasierako elkarrizketa gurasoekin garrantzitsua da» perpausa (lotu gabe gelditzen da *gurasoekin*), baina egokia da «Hasierako elkarrizketa gurasoekin» izenburua. Egoki dira izenburu hauek ere:

- (358) Eskualdeen **parte-hartzea** Europaren eraikuntzan
(359) **Egonaldiak** familia euskaldunetan
(360) Bideoaren **funtzioak** hezkuntzan
(361) **Bidaia** Erresuma Batura

⁴¹ Perpaus erlatiboetan ere izan dezakegu anbiguotasuna saihesteko bidea («Lertxundik estudioira egindako bisitak»/«Lertxundiren estudioira egindako bisitak»).

Beraz, honako adibideotan ez dago nahitaez (b) aukerek erakusten duten eredu lotura jo beharrik (nahiz egoki diren horiek ere, jakina):

- (362) a. Parentesiak batuketetan eta kenketetan
b. Batuketetako eta kenketetako parentesiak
- (363) a. Antolaketa, segurtasuna eta higiena laborategian
b. Laborategiko antolaketa, segurtasuna eta higiena

Halakoak perpaus-joskeran ezin txertatu direla berriz ere ikusteko, heda dezagun azken adibide hori:

- (364) a. *[Antolaketa, segurtasuna eta higiena laborategian] segurtatuta daude.
b. [Laborategiko antolaketa, segurtasuna eta higiena] segurtatuta daude.
c. [Antolaketa, segurtasuna eta higiena] segurtatuta daude laborategian.

Hona beste adibide bat:

- (365) a. Nire abentura lehorrean
b. *Nire abentura lehorrean ez zen ongi atera.
c. Lehorreko nire abentura ez zen ongi atera.

4. Izenordaina

4.1. Pluraleko pertsona-izenordainak singularrekoen orde

Euskarak joera izan du pluraleko pertsona-izenordainak erabiltzeko singularrekoen orde, batez ere *noren* kasuan. Gaur egungo joera ez da erabatekoa, baina hala ere sarritan entzuten dira horrelako erabilerak zenbait toki-izenekin (*etxe, herri...*) eta senidetasun-izenekin⁴² (*anaial/ neba/arreba/abizpa, aitalama...*).

(366) **Zuen** (=zure) etxean ere hala gertatzen al da?

(367) **Gure** (=nire) baserria herritik urruti dago.

(368) **Gure** (=nire) anaiak ederki daki horren berri.

Lexikalizatu ere egin dira pluraleko *noren* izenordain horietatik bi: «zuenean» esaten da behin baino gehiagotan «zuen etxean» esateko, eta «gurean», berriz, «gure etxean» edo, hedaduraz, «gure herrian» esateko.

(369) **Zuenean** ere ez zen giro izango atzo, ezta?

(370) Saharako haur talde batek **gurean** pasatuko du uda.

4.2. Izenordain zehaztugabeak

4.2.1. *Zer/zein* eta *nor/zein*

Galdera irekietan, *zer* galdetzailea erabiltzen da; multzo jakin batetik bat bereizi behar denean, berriz, *zein*. Batzuetan, biak erabil daitezke, bakoitza bere esanahiarekin: galdera erabat irekitzat hartzen bada, *zer*; era batera edo bestera zedarritutzat daukagun multzo batetik bat bereizteko eskatzen dugunean, *zein*⁴³:

(371) a. **Zer** egunetan joan behar duzu mendira?

b. **Zein** egunetan joan behar duzu mendira?

(372) a. **Zer** kolore erabili da gehien?

b. **Zein** kolore erabili da gehien?

⁴² Ez dabil oso aparte izen bereziekiko jokaera hau ere: «*Gure* Begoña», «*Zuen* Joxe»...

⁴³ Hiru adibideotan ere, errazago da *zer* erabiltzeko testuingurua izatea, baina beste aukera ere zilegi izan daiteke: egun-aukera mugatua bada, koloreak aipatuak baditugu, herri multzo jakin batez ari bagara...

- (373) a. **Zer herritan** bizi da Ane?
 b. **Zein herritan** bizi da Ane?

Egungo hizkeran eta testuetan, ordea, behar baino gehiagotan *zein* erabiltzeko joera nabari da:

- (374) a. *Zein ordutan joaten zara eskolara?
 b. **Zer ordutan** joaten zara eskolara?
 (375) a. *Zein izen jarriko zenioke salgaiari?
 b. **Zer izen** jarriko zenioke salgaiari?
 (376) a. *Ez nekien zein musika aukeratu.
 b. Ez nekien **zer musika** aukeratu.
 (377) a. *Zein koloretakoa da hondoa?
 b. **Zer koloretakoa** da hondoa?
 c. **Nolako kolorekoa** da hondoa?

Perpaua taxutzeko moduak ekartzen du batzuetan *zein* erabili beharra, dagokion izenetik bereizirik (378b, 379b, 379c):

- (378) a. **Zer plan** du Jainkoak gizaki guztiontzat?
 b. **Zein** da Jainkoak gizaki guztiontzat duen **plana**?
 (379) a. **Zer kolore** duzu gogoko?
 b. **Zein** da zure gogoko **kolorea**?
 c. **Zein** duzu **kolorerik** gogokoena?

Zer galdetzailearekin egitekoak dira honako galdera hauek guztiak, testuinguru bereziren batean *zein* erabil badaiteke ere:

- (380) **Zer menditan** izan zineten atzo?
 (381) **Zer kontakizun** gogorarazten dizu marrazkiak?
 (382) **Zer lanbidetan** aritzen da ama?
 (383) **Zer hitz** esan zituen Jesussek azken afarian?

Nahitaez *zer* erabili behar da galdetzaileak *zenbateko* esanahia duenean; alegia, *nolakoren* baliokide denean.

- (384) **Zer garrantzi** izan zuen aurkikuntza hark?
 (385) **Zer indar** du alderdi horrek gaur egun?
 (386) a. *Tenperatura 25 °C denean, **zein presio** dago galdaran?
 b. Tenperatura 25 °C denean, **zer presio** dago galdaran?

Harridurazko perpausetan, izena bakarrik doanean *zer* erabiltzen da; izena eta adjektiboa doazenean, berriz, baliokide ditugu *zer* eta *zein(en)*. Halakoetan, galdetzaile ez baizik kuantifikatzaile ditugu *zer* eta *zein*:

- (387) a. **Zer** etxea!
b1. **Zer** etxe handia!
b2. **Zein(en)** etxe handia!

Harridura adierazteko modu gehiago ere badira, jakina: «Hau/hori/hura (bai) etxea!», esate baterako.

4.2.2. *Nor(tzuk), zer(tzuk), zein(tzuk)*

Erreferente plurala dutenean, *nor*, *zer* eta *zein* galdetzaileen tokian *nortzuk*, *zertzuk* eta *zeintzuk* ere erabiltzen dira, batez ere mendebaldeko euskalkietan. Euskaltzaindiak forma bakunei eman die lehentasuna (*nor*, *zer*, *zein*), 11. arauan.

- (388) Ez genekien **nor** ziren bi pertsona haiek.
(389) **Nork** izan dute eraginik handiena zuen musikan?

Forma markatuak erabiliz gero, *batzuen* paradigma berari jarraitu behar zaio: *nortzuk*, *nortzuek*, *nortzuei*, *nortzuen*...

- (390) a. *Nortzu etorri dira?
b. **Nortzuk** etorri dira?
(391) a. *Nortzuk egin dute hori?
b. **Nortzuek** egin dute hori?

4.2.3. Galderetako itzuli bihurriak

Galderetan ere, 1.3.3.2 puntuan adierazi bezala, erlatibo bidezko itzulia baino bide egokiagoa da eskuarki zuzeneko galdera:

- (392) a. **Nork** deitu dit?
b. ▼**Nor** izan da deitu didana?

Erlatiboz giteak badu abantailarik inoiz; esaterako, erantzuna absolutiboan ematea komeni zaigunean. Betiere, galdetzailea dago-kion hitzetik urruntzea baino egokiago da ondoan ematea —(b) ego-kiago (c) baino—:

- (393) a. **Zer/zein taldek** lortu du domina gehien?
 b. **Zer/zein talde da** domina gehien lortu duena?
 c. **▼Zein da** domina gehien lortu duen **taldea**?
- (394) a. **Zer/zein hiritan** egiten du euri gehien?
 b. **Zer/zein hiri da** euri gehien egiten duena?
 c. **▼Zein da** euri gehien egiten duen **hiria**?

4.2.4. *Ezer eta zerbait*

Ezer, inor, inoiz eta kidekoak ezezko perpausetan erabiltzen dira gehienetan, baina *ez* ukatzailea behar dute zentzu negatiboa izateko.

- (395) a. Zer esan dizu? ***Ezer**.
 b. Zer esan dizu? **Ezer ez**.
- (396) a. Nor etorri da? ***Inor**.
 b. Nor etorri da? **Inor ez**.

Ezezko perpausetatik kanpo, galde-perpausetan eta baldintzazko batzuetan erabiltzen dira *ezer, inor, inoiz* eta kidekoak.

Galderetan, bada ñabardura bat, auresuposizioei dagokiena, *ezer* eta *zerbaiten* artean (eta orobat *inor* eta *norbaiten* artean, eta abar): *ezer* eta *inor* baino modu espezifikoagoan ulertzen dira *zerbait* eta *norbait*⁴⁴:

- (397) a. **Inor** etorri al da? ('Jenderik etorri al da?')
 b. **Norbait** etorri al da (etortzekoak zirenetatik)?

Horrekin loturik, ondorengo galdera honetan «balio digun» osagarria sartuz gero, *ezerekin* partitiboa eta *zerbaitekin* artikulua determinatua erabiliko genuke aukeran:

- (398) a. Aurkitu al duzu **ezer** (balio digunik)?
 b. Aurkitu al duzu **zerbait** (balio diguna)?

Baieztapen-perpau batzuetan ere erabiltzen dira *ezer, inor* eta kidekoak; batez ere, baldintzazkoetan, eta *inoizen* kasuan, 401. adibidearen tankerako perpausetan.

- (399) **Ezer** gustukorik aurkituz gero, erosi egingo dut.

⁴⁴ «Gutxi gorabehera, absolutu mugatuaren (*ogia*) eta partitiboaren artean (*ogirik*) izango genukeen diferentzia bera dugu *norbait* eta *inoren* artean» (EGLU-I, 54. or.).

(400) **Inor** baldin bada ardoari antzematen dionik, huraxe da.

(401) **Inoiz** ikusi izan ditut horrelako perretxikoak.

Erabilera berezi bat ere badu *inor* izenordainak: «inoren» esanda, ‘besteren’, ‘norberarena ez den’ adierazten da mendebaldeko euskalkietan.

(402) Ezetz erantzun nion, narrasegi nengoela **inoren etxean** bisitari agertzeko.

Norbait, *zerbait* eta kideko izenordainen esanahi berekoak ditugu hauek: *nor edo nor* (*nonor* esaten dena mendebaldean), *zer edo zer* (*zeozer*) eta abar.

4.2.5. *Norbaitetaz, zerbaitetaz*

Nor, *zer* edo *zein* daramaten izenordainetan, galdetzailearekiko paralelismoa gordetzea gomendatzen dugu:

(403) **zertaz**: ezertaz, zerbaitetaz, edozertaz, zernahitaz
nortaz: inortaz, norbaitetaz, edonortaz, nornahitaz
zeinetaz⁴⁵: ezeinetaz, edozeinetaz, zeinahitaz

4.2.6. *Ezer/edozer*

Beste izenordain zehaztugabe batzuk *edozer* (*zernabi*) eta *edonor* (*nornabi*) erakoak ditugu. Ezin dira erabili *ezer* eta *inoren* ordeztu, eta oso esanahi desberdina dute *zerbait* eta *norbaiten* aldean.

(404) a. ***Ezer** ekar dezakezu.
b. **Edozer** ekar dezakezu. (‘nahi duzuna, edozein gauza’)
c. **Zerbait** ekar dezakezu. (‘gauzaren bat’)

Beraz, aukera guztiz irekia uzten da, baiezko perpausetan, *edozer* eta *zernabi* esatean. Ezezkoetan, berriz, aukera guztiz irekia ez dela adierazten du, murriztapenak badirela, baina perpausak ez du *ezerekin* duen esanahia. Guztiz desberdinak dira, adibidez, bi perpaus hauek:

(405) a. **Edozerk** ez du balio horretarako.
b. **Ezerk** ez du balio horretarako.

Honako perpaus honetan, *ezer* erabili behar da, eta ez *edozer*.

⁴⁵ Galdetzailea *zeinetaz* da, baina *zein* izenordain erlatibo gisa erabiltzen denean (*zein*, *zeinek*, *zeini*...), instrumentaleko forma *zeinez* da.

- (406) a. *Sendagaiak zeure kabuz hartzen dituzu ala medikuarengana joaten zara **edozer** hartu aurretik?
 b. Sendagaiak zeure kabuz hartzen dituzu ala medikuarengana joaten zara **ezer** hartu aurretik?

Edozer eta *zernabiren* ondoan, hor ditugu *edonor* eta *nornabi*, *edonon* eta *nonabi* (*non-nabi*) eta abar (bi formak dira Euskaltzaindiak onartuak: *nonabi* eta *non-nabi*).

4.2.7. Galdetzaileak neurriekin: *zer*, *zenbat*, *zenbateko*, **zein*

Neurriekin, *zer* eta *zenbat(eko)* galdetzaileak erabiltzen dira. *Zein* galdetzailea desegoki da halakoetan (ikus 4.2.1 puntua):

- (407) a. ***Zein distantzia** dago Baionatik Bilbora?
 b. **Zer distantzia** dago Baionatik Bilbora?
 c. **Zer/zenbat bide** dago Baionatik Bilbora?
 (408) a. ***Zein pisu du zaku bakoitzak?**
 b. **Zer pisu du zaku bakoitzak?**

Aukeran, *zer* galdetzaile soila da lehenestekoa:

- (409) **Zer** adin du mutikoak?
 (410) **Zer** luzera du aldeak?
 (411) **Zer** neurri du angelu bakoitzak, gradutan?
 (412) **Zer** dentsitate du nahastura bakoitzak?

Hurrengo aukera *zenbat* baliatzea da. Hala ere, gaur egun asko zabaldu da *zenbateko* erabiltzeko joera, *Ortotipografia* liburukian esan genuenez («Neurri-izenak» atala, 43. orrialdea): «Lehenengoaren erabilera, *zenbat* soilarena, tradizio handikoa dugu; baina, gaur egungo testuak ikusita, ematen du *zenbateko* besterik ez dugula aukeran, hartaraino ari baita baztertzen *zenbat* soilari dagokion moldea». (Ikus 6.2.7 puntua ere).

- (413) a. **Zenbat** da karratu horren azalera?
 b. **Zenbateko** azalera du karratu horrek?
 (414) a. **Zenbat** da zabal(ean) eraikina?
 b. **Zenbateko** zabalera du eraikinak?

- (415) a. **Zenbat** da aurrekontua? Milioi bat euro.
 b. **Zenbat euroren aurrekontua** onetsi dute? Milioi bat eurorena.
 c. **Nolako / zenbat euroko / zenbateko** aurrekontua onetsi dute?
 Milioi bat eurokoa.

Ortotipografia liburukian esan bezala (43.-44. orrialdeak), «zenbat da aurrekontua» moldea tradizio handikoa da, eta, aukeran, «zenbatekoa da aurrekontua?» moldearen aldean hobestekoa.

4.3. *Besterik* nola komunztatu

Euskaltzaindiko Gramatika batzordearen gomendio baten arabera⁴⁶, *besterik* erabiltzean, aditzak singularrean behar du honelako kasuetan ere:

- (416) a. *Eskolako liburuak **besterik ez ditut** ekarri.
 b. Eskolako liburuak **besterik ez dut** ekarri.

Izan ere, aditzak *besterikekin* egiten du komunztadura, eta ez haren ezkerreko sintagmarekin⁴⁷. Are nabarmenago ageri da hori pertsona-izenordainekin, lehenbiziko nahiz bigarren pertsonakoak sarturik ere aditza hirugarren pertsonan jokatzen baita:

- (417) a. ***Zu** **besterik ez zaitut** maite.
 b. **Zu** **besterik ez dut** maite.

Bestalde, *besteriken* aurreko izena absolutiboan erabiltzen da beti; beste kasu batean badago, *baino* eta *baizik* baliatu behar dira, horiek kasu guztiak onartzen baitituzte:

- (418) a. ***Zurekin** **besterik ez du** nahi.
 b. **Zurekin baino/baizik** ez du nahi.

Adierazpide egokiak dira, jakina, «Zurekin bakarrik nahi du» eta «Zurekin beste inorekin ez du nahi» ere.

⁴⁶ Areatzan 1998an aurkeztua, eta JAGONET zerbitzuan 1999ko erantzun batean berretsia (*Besterik*).

⁴⁷ Zenbakiak tartean direnean («lau baino ez», «sei baizik ez»...), esanahiak bereizteko bide ematen du singular/plural bereizkuntzak: *Lau soineko baino/baizik/besterik ez dut ekarri* ('lau soineko, beste ezer ez'). *Lau soineko baino/baizik ez ditut ekarri* ('soinekoetatik, lau bakarrik'). Gogora dezagun, bestalde, esapide enfatikoetan aditza ez dela pluralarekin komunztatzen: «Lana besterik ez duzu ematen!», «Soinekoak besterik ez daukazu buruan!»).

- (419) a. *Interneten, % 12k **besterik** ez du erabiltzen euskara.
 b. Interneten, % 12k **baino/baizik** ez du erabiltzen euskara.

Absolutiboaz gainerako kasuekin *beste-* erroa erabiltzekotan, bi bide hauek ditugu: «...-*k beste inork*», «...-*i beste inori*» egitura, deklinabide-atzizkia errepikatuz beti (420c, 421c), eta *beste* bera deklinatzea, izenordearekin batera (422, 423):

- (420) a. ***Zuk besterik** ez daki.
 b. #**Zuk besterik** ez dakizu.
 c. **Zuk beste inork** ez daki.
- (421) a. ***Zuri besterik** ez diot esan.
 b. ***Zuri besterik** ez dizut esan.
 c. **Zuri beste inori** ez diot esan.
- (422) **Zuk bestek** ez daki.
- (423) **Zuri besteri** ez diot esan.

Kasu batean, hala ere, aditza pluralean ematea nahitaezkoa da: *besterik* pluraleko subjektu baten atributuan doanean:

- (424) a. Horiek aitzakiak **besterik** ez **dira**.
 b. Horiek ez **dira** aitzakiak **besterik**. ('Horiek aitzakia hutsa(k) dira').

Baino eta *baizik* ez dira *besterik* bezala jokutzen, numeroari dagokionez: haien aurreko elementuarekin numero-komunztadura egiten du aditzak:

- (425) Boterearen **ikurrak** **baizik** ez **dituzte** errausten.

4.4. *Norbera, norberaren eta nor bere*

«*Norbera*, bere horretan, izenordaintzat hartzen ahal dugu, nahiz eta *nor* + *bera* modura osatua egon, *Andoni bera* esaten dugunean bezala» (EGLU-I, 58). Edozein izen bezala deklinatzen da *norbera*:

- (426) **Norbera** libre da nahi duena egiteko.
- (427) **Norberak** kontrola dezake prozesu guztia.
- (428) **Norberari** dagokio erabakitzea zenbateraino sartu.

Genitiboko formarako, berriz, *norberaren* aski da, eta ez dugu gomendatzen *norbere* erabiltzea. *Besterik* da *nor bere* forma (eta horren saileko *nork bere* eta *nori bere*):

- (429) **Nor bere ardurekin** bizi da. ('bakoitza bere ardurekin', 'zein bere ardurekin')
- (430) **Norberaren ardurak** ez dagozkio beste inori. ('bakoitzaren ardurak')
- (431) **Nork bere ardurak** hartu behar ditu.
- (432) **Nori bere ardurak** eman behar zaizkio.

Azken adibide bi horien parean, inoiz «norberak bere» moduko erabilerak ikus daitezke, baina ez dira gomendatzekoak (EGLU-I, 60):

- (433) a. ▼**Norberak bere etxean** nahi duena egin dezake.
 b. **Nork bere etxean** nahi duena egin dezake.

Norberaren erabilera honekin lehian dabil, testuinguru batzuetan, *bat* izenordaina:

- (434) Horrelako gauzak ikusita, **batek ez daki** zer pentsatu.

4.5. *Bakoitza, batbedera*

Bakoitza eta *batbedera* ere erabiltzen dira, *norbera* esanahiarekin, zein bere euskalkian:

- (435) **Bakoitzak** daki zer egin behar duen.
- (436) Emakume bakoitzak haatik uste zuen **batbedera** zela jokoan ari zen bakarra.

Bakoitza eta *bana* batera joan daitezke inoiz, baina erredundantzia hori saihestea komeni da. (Ikus 5.7.2 puntua ere).

- (437) a. ?Salbatu duzuen printzesarekin ezkonduko zarete, eta zuetariko **bakoitzak** erresumaren heren **bana** izango du.
 b. Salbatu duzuen printzesarekin ezkonduko zarete, eta zuetariko **bakoitzak** erresumaren heren **bat** izango du.

Hala dagokionean, plural hutsarekin baino zehatzago eta argiago adierazten dira gauzak *bakoitza* erabilia:

- (438) a. ?Idatzi zenbaki hamartar **hauek** dagokien laukian.
 b. Idatzi zenbaki hamartar **hauek** dagozkien laukietan.
 c. Idatzi dagokion laukian zenbaki hamartar **hauetariko bakoitza**.

Aditza hirugarren pertsona singularrekoan ematen da beti *bakoitza* erabiltzean:

- (439) a. *Gutako **bakoitzak** desio eta balio desberdinak **ditugu**.
 b. Gutako **bakoitzak** desio eta balio desberdinak **ditu**.
 c. Gutako **bakoitzak bere** desio eta balioak **ditu**.

Nork bere eta *zeinek bere* esapideekin ere aditza hirugarren pertsonan eman ohi da («nork bere ideiak ditu»), baina ez da debeku lehen edo bigarren pertsonan agertzea («nork bere ideiak ditugu/dituzue», erreferentetzat zein hartzen den).

- (440) a. **Nork/zeinek bere** desio eta balioak **ditu**.
 b. **Nork/zeinek bere** desio eta balioak **ditugu** guk ere.

Hala ere, beti *bereri* eusten zaio kasu horretan ere:

- (441) a. **Nork bere** ideiak izaten **ditu(gu)**.
 b. ***Nork geure** ideiak izaten **ditugu**.

4.6. Erakusleak izenordain

4.6.1. *Hau/bori/bura* banaketa eta *bura/bera* banaketa

Badira lehenbiziko eta bigarren pertsonako izenordain berezituak (*ni, hi, gu, zu...*); hirugarren graduako izenordaintzat, berriz, erakusleak erabiltzen ditugu: *bura, haiek...* Halatan, zalantza franko sortzen da testuetan, zer forma erabili: bai graduari dagokiola (*bura, hori, hau*), bai indartze edo berretzeari dagokiola (*bura, bera*), bai genitiboei dagokiela (*haren, bere*)... Gai honek garrantzi handia du idatzien zehaztasun eta argitasunerako, izenordainok erabiltzen baititugu testuetan, besteak beste, ordezkapen lexikaletarako, anafora-kate deritzenak osatuz.

Bestalde, hizkuntza bakoitzak bere sistema du erreferentzia edo anaforak egiteko. Hori hala izanik, erdaren moldeetatik datozkigu euskarazko zenbait joera, eta gai hau berariaz aztertu da bilduma honetako bigarren liburukian, *Kalko okerrak* izenekoan («Erakusleen testu-erabilerak», 75. or). Hemen, hiru irizpide gogoratu baino ez dugu egingo:

- a) Anafora arruntean, hots, lehendik aipaturiko izen baten ordeztu izenordaina erabiltzean, *bura* da lehenbiziko aukera. Erreferentzia errepikatu ere egiten da batzuetan (442b).

- (442) a. Ikasleak **irakasleari** galdetu dio, baina **hark** ez dio erantzun.
 b. Ikasleak **irakasleari** galdetu dio, baina **irakasleak** ez dio erantzun.
 c. ▼Ikasleak **irakasleari** galdetu dio, baina **honek** ez dio erantzun.

b) Oro har, forma arrunta (*hura*) erabiltzea da egokiena lehen aipamenean; bigarren aipamenean erabiliko da *bera* berretua⁴⁸.

- (443) a. **Irakaslea** etorri denez, **hari** esango diogu.
 b. **Irakaslea** etorri denez, **hari** esango diogu, eta **berak** erabaki dezala.
 c. **Irakaslea** etorri denez, **harixe/berari** esango diogu.

(Aski da, (b) aukerak erakusten duen bezala, *hari* soila erabiltzea. Erakuslea indartu nahi izanez gero, *harixe* eta *berari* erabil daitezke.)

c) Berretua erabiltzekotan, *beraren* paradigma hau da lehen aukera: *bera*, *berak* (nor); *berak*, *berek* (nork)... Euskalkien arabera, *eurak/eurek/euren* sistema ere erabiltzen da (*Hiztegi Batua*: **eurak**, izenordea, 'haiek berak').

- (444) a. **Ikasleek** erabiliko dute gela, **haiek** eskatu baitute.
 b. **Ikasleek** erabiliko dute gela, **berek/haixek** eskatu baitute.

4.6.2. *Haren/bera* banaketa

Hura izenordain arruntaren ordezkari behar baino gehiagotan *bera* erabiltzen den modu bertsuan, *haren* genitibo arruntaren ordezkari *bera* erabiltzen da behar baino gehiagotan. Honelakoetan dagokio *bera* erabiltzea: izenordain horrek aipatzen duen pertsona edo izakia perpausaren *nor*, *nork* edo *nori* osagaia bada. Puntu hau ere azalduta dago *Kalko okerrak* liburukian (76. orrialdea).

- (445) a. Liburu bakoitza **bera** tokian jarri behar da.
 b. Liburu bakoitzak **bera** salneurria du.
 c. Liburu bakoitzari **bera** izenburua dagokio.

Perpauko *nor*, *nori* edo *nork* sintagmaren erreferentziakidea izan behar du, beraz, *bera* izenordainak; sintagma hori aditzean islaturik egoten da.

Ez dagokio *bera* erabiltzea honelako perpausetan:

- (446) Ekuazioa ebaztea **haren** soluzioak aurkitzea da.
 (447) Liburuari ez zik, **haren** salneurriari ere begiratzen diot.

⁴⁸ Inoiz, ambiguitasunen bat uxatzen laguntzeko, *beraren* erabil daiteke lehen aipamenean ere.

Azpimarraturik ematen ditugu erreferenteak (*ekuaizioa, liburua*), eta ohar gaitzke ez direla *aurkitzea* eta *begiratzeko diot* aditzen osagarri. Ez dagokio *bere* erabiltzea hauetan ere (ikus, esaterako, EGLU-I, 67. orria eta hurrengoak):

- (448) a. *Airea ikusi ezin baduzu ere, badagoela frogatu dezakezu **bere** eragina ikusiz.
- b. Airea ikusi ezin baduzu ere, badagoela frogatu dezakezu **haren** eragina ikusiz.
- (449) a. *Zer ondorio ditu **bere** jarrerak?
- b. Zer ondorio ditu **haren** jarrerak?
- (450) a. ▼ Josu eta **bere** lagunak konturatu ziren ez zutela harrera ona izan.
- b. Josu eta **haren/beraren** lagunak konturatu ziren ez zutela harrera ona izan.
- c. Josu eta lagunak konturatu ziren ez zutela harrera ona izan.

Gauza bera gertatzen da honako adibide hauetan. Gogoan izan behar da, gainera, izenordaina isiltzea ere guztiz egokia dela askotan (ikus, esate baterako, 450c eta 451c adibideak).

- (451) a. *Kalkulatu karratu baten aldea, **bere** azalera 400 m² bada.
- b. Kalkulatu karratu baten aldea, **haren** azalera 400 m² bada.
- c. Kalkulatu karratu baten aldea, azalera 400 m² bada/badu.
- (452) a. *Zenbaki batek, **bere** aurrekoak eta **bere** ostekoak 702 egiten dute baturik.
- b. Zenbaki batek, **haren** aurrekoak eta **haren/beraren** ostekoak 702 egiten dute baturik.

4.7. Elkarkariak

4.7.1. *Elkar*

Perpasean betetzen duen funtzioaren arabera deklinatzen da *elkar* izenordain elkarkaria: *elkar, elkarri, elkarren, elkarrekin, elkarrengana...* Perpausaren subjektua izaten duenez erreferente, **elkarrek* forma ez da inoiz erabiltzen (EGLU-I, 64. or.).

Zenbait hutsegite egiten dira *elkar* izenordainaren komunztaduran: batez ere, okerreko kasua hautatzea (453a), eta numero-komunztadura

okerra (singularrekoa dagokio beti). Zuzentzekoak dira, beraz, hone-lakoak:

- (453) a. ***Elkar** etorri dira.
- b. **Elkarrekin** etorri dira.
- (454) a. *Ikasitakoaren berri **ematen diete elkarri**.
- b. Ikasitakoaren berri **ematen diote elkarri**.

Elkarrekikotasunik adierazten ez denean, desegoki da *elkar*. Hori gertatzen da ondoren datozen perpausetan: lehenbiziko kasuan (455), «balio bera izan» predikatuak ez du tokirik uzten izenorde elkarkariarentzat (izatekotan ere, «elkarren balioa izan» litzateke beste aukera, baina ez da gramatikala).

- (455) a. *Margotu itzazu kolore beraz **elkarren balio bereko diren** zenbakizko adierazpenak.
- b. Margotu itzazu kolore beraz **balio bereko diren** zenbakizko adierazpenak.
- c. Margotu itzazu kolore beraz **balio bera duten** zenbakizko adierazpenak.
- (456) a. ▼Ikasleek, zenbaitetan, **elkarren arteko lan-taldeak** osatzen dituzte.
- b. ▼Ikasleek, zenbaitetan, **lan-taldeak** osatzen dituzte **elkarren artean**.
- c. Ikasleek, zenbaitetan, **lan-taldeak** osatzen dituzte.

Predikatu horretan (456) ez da elkarrekikotasunik. Aldera dezagun, esate baterako, horko «elkarren artean» desegoki hori beste «elkarren artean» egoki honekin: «Ikasleek, zenbaitetan, tirabirak izaten dituzte *elkarren artean*». Hor bada elkarrekikotasuna (egoki dira «beren artean» eta «elkarrekin» ere).

Desegoki dira honako hauek ere (ikus, *desberdin* eta *berdin* hitzen inguruan, 1.3.4.10 puntua ere):

- (457) a. *Guztiok **elkarren desberdinak** gara.
- b. Guztiok **desberdinak** gara.
- (458) a. Nekez azter daitezke batera ***elkarrengandik hain desberdinak** diren gizarteak.
- b. Nekez azter daitezke batera **hain desberdinak** diren gizarteak.
- c. Nekez azter daitezke batera **beren artean hain desberdinak** diren gizarteak.

Elkarren genitiboa ohikoa da *arte(-an/-ko)* hitzarekin, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* arabera, nahiz *beren* erabil daitekeen. Adibide hau dakar, esate baterako, *artean* kasuan: *Bi aitoren semek edo zaldunek elkarren artean etsaigoa dutenean*. Orobat da ohikoa *kontra*, *aurka* eta *lebian* hitzekin.

Kokapen-hitzeekin ere (*ondo*, *segida*, *gain...*) ohikoa da *elkarren*, baina ez beti ezinbestekoa.

- (459) a. Nekez ikusiko ditugu bi juntagailu **elkarren segidan**.
b. Nekez ikusiko ditugu bi juntagailu **segidan**.
c. Nekez ikusiko ditugu bi juntagailu **bata bestearen ondotik**.

Elkarrengana saileko formak erabiltzen dira erreferentea izen bizigabea denean ere. Ekialdeko euskalkietan, *elkarretara* modukoak ere bai, *elkarretaratu* aditzak erakusten duen gisan (ikus 3.1 atala).

- (460) Beroaren eraginez, partikulek **elkarrengandik bereizteko** joera dute.

4.7.2. *Elkar* aurrizki?

Aurrizki gisa erabiltzen da *elkar* kasu bakan batzuetan (ikus *Hiztegi Batua*): *elkarrizketa*, *elkarlan* (*lankidetza* sinonimoarekin batera), *elkarbizitza* (*bizikidetza* eta *bizikidetasunekin* batera), *elkar-maite*, *elkarzut* (*perpendikularrekin* batera)... Hortik aurrera, ez dirudi oso bide emankorra denik *elkar* aurrizki gisa erabiltzea.

Jakina, ez da egoki *elkar-* erabiltzea beti erdarazko *inter-* guztien ordainetan⁴⁹. Era berean, ez da ez egoki eta ez beharrezko beti izen bakar batez itzultzea halakoak: *elkarrekin bizitzea*, *elkarri eragitea*, *elkarrekin barremanak izatea*...

Sintaxi-bide arruntari jarraitzea egokiago da, honelakoetan, hitz berria osatzea baino:

- (461) a. ?*elkarmendekotasun*
b. *elkarren mendekotasun*
c. *elkarrekiko mendekotasun*

⁴⁹ Horren adibide nabarmena da *truke* esan beharrean **elkartruke* esaten denekoa.

- (462) a. ?elkarrulermen
b. elkar-ulertze
- (463) a. ?elkar-osagarri
b. elkarren osagarri
- (464) a. *Gizakien eta ingurunearen **arteko elkar harremanez** garatzen dira egitura kognitibo-moralak.
b. Gizakien eta ingurunearen **arteko harremanez** garatzen dira egitura kognitibo-moralak.

4.7.3. *Bata bestea*

Elkar izenordainaren esanahi berarekin, *bata beste-* eta *bata bertze-* ere erabiltzen dira, iharturik. *Orotariko Euskal Hiztegitik* eta *Ereduzko Prosa Gaur* corpusetik hautatu ditugu adibideok, hainbaten artetik:

- (465) Eta bi arbola haiek hagitx dute **bata bertzearen** iduria.
- (466) Zergatik **bata besteari** berbarik egiten ez deutsen.
- (467) Eternitatearen bi zati nagusi hauek, **bata bestea** etengabe ezabatzen ari direnak, zeharo desberdinak dira.

Perpau horietan, komunztadura arruntez, «batak bestearen», «batak besteari» eta «batak bestea» esango litzateke. Horregatik, argi ikusten da *bata beste-* egitura iharturik dagoela, elkarkari-balioarekin.

JAGONET zerbitzuko erantzun batean, Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak ontzat ematen ditu «batak bestea maite dute» eta «bata bestea maite dute» (= 'elkar maite dute'). Bestetik, erantzun horrek dioenez, «batak bestea maite du» perpausean ez da elkarkaririk: noranzko bakarrekoa da maitatzea.

4.8. Bihurkariak

4.8.1. *Bere burua* eta *beren burua*

Egitura bihurkari nagusia *bere burua* erakoa dugu; *bere* izenordainaren tokian besteak ere ager daitezke (*neure burua*, *zeuen burua*...), bihurkari forman betiere («*Neure buruari* galdetzen diot», eta ez «**Nire buruari* galdetzen diot»). Ikus EGLU-I (62.-63. or.).

Hirugarren pertsonan, singularrekoa eta pluralekoa bereiztea gomendatzen dugu: erreferente singular bati dagokionean *bere* erabiltzea, eta erreferente plural bati dagokionean, berriz, *beren*.

(468) Harrikoa egiten hasi baino lehen, bainugelara doa, eta ispiluan begiratzen dio **bere buruari** luzaroan.

(469) Marinelek, ikarak zoraturik, kareletik botatzen zuten **beren burua**; eskla-boek ez, arraunetara kateaturik zeuden-eta.

Euren izenordaina ere erabiltzen da bihurkari gisa:

(470) Gasteizen euskalduntutako hiztunek lekuz kanpo ikusi ohi dute **euren burua** Gipuzkoako edo Bizkaiko euskaldunekin elkartzen direnean.

4.8.2. *Geure burua, zeuen burua, beren burua*

Izenordea pertsonaren arabera aldatzen da egitura bihurkari honetan, baina *buru* hitzak ez du pluraleko komunztadurarik egiten eskuarki: *geure buruari*, *zeuen buruari* eta *beren buruari* esaten da (eta ez *geure buruei*, *zeuen buruei* eta *beren buruei*). Hala ere, plurala zilegi dela dio EGLU-Iek (62.-63. orrialdeak), eta Leizarragaren bi adibide dakartza pluralean (*bere buruak*, *gure buruak*).

Singularra gomendatzen dugu ikasmaterialetarako.

(471) Aspalditik, gizakiok unibertsoan bakarrak ote garen galdetzen diogu **geure buruari**.

5. Determinatzaileak

5.1. Deklinabide mugatua eta mugagabea

5.1.1. Inesibo plurala eta mugagabea: *taldeetan/taldetan*

Inesiboan, tipikoak ditugu zenbatzailerik gabeko zenbait mugagabe: «*uretan* (sartu...))», «*ur berotan* (ipini...))» «*oliotan* (eduki...))», «*ardotan* (ito...))»... Beste zenbaitetan, zalantza izaten da plurala ala mugagabea dagokion: «*taldetan* banatu» ala «*taldeetan* banatu», adibidez. Esanahia *non* arruntetik *nola* adieraztera lerratzen denean, mugagabea erabiltzea hobesten dugu (ikus, *Kalko okerrak* liburukian, 46.-50. orrialdeak⁵⁰). Honela, alegia:

- (472) a. Banatu haurrak **taldeetan**. (*non*: aurrez eginak dauden talde batzuetan sartu, adibidez)
b. Banatu haurrak **taldetan**. (*nola*: taldeka jarri)

Izenlagun edo izenondoren bat erantsita ere, deklinabide mugagabea dagokio izenari *nola* zentzuko horietan:

- (473) a. **Hiruko taldetan** banatuko ditugu haurrak.
b. **Adinaren araberrako taldetan** banatuko ditugu haurrak.
c. **Talde txikitan** banatuko ditugu haurrak.
- (474) Poligono irregularra, azalera kalkulatzeko, **poligono sinpleagotan** deskonposatu behar da.

Ohikoak dira halako osagarriak aditz hauekin eta kide semantikoekin: *batu, bildu, banatu, zatitu, sartu, gorde...*

- (475) loreak **sortatan** batu
orriak **paketetan** bildu
- (476) laukizuzena **zatitan** banatu
figurak **forma geometrikotan** zatitu

Zer ikuspegi nagusitzen den (*nola* edo *non*), batera edo bestera adieraz daitezke honelakoak:

⁵⁰ Berariazko araurik ez den bitartean, irizpide hori hartuko dugu erreferentziatzat, jakinik ere hizkera batzuek pluralera jotzen dutela bereizkuntzarik gabe.

- (477) liburuak **kaxatan sartu** / liburuak **kaxetan sartu**
- (478) elikagaiak **paketetan sartu** / elikagaiak **paketeetan sartu**
- (479) likidoak **ontzitan gorde** / likidoak **ontzietan gorde**

Leku-denborazko sintagma arruntetan, adierazten dena *nom* edo *noiz* denean alegia, ez dagokio mugagabea erabiltzea:

- (480) **Instalazio txikietan** erabiltzen da, batik bat etxebizitzetan, txaletetan, bulegoetan, dendetan...
- (481) **Une larrietan** ikusten da adiskidetasunaren balioa.
- (482) Gizon eta emakumeak **harresiz inguratutako herrixketan** bizitzen hasi ziren.
- (483) Animalia obiparoak **arrautzatik** jaiotzen dira.

Alde horretatik, sarri ikusten dira honelako hutsegiteak:

- (484) a. *arratsaldetan, itxita
b. **arratsaldeetan**, itxita (arratsaldez, itxita)
- (485) a. *igandetan joaten gara
b. **igandeetan** joaten gara
- (486) a. *kioskotan salgai
b. **kioskoetan** salgai

Hiztegiko berezitasun bezala, mugatu pluralean lexikalizaturiko *nola/zertan* batzuk ere badira: *penetan*, *umekierietan* eta *txantxetan*, esate baterako. *Hiztegi Batuan* jasoa dago *txantxetan*. *Broma* hitzaren kasuan, *broman* sartu da *Hiztegi Batuan*, eta OEHN *broman* eta *brometan* ageri dira.

5.1.2. Kasu instrumentaleko mugagabeak

Kasu instrumentalean, hainbat aditzek har dezakete izen osagarria mugagabean, modu generikoan: *bete*, *inguratu*, *hornitu*, *estali*, *osatu*, *eratu*, *igurtzi*, *zipriztindu*, *gainezka egon*...

- (487) **harriz bete** du zakua, **umez inguraturik** nago, **harresiz inguratutako** hiri bat, **janariz hornitu** hilabete osorako, **plastikoz estali** ditugu landareak, **laukiz osatutako** irudia, **txabolaz osaturiko** auzoa, **legionarioz osatutako** armada, **olioz igurtzi** behar da alde minberatua, **odolez zipriztindu**, **ur-tantaz zipriztindu**

Idatzi, margotu, azaldu eta besterekin ere egiten dira mugagabeko esapideak:

- (488) **arkatzez idatzi, lumaz idatzi...**
- (489) hitzak **irudiz ikasi**
- (490) kontzeptuak **irudiz azaldu**
- (491) **Lore-irudiz** margotutako gelatxo bat esan didazu?
- (492) Templek lehentxeago esan zuenez, **irudiz pentsatzeko** ahalmen berezia dute autista guztiek, berak bezala.

Izena modu espezifikoan hartzen denean, hala ere, mugatuan ematen dira halako izenak. Esate baterako, *datu* hitza ez da berdin jokutzen bi perpaus hauetan:⁵¹

- (493) Garrantzi handiko **datuz** hornitu du txostena.
- (494) Beharrezko diren **datuez** hornitu du txostena.

Mugagabea erabiltzea badagokio, izenondo edo izenlagunen bat ingurumarian izateak ez du hori aldatzen: «molekulaz eratu» bezala esaten da «molekula handiz eratu» eta «tamaina handiko molekulaz eratu».

- (495) a. Konposatu organikoak **molekula handiz eratuak** izaten dira.
- b. Konposatu organikoak **tamaina handiko molekulaz eratuak** izaten dira.

Mugagabea onartze hau kasu instrumentalaren (-z) eta zenbaitetan inesiboaren (-tan) berezitasuna da, ikusi dugunez. Aldiz, mugatzailea nahitaezko da ideia bera adierazteko beste deklinabide-kasu batez baliatzean; adibidez, instrumentalaren ordez soziatiboa erabiltzean:

- (496) a. kontrako **arrazoiz** osaturiko testua
- b. kontrako **arrazoiekin** osaturiko testua (*arrazoirekin)
- (497) a. **txabolaz** osatutako auzoak
- b. **txabolek / txabolekin** osatutako auzoa (*txabolak, *txabolarekin)
- (498) a. Tamaina handiko **molekulaz** eratuta daude.
- b. Tamaina handiko **molekulek** eratuta daude. (*molekulak)

⁵¹Zentzuak ezartzen du bereizkuntza, eta ez egitura sintaktikoak. Honako adibide honetan ere, bi aukeretan *-ko* izenlaguna izanik osagarria, izenari deklinabide mugatua dagokio batean eta mugagabea bestean: «hiru mila metrotik gorako *mendiez* ahaztu egin beharko dugu»/«hiru mila metrotik gorako *mendiz* inguratutik bizi gara».

- (499) a. Gizakia oso emana da bere balioak **animalien irudiz** azaltzera.
 b. Gizakia oso emana da bere balioak **animalien irudiekin** azaltzera.
 (*irudirekin)

«Halako izenez ezagutu» esapideak duda sortzen du deklinabideari dagokionez («halako *izenez*» ala «halako *izenaz*?»). Idazleek gehiago jotzen dute mugagabera, eta aukera hori hobesten dugu:

(500) Orixe **izenez** ezagutua

(501) *Ama Euskal Herria* **izenez** ezagutzen diren bertso batzuk

5.1.3. Kasu instrumentaleko mugatuak

Mugatuan ere erabiltzen da instrumentala, jakina, predikatuak hala eskatzen duenean. Aurreko puntuan ikusi dugun bezala, mugagaberako joera duten aditzekin ere mugaturik erabiltzen da izena batzuetan, modu generikoan hartzekoa ez denean; beste aditz batzuekin (*baliatu*, *arduratu*, *hitz egin*, *fidatu...*), ia beti:

(502) **baliatu**

- a. Zure bitartekotasunaz baliatu dira.
 b. Balia zaitez adimenaz, ez indarraz.

(503) **hitz egin, mintzatu**

- a. kontu berriez hitz egin
 b. jokabide nagusiez mintzatu

(504) **fidatu**

Ez zaitez fida horren zentzuaz eta indarraz.

5.1.4. Postposizioak: «kableen bidez», «kable bidez»

Bidez postposizioarekin, aurreko izena genitiboan erabiltzen da gehienetan («kableen bidez»), baina soil-soilik ere bai («kable bidez»). Bi formak baliokide gertatzen dira, mugatu pluralak ere zentzu generikoa hartzen baitu halakoetan. (Ikus 6.1.7 eta 7.3.3 puntuak ere).

(505) a. Lurpeko kableen bidez egiten dira zenbait konexio.

b. Lurpeko kable bidez egiten dira zenbait konexio.

(506) a. Kable biluzien bidez elkaturik daude.

b. Kable biluzi bidez elkaturik daude.

- (507) a. **Ariketen bidez**, hezur-giltzadurak sendotu ditzakegu.
b. **Ariketa bidez**, hezur-giltzadurak sendotu ditzakegu.

Determinatzailearik agertuz gero, nahitaezkoa da genitiboa: «kable baten bidez», «kable horren bidez»...

5.1.5. Unitateak mugagabeen: *eurotan, litrotan...*

Perpauz batzuetan, unitate-izena bera deklinatu behar izaten da, zenbatzailearik gabe: «Datu horiek *pezetatan* daude, eta *eurotara* pasatu behar dira». Horietan mugagabeko atzizkia erabiltzea dagokio.

- (508) a) Hona hemen hirien arteko distantziak, kilometrotan.
b) Distantziak, **km-tan**.
- (509) a) Prezioak, **eurotan**.
b) Prezioak, **€-tan**.
- (510) Datuak, **ehunekotan**.

5.1.6. Zenbatzaileak eta deklinabidea: singularra eta mugagabea neurriekin

5.1.6.1. «Hiru egunean», «bost euroan», «bi litroan»...

a) Denbora. Euskaltzaindiak singularreko deklinabide-atzizkia hobetsi du iraupena adierazten duten «bi orduan», «hiru egunean», «lau urtean» eta antzekoetarako (Euskaltzaindiaren 110. araua: «Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzailedunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen»). Esanahi desberdinak izan ditzakete, hartara, «hiru egunean» eta «hiru egunetan» sintagmek:

- (511) a) **Hiru egunean** ez du lanik egin. (hiru egun jarraian)
b) **Hiru egunetan** ez du lanik egin. (egun gehiagoren arteko hiru, solte)

Arau horren azalpeneko adibideetan, gainera, ikus daiteke zenbatzaile zehaztuekin ez ezik zehaztugabe batzuekin ere hori dela joera. Handik hartu ditugu bi adibideok, eta euskara batuan eman. Ezin dira okertzat jo, nolana ere, «hainbeste *hilabetetan*» eta «zenbait *hilabetetan*».

- (512) ...**hainbeste hilabete**an egin ditudan ametsen jatorri txarra.
- (513) Orduhitz eginen hasi zen, **hainbeste hilabete**an mutututa egon zen Zakarias.

Galdetzean ere *-(e)an* atzizkia erabil daiteke, besteak beste: «Zenbat egunean egongo zara kanpoan?». «Zenbat egunetan», «zenbat egun» eta «zenbat egunez» ere galde genezake hor. (Ez dira nahasi behar, jakina, «zenbat egunean» hori eta mugagabea beste aukerarik ez duten «zenbat herritan?» modukoak).

(514) **Zenbat egunean** egongo zara kanpoan?

(515) **Zenbat herritan** eman duzue antzezlan hori?

b) Prezioa. Denbora adierazten duten sintagmetan ez ezik, beste nozio batzuetan ere singularra hobesten dugu (ikus 5.1.6.2):

(516) **Zenbat euroan** saltzen da?

(517) **Hiru euroan** erosi dut.

c) Edukiera. Nolabait edukiera adierazten duten sintagmetan ere erabil daiteke *non* singularra (*zenbatean*): «Bi litroan, zazpi gramo ongarri nahasi», «20 molean», «Hamar goxoki sartzen dira 50 gramoan»... Ikus 6.2.5 atala ere.

(518) **Zenbat molekula** daude mol batean? Eta **20 molean**?

(519) **Zenbat hidrogeno molekula** daude gas horren **50 g-an**?

d) Magnitude baten neurri edo maila: «25 graduan» modukoak. Maila adieraztean ere, inesibo singularrean deklinatzen da zenbatzailearekin doan unitatea:

(520) Zer tenperaturatan dago itsasoko ura? Atzo, **25 °C-an** zegoen.

(521) **Berrehun kilometroan** izan behar luke etapak gehienezko muga.

Kasu bakanen batean, zenbatzailea soil-soilik erabil daiteke:

(522) **Ehun eta hamarrean** zihoan autobidean. ('orduko 110 kilometroko abiaduran')

5.1.6.2. Galdetzailea bera nola

Euskaltzaindiaren 34. arauari jarraikiz («Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia»), *-ko* atzizkia da erabiltzekoa *zenbateko* galderan, eta ez *-tako*. «Zenbateko soka?», «Zenbat metroko soka», «Zenbat kilometroko bidea?», «Zenbat urteko gazteak?»:

- (523) a. *Zenbat metroko mahaia behar da?
 b. **Zenbat metroko** mahaia behar da? (Erantzunak: «bi metrokoa», «bikoa»...)
- (524) **Zenbat kilometroko** ibilaldia egin ote zuten? Bost kilometrokoa.
- (525) **Zenbat denborako** azalpena egin behar da?

Beste deklinabide-kasu batzuetan ere agertzen da *zenbat*: *zenbatetik*, *zenbatera*, *zenbateraino*...

- (526) **Zenbatetik zenbatera** eman daiteke odola?
- (527) **Zenbatetik** behin etortzen da postaria?
- (528) Ikusi egin beharko, **zenbateraino** urardotzen dieten proiektua.
- (529) Lurraren Eguna dugun honetan, komeni da pentsatzea **zenbaterainoko** eragina dugun gure planeta jasaten ari den aldaketan.

5.2. Mugagabea eta *-a* organikoa

Akats sinplea bezain ohikoa dugu *-a* organikoa duten hitzak mugagabeen gaizki deklinatzea, *-a* hori galduta hain zuzen:

- (530) a. *hizkuntz bat
 b. **hizkuntza** bat
- (531) a. *hainbat protagonistek uste dute
 b. **hainbat protagonistak** uste dute
- (532) a. *hainbat azterketen arabera
 b. **hainbat azterketaren** arabera
- (533) a. *Halako zenbait substantziek ere sor dezakete daltonismoa.
 b. Halako **zenbait substantziak** ere sor dezakete daltonismoa.

Zenbatzaile zehaztuak ageri dira ondorengo adibideotan, eta guztietan ere akats bera egiten da: mugatu plurala erabiltzea mugagabea dagokion testuinguruetan (zuzenak lirateke mugatua behar den testuinguruetan).

- (534) a. #Bi ziklistek ibilbide hau egingo dute:
 b. **Bi ziklistak** ibilbide hau egingo dute:
- (535) a. #Bi pertsonentzako afaria.
 b. **Bi pertsonarentzako afaria. Bi lagunentzako afaria.**

- (536) a. #Hiru euskal artisten erakusketa jarri dute Parisen.
 b. **Hiru euskal artistaren** erakusketa jarri dute Parisen.
- (537) a. #Bi ikastoletan esperimentatu dute.
 b. **Bi ikastolatan** esperimentatu dute.
- (538) a. *EAEko 143.000 **internautek** erabiltzen dute euskara Interneten.
 b. EAEko 143.000 **internautak** erabiltzen dute euskara Interneten.

5.3. Singularra eta plurala

a) Izen abstraktu batzuekin, gaztelaniak plurala ohi duen hainbat kasutan euskarak singularra du berezko:

- (539) a. ▼Banituen esperantzak.
 b. **Banuen esperantza.**
- (540) a. ▼Min hartzeko arriskuak areagotu egiten dira.
 b. **Min hartzeko arriskua** areagotu egiten da.
- (541) a. ▼Sintomak: arnasa hartzeko zailtasunak, mina...
 b. **Sintomak: arnasa hartzeko zailtasuna**, mina...

Esapide batzuetan, zuzena ere ez da plurala:

- (542) a. *Banituen zu ikusteko gogoak.
 b. **Banuen zu ikusteko gogoak.**

b) *Arabera* erabiltzen den perpaus hauei singularra dagokie (ikus 7.3.1 atala ere):

- (543) a. ▼Gauzak beren luzeren arabera ordenatuko ditugu.
 b. **Luzeraren arabera** ordenatuko ditugu gauzak.
- (544) a. ▼Haurrak beren adinen arabera taldekatzen dira.
 b. **Adinaren arabera** taldekatzen dira haurrak.

c) Hainbat elementu koordinaturi batera dagokienean, singularrean eman daiteke izena:

- (545) a. ▼Gogoan duzue **nolakoak diren** itsasontzi baten, suhiltzaile-kamioi baten eta anbulantzia baten **sirenak**?
 b. Gogoan duzue **nolako sirena duten** itsasontzi batek, suhiltzaile-kamioi batek eta anbulantzia batek?

Bi esanahi izan daitezkeen kasuan, hala ere, bereizketa egin behar da. Perpaus honetan, bi emaitza eskatzen direla dirudi (a) aukeran, eta guztirako emaitza bakarra (b) aukeran.

- (546) a) Kalkula itzazu **A eta B blokeen pisuak**.
b) Kalkula ezazu **A eta B blokeen pisua**.

d) Juntadura-arazoak. Zenbaitetan, juntadura okerren ondoriozko plural eta joskera bitxiak ikusten dira testuetan.

- (547) a. ▼Erantsi elkarri **A eta B motako makilatxo bana**.
b. ▼Erantsi elkarri **A eta B motetako makilatxo bana**.
c. Erantsi elkarri **A motako makilatxo bat eta B motako beste bat**.
(548) a. #**A eta B multzoetako lehena eta bigarrena ariko dira elkarren kontra**.
b. **A multzoko lehena eta B multzoko bigarrena ariko dira elkarren kontra**.

5.4. Artikuluarekin ala artikulurik gabe?

5.4.1. Adjektiboen indargarriak: *alaen, halako, ez bestelako, ez beste/besten*

Gaitzespenezko adjektiboei enfasia emateko erabiltzen dira *alaen* eta *halako*. Adjektiboak mugatzailea hartzen du askotan, baina gabe ere joan daiteke. Aditzik gabeko perpausetan erabiltzen dira gehienetan, sintaxi lotutik kanpo.

- (549) a. **Gaiztoa(,) alaena! Gaiztoak(,) alaenak!**
b. **Gaiztoa(,) alaen gaiztoa! Gaiztoak(,) alaen gaiztoak!**
c. **Gaizto alaena! Gaizto alaenak!**
(550) a. **Lotsagabea(,) halakoa!**
b. **Lotsagabe halakoa!**
(551) a. **Lotsagabeak(,) halakoak!**
b. **Lotsagabe halakoak!**

Esateko moduan dagoke alde hori: kolpe batean bezala esaten den, ala eten txiki batekin. Bigarren kasuan agertzen da artikulua, eta, idatziz, koma ere ikusten da zenbaitetan. Erakuslerik agertuz gero, bestalde, ez dago tokirik artikulua erantzat: «*Lotsagabe halako bark ederra egin zuen berriz ere!*».

Enfasi bera ematen zaio adjektiboari *ez bestelako* erantsita. Kasu honetan, artikulua nahitaezkoa da (etena egiten da beti, eta koma erabiltzen da):

(552) **Lotsagabea**, ez bestelakoa!

Hiztegi Batuan, *beste* sarreraren azpisarrera gisa, *ez beste* eta *ez besten* ere baditugu, beren adibideekin:

(553) **ez bestea!**: alferra, ez bestea!

(554) **ez bestena!**: ergela ez bestena!

Makal indargarria, berriz, izenei eransten zaie ia beti, ezezka, eta perpausean josia joaten da (555. adibidea). Inoiz, *alaen* eta gisakoen jokaera izan dezake, eta izena artikuluekin agertu (556). Halakoak aparteko perpaus aditzik gabeak dira, «Ederra ateraldia!» eta gisakoak bezala. OEHkoak dira bi adibideok.

(555) Ez daukak **itxaropen makala**, tentel ganorabako horrek!

(556) Jon Bizkor, **morroia makala!**

5.4.2. *Deitu (iritzi), esan, izena izan*

Deitu, esan eta *X izena izan* predikatuetan, osagarria mugagabeen erabiltzea hobesten dugu, izen arrunt soilaren kasuan. Aditzei dagokienez, «deritzo/deritze» eta «esaten zaio/zaie» egokiago dira «deitzen zaio/zaie» baino, eta *izena izan* esapideak «X du izena» hurrenkera eskatzen du (ez «X izena du»).

(557) Txirula jotzen duenari **txirulari** esaten zaio.

(558) Zuhaitz horri **otsalizar** ere esaten zaio.

(559) Prentsan, argazki edo irudiren baten azpiko testuari **oin** deritzo.

(560) Ore horrek **kimo** du izena.

Nolanahi ere, sintagma izenondoaz edo izenlagunez lagunduz gero, aukerakoa izaten da artikulua ezartzea:

(561) **Oinarrizko magnitude(ak)** esaten zaie.

(562) **Txingor bigun(a)** ere esaten zaio, ez baita benetako txingorra, elurrezkoa baino.

(563) **Silogismo aritmetiko(a)** deritzo horri.

Artikulua ezartzen da, beti, izen arruntak izendapen edo izen berezi bihurtzean. Hona zenbait adibide:

- (564) Euskara Juridikoa deritzo irakasgai bati.
- (565) Maiteminduen Iturria deritzon tokian.
- (566) Planck-en konstantea esaten zaio horri.
- (567) Nereidak deritze greziar mitologiako izaki batzuei.

Aditzen jokaerari dagokionez, «deritzo/deritze» eta «esaten zaio/zaie» moldeak zalantzarik gabeak dira. *Deitu* aditzarekin, berriz, badira bi jokaera, euskalkiaren arabera (ikus 9.1.2). Hegoalde-mendebaldean:

- (568) *Flysch* deitzen zaie/diegu halako egiturei.
- (569) Babalore deitzen zaie/diegu zu bezalakoei.

5.4.3. Zenbakiak eta letrak: *adierazi, hasi, bukatu...*

Absolutibo mugagabea besterik ezin erabil daiteke *adierazi*, *markatu* aditzekin egindako perpaus hauetan:

- (570) Balantzaren orratzak zero adierazi behar du. (*zeroa)
- (571) Termometroak 37,6 markatzen du.
- (572) Termometroak hogeita hamazazpi koma sei markatzen du.

Hasi eta *bukatu* aditzekin, sozietiboa ere zuzena da, baina instrumental mugagabea hobesten dugu⁵².

- (573) a. 87.750 zenbakia zortziz hasten da.
b. 87.750 zenbakia zortzi(a)rekin hasten da.
- (574) a. 87.750 zenbakia zeroz bukatzen da.
b. 87.750 zenbakia zero(a)rekin bukatzen da.

Beste egitura batzuetara ere jo daiteke:

- (575) 87.750 zenbakiak zortzi du lehen zifra.
- (576) 87.750 zenbakiak zero du azken zifra.

⁵² JAGONET zerbitzuan Gramatika batzordeak emandako erantzun batean (2006-05-08), «zortziz» instrumental mugagabearekin batera, sozietiboa ere ontzat ematen da: mugatuan, Hegoalderako («zortziarekin»), eta mugagabea, Iparralderako («zortzirekin»). Zenbait hiztunek «zortzian» ere esaten dute. Forma horien guztien artean, instrumentala hartzen dugu lehen aukeratzat ikasmaterialetarako.

Zenbakiekin ez ezik, letrekin ere gerta daitezke halako predikatuak (*hasi*, *bukatu* eta *idatzi* aditzekin). Instrumental mugagabeen eman ohi dira osagarriak. Bestela, (579) adibidean bezalako perpausak egin daitezke.

(577) Hona hemen **hatxez** idazten diren hitzen zerrenda bat.

(578) Hitz hauek guztiak **-a organikoz** amaitzen dira.

(579) Hitz hauek **-a organikoa** dute amaieran.

5.4.4. *Bihurtu* aditzarekikoak

Mugagabeen ematekoa da *bihurtu* eta *bilakatu* aditzaren predikatu osagarri den izena: «ura *ardo* bihurtu» (ez «ura **ardoa* bihurtu»).

(580) a. *Lehenengo, bero-energia(n) bilakatzen da, eta, gero, energia elektriko(n).

b. Lehenengo, **bero-energia** bilakatzen da, eta, gero, **energia elektriko**.

(581) Presan, uraren indarra **argindar** bihurtzen da.

Zenbaitetan, hala ere, artikulua behar izaten du izenak, berekin baldin badarama izenondo, izenlagun, perpaus erlatibo edo halako osagarriaren bat (Euskaltzaindiaren 40. arauak eginiko zehaztapena). Betiere, absolutiboan deklinatu behar da izena halakoetan, eta ez inesiboan *-(e)an*):

(582) a. **Emakumerik ederrena** bihurtu zen.

b. *Emakumerik ederrenean bihurtu zen.

(583) Borroka **bi anaien artekoa** bihurtu zen.

Tradizioan, *itxuraldatu*, *antzaldatu* eta *eraldatu* aditzek ez dute predikatu osagarriarik hartu, ez absolutiboan, ez inesiboan. Predikatu osagarria erabiltzekotan, *bihurtu* edo *bilakatu* aditzera jo behar da:

(584) a. *Gregor Samsa zomorro(tan) eraldatu zen.

b. Gregor Samsa **zomorro bihurtu/bilakatu** zen.

c. Gregor Samsa **eraldatu** egin zen, eta zomorro **bihurtu/bilakatu**.

5.4.5. Aditz-lokuzioak: *jauzi egin*, *lan egin*, *zintz egin*...

Aditz-lokuzio baten osagai bihurtua denean (*jauzi egin*, *lan egin*), mugagabeen joaten da izena (*jauzi*, *lan*...). Batzuetan, hala ere, izen hori

perpauzaren osagarri arrunta da («lana egin»), eta artikulua eramaten du —(b) perpauzak—.

(585) a. Ongi egiten du **lan**.

b. Ongi egiten du (bere) **lana**.

(586) a. Leihotik **jauzi egin** du. **Jauzi egin** du leihotik.

b. Sekulako **jauzia egin** du.

Izenlagunez edo izenondoaz lagundurik baldin badao izena, nahitaezkoa da artikulua.

(587) **Sekulako hotza** egingo du bihar.

(588) **Hotz handia** egingo du bihar.

5.4.6. Superlatiboak

Superlatiboazko izen-sintagmak mugatzailea eramaten du⁵³: *garestiena, onena...*

(589) **Libururik garestiena** aukeratu dut.

(590) Auto hori da **dendan dagoen onena**.

(591) Bigarrena iruditu zitzaion **aukerarik egokiena**.

Adberbio eta gisakoen superlatiboan, badira hiru molde, hirurak ere zuzenak: *-en*, *-enik* eta *-ena* (EGLU-V, 314. or.). Aukera estilistiko modura, *-en* eta *-enik* hobesten ditugu:

(592) a. Peru bizi da **ondoan/hobekien**.

b. Peru bizi da **ondoanik/hobekienik**.

(593) a. Gurasoak zeuden **kezkatu**en.

b. Gurasoak zeuden **kezkatu**enik.

Adjektibo superlatiboak adizlagun funtzioa betetzen duenean, mugatzailezik gabe ematea da lehen aukera (*nola* adierazten du):

(594) Maisua ikusi genuen **harro**en.

(595) Olaizolak jokatu zuen **ondo**en.

(596) Hura joan zen **dotore**en jantzita.

⁵³ Ez, ordea, prolatiboan, kasu horrek ez baitu onartzen mugatzailezik. «Parisko eraikuntzarik ederrentzat jo zuten adituek luzaroan» (**ederrenatzat*).

Hala ere, *izan* aditzarekin, eta *iruditu*, *iritzi*, *begitandu* eta gisako aditzekin, osagarriak ez du *nola* zentzua, eta artikulua hartzen du.

(597) Nor izan da **azkarrena**?

(598) Zein iruditu zaizu mailako talde **indartsuena**?

(599) Zein iruditu zaizue aholkurik **bitxiena**? Eta **eraginkorrena**?

(600) Erakutsitako guztien artean, horiek begitandu zitzaizkion irudirik **itsusienak**.

Gertatu aditzarekin ere artikulua eranstejo joera dago, baina zuzenak dira artikulurik gabeko formak:

(601) Zer gertatu zaizu **errazen(a)**, eta zer **zailen(a)**?

Gebien eta *gutxien* superlatiboak, orobat, artikuluekin erabiltzen dira zenbaitetan (OEHN, «gehiena gustatzen zaidana», «gehiena laguntzen dizunarekin»...), baina *-a* gabeko formak hobesten ditugu:

(602) a. Zein herrik du **biztanle(rik) gehien**?

b. Zein herrik du biztanle(rik) gehiena?

(603) a. Nork ekarri du **gehien**?

b. Nork ekarri du gehiena?

(604) a. **Boto gehien** lortu duen alderdia.

b. Boto gehiena lortu duen alderdia.

Kontuan izan behar da, bestalde, ez dutela esanahi bera izaten *gebien* mugagabeak eta *gebiena(k)* mugatuak:

(605) a. **Ian gehien** egin duen ikaslea (inork baino gehiago egin du)

b. **Ian gehiena** egin duen ikaslea (lanaren erdia baino gehiago egin du)

(606) a. ikasle **gehien etorri den** eguna (inoiz baino gehiago etorri dira)

b. ikasle **gehienak etorri diren** eguna (ikasleen erdiak baino gehiago etorri dira)

Numero-komunztaduraren zalantza ere sortzen da *gebien* eta *gutxien* erabiltzean. Izen zenbakarriekin, aukerakoa denean, pluralera ez jotzea gomendatzen dugu.

(607) Suedian **dute**, batez beste, familia bakoitzeko seme-alaba **gutxien**.

(608) Estatu Batuetatik biztanle **gutxien duena** da Wyoming.

(609) Gurea da ikasle(rik) **gutxien dagoen** gela.

Testuinguruak bultza dezake batzuetan pluraleko komunztadura (b):

(610) a. Esan zein erretiluk **daukan** gaileta **gehien**. Esan zein erretilutan **dagoen** gaileta **gehien**.

b. Ekardazu gaileta **gehien** dauzkan erretilu hori.

Izen zenbakaitzekin, singularra beste aukerarik ez dago: «lotsarik gutxien duena», «zaporerik gutxien duena». Bestalde, halako batzuetan *bandien* eta *txikien* egokiago dira: «Aukera horrek du kosturik txikiena» (ez «kosturik gutxien»).

5.4.7. Zenbakiak, kopuruak eta mugatzailea

Zenbakiak ez dute mugatzailerik hartzen kopuru bat adierazten dutenean. Izen gisa erabiltzen direnean, ordea, bai —bi adibideotako (b) aukerak—:

(611) a. Emaitza 7 da. (zenbat?: kopurua)

b. Nire zenbakirik gogokoena 7a da. (zein?: izena)

(612) a. Eragiketa guztiak eginda, 28 atera zait. (zenbat?)

b. Lotoan, 28a bakarrik falta izan zait saria irabazteko. (zein?)

Beti ez da hain erraz epaitzen, ordea, zenbaki bat izen gisa erabilia den ala ez. Kopurutzat nahiz izentzat har daiteke zenbaitetan:

(613) a. Bikoitiak dira 10 eta 40.

b. Bikoitiak dira 10a eta 40a.

Perpau horretan, uler dezakegu «10 eta 40 zenbakiak» ditugula mintzagai: «10 zenbakia eta 40 zenbakia», «10a eta 40a». Uler dezakegu, orobat, kopuruak aipatzen ari garela: «10(eko) kopurua eta 40(ko) kopurua», «10 eta 40».

(614) a. Guztiak 20ren multiplo dira eta 20 zenbaki arrunt batez biderkatuz lortzen dira.

b. Guztiak 20aren multiplo dira eta 20 hori zenbaki arrunt batez biderkatuz lortzen dira.

Biderketen kasuan, esaterako, «biz biderkatu» («2z biderkatu», «biko kopuruz biderkatu») esan ohi da, baina aski da *zenbaki* hitza apozizioan eranstea mugatzailea agertzeko («bi zenbakiaz biderkatu»).

Antzera gertatzen da zatiketarekin: «biz zatitu», «bi zenbakiaz zatitu».

- (615) a. ▼**Biaz biderkatuta** lortzen da zenbaki baten bikoitza.
- b. **Biz biderkatuta** lortzen da zenbaki baten bikoitza.
- c. **Bi zenbakiaz biderkatuta** lortzen da zenbaki baten bikoitza.

Zenbaitek «bi zenbakiaz» hori «biaz» laburtzen dute, baina ego-kiagotzat dugu «biz biderkatu»⁵⁴. Nahitaez artikulua sartzen da izen edo adjektiboren bat hartzen badugu: «2/9 frakzioaz biderkatu», «alderantzizkoaz biderkatu»...

Hona hemen, zenbaki eta kopuruen inguruan, ikasmaterialetan aurkitutako zenbait perpaus:

- (616) Bikoitia ala bakoitia da 11 **zenbakia**? Eta 14 **zenbakia**? Eta 19a?
- (617) Ehunekoen zifra 2 da, hamarrekoena **4tik 6ra bitartean** dago, eta unitateen zifrak hamarrekoen zifra gehi bat balio du.
- (618) 10 biderkatze kopuru oso batean sartzen da **40n**.

Lehenbizikoan (616), zenbaki batez galdetu dugu lehenik eta hala jarraitzea da egokiena. Bigarrenean (617), ez genuke esango «ehunekoen zifra 2 zenbakia da». Hirugarrena, azkenik (618), parafraisi honen baliokide da: «hamar X bider sartzen da berrogein, eta X kopurua zehatza da»⁵⁵.

Biderketa-taulak aipatzen direnean, «2aren taula» esaten da («2 zenbakiaren taula»). Ez dugu gomendatzen «2ko taula» adierazpidea, ez bada «biko-aula» ('bikoen taula') esateko.

5.4.8. Izen berezi artikuludunak

Artikulu singularra nahiz plurala dagokien izen bereziak izen arrunten moduan jokatzen dira perpausetan: Bizkaiko eskualde bati Busturialdea esaten zaio, baina hangoak ez dira «*Busturialdeako heda-

⁵⁴ Euskaltzaindiaren JAGONET zerbitzuan galdetuta, «biz biderkatu» hobetsi du Gramatika batzordeak «biaz biderkatu» esapidearen aldean (2006-05-08). Erantzun berean, puntuaren bukaeran aipatzen den «biaren taula» ere hobetsi da.

⁵⁵ Gaztelaniaz: «Diez está contenido un número entero de veces en cuarenta».

bideak», adibidez, baizik eta «Busturialdeko hedabideak». Mendilerro bati Alpeak deritzo, eta hangoak «Alpeetako mendiak» dira. Izen berezi artikuludunak dira *Euskal Herria, Bizkaia, Azpeitia, Estatu Batuak...*

Euskal Herriko herrien kasuan, zerrendetan (hala nola estilo-liburu honen *Onomastika* liburukian) berariaz adierazten da artikulua duten ala ez. Artikulua dutenei *-a* ezartzen zaie ondoan: *Azpeitia, -a*. Gainerakoei ez zaie ezer jartzen: *Donostia, Atarrabia, Legazpi...* Horren araberrakoak dira deklinabideak:

- | | | |
|-------|----------------|---|
| (619) | Azpeitia, -a | Azpeitia, Azpeitian, Azpeititik, Azpeitiko... |
| | Debagoiena, -a | Debagoiena, Debagoienean, Debagoienetik, Debagoieneko... |
| (620) | Atarrabia | Atarrabia, Atarrabian, Atarrabiatik, Atarrabiako... |
| | Donostia | Donostia, Donostian, Donostiatik, Donostiako... ⁵⁶ |
| (621) | Legazpi | Legazpi, Legazpin, Legazpitik, Legazpiko... |
| | Deustu | Deustu, Deustun, Deustuko, Deustura... |

Hona ohiko adibide eta hutsegite batzuk:

- (622) **Euskal Herria**
 a. *gure Euskal Herria honek, *Euskal Herria osoan...
 b. gure **Euskal Herri** honek, **Euskal Herri** osoan...
- (623) **Bizkaia**
 a. *Bizkaia osoa, *Bizkaia aldean...
 b. **Bizkai** osoa, **Bizkai** aldean...
- (624) **Alpeak, Alpeetan, Alpe guztiak** zeharkatu...

Halako izenak juntatzean, denei deklinabide-atzizkia jartzea da egokiena:

- (625) a. **Estatu Batuak** eta **Israel**
 b. *Estatu Batuak eta Israelen arteko harremanak
 c. *Estatu Batu eta Israelen arteko harremanak
 d. **Estatu Batuen** eta **Israelen** arteko harremanak
- (626) a. **Bizkaia** eta **Araba** bat datoz horretan.
 b. Bereizi behar dira **Bizkaiko** eta **Arabako** bertsolariak.
 c. **Bizkai** eta **Arabako** bertsolarien txanda da.

⁵⁶ Gogoratu, adibidez, «Donostiako hiru damatxo...» kantu ezaguna.

Beste adierazpide bat ere bada aukeran⁵⁷:

e. **Bizkai-Arabetako** bertsolariak. **Araba-Bizkaietako** bertsolariak.

Molde hori darabil Euskaltzaindiak 151. arauaren izenburuan:

(627) **Espainia-Frantzietako** eskualdeen izenak.

5.4.9. Maileguen deklinabidea

Maileguzko hitz arruntek gainerakoen deklinabide berbera dute: «campingik ez aurkitu» (*kanpin* ere sartu da *Hiztegi Batuan*; beraz, idatz daiteke «kanpinik ez aurkitu» ere); «harakiria egin», «judoa daukat gero», «karatean jardun», «balleta dantzatu»... Atzizkirik gabe doazenean, sintaxiak mugagabea eskatzen duelako doaz hala.

Ez dute artikulurik hartzen, aldiz, marka-izenek, izen berezi diren aldetik: «Ducados erretzeari utzi, eta Winston erretzen hasi da»; «Remelluri bezain ardo ona da Cañas»; «Cola Cao hartzen du goizetan»... Gerta daiteke, hala ere, ondoko izen arrunta isiltzea eta bereziari eranstea hari dagokion deklinabidea: «Ez du Fariasik (Farias zigarrorik) erretzen, Montecristoak (Montecristo zigarroak) bakarrik». Erabileraren poderioz, marka-izen batzuk guztiz arrunt bihur daitezke («kolakao beroa», «hiru kokakola»...) eta are generiko («eska ezazu aspirina bat»).

5.5. Noiz *-a* eta noiz *bat*

EGLUk dioen moduan (EGLU-I, 101. orrialdea), *bat* mugatzailearen eta *-a* artikuluaeren oposizioa erabiltzen dugu sarri askotan ezezagun/ezagun oposizioa adierazteko. Horregatik dira ezberdin honako bi sintagma hauek, hala singularrean, nola pluralean:

(628) a. lagun **bat** ikusi dut

b. lagun**a** ikusi dut

(629) a. lagun **batzuk** ikusi ditut

b. lagun**ak** ikusi ditut

Ezezagun/ezagun edo indeterminatu/determinatu joko hori ederki ikusten da kontakizun baten edo albiste baten hasieran: elementu

⁵⁷ ZALBIDE, Mikel: *Hitz elkartuen osaera eta idazkera*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 53. or.

bat lehenbizikoz agertzean *bat* indeterminatuarekin aipatzen da, eta aurrerantzean, berriz, *-a* artikuluaekin.

(630) Behin batean, **ikazkin bat** basora joan zen eta denbora luzean aritu zen lanean. (...) Indartsua zen **ikazkina**, baina...

(631) Hogei urteko **gazte bat** zauritu da gaur gertatutako istripu batean. Moto-
rrean zihuan **gaztea**, eta...

Nolanahi ere, zenbait funtzio eta testuingurutan *-a(k)* artikulua balio generikoa ere badu, eta ez du nahitaz izaki edo gauza jakin bat adierazten. *Kalko okerrak* liburukian (28.-31. orrialdeak), azalduta daude kasu horiek. Hona hemen adibide batzuk:

(632) **Etxe txikia** erosi dute.

Bi kasutan esaten da horrela: a) *zein etxe* esan nahi bada («txikia, ez bestea»), eta b) *nolako etxea* esan nahi bada («erosi duten etxea txikia da»). Ez da hala esaten, aldiz, *zer* adierazi nahi denean; orduan «etxe txiki bat erosi dute» esaten da.

Artikuluak balio generikoa du honelakoetan, bai singularrean eta bai pluralean:

(633) **Etxea** erosi dut. **Autoa** erosi dut.

(634) **Hitzarmena** sinatu dute.

(635) **Perretxikoak** batu ditu.

(636) **Aurrekontua** eskatu du.

(637) **Apustua** egin dute.

Gainerakoan, zentzu generikoak *bat* eskatzen du honelakoetan:

(638) Nola sortzen da **enpresa bat**?

(639) **Enpresa batek** arrakasta izan dezan, faktore asko hartu behar dira kontuan.

(640) **Herri aldizkari bat** aurrera ateratzeko, herritarren laguntza behar da.

(641) Liburu bakoitza zientziatzko edo kulturazko mundutxo **bat** da.

(642) Zirkulazio-aparatua **hodi-sistema bat** da, gorputz osoan hedatzen dena.

(643) Ordenagailua **idazteko tresna bat** da.

5.6. Erakusleak

5.6.1. Deixi arrunta

Erakusleez baliatzen gara gauden (g)unea seinalatzeko, eta gauzak tokian edo denboran kokatzeko, hurbiltasunaren edo urruntasunaren arabera gradu bat edo bestea erabiliz (*hau, hori, hura*). Seinalatze horri deixi deritzo.

- (644) Nik (gauza) **hau** nahi dut. [hemengo (zer) hau]
(645) Har ezazu zuk (gauza) **hori**. [horko (zer) hori]
(646) (Gauza) **hura** ez dut gogoko. [hango (zer) hura]
(647) Ez zait berehalakoan ahaztuko **egun hau**. (gaurko eguna)
(648) Oso umoretsu zabilta **bolada honetan**.

Irakurtzen ari garen testua edo haren elementu bat ere seinala dezake deixiak:

- (649) Zuk epaituko duzu **lan hau**, irakurle.
(650) Aski garrantzitsua da erakusleen **gai hau**.

5.6.2. Hiru graduak anafora eta kataforetan: *hau, hori eta hura*

Deixi arruntetik kanpo, erakusleak erabiltzen dira, orobat, testuko edo diskurtsoko elementuak seinalatzeko eta erreferenteak ordezteko (ez errepikatzearen). Anafora eta katafora deritze halakoei: erreferente bat ordezten duenari eta aurretik aipatutako zerbait seinalatzen duenari, anafora; ondoren datorren zerbait seinalatzen duenari, berriz, katafora.

- (651) Lasai egon. **Hori** da garrantzitsuena. [lasai egotea]
(652) Ondo gogoan har ezazu eman behar dizudan **aholku hau**. [ondoren esango dudana hau]
(653) Zuzendaria etorri da, eta **hark** eman digu berria. [zuzendariak]

Erakusleen testu-erabilera horri dagokionez, *Kalko okerrak* liburu-kian azaldutakoari jarraitzea proposatzen dugu (ikus 78.-81. or.). Hau da: ondoren datorren zerbaiti dagokionean erabiltzea lehen graduako

erakuslea (*hau*), eta aurretik agertutakoari buruz, berriz, bigarrenekoa eta hirugarrenekoa (*hori*, *bura*).

- (654) a. Ondorio **hau** atera dugu: bi likidoek dentsitate bera dute.
- b. **Hau** da ondorioa: bi likidoek dentsitate bera dute.
- c. Bi likidoek dentsitate bera dute. Ondorio **hori** atera dugu.
- d. Bi likidoek dentsitate bera dute. **Hori** da ondorioa.

Oinarri-oinarriko aukera horretatik abiatuta, zehaztu ditzagun gertatzen diren kasu nagusiak.

1. Aurretik agertutako elementu bat ordezteko, *bura* da lehen aukera. Halakoetan, neurri batean erdararen eraginez, gehiegitan erabili izan da azken aldian *hau*.

- (655) **Osaba Lazaro** aitaren anaia zen —arestian esan dut—, eta **hark** ere kristal lodiko betaurrekoak zituen.
- (656) Tutorearen garrantzia eta **hark** taldearen konfiantza bereganatzeak duen garrantzia.

Aurrekari bat baino gehiago dagoen kasuan ere sistema bera erabiltzen da, honako adibide hauek erakusten dutenez:

- (657) Elrohirrek, orduan, zilarrezko adarra eman zion Aragorni, eta **hark** putz egin zuen⁵⁸.
- (658) Istripuaren ondorioz apoplexia edo garuneko lesioaren bat jasana izango zuela usterik, **medikuari** deitu zion, eta **hark** berehala antolatu zuen guztia erietxean proba batzuk egiteko.
- (659) **Katalinak** eskua eman zion **Martini**, eta **hark** besoetan estutu zuen.

2. Aurreko perpausa ordezten badu erakusleak, *hori* erabiltzen da.

- (660) Gailurrera iritsiz gero, **hori** lortzen duen lehen emakumea izango zinateke. **Horrek** gehiago motibatzen zaitu?
- (661) Goiz osoa pasatu zuen niri begira, eta **horrek** urduri jartzen ninduen.

3. *Izena* + *hori* multzoak aurreko elementu bat ordezten du (hitz berarekin edo beste batekin):

⁵⁸ Izan ere, lehenengo perpausaren subjektua balitz bigarrenaren subjektua, ez litzateke erakuslerik erabiliko: *Elrohirrek, orduan, zilarrezko adarra eman zion Aragorni, eta putz egin zuen.*

- (662) Lege baten arrazoa ematen denean, **arrazoi horrek** legearen mailakoa izan behar du.
- (663) Beharbada, urtebete behar izan duzu ezti hori biltzeko; gogotik lan egin duzu, arduratsu; makina bat buruhauste eman dizu **zeregin horrek**.
- (664) Orain denboran atzera begiratu eta Eñaut maite duela pentsatu beharko luke, **maitasun horrek** hoztasuna epeldu beharko lukeela, baina ez da hain erraza, ez!

4. Izenarekin batera, nolana ere, *hori* nahiz *bura* dira egoki hainbatetan⁵⁹.

- (665) a. Gipuzkoako hiriburu izendatu zuten Donostia 1854an, eta **gertaera hark** garrantzi handia izan zuen Donostiaren etorkizunean. ('hiriburu izendatzeak')
- b. Gipuzkoako hiriburu izendatu zuten Donostia 1854an, eta **gertaera horrek** garrantzi handia izan zuen Donostiaren etorkizunean. ('aurreko perpausean aipaturiko gertaerak: hiriburu izendatzeak')

5.6.3. *Horietaz* (zenbaitetan *horiez*)

Erakusleen deklinabidean, kasu instrumentalerako, *honetaz* saileko formak dira zabalduenak, baina beste batzuk ere jasoak daude Euskaltzaindiaren 1979ko arauan:

honetaz	honez (honezaz)
horretaz	horrez (horrezaz)
hartaz	harez
hauetaz	hauetz
horietaz	horiez
haietaz	haiez

Lehenbiziko sailekoak dira erabiltzekoak orokorrean. Bigarren sailekoak lokailu funtzioko *borre(ta)z gain(era)* modukoetan bakarrik erabil daitezke (nolana ere, oraintsu arte *borretaz gainera* erabili da ia erabat).

⁵⁹ *Kalko okerrak* liburukian (81. or.) honela dio: «(...) biak dira zilegi batzuetan, diskurtsoko anafora arrunt modura nahiz testuan seinalatuz bezala bil baitaitezke erreferenteok, zein ikuspegitatik hartzen diren. *Bazen gizon handi bat han. Gizon hark [delako gizonak]... / Gizon horrek [aurreko esaldian aipatu dugun gizonak]...*». Gauza bera gertatzen da gure adibidean ere (665).

Baztertzekotzat dauzkagu, beraz, honelakoak:

- (666) a. *Gehienak ez dira arduratzen kontu horiez.
b. Gehienak ez dira arduratzen kontu horietaz.

Euskaltzaindiak *honezker* eta *harrezker* forma ihartuak hobetsi ditu adizlagun gisa (ez **honez gero*, ez **harez/harrez gero*).

5.6.4. *Honako (gai) hau*

Hau soilaren ordeztan *honako hau* esaten da batzuetan, eta izen bat tartean duela ere bai: «*honako gai hau*». Bigarren eta hirugarren gradukoak ere erabiltzen dira, funtzio deiktikoan: «Emadazu *horako (plater) hori*»; «Zer ote da *harako (begazti) hura*».

Testuko erreferentzia gisa *honako (zer) hau* bakarrik erabiltzen da, katafora moduan. Azken boladan erruz irakurtzen den *honakoa* formak aski tradizio zalantzakoa du, eta ez dirudi gomendatzekoa:

- (667) a. ?Lujanbioren bigarren bertsoa **honakoa** da:
b. **Hau** da Lujanbioren bigarren bertsoa:
c. **Honako hau** da Lujanbioren bigarren bertsoa:
(668) a. ?**Honakoa** esan zuen:
b. **Hau** esan zuen:
c. **Honako hau** esan zuen:
(669) a. ?**Honako galdera** egin zien entzuleei:
b. **Galdera hau** egin zien entzuleei:
c. **Honako galdera hau** egin zien entzuleei:

Beste esanahi bat dutelako, ez dira egoki kataforetarako *hurrengo*, *ondorengo* eta *ondoko*:

- (670) #Azkenik, hurrengo/ondorengo/ondoko liburua aipatu zuen:
Jendaurrean bizlari.
(671) Azkenik, (honako) liburu hau aipatu zuen: *Jendaurrean bizlari*.

Bistan denez, ez dira gauza bera «hurrengo galdera egin zien» eta «(honako) galdera hau egin zien».

Aipatu direnez gainera, *zera* ere erabil daiteke kataforetan, (*honako*) *hau* bezalatsu:

- (672) Gainera, **zera** esan du: ez digula ordainduko.
- (673) Kontua **zera** da: beti gezurretan aritzea.
- (674) Azkenean, **zera** ekarri zuen: adarra jotzeko makina.

5.6.5. *Ber(a)/berdin*

Bera mugatzailea⁶⁰ eta *berdin* izenondoa lehian gertatzen dira zenbait gauza esateko orduan. Batzuetan argi eta garbi bereizten dira: lehenak identitatea adierazten du (bat *bera* izatea), eta bigarrenak beste zerbaitekiko berdintasuna (zerbait bezalakoa izatea).

- (675) Biok **koaderno bera** erabiltzen dugu. (koaderno bat dugu biontzat)
 Biok **koaderno berdina** erabiltzen dugu. (koaderno bana, eta biak berdinak)

Huts nabarmenak egiten dira aukera horretan:

- (676) *Talde **berdinean** jokatu genuen.
 Talde **berean** jokatu genuen.
- (677) *Toki **berdinetik** atera dira.
 Toki **beretik** atera dira.
- (678) *Adin **berdinekoak** dira.
 Adin **berekoak** dira.

Beste batzuetan, zailago gertatzen da bereizketa. Izen abstraktuekin, lausotu egiten da identitatearen eta berdintasunaren arteko aldea, eta halako izen batzuek biak onartzen dituzte (*zer* galdetzailea suma dezakegu batean, eta *nolako* bestean):

- (679) a. **Lan bera** eginda, gizonak gehiago irabazten du emakumeak baino.
 (zer lan)
 b. **Lan berdina** eginda, gizonak gehiago irabazten du emakumeak baino. (nolako lana)
- (680) a. Atzoko **tenperatura bera** dugu gaur.
 b. Atzo eta gaur, **berdina** izan da **tenperatura**.

⁶⁰ «Mug.» oharra darama *Hiztegi Batuan*. Artikulua du *-a*: «liburu beretik» esaten da eta ez «liburu *beratik». Ekialdeko euskalkietan, «ber liburutik» ere esaten da; *Hiztegi Batua*: **ber** 2 *Ipar*. '*bera*': *orok ber gauza erranen didate*.

(*Ereduzko Prosa Gaur* corpusean bost adibide aurkitu ditugu, denak liburu berekoak: lau adibidetan «tenperatura bera» eta batean «tenperatura berdintsua»).

- (681) a. **klima bera** (zer klima)
b. **klima berdina** (nolako klima)
- (682) a. **energia (kantitate) bera**
b. **energia (kantitate) berdina**
- (683) a. **Iritzi bera** dugu gai horretan.
b. **Iritzi berdina** dugu gai horretan⁶¹.
- (684) a. **Erabaki bera** hartu du.
b. **Erabaki berdina** hartu.

Hori esateko modurik ohikoena (a) da (*zer erabaki*), eta aukera bakarra hori da «Lehengo erabaki bera hartu du» modukoetan.

‘Ia bera’ edo ‘ia berdina’ adierazteko, *-tsu* atzizkia erabiltzen da. Lehenbiziko kasuan, *bertsu* da euskara baturako forma (*Hiztegi Batua*), eta ez **beretsu* edo **beratsu*. Bigarren kasuan, *berdintsu* erabiltzen da.

- (685) a. Bi alderdiok **programa bertsua** dute.
b. Bi alderdiok **programa berdintsua** dute.

Elipsia tarteko dela, «Lehengo auto bera erosi du» moduko perpausak entzuten dira («marka eta modelo bereko autoa» esan nahirik). Ez deritzogu egoki erabilera horri. «Lehen(goa) bezalako autoa erosi du» esan daiteke.

Orobat da desegoki «berdina esan». Modu egokia «gauza bera esan» da, edo bestela, beste esanahi batekin, «berdin esan» (*nola* esan: «modu berean esan»).

Okerra da (687a). adibidean ageri den «berdina izan» ere, «gauza bera izan» esan nahi delarik (bestela, «ez da berdin»).

- (686) a. **Berdina* esan zuen besteak ere.
b. **Gauza bera** esan zuen besteak ere.
- (687) a. **Ez da berdina* 600.000 hiztun edo 600 milioi hiztun izatea.

⁶¹ Nolanahi ere, esapide arruntagoa da «iritzi bereko(ak) gara», eta hor ezin da *berdin* erabili. Orobat esan daiteke «iritzi batekoak gara».

- b. Ez da gauza bera 600.000 hitzun edo 600 milioi hitzun izatea.
- c. Ez da berdin 600.000 hitzun edo 600 milioi hitzun izatea.

5.7. Zenbatzaile zehaztuak

5.7.1. Ehunekoak

Esapide arrunt batzuen formulazio bereziak dira ehunekoak, % sinboloaz eta zifra batez osatuak:

Sinboloa erabiltzean, joskera ere ezohikoa da: «ikasle**et**atik % 55», «ikasle**n** % 55» («ikasle**n** ehuneko 55»). Molde hori finkatu da ikurra erabiltzen denean. Ikurrarekin, beraz, ez da komeni «% 55 ikasle» idaztea.

Ehunekoek *zenbat* adierazten dute, eta ez dagokie artikulurik berez (zenbatzaileei ez dagokien bezala). Deklinatzean, zenbakiaren arabera, *-e-* epentetikoa erantsi beharra gerta daiteke: «% 7**k** (ehuneko zazpik)», «% 15**ek** (ehuneko hamabostek)».

- (688) a. *Langileen % 17a lekuz aldatuko dute.
- b. Langileen % 17 lekuz aldatuko dute.
- (689) a. *Langileen % 17ak ordu gehiegi egiten du lanean.
- b. Langileen % 17k ordu gehiegi egiten du lanean.

Zenbait perpausetan, hala ere, gertatzen da ehunekoa *zenbat* osagarri ez baizik *zer* osagarri izatea (izenlagun edo erlatibo batekin, eskuarki). Halakoetan, izen-sintagmari dagokion artikulua edo erakuslea hartu behar du ehunekoaren zifrak:

- (690) a. Udalak % 60 jarriko du; **gainerakoa**, elkarateek.
- b. Udalak % 60 jarriko du; **gainerako** % 40a, elkarateek.
- (691) a. Udalak ez du jarri **hitzeman zuena**.
- b. Udalak ez du jarri **hitzeman zuen** % 60a.
- c. Udalak ez du jarri **hitzemandako** % 60a.

Aditzaren komuntadura singularrean egin behar da beti, jakina, erreferentea gauza bakarra denean:

- (692) aurrekontua: «aurrekontuaren % 40 eskatu **du**»
- (693) lurraldea: «lurraldearen % 80 bereganatu **du**»

Erreferentea plurala denean ere singularreko komunztadura gomendatzen dugu; izan ere, neurriaren abstrakzio bat egiten da, kopuru zehatza eman ordez. Jokaera hori arrunta da «lautik hiru» eta antzeko adierazpideekin ere: «Lautik hiruk ez daki zer egin halako egoeretan». Hala ere, zenbaitetan pluralera lerra dezake zentzuak komunztadura, eta are pertsona-komunztadura egitera, adibide hauetako (c) aukeretan bezala.

- (694) a. Lekuz aldatuko **dute** langileen % 17. (parte hori, hein hori, proportzio hori)
 b. ?Lekuz aldatuko **dituzte** langileen % 17.
 c. Lekuz aldatuko **gaituzte** langileen/langileon % 17.
- (695) a. Zuetatik % 8k erantzun **du** ongi.
 b. ?Zuetatik % 8k erantzun **dute** ongi.
 c. Zuetatik % 8k erantzun **duzue** ongi.

Aldea adieraztean, *zenbat* eta *zenbatez* erabiltzea da egoki (eta ez *zenbatean*), ehunekoekin nahiz bestela:

- (696) a. *Prezioak % 5**ean** igo dira.
 b. Prezioak % 5 igo dira.
 c. Prezioak % 5**ez** igo dira.
- (697) a. *Oraingoa 2 **unitatetan** handiagoa da lehengoa baino.
 b. Oraingoa 2 **unitate** handiagoa da lehengoa baino.
 c. Oraingoa 2 **unitatez** handiagoa da lehengoa baino.

Zenbatean zuzena eta egokia da, jakina, honelakoetan: «Arropa % 50ean jarri dute merkealdian», «Urtegiak % 30ean daude lehortearen ondorioz»...

5.7.2. *Bat eta bana*

a) *Mila* eta *milioi* zenbatzaileek ezin dute itsatsirik eraman *-na* banatzailea, eta *bana* ezartzen zaie ondoan: «mila bana», «bina mila»...

- (698) a. *milana euro **mila bana** euro
 b. *hamar milana euro **hamarna mila** euro
 c. *bost milioina euro **bosna milioi** euro

Ehun zenbatzailearekin, berriz, *ehuna* da erabiltzekoa, *Hiztegi Batuko* sarrerak erakusten duenez: «ehuna, ‘bakoitzari ehun, bakoitzak ehun’». Eredu berari segitzen diote *ehun* osagaia duten gainerako zenbatzaileek ere: *berrehuna, bostehuna...*

b) Elkarren lehian daude, oro har, *-na* eta *bakoitza*, gauza bera baitira «bana hartu» eta «bakoitzak bat hartu»⁶².

(699) a. Hiru egoitza ditu elkarteak herrian, auzo **banatan**.

b. Hiru egu elkarteak herrian, **bakoitza** auzo **batean**.

(700) a. ▼Emaiozu **bakoitzari** musu **bana**.

b. Emaiezu **musu bana**.

c. Emaiozu **bakoitzari** musu **bat**.

(701) a. ▼Bertsolari **bakoitzak** agur **bana** kantatuko du.

b. Bertsolariak **agur bana** kantatuko dute.

c. Bertsolari **bakoitzak** agur **bat** kantatuko du.

d. Bertsolari **bakoitzak bere agurra** kantatuko du.

Gerta daiteke, nolnahi ere, erreferente desberdinari dagozkionak izatea *-na* eta *bakoitza*, eta biak behar dira halakoetan. Ikus, adibidez, bi perpauson arteko aldea:

(702) a. **Sail bakoitzetik liburu bana** hartuko dute ikasleek. (‘ikasle bakoitzak, sail bakoitzeko bat’)

b. **Sail bakoitzetik liburu bat** hartuko dute ikasleek. (‘denen artean, sail bakoitzeko bat’)

Zehaztasuna galtzen da hala dagokionean *bana* erabili ezean (edo, bestela, *bakoitza*):

(703) a. ▼Itsats ezazu **papertxo bat** mahaipean dauden gauzetan.

b. Itsats iezaezu **papertxo bana** mahaipean dauden gauzei.

c. Itsats iezaiozu **papertxo bat** mahaipean dauden gauzetako **bakoitzari**.

c) *Ehunka, hamarka...*

Euskaltzaindiak *ehunka* forma hobetsi du eta **ehundaka* baztertu (*Hiztegi Batua*). Modu berean giten dira gainerakoak: *hamarka*,

⁶² Hala ere, inoiz ikusten dira biak batera: «Bana har ezazue zuetako bakoitzak, eta bina zuetako bakoitzak». (Ikus 4.5 puntua ere).

dozenaka, milaka, milioika... Halakoetan, ez da kopuru zehatzik aipatzen, ugaritasuna baizik⁶³:

- (704) Eta gauero-gauero **ehunka** hegazkin igarotzen dira Herbehereen gainetik, Alemaniako hirietarantz, beren bonbak botatzera, eta Errusian eta Afrikan **ehunka** edo **milaka** soldadu hiltzen dira orduoro.

Zehazki «hainbateko multzotan» esateko, *-naka* eransten zaio zenbatzaileari: *banaka, binaka, bosnaka, hamarnaka, hamabinaka...*

Progresio geometrikoa adierazteko, ez da egokia *-naka*:

- (705) a. ▼Luzera-unitateak 10naka/hamarnaka doaz.
b. Luzera-unitateak 10eko proportzioan mailakaturik daude [1, 10, 100, 1.000...].
c. Luzera-unitateak 10ez biderkatuz mailakatzen dira.

Jakina, esapide egokia da «hamarka/dozenaka/ehunka zenbatu».

5.7.3. Zenbakiak eta komunztadura

5.7.3.1. Zenbatzaile arruntak

Pluralean egiten dute komunztadura zenbaki arruntek, *batetik gora*: «Bi liburu erosi ditut»; «Zazpi azterketa egin ditugu astebetean».

5.7.3.2. Numero-komunztadura zenbait aditzekin: *iraun, balio izan, kosta(tu)...*

Iraun aditzaren osagarria ez da osagarri zuzena izaten, neurketa bati dagokiona baizik, eta singularrean egiten du komunztadura:

- (706) a. *Hiru ordu **iraun** ditu bilerak.
b. Hiru ordu **iraun** du bilerak.

«Bost euro balio ditu» okertzat jotzerik ez badago ere, «Bost euro balio du» komunztadura ondo dokumentatuta dago, eta hori hobesten dugu ('zenbat balio du').

Aditz gehiagorekin ere gerta daiteke singularreko komunztadura hori, zenbatzaile zehaztuak agertuagatik. Esate baterako, zilegi da

⁶³ «Berrogeitaka urte» eta halakoetan ere erabiltzen da *-taka*, beste zentzu batekin ('berrogeitik gora').

«Termometroak 3 gradu markatzen du» esatea, edo «Kilometro-kontagailuak 30.768 km markatzen zuen».

5.7.3.3. Zatikiak

Proporzioak, ehunekoen bidez ez ezik, zatikien bidez ere adierazten dira: «laurden bat», «hiru bosten»... Aditzarekiko komunztadurari dagokionez, bi joera daude. Batean, zenbatzaile arruntekin bezala, plurala sartzen da («hiru bosten kendu dizkio»); bestean, berriz, zenbatzailea ez da hartzen zenbait banako modu espezifikotan izendatuko balitu bezala, eta, beraz, singularra erabiltzen da («hiru bosten kendu dio»).

(707) a. Mirenek 3/5 kendu dizkio 10 metroko hariari.

b. Mirenek 3/5 kendu dio 10 metroko hariari.

«Hiru bosten» ez baizik «hiru zati bost» irakurtzen denean, pluralak ez du lekurik.

Maizenik erabiltzen diren zatiki-hitzak (*erdi* eta *laurden*) artikularekin eman ohi dira (*erdia*, *erdiak*, *laurdena*, *laurdenak*), eta artikuluko pluralak ezinbestean dakar aditzaren pluraleko komunztadura. *Erdiren* kasuan, izen singularrekin eta zenbakaitzekin artikuluko singularra bakarrik erabil daiteke («saldu egin du lursailaren erdia», «uraren erdia edan du»...); izen zenbakarri pluralekin, berriz, artikuluko plurala erabiltzeko joera oso errotua dago tradizioan (ikus liburuki honetako 5.7.8 puntua ere):

(708) a. ▼Ikasle erdiak etorri dira.

b. ▼Ikasleen erdia etorri da.

c. Ikasleen erdiak etorri dira.

(709) Zigiluen erdiek alemanezko hitzak dituzte!

Pluralean ageri da *laurden* hitza ere tradizioko adibide frankotan:

(710) Oraino ez dizkizut, ene jaun gaixoa, erdiak ez eta laurdenak ere erran.

(711) Herrien hiru laurdenak erraustu dituzte.

Orobat onartzen du jokaera hori *heren* zatiki-hitzak:

(712) a. Lanaren bi heren egin du/ditu dagoeneko.

b. Lanaren bi herenak egin ditu dagoeneko.

Dagokion izena singularra denean (*populazioa, biztanleria...*), singularrean deklinatzen da *laurden* hitza, *erdi* bezala. Bai eta bestelako batzuetan ere, multzoa osotasuntzat harturik.

(713) Lanean ari den **populazioaren erdiak** baino gehiagok lehen sektorean dihardu eta **laurdenak** industrian.

(714) **Biztanleriaren laurdenak** ez daki zenbat diren euskal hiztunak.

(715) Virginiako estatuan, esate baterako, beste estatuetan baino bost aldiz gehiago hilarazten da jendea, eta **kasuen laurdena** bakarrik berrikus- teko aukera dago.

5.7.4. Neurri-sintagmak

a) Esanahia. Kantitateak aipatzen ditugunetan, «zenbatzailea + neurri-izena + gaia» egitura erabiltzen dugu. Neurri-izena unitate jakin bat izan daiteke (*kilo, litro, metro...*) edo bestelako hitz arrunt bat (*baso, kamioi(kada), eskukada...*). Horrela osaturiko sintagmei neurri-sintagma esango diegu.

- (716) a. baso bat ur
b. bi botila ardo
c. bost litro esne
d. bi kamioi(kada) egur
e. eskukada bat arroz
f. bi kilo azukre
g. sei metro soka

Sintagma horiek ez dira nahasi behar ohiko izen-elkarketekin: ez dira gauza bera, adibidez, goiko «baso bat ur» hori eta «ur-baso bat» ('ura edateko baso bat').

Zalantzak gertatzen dira, batzuetan, egitura baten eta bestearen artean. Zer esan nahi den, bata edo bestea hautatu behar da: «botila bat ardo» esatean *zenbat* (*ardo*) adierazten dugu, eta «ardo-botila bat» esatean, berriz, *zer* (*botila*). Beraz, honako hauek guztiak honela esatekoak dira, neurri-sintagma gisa, *zenbat* adierazten ari garen heinean (zehazkiago, *zenbat zer*):

- (717) a. *Olio-baso(kada) bat bota.
b. Baso(kada) bat olio bota.
c. Baso bete olio bota. / Basoa bete olio bota.

- (718) a. *Bi porru dozena eman zizkion.
b. **Bi dozena porru** eman zizkion.
- (719) a. *Gozatu, zenbait azukre-koilarakada botata.
b. Gozatu, **zenbait koilarakada azukre** botata.
- (720) a. *Lau laranja kilo.
b. **Lau kilo laranja**.
- (721) a. *Gari-zaku baten pisua 85 kg da. Zenbat zaku daramatza 35,70 tonako karga daraman kamioi batek?
b. **Zaku bat gariren** pisua 85 kg da. Kamioi batek 35,70 tonako karga dakar. Zenbat zaku dira?
- (722) a. *Ur dezimetro kubiko batek kilogramo bateko masa du.
b. **Dezimetro kubiko bat urek** kilogramo bat du masa.
- (723) a. *Sagar kiloko, kilo laurden azukre jarri behar da.
b. **Kilo bat sagarreko, kilo laurden azukre** jarri behar da.

Azken horren tankerako perpausetan, gerta liteke zenbatzailea ez *bat* izatea: «bi kilo sagarreko, kilo erdi azukre» eta abar⁶⁴.

b) Unitate ez diren neurriak. Neurri-sintagma asko unitate-izenekin osatzen dira (*gramo, kilo, tona, litro...*), baina beste zenbait izen ere erabiltzen dira neurri gisa: *eskukada, baso(kada), zaku(kada), kamioi(kada), kaxa, txarro...* Hain zuzen ere, bigarren sail horretako zenbaitekin sortzen dira zalantzarik handienak, bi alderdi baitituzte: *tanta*, esate baterako, 'likido-bolatxo' gisa har dezakegu (*zer*), baina neurri gisa ere bai (*zenbat*).

(724) Kirolariari odol-**tanta bat** ateratzen zaio analizatzeko. (zer)

(725) **Bi tanta** koloratzaile bota behar dira. (zenbat)

Antzera gertatzen da *kaxa* eta *tableta* moduko hitzekin. Zentzuak erabaki behar du aukera (*zer/zenbat*), eta nekez eman daiteke arau zorrotzagorik:

(726) a. **Pasta-kaxa bat** ekarri digu hamaiketako egiteko.

b. Hasiz gero, **kaxa bat pasta** jango nuke oraintxe.

⁶⁴ Beste modurik ere bada hori adierazteko: «Sagarra eta azukrea proportzio honetan jarri behar dira: bi kilo sagar, kilo erdi azukre».

(727) a. Ekar itzazu **hiru txokolate-tableta**.

b. **Hiru tableta txokolate** jan ditu, oso-osorik.

c) Prezioak. Prezioez ari garelarik, «zenbatean dago azukrea?» (edo dena delakoa) ez ezik, «zenbatean dago kiloa?» ere esaten da (eta *zegan*, bizkaieraz). Gaia eta unitatea batera aipatzen direlarik, berriz, honela⁶⁵:

(728) Zenbatean dago **azukre kiloa**?

(729) Zegan dago **egur tona**?

(730) Kalkula ezazu zenbatean saltzen den **patata frijitu kiloa**.

(731) Aurki ezazu hileroko fakturaren balioa, jakinik **esne litroaren** prezioa 0,60 € dela.

Beste zenbait perpausetan ere erabiltzen da egitura hori:

(732) Ikus dezakezu erlazio bat dagoela saltzen diren **fruta kilogramoen** eta prezioen artean: $2/10 = 4/20 = 6/30$.

d) Zatikiak nola. Zatikiak zenbakiz agertzen dira testuetan, ia beti. Esateko orduan, berriz, hizketa arrunteko «hiru ordu laurden» ereduari jarrai dakioke, eroso gertatzen denean. Jakina, adierazpen grafikoa eta esaten dena ez datoz bat hurrenkeran: « $3/4$ litro» ez da «*hiru laurden litro» esaten, baizik eta «hiru litro laurden».

(733) a. Ardo-botila batean $3/4$ **litro** sartzen dira.

b. Ardo-botila batean **hiru litro laurden** sartzen dira.

(734) a. 1 **litrok** 8 euro balio badu, $3/4$ **litrok** 6 euro balio du.

b. **Litro** batek 8 euro balio badu, **hiru litro laurdenek** 6 euro balio du.

Konplexuagoetan ere eredu berari jarrai dakioke, zenbakizko adierazpena lehenetsiz:

(735) a. $3/8$ kilo txerriki (idazteko)

b. **hiru kilo zortziren** txerriki (modu arruntean esateko)

c. **hiru zati zortzi** kilo txerriki (formula moduan esateko)

⁶⁵ Hala ere, «kilo azukrea» joskera ere erabiltzen da. Hona adibide bat: «Litro esnea lau txakur handi pagatzen zigula uste det» (Bartolo Aierbe: *Zaarrak berrituz*. www.euskaraz.net). Orobat entzuten dira «dozena porrua» eta antzeko esapideak.

5.7.5. Multiploen adierazpena: «bi halako» eta «halako bi» ereduak

Bikoitz, *hirukoitz* hitzak ez dira egokiak zerbaiten multiploak adierazteko:

- (736) *Zure hirukoitza/triplea irabazten dut nik.
- (737) *Iazko(aren) bikoitza/doblea gastatu dugu aurten.
- (738) *Aurkarien laukoitza ginen gu.
- (739) *Irakasleen kopuruaren hogeikoitza da ikasleena.

Horretarako, «X halako (bi, hiru...))» da egitura egokia⁶⁶.

- (740) Zuk halako hiru irabazten dut nik.
- (741) Iaz halako bi gastatu dugu aurten.
- (742) Aurkariak halako lau ginen gu.
- (743) Irakasleen kopurua halako hogeia da ikasleena.
- (744) a. Zuk irabazten duzuna halako hiru irabazten dut nik.
b. *Zuk irabazten duzunaren hirukoitza irabazten dut nik.
- (745) Jokatu duena halako hamar eskatu diote.

Konparazio-burua agertzen ez denean, «halako (bi, hiru...))» nahiz «(bi, hiru...)) halako» erabiltzen dira.

- (746) a. Mila euro gastatu genituen iaz; aurten, berriz, halako bi.
b. Mila euro gastatu genituen iaz; aurten, berriz, bi halako.

Genitiboaren erabilera desegokia da hor, bai «-en hirukoitza» moldean eta bai «-en halako hiru» moldean.

- (747) a. *Dirutza hori kanpo-zorraren halako zazpi da.
b. Dirutza hori kanpo-zorra halako zazpi da.
- (748) a. *Soldataren halako bost galdu du.
b. Soldata halako bost galdu du.

5.7.6. «Esku bete», «metro bete», «astebete»

Iraupena adierazten duten zenbait hitz egiten dira *-bete* erantsiz denbora-izen bati: *ordubete*, *astebete*, *hilabete*, *urtebete*. Beste neurri batzuetan,

⁶⁶ Biderketaz ere berdintsu adieraz daitezke batzuetan halako proportzioak: «... baino X bider/aldiz gehiago».

berriz, hitzari itsatsi gabe doa: «esku bete intxaur», «metro beteko olatuak», «arra beteko uretan ito»... Artikulua ezartzen zaio neurri-hitzari esapide enfatikoetan: «esku**a** bete gozoki», «galtz**a**k bete lan»...

Astebete modukoek ez dute zenbatzailerik hartzen, *-bete* horrek 'bat' esanahia duenez gero.

- (749) a. *Astebete bat eman du kanpoan.
b. **Astebete** eman du kanpoan.
- (750) a. *Bi urtebete beharko ditu ikasketak amaitzeko.
b. **Bi urte** beharko ditu ikasketak amaitzeko.

Desberdina da *hilabete* hitzaren kasua: hizkera batzuetan, *hilen* ordez *hilabete* erabiltzen da erabat («heldu den hilabetean» = «datorren hilean»), eta, ondorioz, *bat* eta guzti ematen da:

- (751) a. **Hilabete** egon naiz gaixorik.
b. **Hilabete** bat egon naiz eri.

Hazbete hitzean, unitate-izenaren parte da *-bete* (*Hiztegi Batuan* dago hitz hori; ez, ordea, **oinbete*, eta bai *oin*).

- (752) **Hazbete** batetik gorako diametroa.

5.7.7. «Hamar bat», «hamarren bat»

Gutxi gorabeherako kopurua adierazteko ere erabiltzen da *bat*. Zenbaitetan, zenbatzaileari zuzenean erantsita; beste batzuetan, genitiboari. Esanahian ez dago alderik⁶⁷.

- (753) a. **Hogei bat** etxe eraiki dituzte.
b. **Hogei**ren bat etxe eraiki dituzte.
- (754) a. **Berrogeita hamar bat** idazlek adierazi dute atxikimendua.
b. **Berrogeita hamarren bat** idazlek adierazi dute atxikimendua.

Zenbatzailea *mila* edo *miloi* hitzez osatua denean, bi osagaien tartean sartzen da *bat*: «Zazpi bat mila lagun izango ziren». Horregatik, halakoak ez dira digituz adieraztekoak: ez da egoki gelditzen «7.000 bat lagun».

⁶⁷ Zenbatzaileez ari gara hemen. Izenen kasuan, ordea, 5.8.2 puntuan ikusiko dugunez, ez dira baliokideak «akats bat» eta «akatsen bat», esaterako.

- (755) a. *Zazpi mila bat lagun izango ziren.
 b. Zazpi bat mila lagun izango ziren.
 c. Zazpi milaren bat lagun izango ziren.

Gauza bera adierazteko beste modu bat zenbatzailearen eta izenaren ondotik *inguru* erabiltzea da:

(756) Zazpi mila lagun inguru izango ziren.

(757) $6 \cdot 10^{23}$ molekula inguru

Kasu absolutibotik kanpo, ia ez da ageri tradizioan, eta ez erabiltzea gomendatzen dugu⁶⁸:

(758) ?mila lagun inguruk

(759) ?mila lagun ingururi

5.7.8. *Erdi*: «Erdiak etorri dira»

Izen pluralei dagokiela, *erdiak* da «bitik bat» proportzioa euskaraz adierazteko modu egokia. Gehienbat «liburuen erdiak» forma erabiltzen da, baina esan daiteke «liburuetatik (liburuetarik) erdiak» eta «libururik erdiak» ere (EGLU-I, 127.-128. orrialdeak). Ikus 5.7.3.3 puntua ere: *Zatikiak*.

- (760) a. ▼Anek zulatu egin ditu **globo erdiak**.
 b. Anek zulatu egin ditu **globoen erdiak**.

- (761) a. ▼Irakasleen **erdia falta da**.
 b. Irakasleen **erdiak falta dira**.

Izen singular bati badagokio, jakina, *erdia* erabiltzen da. Halakoetan, sinonimia gertatzen da aukerako bi moldeen artean: «lurraldearen erdia» eta «lurralde erdia», «gaztaren erdia» eta «gazta erdia».

Pluralekoetan, berriz, nabarmena da aldea: «sagarren erdiak» eta «sagar erdia(k)» ez dira inondik ere gauza bera, ez eta «puntuen erdiak» eta «puntu erdia(k)» ere.

⁶⁸ ETXEBARRIA, Jose Ramon: *Zientzia eta Teknikako Euskara Arautzeko Gomendioak* (EIMAREN estilo-liburu honen atala), III.1.8 epigrafea (82. or.).

Perpauz honetan, nahi dena adieraztekotan, *kopuru* hitza sartu behar da. Izan ere, (a) eta (b) aukeretan, ematen du galdetzen dela «Monikari nork lortu dizkion puntuen erdiak», eta ez da hori adierazi nahi.

- (762) a. ▼Nork lortu du Monikaren puntuen erdia?
b. ▼Nork lortu ditu Monikaren puntuen erdiak?
c. Nork lortu du Monikak lortutako puntu kopuruaren erdia?

5.8. Zenbatzaile zehaztugabeak

5.8.1. Mugagabea eta aditzaren komuntadura

- (763) a. Hainbat liburu aurkitu zuen han.
b. Hainbat liburu aurkitu zituen han.

Adibide pare horrek erakusten duen bezala, aditza singularrean nahiz pluralean joka daiteke zenbatzaile zehaztugabez osaturiko sintagma mugagabeekin. Hala diote gramatikek, oro har, eta zehazki EGLU-Iek (142.-143. orrialdeak), *zenbait* eta *asko* dituela hizpide.

- (764) a. Zenbait lagun ikusi dut.
b. Zenbait lagun ikusi ditut.
(765) a. Liburu asko erosi dut.
b. Liburu asko erosi ditut.

Zenbatzaile zehaztuekin, gauzak garbiago daude: erabatekoa da aditza pluralean emateko joera (*baten* kasuan izan ezik, jakina; ikus 5.7.3.1 puntua ere):

- (766) *Bost liburu irakurri dut.
Bost liburu irakurri ditut.
(767) *Hamazazpi urte dut.
Hamazazpi urte ditut.

5.8.2. *Bat* eta *batzuk* / *-(r)en bat* eta *-(r)en batzuk*

Ez dira gauza bera «akats bat» eta «akatsen bat» (edo «akats batzuk» eta «akatsen batzuk»). *Bat* eta *batzuk* era espezifikoa nahiz

inespezifikokan har daitezke⁶⁹, eta beti era inespezifikokan hartzen dira *-(r)en bat* eta *-(r)en batzuk*.

- (768) a. Akats bat gertatu da.
b. Akatsen bat gertatu da.

Modu espezifikokan ulertu beharrekoetan, beraz, ezin da *-(r)en batzuk* erabili. Honako perpaus honetan, adibidez, okerra da (a) aukera:

- (769) a. *Zenbait ariketa datoz bukaeran, oinarrizko edukiren batzuk berrikusteko. ('ez jakin zein?')
b. Zenbait ariketa datoz bukaeran, oinarrizko eduki batzuk berrikusteko. ('jakin batzuk')

5.8.3. *Batzuez (*batzuetaz)*

Kasu instrumentalean, pluraleko atzizkia *-ez* da (*arazoez*, ez **arazoetaz*), eta *batzuk* zenbatzailearen plurala ere *batzuez* da, ez **batzuetaz*. Halaxe ageri da Euskaltzaindiaren 12. arauan: «*Bat* eta *batzuk*-en deklinabidea».

5.8.4. *Makina bat*

Inoiz *bat* gabe ikusten bada ere, *makina bat* horrelaxe erabiltzekoa da zenbatzaile zehaztugabe gisa ('asko' esan nahi du).

- (770) Makina bat mesede egindakoa da hori!

5.8.5. *Ugari*

Zenbatzaile zehaztugabe ez ezik, izenondo eta adizlagun ere bada *ugari*. Horrek esplikatzen du hainbeste modutan erabiltzea: soil-soilik (771a); artikulua singular nahiz pluralarekin (b, c), ezkerreko izena artikulurik gabe doala; izena artikuluekin doala (d, e) edo partitiboan (f)...

- (771) a. lan ugari
b. lan ugaria
c. lan ugariak

⁶⁹ Zenbatzaile zehaztugabeon (*bat*, *batzuk*) adiera espezifikoa eta inespezifikoa ikus daiteke «Hemen bertsolari bat behar da» esaldian: izan daiteke 'bertsolari jakin bat', edo 'bertsolariren bat, edozein'.

- d. lana ugari
- e. lanak ugari
- f. lanik ugari

Zenbatzaile zehaztugabe arrunta denean, mugatzailerik gabe doa, izen baten ondoan. Orduan ‘asko’ esanahia izaten du:

- (772) Badu/baditu euskarak **hitz-sorbide ugari**.
- (773) **Negar ugari** egin eta gero.
- (774) Aukera hori egin du **jende ugari**.

Beste batzuetan izenondo da, eta, beraz, artikulua eraman dezake. Esanahiaren aldetik, ‘oparo’ izenondoaren antzekoa da.

- (775) **Mahai ugaria**.
- (776) Etxepareren garaian euskarak **literatura aberatsa eta ugaria** izan balu...
- (777) Oharrak eta **argibide ugariak** arretaz landuak izan dira.

Adizlagun denean ere, izen bat izaten du ezkerrean, baina *ugari* ez da izen horren izenondo, baizik eta aditzaren osagarri. Delako izena artikuluekin agertzen da, edo partitiboan⁷⁰.

- (778) **Kea ugari** eta argi gutxi.
- (779) Bazen **jendea ugari** Azkoagako enparantza ederrean.
- (780) **Laudorioak ugari** izan zituen.
- (781) Horrek egin omen zion **kalterik ugari**.

Adizlagun-erabilera jator hori urritzen ari dela dirudi azken aldiko testuetan, eta izenondo-erabilera, aldiz, ez dagokion tokietara zabaltzen:

- (782) a. ▼Ugariak dira laguntza eskaintzen duten zentroak.
- b. **Ugari** dira laguntza eskaintzen duten zentroak.
- (783) a. ▼Trafiko ugaria izan da Irun aldean.
- b. **Trafiko handia** izan da Irun aldean.

Zenbatzaile zehaztugabe izatea beste zentzurik ez duenean, artikulurik gabe erabili behar da *ugari*:

⁷⁰ *Franko* zenbatzaile zehaztugabeak ere badu adizlagun izateko aukera hau: «badu lan franko» ez ezik, «badu lana franko» ere esan daiteke, eta partitiboarekin joatea ere ez du debeku: «Laborarien eskariek bazuten *zerikusirik franko* ereiteko garaian».

- (784) a. *Istripuek ezintasun ugariak eragiten dituzte.
b. Istripuek ezintasun ugari eragiten dute.

5.8.6. *Franko*

Zenbatzaile zehaztugabea da *franko*, eta lau erabilera hauek erakusten ditu izenen ondoan (EGLU-I, 150. orrialdea):

- (785) a. *lana franko*
b. *lan franko*
c. *lanik franko*
d. *franko lan* («asko lan» bezala, ekialdean)

Izenondo eta aditzondoan mailakatzailerik gisa ere erabiltzen da *franko*:

- (786) Gure baserria *franko ttipia* zen.
(787) *Franko ongi* hartu zuen ene eza eta denbora berean ene eskaintza.

5.8.7. *Nabiko*

Funtzio askotan erabiltzen da *nabiko* hitza: bera bakarrik (predikatu-osagarrian, eskuarki), izen bati lagunduz, izenondo eta aditzondoan graduatzaile...

- a) Bakarrik:
(788) Hori esatea *nahikoa* izango da.
(789) Bizpahiru egun *nahikoa* dira.

b) Izen bati lagunduz.

Erabilera hau hobesten dugu:

- (790) Badugu *nahiko(a) diru*.

Hobesten dugun joskera horretaz aparte, bada beste aldaerarik ere: *nabiko dirua*, *nabiko lana(k)*.

Hemen hizpide duguna, hala ere, «*nahiko(a) diru*» = 'diru ez gutxi' adierari dagokio. Aldiz, 'behar den adina diru' adieran, «*diru nahikoa*» erabiltzen da: «Badu bidaia-txartela erosteko *diru nahikoa*».

c) Izenondoan eta aditzondoan graduatzaile.

Halakoetan, nahikoa da *nahiko* eranstea aurretik (*aski* sinonimoaren joko bera).

Izenondoekin, mugatzailea agertuko da:

(791) Lasaiak dira.

Nahiko lasaiak dira.

Aditzondoekin, berriz, mugatzailerik ez:

(792) Hurbil daude.

Nahiko hurbil daude.

Inoiz, izenondo balioarekin ere erabiltzen da (*nolako* adieran, alegia), hala nola «baldintza ezinbestekoa eta nahikoa» esapidetan:

(793) Alabaina, kontsistentzia logikoa ez da **baldintza nahikoa** behar dugun koherentziaren gutxieneko maila lortzeko.

Inoiz, aukerakoa izan daiteke pluraleko komunztadura ere («hiru nahikoa/nahikoak dira», «nahikoa liburu ekarri du/ditu»), baina singularrekoa da arau nagusia.

5.9. Zenbatzaile orokorrak

5.9.1. *Dena(k)/guztia(k)*

Dena zenbatzaile orokorra bera bakarrik joaten da, eta ez izen batekin (EGLU-I, 153. orrialdea). Hizkera batzuetan erabiltzen da izenarekin batera («Lagun denak etorri dira», adibidez), baina ikasmaterialetarako ez dugu gomendatzen erabilera hori.

(794) Mutiko horrek **dena** daki.

(795) **Denak** sartu ziren gela hartan.

Guztia(k), berriz, bera bakarrik joan daiteke (a), eta izenarekin ere bai (b):

(796) a. **Guztia** batu zuen. **Guztiak** etorri ziren.

b1. **Material guztia** batu zuen.

b2. **Gauza guztiak** bildu zituen.

Erakusleekin, bestalde, «hau guztia» eta «gauza horiek guztiak» ereduak dira arauzkoak, eta ez «guzti hau» eta «gauza guzti horiek».⁷¹

5.9.2. *Oso/guzti*

Oso eta *guzti* baliokide dira askotan (EGLU-I, 154. orrialdea), baina ez beti:

- (797) a. Ur **guztia** edan du.
- b. *Ur **osoa** edan du.
- (798) a. Gauza bera esaten aritu da **denbora guztian**.
- b. *Gauza bera esaten aritu da **denbora osoan**.

Hala ere, gero eta gehiago, *oso* ari da hartzen *guztiren* lekua hitzun askoren artean. Halakoetan, *guztiri* eustea gomendatzen dugu.

- (799) a. **Egun guztia** eman dugu lanean.
- b. ▼**Egun osoa** eman dugu lanean.
- (800) a. Ospetsu bihurtu da **mundu guztian**.
- b. ▼Ospetsu bihurtu da **mundu osoan**.
- (801) Hori horrela izan da **bizi guztian**.
- (802) **Negu guztia** haria egiten pasatzen zuten, goruetan.
- (803) Mendian lanean eman zuen **gaztaro guztia**.
- (804) Lardastuta laga zuen **plater guztia**.

«Guztia beltzez jantzita dator gizona» perpausean ezin erabili da *guztiren* ordez *oso*; izatekotan ere, *oso-osorik* edo *osotara*. Antzera gertatzen da adibide honetan ere:

- (805) a. Ea emanaldi **guztia** ikus dezakegun.
- b. Ea emanaldia **oso-osorik** ikus dezakegun.

Erru eta *erantzukizun* izen abstraktuekin, bietarako datuak atera daitezke *Ereduzko Prosa Gaur* corpuseko adibideei erreparatuta: erabat nagusi da «erru guztia» (hala nola esaten baita «kulpa guztia(k)», baina «erantzukizun guztia» baino askoz gehiagotan ageri da «erantzukizun osoa»).

⁷¹ Euskaltzaindiaren 4. araua: «Hau guz(t)ia».

(806) **erru osoa** (2)
erru guztia (28)

erantzukizun osoa (24)
erantzukizun guztia (7)

5.9.3. Absolutiboa eta inesiboa denborazkoetan: «egun guztia» eta «egun guztian»

Kasu absolutiboa nahiz inesiboa balia daiteke, «zenbat denbora(n)» adierazteko, zenbait aditzekin: *eduki, egon, ibili, aritu, jardun...* Halaxe gertatzen da sintagman *oso* edo *guzti* ageri denean ere (808. eta 809. adibideak):

- (807) a. Zain egon behar izan genuen **pixka bat**.
b. Zain egon behar izan genuen **pixka batean**.

(808) Deika aritu/jardun/ibili da **egun guztia(n)**.

(809) **Egun guztia(n)** egon da telebista piztuta.

Aditza *eman* denean, berriz, nominatiboan bakarrik joan daiteke osagarria:

(810) Lanean eman du **egun guztia**.

5.10. Determinatzaile zehaztugabeak: *beste*

5.10.1. «Besteak» eta «beste batzuk»

Beste erabiltzean, batzuetan ez da aintzat hartzen «bestea(k)» / «beste bat(zuk)» bereizketa. Artikuluduna erabiltzean, 'beste guztia(k)' ematen da aditzera, eta *bat* edo *batzuk* erabili behar da adierazi nahi dena hala zehaztua ez denean:

- (811) a. #Mamutak, oreinak eta **beste animaliak** ehizatzen zituen gizakiak.
b. Mamutak, oreinak eta **beste animalia batzuk** ehizatzen zituen gizakiak.
- (812) a. #Animaliek **beste lekuetara** aldatu behar izaten dute.
b. Animaliek **beste leku batzuetara** aldatu behar izaten dute.
- (813) a. #Faraioia bere armadarekin kanpora ateratzen zen **beste lurraldeak** konkistatzera.
b. Faraioia bere armadarekin kanpora ateratzen zen **beste lurralde batzuk** konkistatzera.

- (814) a. #Adimen logiko-matematikoaz gain, **beste adimen motak** ere baditu gizakiak.
 b. Adimen logiko-matematikoaz gain, **beste adimen mota batzuk** ere baditu gizakiak.
 c. Adimen logiko-matematikoaz gain, **bestelako adimen mota batzuk** ere baditu gizakiak.

Ez dagokion tokian ere erabiltzen da inoiz *beste*:

- (815) a. *Poligono irregular baten azalera kalkulatzeko, poligonoa **beste poligono sinpleagoetan** deskonposatu behar dugu.
 b. Poligono irregular baten azalera kalkulatzeko, **poligono sinpleagotan** deskonposatu behar dugu poligono hori.

5.10.2. *Beste eta gehiago zenbatzaile zehaztuekin*

Zenbatzaile zehaztuekin, anbiguotasuna sortzen da *beste* erabili ordez *gehiago* erabiliz gero:

- (816) a. Bost nituen eta **beste hiru** eman dizkidate.
 b. ?Bost nituen eta **hiru gehiago** eman dizkidate. ('zortzi eman dizkidate' uler daiteke)

Aurrekoari erantzunez, hau esan lezake solaskideak, eta erantzun horretan erabili behar da *gehiago*:

- (817) Beraz, **hiru gehiago** dauzkazu lehen baino.

Gauza bera gertatzen da beste pasarte honetan ere:

- (818) a. ?Gimnasio batera 38 lagun joan dira gaur goizean, eta arratsaldean 65 **gehiago**. Zenbat joan dira denetara egunean? (arratsaldean 103?)
 b. Gimnasio batera 38 lagun joan dira gaur goizean, eta arratsaldean **beste 65**. Zenbat joan dira denetara egunean?

5.10.3. *Beste eta kalkoak*

Kalko okerra da «beste bat» esan ordez «berri bat» esatea:

- (819) a. ***Falta berri bat** adierazi du arbitroak.
 b. **Beste falta bat** adierazi du arbitroak.
 c. **Falta** adierazi du **berriro** arbitroak.
 d. **Ostera ere, falta** adierazi du arbitroak.

Beste bera ere kalko okerra da «beste egunean» esaten denean «lehengo/aurreko egunean» edo «lehengo/aurreko egun batean» esan ordez.

- (820) a. ***Beste egunean**, ez zinen bilerara etorri.
b. **Lehengo egunean**, ez zinen bilerara etorri.
c. **Lehengoan**, ez zinen bilerara etorri.
d. **Aurreko egunean**, ez zinen bilerara etorri.
e. **Aurrekoan**, ez zinen bilerara etorri.
f. **Joan den/zen egunean**, ez zinen bilerara etorri.
g. **Orain hurrena**, ez zinen bilerara etorri.
h. **Orain hurrengo(an)**, ez zinen bilerara etorri.

6. Adjetibo-sintagma

6.1. Izenondoak

6.1.1. Izenondoaren kokagunea

Izenaren eskuineko aldean kokatzen da izenondoa euskaraz, eskuarki. Ezkerreko aldean ezar daitezkeen bakarrak *-dun* eta *-(t)ar* atzizkiez osaturikoak dira: «frantziar idazle» (ikus 6.1.2.2), «adimendun izaki»... Baina horiek ere eskuinean ezar daitezke, eta horixe da gomendioa, gainera, *-dun* atzizkiaren kasuan: «ibilgailu motordun», «edari alkoholodun» (ikus 6.1.3 puntua).

Hona hemen zenbait hutsegite, izenondoen erabidearekin eta kokapenarekin zerikusia dutenak:

a) Koloreak. Zenbait kolore-hitzen oinarria izen bat da (*arrosa*, *gaztaina*, *teila*, *ardo...*), eta elkarketa bidez adierazten dira halako koloreak: *arrosa-kolore*, *gaztaina-kolore*, *ardo-kolore...* Joskeran, jokaera bikoitza dute, izenlagun gisa eta izenondo gisa ibiltzen baitira: «arrosa-koloreko galtzak» eta «galtza arrosa-koloreak», adibidez.

- (821) a. *gaztaina-koloreko* begiak
- b. begi *gaztaina-koloreak*

Nolanahi ere, fenomeno honetan bilakaera bat dago. Gaur egun, *arrosa* hitza, izen gisa ez ezik, izenondo gisa ere erabiltzen da («soineko arrosa», «antxeta arrosa»...). Antzeko kasua izan daiteke *laranjarena*: garbi dago izena dela berez, baina nekez jo genitzake okertzat, gaur egun, «elastiko laranja» modukoak.

Koloreak adierazteko beste hitz batzuk izenondo dira berez: *berde*, *gorri*, *gris*, *urdin...* Halakoak izenaren eskuinetik eman behar dira beti: «alkandora berdea», «auto gorria»... Arazo bat sortzen da, ikusten denez, izenondo horiek *kolore* izenarekin batera ematean: «*gorri koloreko» modukoak entzuten eta irakurtzen dira zenbaitetan («gaztaina-koloreko» eta gisakoen analogiaz edo), baina «kolore gorriko» da arauzko forma.

- (822) a. *berde koloreko begiak ditu
 b. kolore berdeko begiak ditu
 c. begi berdeak ditu (egokiena)

b) Maileguak. Izenondo mailegatuek izenaren eskuineko aldean joan behar dute (*sozial, sindikal, politiko, elektroniko...*). Bestela, hitz-elkarketa egin daiteke oinarrian dituzten izenekin (*gizarte/jendarte, sindikatu, politika, elektronika...*)⁷².

- (823) a. *sozial egitura
 b. **gizarte-egitura, jendarte-egitura**
 c. **egitura sozial**
- (824) a. *sindikal batasun
 b. **sindikatu-batasun, sindikatuen batasun**
 c. **batasun sindikal**
- (825) a. *elektroniko tresna
 b. **elektronika-tresna, elektronikazko tresna**
 c. **tresna elektronikoko**

c) Ez dira egoki *nekazal, merkatal, monetal, unibertsital* eta *kazetal* formak⁷³. Osorik gorde behar da *-ari* atzizkia, hori erabiltzea badagokio; bestela, hitz-elkarketa, izenlagunak edo (kasuren batean) maileguzko izenondoa dira erabiltzekoak:

- (826) a. *nekazal sindikatuak
 b. **nekazari-sindikatuak, nekazarien sindikatuak**
- (827) a. *merkatal ganbera
 b. **merkataritza-ganbera**
- (828) a. *monetal politika
 b. **moneta-politika, diru-politika**
- (829) a. *unibertsital kirola
 b. **unibertsitate-kirola, unibertsitateko kirola**
 c. **kirol unibertsitarioa**

⁷² Ikus, besteak beste, Alberdi-Sarasola, *op. cit.*, 145. or.

⁷³ Ikus Euskaltzaindiaren 25. araua: «Hitz elkartuen osaera eta idazkera».

(830) a. *kazetal hizkera

b. **kazetari-hizkera, kazetaritza-hizkera, kazetaritzako hizkera**

Ikus 3.2. puntua ere.

6.1.2. Herritarren izenak: *-ar, -tar, -dar, -oztar...*

Jentilizioak osatzeko (herritarren izenak, eta adjektiboak) *-(t)ar* atzizkia erabiltzen da euskaraz, hainbat aldaerarekin (*-ar, -tar, -dar, -oztar*): *debar, gasteiztar, iruindar, urepeldar, sopeloztar...* Atzizki horrekin osaturiko hitzen formari nahiz erabilerari buruzko ohar batzuk egingo ditugu hemen⁷⁴, eta bestelako jende-izen batzuk aipatuko.

6.1.2.1. *-(t)ar* atzizkiaren erabilerak eta mugak

Tradizioan, *-(t)ar* atzizkiak jatorria (*bergarar, kanpotar, baserritar...*) eta joera (*berantiar, eliztar...*) adierazi du, batez ere. Gainera, halako adjektiboak (batzuk izen gisa ere erabiltzen dira) izen bizidunei zegozkien, gehien-gehienean. Horrela osatu dira euskal jende-izenak.

Gerora, erabilera horiek zabaldu eta berriak sortu dira. Berri horietako batzuk ontzat ematekoak dira, izenondoak sortzeko beste aukera garbirik ezean: *hamartar, angeluar, pasiotar...* Hizkera teknikoan sartu dira, batez ere, halakoak, eta betiere izenaren eskuinetik erabiltzeko, izenondo moduan.

Izenlagunak osatzeko (izenaren ezkerretik), tradizio sendoa du *-(t)ar* atzizkiak: *bilbotar idazle, alemaniar agintari...*

Garai batetik hona, hala ere, eskuineko posizioa lekua irabaziz doala dirudi.

Jatorria adierazten duten kasuetan egokitzen da hobekien izenlagun moduan (ezkerretik), eta hala ageri da Euskaltzaindiak onarturiko

⁷⁴ Euskal herritar-izenak kontsultatzeko, Euskaltzaindiaren herri-izendegietara jo behar da, eta horretarako biderik lasterrena Euskal Onomastikaren Datutegia (EODA) da: <http://www.euskaltzaindia.net/eoda>. Bestela, arau hauetan bila daitezke izenak, herrialdeka: 108. arauan, «Lapurdikoko herri izendegia»; 122., 128. eta 133. arauetan, «Nafarroa Behereko herri izendegia»; 140. arauan, «Gipuzkoako herri izendegia»; 145. arauan, «Bizkaiko herri izendegia»; 150. arauan, «Arabako herri izendegia»; 155. arauan, «Nafarroako udal izendegia».

hainbat geografia-izenetan ere⁷⁵: *Britainiar uharteak, Dinariar Alpeak, Kaspiar itsasoa...*

Aldiz, joera adierazten duten *-(t)ar* izenondoak, eta hedaduraz sorturiko deskribatzaile berriak, eskuinetik ematen dira: *olerkari goiztiar, diagnostiko goiztiar...*

Bestela esanda, *nondar/nongo* esan nahi duenean ematen da ezkerretik *-(t)ar* atzizkiak osaturiko adjektiboa, eta *nolako* esan nahi duenean, berriz, eskuinetik.

Arazoak aztertzen hasita, forma hutseko akatsak ditugu alde batetik: erdal jentilizioen kutsaduraz, euskal eratorpenarekin bat ez datozen formak erabiltzea. Esaterako:

(831) (forma okerrak) *europar, *kanadiar, *kaukasiar, *guatemaltekarrak, *egiptiar/*egipziar, *belgiar, *iraniar...

(forma zuzenak) europar, kanadar, kaukasoar, guatemalar, egiptoar, belgikar, irandar...

Euskal eratorpenean berean ere badira zalantzak, eta hiztegiz finkatzekoak dira zenbait forma. Esate baterako, *-tiar* aldaera ageri da hitz batzuetan eta *-tar* beste batzuetan: *goiztiar, bazkaltiar* eta *erregetiar* datoz *Hiztegi Batuan*, baina *eliztar, zerutar...*

Bigarrenik, forma hutseko arazoetatik harago, jentilizioen erabilera desegokiak dira «eibartar kaleak» eta «bilbotar auzoa» modukoak⁷⁶, erdaren bide arrunt bati itsu-itsuan jarraikiz eratuak. Euskarazko adierazpide normalak «Eibarko kaleak» eta «Bilboko auzoa» dira. Eremu batzuetan, hala ere, ez da erraza *-kol/-ar* banaketa ezartzea. Gobernuak izendatzean, adibidez, «Frantziako Gobernu» eta «Alemaniako Gobernu» erdua hobesten da, oro har, baina badute beren tradizioa «frantses gobernu» modukoek ere. Halaber, jentiliziotzat har daitezke «(musika-, kirol- ...) talde alemaniar»

⁷⁵ Euskaltzaindiaren 52. araua: «Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)».

⁷⁶ 'Bilboko auzo' adieran jotzen dugu desegokitizat *bilbotar auzo*; zuzena da *bilbotar-auzo*, jakina, 'bilbotarren auzo' edo halako adiera batean.

modukoak. Antolakunde historiko eta politikoetan, adibide ezagunak ditugu «Erromatar Inperio» eta «Europar Batasun».

Hirugarrenik, erdal adjektibo erreferentzialen kalko desegokia egiten da zenbaitetan *-(t)ar* atzizkiarekin. Aukera egokia denean hitz-elkarketa, edo izenlagunez osaturiko sintagma, halako formetara jotzea gomendatzen dugu:

(832) a. *batasun lurraldetar

b. lurralde-batasun

(833) a. *auzitegitar mediku

b. auzitegi-mediku, auzitegiko mediku

6.1.2.2. Bestelako jende-izenak: *frantses, katalan, judu...*

Jende-izen guztiak ez dira *-(t)ar* atzizkiaz osatuak.

Bi kasu bereizi behar dira:

a) Ez da *-(t)ar* atzizkiaz osaturiko formarik: *ingeles* (**ingalaterratar*, **englandar*), *judu* (**judutar*), *xiita*, *tutsi*, *berbere*, *kurdu...*

b) Bi formak dira egokiak: *frantses/frantziar*, *aleman/alemaniar/germaniar*, *katalan/kataluniar* (**katalandar*), *portuges/portugaldar*, *turkol/turkiar...*

Kasuren batean, bi forma izan, eta erabilerak espezializatu egin dira: «greziarrak» baina «alfabeto grekoa», «antzinako grekoak»...

Adjektibo gisa (erabilera bakanagoa, *nongo* izenlagunak erabiliagoak baitira), forma batzuek izenondoan lekua hartzen dute, izenaren eskuinean:

(834) gazte juduak/xiitak/tutsiak/berbereak/kurduak

(835) agintari turkoak/grekoak

(836) idazle katalanak/galegoak

Beste batzuk, berriz, ezkerrean zein eskuinean joan daitezke, *-(t)ar* atzizkiaz osatuak bezalatsu («errusiar ipuinak» / «ipuin errusiarrak»):

(837) ingeles telebista / telebista ingelesa

(838) aleman armada / armada alemana

(839) portuges literatura / literatura portugesesa

6.1.3. *-dun* atzizkiaz osaturiko izenondoak

Zenbaitetan, izenaren ezkerrean ikusten ditugu *-dun* atzizkiaz osaturiko hitzak («alkoholdun edari»...), baina ez da hori izan tradizioko joera nagusia⁷⁷, eta eskuinetik ematea gomendatzen dugu:

- (840) agintari eskudun
- edari alkoholdun
- andre dirudun
- mutil betaurrekodun
- ibilgailu motordun

Hiztegi Batuan ditugu, azpisarrerren eta adibideen artean: *edari alkoholdun*, *ardo bisdun* ('bitsa duen ardoa'), *arbola lekadun*, *taula boladun*, *euskaltzain aulkidun*, *otarre estalkidun*, *bokal azentudun*, *balazta diskodun*, *soka amudun*, *pala saredun*...

Gerta daiteke, sintaxi-egitura konplexuagoetan, ezkerretik eman beharra ere, eta egoki da halakoetan: «eguzkitako betaurrekodun mutila», adibidez.

Gainerakoan, *nolako zentzuko zenbatzaile + izen* egiturekin eta *izen + izenondo* egiturekin *-ko* da loturarik arruntena eta gomendagarriena:

- (841) a. ▼lau hankadun mahaia
- b. lau hankako mahaia
- (842) a. ▼ile luzedun neska
- b. ile luzeko neska

Izenak ere osatzen ditu *-dun* atzizkiak: *arduradun*, *euskaldun*, *ugaztun*, *ornodun*... Halakoetan, egoki da, jakina, «arduradun nagusi», «ugaztun txiki» eta «ornodun urlehortar» modukoak erabiltzea.

6.1.4. Izenondoaren generoa

Euskaraz, izen eta izenondoek ez dute genero gramatikalik izaten, gaztelaniaz edo frantsesez duten bezala. Bereizkuntza egiten da, hori

⁷⁷ Ikus, adibidez, Alberdi-Sarasola, *op. cit.*, 253. or.

bai, hiztegiko hitz bikote banaka batzuetan (hitz desberdinak dira, beraz, eta ez hitz baten genero-aldaerak). Izenetan, euskalkiaren arabera, *lebengusu/lebengusina*, *errient/errientsa* eta *alargun/alarguntsa* moduko bikoak ditugu, gehienez ere (*Hiztegi Batua*: *errient* Ipar. ‘eskola-maisua’; *errientsa* Ipar. ‘eskola-maistra’; *alarguntsa* h. *alargun*). Baina *aktore* izendatzen dira gizonezkoak nahiz emakumezkoak (ez **aktorea*), eta *psikologo*, orobat, gizon nahiz emakumeak (ez **psikologa*). Izenondoetan, berriz, honako marka hauek aurkitzen ditugu *Hiztegi Batuan*:

- (843) **gajo** *Gip.* (emakumezkoei dagokie)
gaixo 1 iz. eta izond. ‘eria’. 2 izond. ‘errukarria’
gizajo *Lgart.* ‘gizagaixoa’
gizagaixo
- (844) **tonto** 1 ‘ergela, zozoa’. 2 Ipar. ‘motela’
tuntun 2 izond. (emakumeez mintzatuz)

Beraz, *gaixo* hitza markatugabea da; *gajo*, emakumeei dagokiena; *gizagaixo*, gizonezkoei dagokiena, eta *gizajo*, berriz, *gizagaixoren* gipuzkerazko aldaera. Bestetik, *tuntun* izenondoa markatua da (bide batez esateko, «neska tuntun bat» da forma zuzena, eta ez «neska **tuntuna* bat»).

6.1.5. Izenondoen konparazio-gradua eta superlatiboa

a) Bereizi beharra dago izenondo eta aditzondoen konparaziozko gradua (*baino ...-ago*) eta gradu superlatibo erlatiboa (*-en*):

- (845) a. Peru **urrutiago** iritsi da (besteak baino).
b. Peru iritsi da **urrutien**.

Konparazio-erreferentziarik ematen ez bada («X *baino*»), edo testuinguruan halakoren bat badela ulertzerik ez badago, superlatiboa da erabiltzekoa (ikus 1.3.4.17 puntua ere):

- (846) a. #Nor ailegatu da **urrutiago**?
b. Nor ailegatu da **urrutien(a)**?
- (847) a. *Azken hauteskundeetan, zein alderdik lortu du boto **gehiago**?
b. Azken hauteskundeetan, zein alderdik lortu du boto **gehien**?

Esplizituki aipatzen badira konparagaiak, bi moduak erabiltzen dira (*-ago* eta *-en*). Isilean gelditzen dena zer den (parentesi artean adierazi dugu), haren arabera:

- (848) a. Nor ailegatu da **urrunen** (bietatik): Miren ala Amets?
b. Nor ailegatu da **urrunago** (bestea baino): Miren ala Amets?
- (849) a. Nork izaten du diru **gehien** (bietatik): asko irabazten duenak ala gutxi gastatzen duenak?
b. Nork izaten du diru **gehiago** (besteak baino): asko irabazten duenak ala gutxi gastatzen duenak?
- (850) a. Zein alderdik lortuko du boto **gehien** (bietatik): liberalak ala kontserbadoreak?
b. Zein alderdik lortuko du boto **gehiago** (besteak baino): liberalak ala kontserbadoreak?

Hona beste zenbait adibide:

- (851) Tableta bat txokolate hartuta, Imanolek $1/4$ jan du, eta Mirenek $3/4$. Nork jan du txokolate **gehiago/gehien**?
- (852) Ur-botila baten edukiera $3/4$ litro da («hiru litro laurden»), eta beste batena, berriz, $3/8$ litro («hiru litro zortziren»). Bietatik, zeinek hartuko du ur **gehiago/gehien**?
- (853) 90 euroko opari bat erostean 7,20 euroko beherapena egin zidaten; nire lagun bati, berriz, 8,40 eurokoa, 120 euroko opari bat erostean. Nork izan zuen beherapen **handiago/handiena**?

b) Kalko desagokitzat hartzen dugu izenondo edo aditzondo baten mailakatzaille gisa *oso* erabili ordez *-egi* erabiltzea. Ezezkako perpausetan sortzen da arazo hori, *Kalko okerrak* liburukian ere azaldua (40.-41. orrialdeak). Han ematen da, orobat, *gehiegi* ongi erabiliaren eta gaizki erabiliaren berri —(856) adibidea—:

- (854) a. #Ez naiz **berritsuegia**.
b. Ez naiz oso **berritsua**.
- (855) a. *Ez zara **urruitegi** joango oinetako estu horiekin...
b. Ez zara (oso) **urruiti** joango oinetako estu horiekin...
- (856) a. Ez du **gehiegi** jan. ('Ez du behar baino gehiago jan')
b. *Ez du **gehiegi** jan. ('Ez du askorik jan', 'Gutxi samar jan du')

c) Alferrik erabiltzen da sarritan *nagusien* superlatiboa. Aski da *nagusi* adjektibo soila, esanahian bertan baitu graduaren bereizgarria. Sinonimo du *behinen* izenondoa.

- (857) a. ▼Bete ditugu **helburu(rik) nagusienak**.
b. Bete ditugu **helburu nagusiak**.
c. Bete ditugu **helburu(rik) behinenak**.
- (858) a. ▼Hona hemen motorraren **ezaugarri(rik) nagusienak**.
b. Hona hemen motorraren **ezaugarri nagusiak**.

6.1.6. Izenondoa hitz-elkarketaren barruan

Hitz-elkarketako lehen osagaiari izenondoa eransten bazaio, elkarketa desegin eta sintagma arrunta osatzea da joera orokorra, zentzuak hala onartzen badu. Halaxe dio Euskaltzaindiaren 25. arauak, *bautagai-zerrenda* jarriarik adibide:

- (859) **bazkide-zerrenda**
a. *bazkide berri zerrenda
b. **bazkide berrien zerrenda**
- (860) **emakume-bilera**
a. *emakume enpresari bilera
b. **emakume enpresarien bilera**
- (861) **gazte-aldizkaria**
a. *gazte abertzale aldizkaria
b. **gazte abertzaleen aldizkaria**

Zenbait kasutan, hala ere, onargarria da berrelkarketa (bi osagai baino gehiago elkartzea), aipatutako arauak dioenez: «*Eguzki-lore* gisakoen alorreko *irizpen-*, *multzo-*, *zati-* eta *mota-*elkarteek beste gehienek baino askatasun handixeagoa dute honelako hedapenatarako: *butano-saltzaile itxura*, *kafe erre usaina*, *zakar-biltzaile taldea*, *orein-haragi zatia*, *perpau subordinatu motak*».

Badira, adibide horietan, barruan izenondoa duten elkarketak («kafe erre usaina», «perpau subordinatu motak»). Hona gehiago ere, egokitzen jo beharrekoak:

- (862) a. liburu zahar bilduma
 b. dantzari txiki talde
 c. arrosa gorri sorta
 d. hartz arre bikote⁷⁸

Sarri gertatzen dira, esaterako, «mota-elkarte» deritzon saileko adibideak:

- (863) a. zuntz optiko motak
 b. zer jarduera ludiko mota egin
 c. Hiru etxe berri mota ari dira eraikitzen gure herrian.
 d. Beste zentral elektriko motaren bat ezagutzen al duzu?

Esateko beste moduren bat bada zenbaitetan, baina ez beti:

- b'. zer/nolako jolas-jarduerak egin (= 'zer jarduera ludiko mota egin')
 c'. hiru motatako etxe berriak eraikitzen ari dira gure herrian. (= 'hiru etxe berri mota')

Ez da inoiz onargarria *-en mota*:

- (864) *zuntz optikoaren motak

Izan ere, *mota* izena elkarketan baino ez da erabiltzen; ez du *-ko* edo *-(r)en* izenlagunik hartzen ezkerrean. Alde horretatik, *kopuru* izena ez bezalakoa da: «liburu kopurua» nahiz «liburuen kopurua» esan daiteke; aldiz, ez da ongi esana «*liburuen mota».

Bigarren joskera horretara jo behar da, adibidez, osagarriren bat gehiago biltzen denean: «gelako liburuen kopurua», «liburu berrien kopurua», «laguntza jaso duten enpresen kopurua», «10 €-ko billeteen kopurua».⁷⁹

6.1.7. Izenondoa postposizio-egituraren barruan

Postposizio batzuekin, deklinatu gabe nahiz deklinaturik joan daiteke aurreko hitza: «zuntz bidez» edo «zuntzaren bidez», «etxe ondoan» edo

⁷⁸ Animaliez hitz egitean, *kume* hitzarekin ere gerta daitezke halako berrelkarketak: «hartz arre kume bat».

⁷⁹ Beste biderik ere bada zenbaitetan. Esate baterako, «hondakin begetalen kopuru handiak» baino egokiago da «hondakin begetal asko/ugari».

«etxearen ondoan». Izenondo bat tartean dugunean ere, bi bideak dira zilegi, baina batek beste zentzu bat izan dezake: mugatzailea erabiliz gero (hots, postposizioaren aurreko izenondoa deklinatuz gero) zentzu generikoa duena modu konkretuan ulertzeko arriskua dago:

- (865) a. **posta bidez** komunikatu, **posta elektroniko bidez** komunikatu
- b. **postaren bidez** komunikatua, **posta elektronikoaren bidez** komunikatu
- (866) a. **erabaki juridiko bidez** ebatzi
- b. **erabaki juridikoen bidez** ebatzi

Postposizioaren aurreko izena deklinatzen ez den kasuetan, jakina, adjektiboa ere ez da deklinatzen tartean sartzean:

- (867) Nork bere beharra egin dezala, **herritar on** gisa.

6.1.8. Izenondoak atributu eta aditzondo: mugagabeak eta mugatuak

Izenondoa, atributu denean, mugagabean nahiz mugatuan joan daiteke. Lotura-aditza zein den, joera bat edo beste nagusitzen da: *izan* aditzarekin, mugatua; *egon* eta *eduki* aditzekin, bi joerak lehian dabilta; eta gainerakoekin (*ibili*, *joan*, *sartu* eta *biburtu*, besteak beste) mugagabea.

a) Lotura-aditza *izan* bada, atributua mugaturik ematen da eskuarki; singularrean edo pluralean, subjektuarekin komunztadura eginez. Nahitaezkoa da mugaturik ematea partizipioz osatua bada (869. adibidea):

- (868) a. Liburu hori **garesti** da. / Liburu horiek **garesti** dira. (tradizio batzuetan)
- b. Liburu hori **garestia** da. / Liburu horiek **garestiak** dira. (gaur egun nagusi)

- (869) Liburu hori **ongi idatzia** da.

Jarduera adierazten duen izen bat bada atributua, mugagabean ematen da. Bestela subjektutzat har litekeen kasuetan, bereziki argigarri gertatzen da jokaera hori:

- (870) a. **Irakasle** izan da ikastolan. (zer, atributu)
- b. **Irakaslea** izan da ikastolan. (nor, subjektu)

b) Lotura-aditzak *egon* eta *eduki* direnean, mugatuan nahiz mugagabeen ematen dira atributuak. Estilo-liburu honen *Kalko okerrak* liburukiak hauxe dio (28. or.): «Tradizio biak dabilta lehian. Eredu zaharra mugagabearen aldekoa da, nahiz erdialdeko euskalkietako oraingo erabileran mugatua erabat nagusitu: ‘*Berde* daude sagarrak’; ‘*Txiki* dauzkazu oinetakoak’ / ‘*Berdeak* daude sagarrak’; ‘*Txikiak* dauzkazu oinetakoak’».

(871) a. Semaforoa **gorri dago**.

b. Semaforoa **gorria dago**.

(872) a. Oinetakoak **txiki dauzkazu**.

b. Oinetakoak **txikiak dauzkazu**.

(873) **Zail** dauka xakelariak taula gaineko posizioa defendatzea, baina ez luke etsi nahi.

(874) Hain ongi prestatua, ezen konturatu bainintzen oso **zaila neukala** defentsa, ia ezinezkoa.

c) Lotura-aditzak *ibili*, *joan*, *sartu* eta *ari izan* (*aritu*), *jarri*, *egin*... direnean, atributua mugagabeen ematea da aukera ia bakarra. Horrelako atributuak izenezkoak izaten dira:

(875) **Irakasle dabil**, baina idazle izan nahi du.

(876) David ingeles filologian lizentziatu zen 1992an, baina **igeltsero dabil** ia orduz geroztik.

(877) **Artzain joan** zen bortura hamaika urtetan, 1923an.

(878) **Itzultzaile ari da** aspaldian.

(879) **Zuzendari** egin dute.

Izan eta *egon* aditzekin ere, hainbat esapide mugagabeen egiten dira: «on izan», «hobe izan», «berdin izan», «neke izan», «harrigarri/harritzeko izan», «zail izan», «libre izan», «zilegi izan», «egoki izan», «harritzeko ez izan», «garbi egon», «bare egon», «hotz egon»... Esapide diren neurrian, mugagabeen eramaten dute izenondoa, nahiz beste joskera ere zilegi izan zenbaitetan (ez denetan).

(880) Baina egia da, horrekin batera, behin prozesu bat ireki ondoren **on dela**, urteak igarotzen direnean, atsedean eta pausaldi hartzea gauzak ongi egiten ari ote garen ikusteko.

(881) **Neke da** harekin ibiltzea, baina, hala ere, badu ukitzen nauen alde bat.

6.2. Izenlagunak

6.2.1. Noiz *-ko* eta noiz *-en*

Hainbat zalantza sortzen da izenlaguna *-ko* atzizkiarekin ala *-en* atzizkiarekin lotu; erdaraz *de* preposizioak lotzen dituenak itzultzeko orduan, batez ere. Nahiz eta kontua ez den soil-soilik *nongo* eta *noren* bereiztea, galdetzaileon erreferentzia kontuan izan behar da, eta hitzen lotura semantikoari erreparatu.

Kokapena adierazten da, oro har, *-ko* loturarekin (tokia, denbora, esparrua): «herriko kaleak», «ikasturteko irteerak», «matematikako zalantzak»... Eta *-en* lotura, berriz, ideia bat baino gehiagoren adierazle izan daiteke: agentea («artistaren obra»), pazientea («liburuaren itzulpena»), gaia («ikasturtearen garrantzia»), jabetza («amaren autoa»), osotasun/zati harremana («alkandoraren mahuka»).

Aukera garbia denean, *-en* gomendatzen dugu: «orkestraren zuzendaria», «aldizkariaren zuzendaria», «eskuaren erradiografia», «etxearen plano»...

Bietara ontzat jo beharreko kasu batzuk badira, egiazki, bakoitza bere ñabardurarekin:

- (882) a. **elkarteko bilera** (1. 'elkartean egiten den bilera'; 2. 'elkartearen parte bati dagokion bilera')
- b. **elkartearen bilera** ('elkarte osoaren bilera')
- (883) a. **eskolako zuzendari** (1. 'eskolan ari den zuzendaria'; 2. 'eskolan ari diren zuzendarietako bat')
- b. **eskolaren zuzendari** ('eskola zuzentzen duena')
- (884) a. **taldeko entrenatzaile** ('delako taldean ari den entrenatzailea, edo ari diren entrenatzaileetako bat')
- b. **taldearen entrenatzaile** ('taldea entrenatzen duena')
- (885) a. **Euskal Herriko historia** ('Euskal Herrian gertatua')
- b. **Euskal Herriaren historia** ('Euskal Herria subjektu duen historia')
- (886) a. **Albaniako konkista** ('Albanian egindako konkista')
- b. **Albaniaren konkista** (1. 'Albania konkistatu zenekoa, Albania konkistatzea'; 2. 'Albaniak egindako konkista')

Bitasun eta zalantza normal horiekin batera, desbideratze nabarmenak ere aurki ditzakegu testuetan:

- (887) a. *proiektuko sustatzailea/babeslea
b. proiektuaren sustatzailea/babeslea
- (888) a. *biltzarreko kokalekua
b. biltzarraren kokalekua

6.2.2. Neurriak: «hamar euroko kafea» eta «hamar euroren kafea»

Diru-balioak adieraztean, esanahi-desberdintasun nabarmena dago batzuetan *-ko* eta *-en* atzizkien artean:

- (889) a. hamar euroko kafea (kiloak edo dena delako neurriak balio du 10 euro)
b. hamar euroren kafea ('hamar euroren truke eskura daitekeen kafea')
- (890) a. hogeituroko gasolina (litroa, hogeituroan)
b. hogeituroren gasolina (hogeituro, gutzira)

Beste neurri batzuekin, gaur egun *-ko* franko erabiltzen bada ere, *-en* erabili da tradizioan, eta horri eustea gomendatzen dugu, aukeran.

- (891) a. sei tantoren aldea (zer alde)
b. sei tantoko aldea (nolako aldea)
- (892) a. mila euroren zorra (zenbat diruren zorra, zer zor)
b. mila euroko zorra (nolako zorra, zenbateko zorra)
- (893) a. bi milioi euroren gastua (zer gastu)
b. bi milioi euroko gastua (zenbateko gastua)

Honako perpaus honetan, ez *-ko* eta ez *-en* da erabiltzekoa:

- (894) a. *Botika honetako 5 tanta hartu behar dituzu, egunean hiru aldiz.
b. *Botika honen 5 tanta hartu behar dituzu, egunean hiru aldiz.
c. Botika honetatik 5 tanta hartu behar dituzu, egunean hiru aldiz.

6.2.3. Zenbait zalantza *-ko* eta *-zko* direla eta

Zalantza sortzen da, zenbaitetan, izenlaguna *-ko* atzizkiarekin egin ala *-zko* atzizkiarekin: «kalitate(z)ko hezkuntza», «zuri-beltze(z)ko argazkia»... Oro har, *-ko* aski da oinarria izena bada eta *nolako* zentzua badu. Beti *-ko* erabiltzen da izenondo bat tartean sartzean: «kalitate oneko hezkuntza», «kalitate eskaseko haragia», «maila egokiko saioa»...

- (895) **kalitateko** hezkuntza (eta «kalitate oneko hezkuntza»)
zuri-beltzeko argazkia (eta «argazki zuri-beltza»)

Bestetik, *-zko* erabiltzen da osagaia adierazten dutenetan ez ezik («zurezko», «harrizko», «harri landuzko», «artilezko»...), oinarrian *-z* adizlagun bat dutenetan ere: «zaldizko polizia» (zaldiz ibiltzen den polizia), «ofiziozko abokatu» (ofizioz izendatzen den abokatua), «euskarazko talde» (euskaraz ikasten duen taldea), «jatorrizko bertsio», «urgentziatzko irtenbide», «beldurrezko film»...

Bigarren sail horretakoak ditugu *egiazko* eta *zinezko* izenlagunak ere, oinarrian *egiaz* eta *zinez* baitituzte. Okerra da, aldiz, **benetazko*: zuzena eta betidanik erabilitakoa *benetako* da, *benetan* baitu oinarrian. *Obiko* eta *obizkoren* kasuan, *Hiztegi Batuan obiko* dago hobetsirik; **obiz* ez da ezer.

Hitz batzuekin, bereizkuntza egin behar da (*-ko* eta *-zko*) loturaren zentzuaren arabera:

- (896) a. alderdiaren **oinarriko** jendea
b. *e* **oinarriko** logaritmoa ('*e* duena oinarri')
c. **oinarrizko** kontzeptuak
- (897) a. **jatorriko** unibertsitatea ('zer unibertsitatetatik datorren')
b. euskal **jatorriko** kanta, **landare-jatorriko** proteinak
c. **jatorrizko** testua

Oso erabiliak dira, *-zko* atzizkiarekin, *ikaragarritzko* moduko maila-izenlagunak, izenondotik eratorriak. Hori dute formarik hedatuena, nahiz *ikaragarriko* eta *ikaragarritako* ere aurki daitezkeen, euskalkiaren arabera.

- (898) a. **ikaragarritzko** abiadura (abiadura **ikaragarria**)
b. **izugarritzko** lana (lan **izugarria**)
c. **itzelezko** askatasuna (askatasun **itzela**)
d. **gehiagizko** presioa (presio **gehiagia**)

Partzipioaren gainean ere ezartzen da *-zko*; hain zuzen ere, *ezin*... *-zko* egituran (azpisarrera da *Hiztegi Batuan*):

- (899) a. **ezin barkatuzko** bekatua
b. **ezin ahaztuzko** abentura

Partizipio + behar segidetan, ez da zuzena *-zko*:

- (900) a. *egin beharrezko lana
b. egin beharreko lana

Halakoak, hurrenkera aldatuta, «barkatu ezineko bekatua» eta «ahaztu ezineko abentura» ditugu. Hona *Hiztegi Batuko ezin* sarreraren *ezineko* azpisarrera: «*ezineko*: mugatu ezineko handinabikeria». Hala ere, ez dira gutxi «esan ezinezko kontuak» modukoak erabiltzen dituztenak, erregela orokorrak eskatzen duen «esan ezineko kontuak» formaren orde.

Gutxieneko da azpisarrera *Hiztegi Batuan*, eta, beraz, *gutxieneko* eta *gehieneko* gomendatzen ditugu: «gutxieneko soldata», «gutxieneko distantzia», «gehieneko prezioa»...⁸⁰

Bitasunik ere ez da falta, *Hiztegi Batuan* bertan: *dudako* eta *dudazko*, esate baterako. Era berean, *presako* eta *presazko* erabiltzen dira. «Balioko gauzak» eta «baliozko gauzak», bietara esaten da.

Ñabardurak antzeman daitezke, zenbaitetan, aukera batetik bestera:

- (901) a. *logikazko* jolasa ('logikaz igarri beharreko zerbait')
b. *logikako* jolasa ('logikaren alorreko jolasa')
c. *logika*-jolasa (logika da jolasaren gaia)

6.2.4. Ez nolnahi erabili *-zko*

Aski emankor gertatzen da *-zko* atzizkia izenlagun eta izenondoak osatzeko. Izenlagun gisa erabiltzen dira, gehienbat, baina izenaren eskuinetik ere bai: «sendatze mirarizko»; «ez harrizko tauletan, baina bihotzeko taula haragizkoetan»... Izenondo erreferentziazko osaturiko termino askoren ordainak hala ematen dira (termino hori bera ere, zenbaitetan, «erreferentziazko izenondo» forman adierazten da). Adibidez, «zenbakizko kontrol» (*numérico*), «moduzko perpaus» (*modal*), «entzutezko pertzepzio» (*auditiva*), «kontzeptuzko eduki» (*conceptual*)...

⁸⁰ Zenbaitetan *minimo* eta *maximo* hitzak erabili behar dira (*Hiztegi Batuan* jasorik daude): «temperatura maximoa», «funtzio baten maximoa eta minimoa»...

Baina *-zko* atzizkiaren erabilera bortxatuak ere ikusten dira testuetan, aukera naturalagoak dauden zenbait kasutan: postposizioa, hitz-elkarketa, *-ko* izenlagun arrunta...

- (902) a. ▼batuketazko deskonposizioa
b. batuketa bidezko deskonposizioa
- (903) a. ▼metodologiazko zenbait zehaztapen
b. metodologiari buruzko zenbait zehaztapen
c. metodologiaren gaineko zenbait zehaztapen
d. zenbait metodologia-zehaztapen
- (904) a. ▼zenbaketa sistematikozko problemak
b. zenbaketa sistematikoaren inguruko problemak
- (905) a. ▼geometriazko ikasgaiak
b. geometriako ikasgaiak ('geometria alorreko ikasgaiak')
c. geometria-ikasgaiak

6.2.5. «Hamabost herriko» eta «hamabost herritako»

Euskaltzaindiaren 34. arauak zehaztu zuenez, *-ko* da erabiltzekoa euskara batuan (ez *-tako*) zenbatzaileak ageri diren honelako sintagmetan: «lau hankako mahaia», «100 kiloko harria», «10 urteko haurra»... Horietan guztietan, *nolako* adierazten du izenlagunak, ez *nongo* edo *noizko*.

Nongo edo *noizko* adierazten duten sintagmetan, zenbatzaileek mugagabeko forma hauek eskatzen dituzte nahitaez: «lau herritako alkateak», «bost ikasturtetako ikasleak»...

Halatan, esanahi oso desberdinekoak dira «bost urteko ardoa» eta «bost urtetako ardoa(k)» sintagmak (alde batera utziko dugu zentzuak mugatu plurala eskatzen duen kasua: «Salduta daukagu *azken bost urteetako* ardo guztia»). Lehenbizikoan, «bost urteko ardoa» esatean, ardo jakin batek bost urte dituela esaten dugu (*nolako* ardoa); bigarrenean, berriz, *noizko* ardoaz edo ardoez ari garen: bost urtean (urtetan) egindako ardoaz edo ardoez. Ikus 5.1.6.1 eta 5.1.6.2 puntuak ere.

Bereizkuntza ikusteko beste aukera batzuk:

- (906) a. **Hamabost herriko** udalerrria da Baztan.
b. **Hamabost herritako** jendea elkartzen da festa horretan. (Esan nahi denaren arabera, «hamabost herrietako» ere bai).
- (907) a. **Bi gelako** etxe bat erosi nahi dut.
b. **Bi gelatako** altzariak aldatu behar ditut.

Zalantza sortu ohi da *mota*, *era*, *sail*, *neurri* eta *kategoria* izenekin (batez ere, ikusten denez, *mota* hitzarekin). Halakoek *nongo* adiera dute, sailkapen baten erreferentzia ematen dutenez. Adibidez, «neurri batekoak eta beste neurri batekoak» beti «bi neurritakoak» izango dira.

Beraz, *-tako* dagokie honelakoei:

- (908) a. *bi motako ondorioak
b. **bi motatako** ondorioak
- (909) a. *bost erako probak
b. **bost eratako** probak
- (910) a. *bi neurriko piezak
b. **bi neurritako** piezak

Aldiz, *-ko* atzizkia dagokie honelakoei, Euskaltzaindiaren 34. arauak aipatzen dituenen sailekoak direnez:

- (911) **bost pertsonako** taldea
- (912) **bi koloreko** bolaluma
- (913) **16 koloreko** bit-mapa
- (914) **hiru urratseko** prozesua
- (915) **hiru dimentsioko** irudia⁸¹

Zenbatzaile zehaztugabeekin ere bi formak gerta daitezke:

- (916) a. **zulo askoko** harriak ('zulo asko dutenak')
b. **era askotako** harriak, **toki askotako** harriak...

Honelakoetan, *-ko* da erabiltzekoa (ikus 5.1.6.2 puntua):

⁸¹ «Hiru dimentsio dituen irudia» da hori. Esan liteke «hiru dimentsiotako irudia» ere, «hiru dimentsiotan proiektatzen den irudi» moduan harturik.

- (917) zenbat kilometroko bidea?
 (918) zenbat begiko katea?
 (919) hainbat kilometroko auto-ilara

6.2.6. Zenbatzaile zehaztugabeak eta *-ko*: *zenbat/zenbateko*; *hainbeste/hainbesteko* (*asko/handia*)

Izen zenbakaitzekin, gero eta joera handiagoa dago *zenbat* erabiltzeko *nolakoren* ordean. Gauzak bere neurrira ekartzeko ahalegina egin behar litzateke, *Kalko okerrak* liburukian esan bezala (41.-43. orrialdeak). Naturala bada, *nolako/zenbateko* da hobestekoa:

- (920) a. *Zenbat interes daukazu?
 b. Zenbaterainoko interesa daukazu?
 c. Zer-nolako interesa daukazu?
- (921) a. *Ez du hainbeste hotz egiten.
 b. Ez du hainbeste(raino)ko hotza/hotzik egiten.
 c. Ez du halako hotzik egiten.
 d. Ez dago hain hotz.
- (922) a. *Zuk adina/beste interes dauka Andonik.
 b. Zuk adinako/besteko interesa dauka Andonik.
- (923) a. *Zuk beste umore banu...
 b. Zuk besteko umorea banu...

6.2.7. Neurriak izenlagun eta predikatu-osagarri

Neurria predikatu-osagarrian ematen baldin bada, *-ko* gabe egitea da egokiena: «luzera *borrenbeste* da», «perimetroa *hainbeste* da»... Hau da, *zenbat* esan daitekeelarik ez dago zertan *zenbateko* esanik; ezinbestean izenlagun gisa eman beharrekoetarako utz daiteke egitura hori (ikus 4.2.7 puntua ere, eta *Ortotipografia* liburukia, 42.-43. orrialdeak):

- (924) a. ▼Laukizuzen itxurako orri baten perimetroa 80 cm-koa da.
 b. Laukizuzen itxurako orri baten perimetroa 80 cm da.
- (925) a. ▼Vaccinia birusaren diametroa 0,267 mikrakoa da.
 b. Vaccinia birusaren diametroa 0,267 mikra da.
 c. Vaccinia birusak 0,267 mikrako diametroa du. (izenlagun)

- (926) a. ▼Miren, Ainhoa eta Idoiaren batez besteko adina 12 urtekoa da.
b. Miren, Ainhoa eta Idoiaren batez besteko adina 12 urte da.

Irizpide horrek berdin balio du neurri konplexuagoetan ere:

- (927) a. ▼Presioa 40 N/cm²-koa da.
b. Presioa 40 N/cm² da.

Galdera egitean ere, *zenbat* egokiago da *zenbateko* baino. Beste aukerarik ere izan daiteke:

- (928) a. ▼Zenbatekoa da igerilekuaren sakonera? (bi metrokoa)
b. Zenbat da igerilekuaren sakonera? (bi metro)
c. Zer sakonera du igerilekuak? (bi metro)
d. Zenbat da igerilekua sakonean? (bi metro)

Neurriak izenlagun moduan eman behar direnean, jakina, *-ko* erabili behar da: «500 m-ko luzera du», «40 N/cm²-ko presioa»...

6.2.8. Forma-aldaerak: *aurren/aurreneko*, *azken/azkeneko*, *leben/lebenengo*, *lebenbiziko*...

Ordena adierazten duten izenlagun hauetan, forma bat baino gehiago dugu: *leben* eta *lebenengo*, *aurren* eta *aurreneko*, *azken* eta *azkeneko*, eta abar. Bi formak dira egoki, eta *Hiztegi Batuan* jasota daude. Aldiz, *Hiztegi Batuan* jaso gabe daude *aurrenengo* eta *azkenengo* aldaerak. Eta *bigarren* modukoen aldean hobestekoak dira *bigarren* eta *kidekoak*.

Adizlagun ere bada *lebenengo*; sinonimoak dira, esate baterako, *lebenengo* eta *behin* eta *lebenik* eta *behin* (biak *Hiztegi Batuan*).

Lebenbiziko eta *lebendabiziko* izenlagunak eta *lebenbizi* adizlaguna ere *Hiztegi Batuan* daude (*lebenbizikoz* formari dagokionez, *lebenbizi* eta *lebenik* hobesten ditu).

6.2.9. *-ekiko*, izenlagun eta batzuetan adizlagun

Gehienbat izenlagunak sortu ditu, oraintsu artean, *-ekiko* atzizki konposatuak (*-ekin* sozietiboa du oinarrian, eta haren gainean *-ko*). Murrizagoa, eta Hegoaldera mugatua, izan du adizlagun-erabilera,

salbuespen batekin: aski orokorra da «neurekiko/berekiko» esapidea, 'neure/bere artean' esanahikoa⁸². Bestalde, antzera gertatzen da *-enganako* atzizkiarekin ere; berez izenlagunak egiten ditu, baina adizlagunetan ere erabili da zenbaitetan.

(izenlagun)

(929) **elkarrekiko** solasak

(930) **lagunekiko** harremanak

(931) Estatu Batuek **Libiarekiko** harremanak eten dituzte.

(932) **Jainkoarekiko** eginbidea (**Jainkoarenganako** eginbidea)

(adizlagun)

(933) Bihurriak eta maltzurak ziren **gurekiko**.

(934) Lerro horiek perpendikular gertatzen dira **ardatzarekiko**.

Adizlagun funtzioan erabili baino lehen, beste aukerarik ote den begiratzea komeni da, eta, ahal izanez gero, hura erabiltzea. Aski zaila da, esate baterako, testu batean aurkitutako perpaus hau ulertzea: «Jarrera baikorra izatea esperientziekiko». Honela adieraz liteke: «Jarrera ona izatea esperientzia berrien aurrean».

(935) a. ▼Estimu handia **dute gurekiko**.

b. Estimu handia **dute gu(re)gana(ko)**.

c. Estimu handia **digute**.

d. Estimu handitan **gauzkate**.

e. **Biziki** estimatzen **gaituzte**.

f. Estimu handia **dute gure aldera(t)**.

(936) a. ▼Errespetu handia erakutsi zuen **lehendakariarekiko**.

b. Errespetu handia erakutsi zuen **lehendakaria(ren)gana(ko)**.

c. **Lehendakariarekiko** errespetu handia erakutsi zuen.

d. Errespetu handia erakutsi zion **lehendakariari**.

Izenlagun denean ere, *-ekiko* erabiltzeaz gain beste aukeraren bat dagoen pentsatzea komeni da: testuinguruaren arabera, bata edo bestea izan daiteke egokiago:

⁸² «Nirekiko» ere aski erabilia da, 'nire ustez' adierazteko.

- (937) a. **Lege-sistemarekiko mesfidantzaren** eta kritikotasunaren adierazletzat ere har daiteke.
b. **Lege-sistemari dioten mesfidantzaren** eta harekin kritiko izatearen adierazletzat ere har daiteke.
- (938) a. gorputzen **urarekiko** portaera
b. gorputzek zer portaera duten **uraren aurrean**

Desberdin izenondoarekin, «zurekiko desberdina da» baino perpaus egokiagoa da «zure aldean desberdina da» (ikus 1.3.4.10 puntua ere).

7. Adberbio-sintagma

7.1. Aditzondoak

7.1.1. *Inoiz* eta *noizbait*

Inoiz eta *noizbait*, biak erabiltzen dira galderetan eta baiezko perpausetan⁸³, eta, biak erabiltzen dituen hiztunarentzat, ez dute adiera berbera. Espezifiko moduan ulertzen da *noizbait*, eta inespezifiko moduan *inoiz*. Ikus *Ezer eta zerbait* puntua ere (4.2.4).

- (939) a. Ikusi al duzu **inoiz** horrelakorik?
b. Ikusi al duzu **noizbait** horrelakorik?
- (940) a. Egon al zara **noizbait** gaixorik luzaroan?
b. Egon al zara **inoiz** gaixorik luzaroan?
- (941) a. **Inoiz** aipatu izan dugu kontu hori.
b. **Noizbait** aipatu izan dugu kontu hori.

7.1.2. Ez alferrik erabili *-ki* atzizkia

Badirudi gaztelaniazko *-mente* adberbioen ugariak euskaraz *-ki* gehiegi erabiltzera eraman gaituela. Bestelako aukera naturalik denean, lehenestekoa da hura.

- (942) a. **gogorki** kritikatu du
b. **gogor** kritikatu du
- (943) a. **▼legalki** horrela da
b. **legez** horrela da
- (944) a. **▼teorikoki**
b. **teorian**
- (945) a. ***Ni, pertsonalki**, ados nago.
b. **Ni neu** ados nago.
- (946) a. **▼Ebaluazioa, tradizionalki**, ikasleen kontzeptu-ezagutzara mugatu izan da.
b. Ebaluazioak, **tradizioz**, ez du neurtu ikasleek zer kontzeptu ezagutzen/ menderatzen dituzten baino.

⁸³ Ezezkoetan, aukera bakarra dago, jakina: *inoiz*. «Inoiz ez dut halakorik ikusi».

- (947) a. ▼egoera sozialki gatazkatsu batean
 b. egoera sozial gatazkatsu batean
 c. gizarte-egoera gatazkatsu batean
- (948) a. ▼Beste elkarrizketa batzuk ere jaso dira, partzialki.
 b. Beste elkarrizketa batzuk ere jaso dira; zati batzuk, bederen.
 c. Beste elkarrizketa batzuk ere jaso dira; ez osorik, ordea.

Nolanahi ere, *-ki* atzizkiaz osatutako hitz asko sartu dira *Hiztegi Batuan*: *automatikoki, objektiboki, normalki...*

7.1.3. *Bakarrik* eta *soilik*

‘Baino ez’ esanahirako, sinonimotzat har daitezke *bakarrik* eta *soilik*: «Bi baino ez ditu ekarri», «Bi bakarrik ekarri ditu», «Bi soilik ekarri ditu». ‘Bakarrean, bakarka’ esanahirako, *bakarrik* baino ezin erabil daiteke: «Ez du etxean bakarrik gelditu nahi».

Horiesan nahi ez delarik ‘bakarrean’ ulertzeko arriskua saihesteagatik edo, *soilik* erabiltzera jotzen da zenbaitetan. Nolanahi ere, bi perpaus hauek berdin-berdin dira egokiak:

- (949) a. Bi liburu bakarrik erosi behar dira.
 b. Bi liburu soilik erosi behar dira.

Ezezka ere eman daiteke informazio bera, *besterik ez, baizik ez* eta *baino ez* erabilita. Halakoen komuntadurari dagokionez, ikus lan honen 4.3 puntua.

Dagokien elementuaren atzetik joaten dira *bakarrik* eta *soilik*. Hori da arau orokorra.

- (950) a. ▼Soilik udaberrian izaten dituzte landareek loreak.
 b. Udaberrian soilik izaten dituzte landareek loreak.
 c. Udaberrian baino ez dute izaten landareek lorarik.
- (951) a. ▼Fosilak bakarrik harri sedimentarioetan aurkitzen ditugu.
 b. Harri sedimentarioetan bakarrik aurkitzen ditugu fosilak.

Baina ez dute debekurik aditzaren atzetik ere agertzeko, adizlagun gisa, erreferente duten elementutik libreago.

- (952) Puntuazioa komaz eta puntuz baliatzen da soilik.

7.1.4. *Oraindik eta artean; dagoeneko eta ordurako*

Aukera biak dituzten hizkeretan, *oraindik* eta *artean* bereizi egiten dira. *Artean* erabiltzen da iraganaz (953. adibidea) nahiz gertakizun denaz ari garela (954. adibidea). Erabilera hori hobesten dugu:

(953) Diruaren kontuak egin barik nengoen, **artean** ez baininduen urrearen promesak kezkatzen.

(954) Datorren urtean, gazte(ak) izango gara **artean**.

Eta berdin *dagoeneko/ordurako* banaketaren kasuan ere: oraina bada erreferentzia, *dagoeneko* erabiltzen da, eta lehenaldian edo geroaldian kokatzen bada erreferentzia, berriz, *ordurako* (*orduko, ordukotz*)⁸⁴.

(955) Ez dakit hori esan behar nizun, baina **dagoeneko** esanda dago.

(956) Umetxo bat izaten segitzen zuen arren, urteak eta urteak ziren ama azkenez ikusi zuenetik, eta esango nuke Peterren lekuan zegoen umea gizon bizarduna zela **ordurako**.

(957) Berandu izango da **ordurako**.

Lehenaldiari begira inoiz agertzen den *zegoeneko*, berriz, forma guztiz berria da, eta ez da bultzatzekoa.

(958) *Dardarka ari banintzen ere, **zegoeneko** ez nuen hotzik sentitzen.

7.2. Adizlagunak

7.2.1. Noiz *-raino* eta noiz *arte*

Bereizketa, oro har, garbi dago: denbora adierazten denean *arte* erabiltzen da, eta tokia adierazi nahi denean, berriz, hizkera gehien-gehienetan⁸⁵, *-raino*:

(959) **Apirilaren 9(ra) arte** dago epea zabalik. (*apirilaren 9raino)

(960) **Apiril(era) arte** itxaron dezakegu.

(961) **Asteazken(era) arte** itxarongo dugu. (*asteazkeneraino)

(962) **Bilboraino** joan beharko dugu. (#Bilbora arte⁸⁶)

⁸⁴ Aurkitzen da bestelako adibiderik ere: «Hori, urte haietan, **dagoeneko** aldarrikatua zuten Altubek eta». (*Hiztegi Batua, dagoeneko* sarrera).

⁸⁵ Mendebaldeko hizkera batzuetan, *artek* hartu ditu, neurri handi batean, adiera biak.

⁸⁶ Jakina, «Bilbora arte» esanda, *noiz arte* adieraz daiteke: «Bilbora iritsi arte».

Denborazkoetan, forma mugagabea erabiltzen da ekialdean, eta *-ra*, berriz, mendebaldean. Tradizio sendoenari jarraituz, *-a(k)* ez erabiltzea gomendatzen dugu, ezinbestekoa den kasuetatik kanpo («eguerdiko 12ak arte», «Gabonak arte»...):

- (963) a. **XX. mendera arte** (*menderarte)
- b. **XX. mende arte**
- c. **▼XX. mendea**⁸⁷ arte

Batzuetan, zentzuak bietarako aukera ematen du.

- (964) a. **Azken(era) arte** ez zuen etsi.
- b. **Azkeneraino** heldu zen.

7.2.2. Zenbakiekin, *-ra(ino)* ala *arte*?

Zenbakiak helbide bat edo data bat adierazten duenean, ez da zalantzarik: tokiari dagokion atzizkia erabiltzen da batean, eta denborari dagokiona bestean:

- (965) Kale honetan, **9raino** berritu dute zola. (tokia: *noraino*, bederatzigarren atariraino)
- (966) **Uztailaren 9(ra) arte** dugu epea. (denbora: *noiz arte*)

Zenbaki huts-hutsekin ari garenean sortzen dira zalantzak, batez ere. Adibidez, «9(ra) arte zenbatu» esan behar da, ala «9raino zenbatu»? Honela labur ditzakegu kasu eta aukera nagusiak:

a) Bukaerako muga bat aipatzean, tokizko adiera nagusitzen da, aditzak ere ideia hori ematen baitu (*iritsi, luzatu, joan, jarraitu, bedatu...*).

- (967) Zenbatzen hasi eta **9ra(ino)** iritsi da; eten baten ondoren, **15eraino** jarraitu du.

Hala ere, *zenbatu* aditzarekin *arte* erabiltzen da ia erabat, *esan* aditza isilduko balitz bezala («zenbatu... 9 esan arte»). Halakoetan, beraz, «9

⁸⁷ Halakoen ahoskera, hizkera askotan, *mendia arte* litzateke, eta ez da halakorik.

arte» edo «9ra arte» formak ditugu (azken batean, «9 esan arte» eta «9ra iritsi arte»).

(968) Nire gauzak hartu, eta **hogeita hamar arte** kontatzeari ekin nion, denbora hori beharko zuela kalkulatu bainuen kanpoko atera iritsi ahal izateko.

(969) **Hamar arte** zenbatu eta gainera datorren zama sentitzeko garaia da orain.

b) Alde bietako mugak aipatzean, *-tik* eta *-ra* erabiltzen dira. Bukaerako muga aipatzean, (a) kasuan bezala, *-raino* ere bai.

(970) Asma ezazu nola iritsi **Otik 9ra**.

(971) **Bostetik hogeira(ino)** joan da, gelditu gabe.

c) Izenlagunetan, *arteko* edo *bitarteko* erabiltzen da, zenbakiei *-tik* eta *-ra* atzizkiak erantsita. Ez da gomendagarria «0 eta 9 arteko», adibidez.

(972) a. ▼**Esan 0 eta 9 arteko** zenbaki bakoitiak. (Zuzena da, ordea, «0 eta 9 zenbakien arteko...»).

b. Esan **Otik 9ra arteko** zenbaki bakoitiak.

c. Esan **Otik 9ra bitarteko** zenbaki bakoitiak.

Zenbaitetan, (b) eta (c) aukeren aldaera berezi gisa, «5etik *basi* eta 10era arteko/bitarteko» ere esaten da.

(973) Ederki ikasi ditu **9ra arteko** zenbakiak.

Okerra da izenlagun moduan eman beharrekoak adizlagun moduan ematea. Halako hutsak ikusten dira, adibidez, *esan*, *jakin* eta *ikasi* aditzekin. Semantikoa da kontua sakonean: «zerotik bederatzira joan» edo «zerotik bederatzira jauzi egin» daiteke, esaterako, baina «zerotik bederatzira ikasi» ez; ikasten direnak «batetik bestera (bit)arteko zenbakiak» dira⁸⁸.

(974) a. ***Esan** zenbakiak **Otik 9ra**.

b. Esan **Otik 9ra arteko/bitarteko** zenbakiak.

(975) a. ***Ongi ikasi** ditu zenbakiak **100era arte**.

b. **Ongi ikasi** ditu **100era arteko/bitarteko** zenbakiak.

⁸⁸ Gaztelaniaz ere, «Decir los números del 0 al 9» esatean, «los números (que van) del 0 al 9» esaten da, eta, beraz, *número* izenaren osagarri da «del 0 al 9» eta ez *decir* aditzaren osagarri.

7.2.3. *Non* eta *nondik*

Ez dugu egoki ikusten *non* erabili beharrean *nondik* erabiltzea esapide hauetan: «menditik ibili» eta «kaletik ikusi» (adiera batean):

- (976) a. *menditik ibili ginen
b. mendian ibili ginen
c. mendian barna/barrena ibili ginen
d. mendian zehar ibili ginen
e. menditik zehar ibili ginen

(Inoiz auzitan jarri izan den «menditik zehar» aukera jaso dago *Hiztegi Batuan*, azpisarrera gisa: *-n zehar* eta *-tik zehar*).

- (977) a. #Gaur kaletik ikusi zaitut, lagunekin. (Okerra, ez badu 'kaletik begiratuta' esan nahi).
b. Gaur kalean ikusi zaitut, lagunekin.

7.2.4. Soziatiboa (*zerekin*) eta zenbait muga-arazo

a) Instrumentala eta soziatiboa. Desegokitzat hartu izan dira, zenbaitetan, «mailuarekin jo» modukoak, «mailuaz jo» bakarrik delakoan egoki, baina biak eman behar dira ontzat (EGLU-I, 292. orrialdea, eta *Gramatika Laburra*, 482. orrialdea). Instrumentalaren kasuan, mugagabea ere eska dezake testuinguruak: «mailuz jo».

Ez dago beti arrazoirik, beraz, soziatibotik (*-ekin*) instrumentalera (*-z*) aldatzeko. Gainera, bizkaierazko soziatiboa *-gaz* izateak egiten ditu askotan halakoak belarrirako arrunt, eta ez *-z* instrumentalak⁸⁹. Honako honetan, adibidez, soziatiboa da egokia:

- (978) a. ▼Zure gelakideak oroigarri eskaini dizun poemaz itxiko duzu zure Poesiaren Antologia.
b. Zure gelakideak oroigarri eskaini deutsun poemagaz itxiko dozu zure Poesiaren Antologia. (bizkaieraz)
c. Zure gelakideak oroigarri eskaini dizun poemarekin itxiko duzu zure Poesiaren Antologia.

⁸⁹ EGLU-I, 290. orrialdea: «Bizkaieraz, gainera, nahasketa fonetikoaren bitartez, jatorrizko soziatiboa (singularrean *-a(ga)z* = *-arekin*) instrumentaltzat (singularrean *-az*) jotzen dute batzuek, era honetan *-z* kasua are gehiago ugarituz».

Muga jartzen ez da batere erraza. Hainbatetan, «mailuarekin jo» eta «mailu(a)z jo» kasuan bezala, bi aukerak dira zilegi:

- (979) a. arto-fekulaz egindako orea
- b. arto-fekularekin egindako orea
- (980) a. baloia eskuaz ukitu
- b. baloia eskuarekin ukitu

Aukeran, *ibili* aditzarekin ez dirudi oso ohikoa instrumentalak:

- (981) a. ?Etxera joan dira, ordenagailuaz ibiltzera.
- b. Etxera joan dira, ordenagailuarekin ibiltzera.
- (982) a. ?Ez ibili aiztoez jolasean edo txantxetan.
- b. Ez ibili aiztoekin jolasean edo txantxetan.

Joan aditzarekin, abiaduraren kasuan, Euskaltzaindiak gaitzetsia du «halako abiaduraz», eta aukeran ematen ditu «halako abiadurarekin» eta «halako abiaduran». Inesibokoa hobesten dugu:

- (983) a. *3 km/s-ko **abiaduraz** joan
- b. 3 km/s-ko **abiaduran** joan

Euskalkiaren arabera, batera edo bestera ematen da *oroitu* eta *maitemindu* aditzen osagarria:

- (984) **zutaz** oroitu
- zurekin** oroitu
- (985) **norbaitetaz** maitemindu
- norbaitekin** maitemindu

b) Sozietibozko esapide desagokiak. Gaztelaniaren interferentziaz edo, honelako perpaus desagokiak eratzen dira *amaitu* aditzarekin («acabar con...»), *aurkitu* aditzarekin («encontrarse con...») eta beste zenbaitekin.

- (986) a. #**Gai honekin** bukatzeko...
- b. **Gai hau** bukatzeko...
- c. **Gai honekikoak** egiteko...

(Egokia izan daiteke (a) aukera, baldin eta «gai honekin bukatuko dugu (zerbait)» esan nahi badu, baina, aipatzen ari garen kasuan, ez da hala izaten).

- (987) a. *Arrazakeriarekin amaitu behar da.
b. Arrazakeria baztertu egin behar da.
- (988) a. *Zenbait sistema probatu dira izurrite horrekin amaitzeko.
b. Zenbait sistema probatu dira izurrite hori borrokatzeko/galarazteko.
- (989) a. *Askotan, talde heterogeneoekin aurkitzen gara geletan.
b. Askotan, talde heterogeneoak (aurkitzen) ditugu geletan.
- (990) a. *Antibirusaren instalazioarekin bukatzean, berrabiarazi egin behar da ordenagailua.
b. (Behin) antibirusa instalatutakoan, berrabiarazi egin behar da ordenagailua.
- (991) a. *Yes (*bai*) botoia sakatu, eta instalazioarekin jarraituko dugu.
b. Yes (*bai*) botoia sakatu, eta instalatzen jarraituko dugu.

Desegoki gertatzen da *-ekin* predikatu hauetan ere («aski izan», «ezagutu», «asmatu»...):

- (992) a. *Programa abiarazteko, aski da klik bikoitza egitearekin.
b. Programa abiarazteko, aski da klik bikoitza egitea.
c. Programa abiarazteko, klik bikoitza egin besterik ez dago.
- (993) a. *Ezagutzen duzue jolasen bat izen horrekin?
b. Ezagutzen duzue jolasen bat izen hori duena?
c. Ezagutzen duzue jolasen bat horrela deitzen dena?
d. Ezagutzen duzue izen horretako jolasen bat?
- (994) a. *Ez dakit nola asmatzen duzun gonbidatuaren gustuarekin.
b. Ez dakit nola asmatzen duzun gonbidatuaren gustua.
c. Ez dakit nola igartzen/antzematen diozun gonbidatuaren gustuari.

Hil aditzaren kasuan, *-ekin hil* okertzat ezin jo bada ere —hizketan ez da arrotz, eta idatzian ere aurkitu daitezke adibideak—, aukeran egokiagotzat jotzen dugu *-z hil* (esan daiteke *-k jota hil* ere):

- (995) a. ?Eritasun kardiobaskularrekin jende gehiago hiltzen da minbiziarekin baino.
b. Jende gehiago hiltzen da eritasun kardiobaskularren ondorioz, minbiziaren ondorioz baino.
c. Jende gehiago hiltzen da eritasun kardiobaskularrez, minbiziz baino.
d. Jende gehiago hiltzen da eritasun kardiobaskularrengatik, minbiziagatik baino.

7.2.5. Instrumentalaren inguruko zalantzak

Aurreko puntuan ikusitako muga-arazoez gain (soziatiboaren eta instrumentalaren artekoa, batez ere), beste zalantza hauek ere izaten dira instrumentalaren inguruan:

a) Mugagabearen eta mugatuaren arteko zalantza, 5.1.2 puntuan ikusia. Besteak beste, «*-a* organikoz bukatu» eta «hatxez idatzi» modukoak (horiek ditugu egokitzat, eta ez «*-a* organikoaz bukatu» eta «hatxeaz idatzi»).

b) Sintaxiaren zenbait mugapen. «Trenez etorri» egokia izanagatik ere, okerrak dira «*zazpietako trenaz etorri» modukoak (EGLU-I, 293. orrialdea): «zazpietako trenean etorri» da esateko modu egokia.

(996) **trenez etorri**

- a. *zazpietako trenaz etorri
- b. zazpietako trenean etorri

Gauza bertsua gertatzen da honelakoetan ere:

(997) **euskaraz hitz egin**

- a. #euskara batuaz hitz egin (desegokia, ez badu 'horretaz hitz egin' esan nahi)
- b. euskara batuan hitz egin

(998) **goizez ireki**

- a. *astelehen goizez ireki
- b. astelehen goizean ireki

Euskaltzaindiak absolutiboa, soziatiboa eta inesiboa eman ditu ontzat era honetako perpausetarako, baina ez instrumentala (37. araua: «Data nola adierazi»).

(999) a. *Hilaren 20an izango da bilera, **astelehenez**.

b. Hilaren 20an izango da bilera, **astelehenarekin**.

c. Hilaren 20an izango da bilera, **astelehenean**.

d. Hilaren 20an izango da bilera, **astelehena**.

(1.000) a. *Ekainaren 15ean, **ostiralez**, jaialdi bat egingo da.

b. Ekainaren 15ean, **ostiralarekin**, jaialdi bat egingo da.

c. Ekainaren 15ean, **ostiralean**, jaialdi bat egingo da.

d. Ekainaren 15ean, **ostirala**, jaialdi bat egingo da.

c) *Aldatu* aditzaren osagarria. «Arropak aldatu ditut» ez ezik, «arropaz aldatu naiz» ere esaten da. Honako hauetan, ordea, oso zalantzakoa da instrumentala; absolutiboa, berriz, segurua:

- (1.001) a. *Bidasoa taldeak atezainez aldatu beharko du.
b. Bidasoa taldeak atezaina aldatu beharko du.
- (1.002) a. *Jarreraz aldatzen badu, lortuko du.
b. **Jarrera** aldatzen badu, lortuko du.
- (1.003) a. ▼Iritziz aldatu da. («*Iritziz aldatu du», okerra)
b. **Iritzia** aldatu du.

7.2.6. Motibatiboa (-*gatik*) eta muga-arazoak

Gutziz gaitzestekoa da «*elurrarengatik harrapatua» edo «*mendien-gatik inguratua» esatea, «elurrak harrapatua» eta «mendiek/mendiz inguratua» esan ordez. Erdal egitura baten kalkoak dira halakoak⁹⁰.

Zalantza handiagoa sortzen dute beste kasu batzuek:

a) Aldea nola adierazi. Mendebaldean -*gatik* erabiltzen da gehienbat («askogatik», «gutxigatik», «bi tantogatik»...), eta ekialdean, berriz, ohikoago da instrumentala («bi tantoz»).

- (1.004) a. **Bi segundogatik** irabazi du.
b. **Bi segundoz** irabazi du.
c. **Bi segundoren aldea** kendu dio.
- (1.005) a. **Bi tantogatik** gailendu zaio.
b. **Bi tantoz** gailendu zaio.
c. **Bi tantoren aldea** atera dio.
- (1.006) a. ?Aurretik doa, **bi tantogatik**.
b. Aurretik doa, **bi tantoz**.
c. Aurretik doa, **bi tantoren aldearekin**.
d. **Bi tanto** aurretik doa.

b) Ordaintzearen ideia tartean denean, hainbatetan -*gatik* atzizkia erabiltzen da, baina badira beste aukera batzuk ere. Kasu batzuetan,

⁹⁰ Kalko desagokia dirudi, orobat, «bikotekidearengatik sentitzen duzun maitasuna» esatea. Egokiago, «bikotekidearengana sentitzen duzun maitasuna», «bikotekidearen aldera sentitzen duzun maitasuna», «bikotekideari diozun maitasuna»...

nolabait unitatearen ordaina adierazten da (1.007., 1.008. eta 1.009. adibideak), eta halakoetan oso arrunta da «bakoitzeko» esatea.

- (1.007) a. Sei euro ordaindu dut/ditut **liburu bakoitza(ren)gatik**.
b. Sei euro ordaindu dut **liburu bakoitzeko**.
c. Sei euro ordaindu dut **liburu bakoitza**.
- (1.008) a. Hamabi euro dira **opari bakoitza(ren)gatik**.
b. Hamabi euro dira **opari bakoitzeko**.
c. Hamabi euro da **opari bakoitzarena**.
d. Hamabi euro da **opari bakoitza**.
- (1.009) a. ▼Ehun euro ordaindu behar da **bikote bakoitza(ren)gatik**.
b. Ehun euro (ordaindu behar) da **bikote bakoitzeko**.
c. Ehun euro (ordaindu behar) da **bikoteko**.

Beste batzuetan, guztizko ordaina adierazten da, eta gogoratzekoa da halakoetan «dena delakoa hainbeste ordaindu» ere esaten dela, eta ez nahitaez «dena delakoagatik hainbeste ordaindu»:

- (1.010) a. Zenbat ordaindu du **oroigarriagatik**?
b. Zenbat ordaindu du **oroigarria**?
- (1.011) a. Sei mila euro ordaindu dut/ditut **autoa(ren)gatik**.
b. Sei mila euro ordaindu dut **autoa**.

Zenbaitetan, hala ere, *-gatik* atzizkia beste aukerarik ez dago:

- (1.012) Zenbat ordaindu behar izan du guztira **fotokopia guztiengatik**?
- (1.013) Kalkula ezazu zenbat euro ordaindu behar den **telebista honengatik**.

c) «Hainbeste(ren)gatik» esapideak zalantza sortzen du, «hainbestean» edo «hainbesteren truke» esan daitekeenean.

- (1.014) a. ▼**Hogei eurogatik**, zer eros dezaket?
b. **Hogei euroekin**, zer eros dezaket?
c. **Hogei euroan**, zer eros dezaket? (gauza bat, prezio horretakoa)
- (1.015) a. ▼**Zortzi eurogatik**, ederki bazkaltzen da taberna horretan.
b. **Zortzi euroan**, ederki bazkaltzen da taberna horretan.
- (1.016) a. ▼Edonork parte har dezake, **10 eurogatik**.
b. Edonork parte har dezake **10 euroren truke**.
c. Edonork parte har dezake, **10 euro ordainduta**.

d) Ergatiboa, erabil daitekeenean, motibatiboa baino egokiago gertatzen da.

- (1.017) a. ▼Osasun-arazo asko zirkulazio **txarragatik** sortutakoak izaten dira.
b. Osasun-arazo asko zirkulazio **txarrak** eraginak izaten dira.
- (1.018) a. ?**Sedentarismoagatik** sortutako eritasunek...
b. **Sedentarismoak** sortutako/eragindako eritasunek...
c. **Sedentarismoaren ondorioz/erruz** sortutako/eragindako eritasunek...

e) *Galde egin, bitz egin* eta kideko aditzen inguruan, bi joera ikusten dira garbi-garbi: motibatiboa eta instrumentala. Euskalkien artean ere bada aldea:

- (1.019) a. **Zugatik** egin dute galde.
b. **Zutaz** egin dute galde.
c. **Zure galdera** egin du.
- (1.020) a. #Ez dizkizut orain esango **Mirenengatik** entzun ditudan guztiak!
b. Ez dizkizut orain esango **Mirenez / Mireni buruz** entzun ditudan guztiak!

Motibatiboaren muga zehazki ezartzea ez da erraza hainbatetan. Kasuan-kasuan egoki datozen aukerak izanagatik ere, ezin jo daitezke okertzat honelakoak:

- (1.021) a. Anderrek 1.200 € jasotzen du hilero bere **lana(ren)gatik**.
b. Anderrek 1.200 € jasotzen du hilero bere **lanaren truke**.
- (1.022) a. Zenbat diru irabazi du dendariak **telefonoen salmenta(ren)gatik?**
b. Zenbat diru irabazi du dendariak **telefonoen salmentarekin?**
c. Zenbat diru irabazi du dendariak **telefonoen salmentatik?**
- (1.023) a. Zenbat euro lortu zituen asteazkenean saldutako **sarrerengatik?**
b. Zenbat euro lortu zituen asteazkenean saldutako **sarreretatik?**
c. Zenbat euro lortu zituen asteazkenean **sarrerak salduz/salduta?**
d. Zenbat euro lortu zituen asteazkenean **sarrerekin?**

7.2.7. *Norako/zertarako eta norentzat/zarentzat*

Zertarako eta *zarentzat*, biak zilegi dira zenbaitetan: «ona da osasunerako» nahiz «ona da osasunarentzat» esaten da, eta orobat «zirkulaziorako» eta «zirkulazioarentzat».

- (1.024) a. Kirola egitea ona da osasunerako.
b. Kirola egitea ona da osasunarentzat.
- (1.025) a. Odolaren zirkulaziorako, oso ona da bainuak hartzea.
b. Odolaren zirkulazioarentzat, oso ona da bainuak hartzea.

Predikatuaren arabera, kasu bat edo bestea eska dezakete izenek:

- (1.026) a. Ariketa hau libururako gordeko dugu.
b. Liburuarentzat, ona da ariketa asko izatea.
c. Liburuaren mesederako da ariketa asko izatea.

Oso gauza ezberdinak izatea ere gerta daiteke:

- (1.027) a. pianorako pieza (pianoz jotzeko pieza)
b. pianoarentzako pieza (tresnak behar duen pieza bat)
- (1.028) a. hari-laukoterako konposizioa (konposizio mota)
b. (halako) hari-laukotearentzako konposizioa ('zein laukoterentzako' adierazten du)

Ustea adierazteko ere erabiltzen da *-entzat* atzizkia, baina nahasgarri gerta daiteke zenbaitetan:

- (1.029) a. Hezkuntzan dihardugunontzat, beharrezkoak dira horrelako baliabideak. (norentzat? / noren ustez?)
b. Hezkuntzan dihardugunon ustez / iritiz / aburuz, garrantzitsuak dira horrelako baliabideak.
- (1.030) a. ▼Jende gehienarentzat, hori ez dago ondo.
b. Jende gehienaren ustez, hori ez dago ondo.

7.2.8. *Prolatiboa, atributua eta bezala*

Berez, konparazio-hitza da *bezala*, eta konparazio-perpausetan erabiltzekoa da, beraz (ikus, besteak beste, *Kalko okerrak*, 73. orrialdea).

Beste funtzio batzuekin ere entzuten eta irakurtzen dugu gaur egun, baina egokiago da funtzio horiei dagozkien moldeetara jotzea: *-tzat* prolatiboa, atributu soila, *gisa*...

Aditzaren arabera, aukera bat baino gehiago izan daiteke. Zenbait aditzek (*jo, eduki*) *-tzat* eskatzen dute gehienbat. Beste batzuekin, mugagabeen egin daiteke predikatu-osagarria: «adibidetzat jarri» edo «adibide jarri», «abiapuntutzat hartu» edo «abiapuntu hartu».

- (1.031) a. ▼Merkatu-azterketa hartu behar da **abiapuntu bezala**.
b. Merkatu-azterketa hartu behar da **abiapuntu**.
c. Merkatu-azterketa hartu behar da **abiapuntutzat**.

- (1.032) a. Belauntzako herria jarri zuen **adibide**.
b. Belauntzako herria jarri zuen **adibidetzat**.

Gisa eta *moduan/modura* ere erabil daitezke batzuetan:

- (1.033) a. ▼**Oroigarri bezala** eskaini dizun poemarekin itxiko duzu zeure Antologia.
b. **Oroigarri** eskaini dizun poemarekin itxiko duzu zeure Antologia.
c. **Oroigarritzat** eskaini dizun poemarekin itxiko duzu zeure Antologia.
d. **Oroigarri gisa** eskaini dizun poemarekin itxiko duzu zeure Antologia.
e. **Oroigarri moduan** eskaini dizun poemarekin itxiko duzu zeure Antologia.
- (1.034) a. ▼Egiptoko faraoi eta errege-erreginen **hilobi bezala** eraiki ziren piramideak.
b. Egiptoko faraoi eta errege-erreginen **hilobi modura** eraiki zituzten piramideak.
c. Egiptoko faraoi eta errege-erreginen **hilobi gisa** eraiki zituzten piramideak.
d. Egiptoko faraoi eta errege-erreginen **hilobitarako** eraiki zituzten piramideak.
e. Egiptoko faraoi eta errege-erreginen **hilobitzat** eraiki zituzten piramideak.
f. Egiptoko faraoi eta errege-erreginen **hilobi izateko** eraiki zituzten piramideak.

Ez da egoki «deritzon» esan nahi delarik «bezala ezagutzen den» esatea. Egoki da «izenez ezagutu», 5.1.2. puntuan esan bezala.

- (1.035) a. *Alfabeto semitiko bezala ezagutzen dena garatu zuten.
b. Alfabeto semitiko izenez ezagutzen dena garatu zuten.
c. Alfabeto semitiko(a) deritzona garatu zuten.
d. Alfabeto semitiko esaten zaiona garatu zuten.
e. Alfabeto semitiko izenekoa garatu zuten.
f. Alfabeto semitiko delakoa garatu zuten.
- (1.036) a. *Zetaren Ibilbidea bezala ezagutzen den bideak Txinan zuen hasiera.
b. Zetaren Ibilbidea izenez ezagutzen den bideak Txinan zuen hasiera.
c. Zetaren Ibilbidea deritzon bideak Txinan zuen hasiera.

7.3. Postposizioak

7.3.1. Arabera

Ez da egoki *arabera* postposizioa aditz-izenezko perpausekin (1.037a). Zehar-galderarekin ere oso dudako gertatzen da (1.037b), nahiz adibide bakanen bat aurkitu⁹¹:

- (1.037) a. *Taldekatu ornodunak, arrain, anfibio, narrasti, hegazti edo ugaztun izatearen arabera.
b. ?Taldekatu ornodunak, arrain, anfibio, narrasti, hegazti edo ugaztun diren arabera.
c. Taldekatu ornodunak, sail hauetan: anfibioak, narrastiak, hegaztiak eta ugaztunak.
d. Taldekatu ornodunak sail hauetan, zein zer den: anfibioak, narrastiak, hegaztiak eta ugaztunak.

Sarritan gaztelaniazko *segun* dago halako perpausen atzean. Euskaraz ere sartua da *segun*, erregistro zaindugabea. Erregistro zainduan, egokiago da *nola ...-n, zer ...-n* (EGLU-V, 118.-120. or.).

- (1.038) a. *segun nola den
b. *nola den arabera
c. nola den

⁹¹ «Bost eta hiru pezeta egunsari ematen, familiadun edo bakar *den arabera*» (Larreko: *Nafarroatik*).

- (1.039) a. *segun zer gai den
b. **zer gai den / gaia zer den**

Ikus 5.3.b) atala ere.

Honela egokitu daitezke *araberarekin* ezin eman diren aditz-izenezko perpausak:

- (1.040) a. *Sailka itzazu ondoko substantziak, elementu kimikoak ala konposatu kimikoak **izatearen arabera**.
b. Banatu substantziok bi sailetan: elementu kimikoak **eta** konposatu kimikoak.
- (1.041) a. *Idatz itzazu taulan zelularen osagaiak, bi zelula motetan edo bietako batean bakarrik **agertzearen arabera**.
b. Idatz itzazu taulan zelularen osagaiak, bi (zutabetan/sailetan...): bi zelula motetan **agertzen direnak**, eta batean bakarrik **agertzen direnak**.

Perpaus hau okerra da guztiz:

- (1.042) a. *Etorri den ala ez **arabera**.
b. Etorri den ala ez.

Ikus 5.3.b) atala ere.

7.3.2. *Artean*

Alferrik den toki batzuetan aurkitzen dugu aldika *artean*:

- (1.043) a. ▼Enpresa alorrean, **estrukturaren eta koiunturaren artean** bereizi beharra dago.
b. Enpresa alorrean, **estruktura eta koiuntura** bereizi beharra dago.
c. Enpresa alorrean, bereizi beharra dago **estruktura eta koiuntura**.
- (1.044) a. ▼Ez du bereizten **ongiaren eta gaizkiaren artean**.
b. Ez ditu bereizten **ongia eta gaizkia**.

Egokiago da hor «ongi eta gaizkia bereizi», nahiz esaten den «Ez du bereizkuntzarik egiten ongiaren eta gaizkiaren artean». (Ikus 4.7.1 puntua ere).

- (1.045) a. ▼**Elkarren artean** babesteko.
b. **Elkar** babesteko.

- (1.046) a. ▼Truka dezagun hamaiketakoa **elkarren artean**.
 b. Truka ditzagun hamaiketakoak.

Beste batzuetan, aukeran dago *artean*, eta beste egituraren bat ere erabil daiteke.

- (1.047) a. Ez ahaztu gaixotasun asko sortzen dituela **animalien eta landareen artean**.
 b. Ez ahaztu gaixotasun asko sortzen dituela **animalietan eta landareetan**.
- (1.048) a. **Lau behiren artean**, 200 litro esne ematen dute egunean.
 b. **Lau behik** 200 litro esne ematen dute egunean.
- (1.049) a. ▼Zenbat fruitu daude **sagarren eta bananen artean**?
 b. Zenbat fruitu dago guztira, **sagarren eta bananen artean**?
 c. Zenbat dira guztira **sagarrek eta bananak**?
- (1.050) a. **Laudio(ren) eta Amurrio(ren) artean** 10 km dira.
 b. **Laudiotik Amurriona (bitartean)** 10 km dira.

7.3.3. *Bitartez*

Ia beti genitiboan eramaten du aurreko izena *bitartez* postposizioak: «lagunen bitartez», «lanaren bitartez»... *Hiztegi Batuan*, *bitarte* sarreraren azpisarrera gisa, hau dator: «*-en bitartez*, postpos.: X izpien *bitartez gorputz barruan dagoen edozer ikusi ahal izaten da...*».

Gaur egun, batzuetan, izena deklinatu gabe erabiltzen da *bitartez* postposizioa:

- (1.051) ?**Internet bitartez** ikasteko kurtso teknikoak jarri dituzte martxan.
 («Interneten bitartez», segurua).

*Bitartez*en sinonimoa den *bidezekin* sarriago aurkitzen dugu aurreko izena *-en* genitibo-atzizkia gabe (ikus 5.1.4).

- (1.052) a. Argindarra eta telefono-seinaleak ere **kableen bidez** hedatzen dira.
 b. Argindarra eta telefono-seinaleak ere **kable bidez** hedatzen dira.
- (1.053) a. Lan-eskaintza bat iritsi zait **posta elektronikoaren bidez**.
 b. Lan-eskaintza bat iritsi zait **posta elektroniko bidez**.
 c. Lan-eskaintza bat iritsi zait **posta elektronikoz**.

Zalantza kasuan, *-en bitartez* erabiltzea da seguruena:

- (1.054) Lehen mailako ekuazioak (linealak) **zuzenen bitartez** adierazten dira. Bigarren mailako ekuazioak (koadratikoak) **kurba konikoen bitartez** adierazten dira.
- (1.055) **Mikroskopia elektronikoen bitartez** baino ezin bereiz daitezke birusak.

7.3.4. *Buruz*

Datiboarekin erabiltzen da *buruz* postposizioa (*-i buruz*), eta, beraz, okerra da genitiboarekin: «*Gai horien buruz...». Zilegi da, eta egoki, halakoetan *-en gainean* esatea: «Gauza horien gainean mintzatu da».

Ez dagokion testuingururen batean ere aurkitzen da *buruz* postposizioa testuetan.

- (1.056) a. ?Esan ezazu zein zuzen diren **AB zuzenari buruz** ebakitzaille.
b. ▼Esan ezazu zein zuzen diren **AB zuzenarekiko** ebakitzaille.
c. Esan ezazu zein zuzen diren **AB zuzenaren** ebakitzaille.
- (1.057) a. ***Ardatz bati buruz simetrikoak** diren irudiak egiten ikasi behar dute.
b. **Ardatz batekiko simetriko(ak)** diren irudiak egiten ikasi behar dute.

Egoki denean, *-en* erabil daiteke («-en ebakitzaille», «-en perpendikular», «-en paralelo»); *-ekiko* adizlaguna ere erabiltzen da: «zuzen horren perpendikular da», «perpendikular da zuzen horrekiko». Zenbait kasutan, hala nola (1.057) adibidean, *-ekiko* bakarrik erabil daiteke: ez dago «ardatz baten simetriko» edo «aldagai baten independente» esaterik.

7.3.5. *Gain eta gainera*

Gain postposizioa (oraintsu arte gehienbat *gainera*) instrumentalaren ondotik erabiltzen da (1.058. eta 1.059. adibideak), eta genitiboaren ondotik ere bai, beste esanahi batekin (1.060 eta 1.061):

- (1.058) Hitzaldiez **gain(era)**, artikuluak ere jaso dira.
- (1.059) Azkarra da, eta, **horretaz gain(era)**, asko ardurutzen da.
- (1.060) **Irakaslearen gain** utzi du ardura guztia.
- (1.061) Atzamarrak **hariaren gain** egiten duen indarra.

7.3.6. *Barne*

Hiztegi Batuak txartzat jotzen du *-en barne egon*, eta *-en barnean egon* proposatzen du. Hona hemen gorabehera hori ageri den zenbait adibide⁹²:

- (1.062) a. *Jardunaldien **barne**, hitzaldia izango da gaur.
b. Jardunaldien **barnean**, hitzaldia izango da gaur.
- (1.063) a. *Proiektuaren **barne**, ondorengo baliabideak dituzu eskura.
b. Proiektuaren **barnean**, ondorengo baliabideak dituzu eskura.
- (1.064) a. *Liburuak bere **barne** hartzen ditu honako gai hauek ere.
b. *Liburuak **barne** hartzen ditu honako gai hauek ere.
c. Liburuak **barnean** hartzen ditu honako gai hauek ere.

Egoki da *barne*, hala ere, aposizio gisako egitura hauetan:

- (1.065) Jesusek deitzen ditu gizon guziak, ttipienak ere **barne**.
- (1.066) Jokabide hau desegokitza jotzen dute gehienek, Mitxelena **barne**.

Ohar bat azken adibide horretako komunztaduraz: *barne* ez doa ergatiboan, nahiz perpausean «gehienek» ergatiboa agertu; izan ere, tartean etena dago, eta «Mitxelena barne dela» adierazten da.

Beste esanahi batekin ere erabiltzen da *barne* ekialdeko euskalkietan:

- (1.067) Paris aldean, kasu berri zenbait agertu dira **denbora guti barne**. ('denbora gutxian')

7.3.7. *Zehar*

Hiztegi Batuan jasoak daude *-n zehar* («kalean zehar doaz») eta *-tik zehar*, esanahi berarekin (ikus 7.2.3 puntua). Okerra da, aldiz, *-en zehar* («kalearen zehar»).

Ñabardura bat eransten dio *zehar* postposizioak *non* kasuko hitzari, leku- edo denbora-tarte baten barruko bilakaerari dagokiona.

⁹² Orobat da okerra, halako adibideetan, *baitan* erabiltzea. *Hiztegi Batuko baita* sarrerek honela dio: *baita* 2 1 (ezkerrean daraman osagarriak pertsona izan behar du. Lekuzko kasuetan erabiltzen da, eta inoiz ere ez pluralean): *zure baitan; zuen baitan; ni baitan; ene baitan...* (**perpaus baitan*, **perpausaren baitan*, erabili *perpausean*, *perpausaren barruan*, *perpaus barnean*).

- (1.068) **Urtean zehar** banaturik hartu ohi ditu oporrak.
- (1.069) **Mendeetan zehar** gorde dira ohitura horiek.
- (1.070) **Kaleetan zehar** paseatzen ibili gara.

Halako ñabardurarik ez dagoen zenbait kasutan ere erabiltzen da *zehar* gaur egun, beharrik gabe.

- (1.071) a. ▼**Goizean zehar** ez dut lanik egin.
b. **Goizean** ez dut lanik egin.
c. **Goiz guztian** ez dut lanik egin.
- (1.072) a. ▼**Bilbon** egoten da **astean zehar**, eta asteburuetan itzultzen da herrira.
b. **Bilbon** egoten da **astean**, eta asteburuetan itzultzen da herrira.
c. **Bilbon** egoten da **aste barruan**, eta asteburuetan itzultzen da herrira.
- (1.073) a. ▼**Bi** irteera egiten ditugu **ikasturtean zehar**.
b. **Bi** irteera egiten ditugu **ikasturtean**.
- (1.074) a. ▼**Haurrentzako** jokoak izango dira **arratsaldean zehar**.
b. **Haurrentzako** jokoak izango dira **arratsaldean**.
c. **Haurrentzako** jokoak izango dira **arratsalde partean**.

7.3.8. Postposizioak eta juntadura

Izen-sintagmen juntaduran gertatzen den bezala (ikus 1.2.1 puntua), postposizio bat bi elementuri dagokienean, biak deklinatu behar dira.

- (1.075) a. ***Tirabirak** gertatu dira **lehendakaria eta sailburuen artean**.
b. ***Tirabirak** gertatu dira **lehendakari eta sailburuen artean**⁹³.
c. **Tirabirak** gertatu dira **lehendakariaren eta sailburuen artean**.
- (1.076) a. ***Alkatea eta gure partez** joan da Maddalen.
b. **Alkatearen eta gure partez** joan da Maddalen.
- (1.077) a. ***Zenbat** zenbaki oso daude **1.000 eta 10.000 artean**?
b. **Zenbat** zenbaki oso daude **1.000ren eta 10.000ren artean**?
c. **Zenbat** zenbaki oso daude **1.000tik 10.000ra bitartean**?

⁹³ Egokia litzateke hori «lehendakarien eta sailburuen artean» esan nahi balitz, baina ez da hala izaten kasua.

8. Aposizioa

8.1. Izen-aposizioa vs izenlaguna

Herri, probintzia eta kideko izenekin, erabat finkatuta dago *-ko* lotura (b), teoriaren argitan aposizio arrunta (a) aldeztu badaiteke ere:

- (1.078) a. ▼**Getaria herriak** omenaldi beroa eskaini dio.
- b. **Getariako herriak** omenaldi beroa eskaini dio.

Plaza, eliza eta abarretan ere erabiltzen da genitiboa sarritan. Kasuistika oso zabala da, eta joera orokorra aipatu besterik ez dezakegu hemen egin: aposizio-egitura erabiltzen da zenbaitetan, baina, sintagma zabaldu ahala (izenondo, izenlagun...) genitibora jotzen da. Honela dio *Euskal Gramatika Laburrak* (154. orrialdea): «Adjektibo bat jarri bezain laster, atzizkiaren beharra du hizkuntzak: *Filipe Ederraren Plaza, Bavariako Luisen Etorbidea*».

- (1.079) a. Unamuno plaza
- b. Unamunoren plaza
- (1.080) a. Europa plaza
- b. ?**Europaren** plaza / **Europako** plaza
- (1.081) San Joan Bataiatzailearen eliza
- (1.082) Etxeberri Sarakoaren plaza

8.2. Izen-aposizio batzuk

Aposizioan erabiltzen dira maiz izen hauek: *hitz, berba, izen, termino, kontzeptu...* Halako aposizio gehienak metahizkuntzari dagozkio, eta, orduan, letra etzanez edo kakotxez markatzen da aposizioaren lehen elementua (mugagabea):

- (1.083) a. Zer esan nahi du *legar* hitzak?
- b. Zer esan nahi du «legar» hitzak?
- (1.084) a. *Indar zentripeto* eta *indar zentrifugo* terminoak erabiltzen dira XIX. mendez geroztik.
- b. «Indar zentripeto» eta «indar zentrifugo» terminoak erabiltzen dira XIX. mendez geroztik.

Kontzeptu hitzak, besteek ez bezala, genitiboz lotzea ere onartzen du:

- (1.085) a. Nola definitzen da *indar* kontzeptua? (metahizkuntza)
b. Nola definitzen da indarraren kontzeptua?
- (1.086) a. *indar zentrifugo* kontzeptua (metahizkuntza)
b. indar zentrifugoaren kontzeptua
- (1.087) Hemen, ordea, *distantzia psikologikoaren kontzeptua* argitzeko baizik ez dugu aipatzen.

Ikus 5.4.2. puntua ere.

9. Aditza

9.1. Erregimenaren ingurukoak

9.1.1. Bihurkari eta elkarkaririk eza: «ikusi naiz»? «ikusiko gara»?

Ez da zuzena *du* aditzak *da* aditz gisa jokatzeari: «bota naiz», «ikusi naiz»... Izenorde bihurkaria edo elkarkaria erabiltzea dagokio halakoetan (*bere burua, elkar*), eta aditza *nor-nork* moduan jokatzeari.

- (1.088) a. *Ibaira bota da.
b. Ibaira bota du bere burua.
- (1.089) a. *Egoera horretan ikusi naizenean, ihesari eman diot.
b. Neure burua egoera horretan ikusi dudanean, ihesari eman diot.
c. Egoera horretan gertatu naizenean, ihesari eman diot.

«Ikusiko gara» formula zabaldu da («egongo gara» esaten den modu bertsuan edo), baina *elkar* erabiltzea dagokio joserik arrunten: «elkar ikusi genuen zineman», «aspaldian ez dugu elkar ikusi»...

- (1.090) a. *Laster ikusiko gara.
b. Laster ikusiko dugu elkar.
c. Laster egongo gara elkarrekin.

Beste kasu batzuetan, aditzak *da* joko ere onartzen du: *orraztu, garbitu, aurkitu...* Egoki dira, beraz, «orraztu naiz», «garbitu naiz» eta «bakarrik aurkitu naiz» perpausak. Ez, jakina, «arropa erosi naiz» modukoak, *erosi* aditza beti *du* edo *dio* moduan erabiltzen baita.

Zenbaitetan, badirudi ñabardura bat dagoela aditza *da* moduan jokatzetik *-en burua* bihurkaria erabiltzera:

- (1.091) a. Bidean aurrera eginez gero, pagadi eder batean aurkituko zara.
b. Esmatzean, erabat galdurik aurkitu zuen bere burua.
- (1.092) a. Lanpostu baterako, ehun pertsona aurkeztu dira.
b. Bi pertsonak aurkeztu dute beren burua hautagai.

Aditzak *da* jokaera onartzen duen jakiteko, *Hiztegi Batura* jo behar da, han adierazita baitago aditz bakoitzaren erregimena. Ikus ditzagun, esaterako, *bota, aurkeztu* eta *aurkitu*:

bota 1, bota, botatzen. *du* ad.: *erroak sakon bota dituen landareak, kimuak eta loreak ere bota ditzake; umea (seina) bota* ('umea galdu, abortatu').

aurkeztu, aurkez(tu), aurkezten. *da/du* ad.

aurkitu, aurki(tu), aurkitzen. *da/du* ad.

Forma inbertsonala adierazteko, zilegi da hirugarren pertsonako *da* adizkiak erabiltzea: «dirua erruz bota da hemen», «giltza batzuk aurkitu dira», «bost proiektu berri aurkeztu dira»...

9.1.2. Aditzen erregimenari dagozkion zenbait xehetasun

Aditzen erregimenari dagokionez, hiru ataletan bereiziko ditugu zalantzak: a) okerrak, kalkoz edo bestela sortuak; b) euskalkien arabera aldatzen direnak; eta c), adieraren arabera bereizkuntzak.

a) Aditz hauen erabileraren inguruko zalantzak nabari dira testuetan:

gonbidatu: *du* (*eta ez *dio*). *Lagunak etxera gonbidatu nau.* (**Lagunak etxera gonbidatu dit.*)

maite izan: *du* (*eta ez *dio*). *Asko maite du.* (**Asko maite dio.*)

eutsi: *dio* (*eta ez *du*). *Zutabe batek eusten dio egiturari.* (**Zutabe batek eusten du egitura.*)

ekin: *dio* (*eta ez *du*). *Lanari ekin dio.* (**Lana ekin du.*)

heldu *dio* (*eta ez *du*). *Hanketatik heldu dio.* (**Hanketatik heldu du.*)

jo *du* (*eta ez *dio*). *Laguna jo du.* (**Lagunari jo dio.*)

b) *Deitu* eta *lagundu* aditzek bi jokaera dituzte, euskalkien arabera, Euskaltzaindiak 39. arauan dioen bezala: «deitu ditu» eta «deitu die»; «lagundu zaitut» eta «lagundu dizut». Ipar-ekialdean erabiltzen da nagusiki datiborik gabeko moldea aditz horiekin. Hegoalde-mendebaldean, beraz:

(1.093) Seme-alabei **deitu** zien telefonoz.

(1.094) Tontolapiko **deitu** zidan.

(1.095) Etxeraino **lagunduko** dizut.

(1.096) Etxeko lanak egiten **lagunduko** al didazu?

Erantzun aditzarekin ere, ekialdean «galderak erantzun ditu» esaten da gainerakoetan «galderei erantzun die» esaten dena⁹⁴.

Sinetsi aditzarekin, «*emakumea, sinets iezadazu* (Heg.) / *emakumea, sinets nazazu* (Ipar.)» bereizketa adierazten du *Hiztegi Batua*k. «Barkatu zaitu» ere ez da arrotz ipar-ekialdean, «barkatu dizu» izanik ere forma hedatuena.

Utzi aditzarekin ere bada bikoiztasuna euskalkien arabera: «Ez du uzten sartzen» (Heg.) eta «Ez du uzten sartzera» (Ipar.). Hegoalde-mendebaldeko tradizioan, ildo berean, datiboduna da formarik zabalduna «bakean utzi» esapidearen kasuan ere: «Utziko al diozu bakean umeari?».

c) Bi modutan jokutzen dira aditz batzuk, esanahiaren arabera:

begiratu 1 *du/dio* ad. 'behatu, so egin'. 2 *du* ad. 'zaindu, gorde': *begira gaitzazu gaitzetik*. 3 (objekturik gabe): *leibotik begiratu zuen*.

behatu 1 *zaio* ad. Ipar. eta Naf. 'adi egon, entzun': *bau da ene Seme maitea, boni beha zakizkiote*. 2 *dio* ad. Ipar. eta Naf. 'begiratu': *behatu zion lagunari; Galileok Ilargiari behatu zion hainbeste orduz*. 3 (objekturik gabe): *leibotik behatu zuen*.

9.1.3. Aditza + *arazi*: forma eta erregimena

9.1.3.1. Forma

Aditzoinari eransten zaio *-arazi*, eta ez partizipioari: *ikusarazi, geldiarazi* (eta ez **ikusiarazi, *geldituarazi*). Zenbait aditzen kasuan, erabili izan da bien tarteko forma *-t*-duna ere (*agertarazi, sortarazi, ezkontarazi...*), baina Euskaltzaindiak 28. arauan emandako gomendioaren arabera, horiek *-t*-gabe idaztea hobetsi behar da: *agerrarazi, sorrarazi, ezkonarazi...* Salbuespen dira *ulertarazi, obartarazi* eta *agintarazi* (*Hiztegi Batua*).

⁹⁴ Ikasmaterialetarako, «galderei erantzun die» gomendatzen dugu. Hedatuago izateaz gain, «zer erantzun dio galdera horri» esateko aukera ematen du.

Hiztegi Batuaren arabera aditzoina bi modutan eman daitekeen kasuetan, *-tu/-du* gabea hartzen da *-arazi* eransteke: *garbi(tu)*, *garbiarazi* (eta ez **garbituarazi*); *berri(tu)*, *berriarazi* (eta ez **berrituarazi*).

Aditzoinak ez du letrarik galtzen *-arazi* eranstean. Beraz, *baserrearazi* idatzi behar da, eta ez **baserrarazi*. Aditzoina *-a* amaierakoa denean, *-a* hori eta *-arazirena* batu egiten dira: *kontarazi*, *saltarazi*... Aditzoinaren bukaera *-tz* edo *-ts* denean, bere horretan eransten da *-arazi*: *sinetsarazi* (**sinestarazi*), *zorrotzarazi* (**zorrotzarazi*)...

Bestalde, *-arazirekin* osaturiko aditzen oina *-i* gabea da:

- (1.097) a. **Goza(tu)* eta *gozarazi* dezagun.
- b. *Goza(tu)* eta **gozaraz** dezagun.
- c. *Goza* dezagun, eta **gozaraz(i)**.

9.1.3.2. Erregimena

Oinarriko aditza *da* erakoa bada, *-arazi* eranstean *du* erregimena eskatzen du; eta *du* erako aditza bada, berriz, *dio*. Adibidez, «etorri da» gertaerari «norbaitek etorrarazi du» dagokio, eta «zerbait ekarri du» gertaerari, berriz, «norbaitek zerbait ekarrarazi dio».

- (1.098) a. **Kirola* egiteak baikor eta lasai **sentiaraziko** *dizu*.
- b. *Kirola* egiteak baikor eta lasai **sentiaraziko** *zaitu*. ('lasai sentituko zara')
- (1.099) Bi idazlan **egin** *ditu*. Bi idazlan **eginarazi** *dizkio*.
- (1.100) Suak luzaro(an) **iraun** *du* **piztuta**. Suari luzaro(an) **iraunarazi** *dio* **piztuta**.
- (1.101) Bizirik **iraun** *du* ohiturak. Herriak bizirik **iraunarazi** *dio* ohiturari.
- (1.102) Lanean **jarraitu** *du*. Lanean **jarraiarazi** *dio*.

9.1.3.3. Premiarik gabe, ez erabili

Esanahi desberdina izan behar dute *-arazi* erantsitako aditzak eta *-arazi* gabekoak. Adibidez, bi perpaus hauek zuzenak dira eta gauza bana adierazten dute:

- (1.103) a. Kausa-ondorio egitura **agerraraziko** *die* irakasleak ikasleei.
- b. Kausa-ondorio egitura **agertuko** *die* irakasleak ikasleei.

Esanahirik eranstean ez badu, ez dagokio *-arazi* erabiltzea. Hori gertatzen da, adibidez, *sorrazazi* erabiltzen den batzuetan:

- (1.104) a. *Karbonoak, hidrogenoarekin konbinaturik, hidrokarburoak **sorrazten** ditu.
b. Karbonoak, hidrogenoarekin konbinaturik, hidrokarburoak **sortzen** ditu.
- (1.105) a. *Planetek ez dute berez argirik **sorrazten**.
b. Planetek ez dute berez argirik **sortzen**.
c. Planetek ez dute berez argirik **ematen**.

Adibide honek osotara moldatzea eskatzen du, erlatiboa desegoki gertatzen baita eman nahi den azalpen osagarriko:

- (1.106) a. *Hidrogenoarekin batera, Lurraren azaleraren bi heren baino gehiago estaltzen duen ura **sorrazten** du oxigenoak.
b. Hidrogenoarekin elkartuta, ura **sortzen** du oxigenoak; Lurrean, ura da azaleraren bi heren baino gehiago.

Zenbaitetan, egokiena *eragin* edo *egin* den testuinguru batzuetan erabiltzen da *sorrazazi* (halakoetan, *sortu* ere ez dator egoki):

- (1.107) a. *Kalte handiak **sorrazazi** ditu suteak.
b. *Kalte handiak **sortu** ditu suteak.
c. Kalte handiak **eragin** ditu suteak.
d. Kalte handiak **egin** ditu suteak.

9.2. Aditzaren modua

9.2.1. Ahalera eta aditz-perifrazi modalak

Ahala eta ezina adierazteko, ahalerazko adizkiez gain (*naiteke, dezaket...*), beste aukera bat ere bada kasu batzuetan: *ahal* eta *ezin* hitzekin osaturiko aditz-perifraziak: «joaten ahal naiz», «ezin dut egin»... Euskalki guztiek darabilte *ezin*, eta *ahal*, berriz, gehienbat ekialdekoek, «joaten ahal naiz» edo «egiten ahal dut» forman. Tradizio urrikoak dira «joan ahal naiz» eta «egin ahal dut» erakoak, eta ez ditugu gomendatzen (ikus 9.6.2 ere).

9.2.2. Subjuntiboa: noiz *-(e)n* eta noiz *-(e)la*

Subjuntiboa mendeko perpausetan erabiltzen da batzuetan: «*Berehala etor zaitezen nahi dut*». Beste batzuetan, berriz, perpaus nagusirik gabe joaten da subjuntiboa: «*Egun ona izan dezazula*».

Subjuntiboko aditza mendeko perpausen osagai denean, menderagailu nagusia *-(e)n* da, eta predikatu batzuekin baizik ez da erabiltzen *-(e)la* (EGLU-V, 136. or.): batez ere, eskaera edo agindua adierazten dutenekin, eta noiz edo behin nahia adierazten duten predikatuekin. Iparraldean, predikatu gutxitan baliatzen da *-(e)la*: agindua adierazten duten batzuetan, eta ez beti.

Beti *-(e)n* hartzen dute honelako predikatuak: iritzi-jarrera adierazten dutenek (*normala izan, beharrezko izan, ondo iruditu, beldur izan...*). Orobat hartzen dute *-(e)n*, eskuarki, nahia edo desioa adierazten dutenek (*nahi izan, opa izan...*), nahiz inoiz *-(e)la* ere agertzen den halakoetan.

Bietatik erabiltzen da eskaera edo galdea adierazten dutenekin (Hegoaldean, maizenik *eskatu* erabiltzen da, *-(e)la* osagarriarekin, eta Iparraldean, berriz, *galdatu* eta *galdegin*, maizenik *-(e)n* osagarriarekin). Bietatik erabiltzen da, orobat, agindua edo debekua adierazten dutenetan ere (Iparraldean nagusiki *manatu*, *-(e)n* osagarri duela, eta Hegoaldean *eskatu*, *-(e)la* osagarriarekin).

Debekatu eta *galarazi* aditzekin, *utzi* aditzarekin eta *gonbidatu* aditzarekin beti *-(e)n* erabiltzen da. Bai eta *-t(z)e* aditz-izena ager litekeen tokian doazen subjuntiboekin ere: *etor dadin lortu, ezaguna izan dadin erdietsi...*

Ez ditugu hemen aipatu, zalantzarik sortzen ez dutenez, helburuzko zentzua duten subjuntiboak: halakoetan beti *-(e)n* erabiltzen da.

(1.108) Behar den tokian *ager dadin* eta ondorioak *izan ditzan*, sinatzen dut.

(1.109) Ahaleginak egingo ditugu berdina *izan dadin*. (*izan dadila)

Nahia adierazten duten subjuntiboko perpausetan *-(e)la* erabiltzen da (1.110). Lehen pertsonan ere egiten dira halakoak (1.111).

(1.110) Onenak irabaz dezala.

On degizuela.

(1.111) Hil **nadila**, ustel **nazala** lur ustel honek, lotsaren harrak irents eta ezaba **ditzala** nire hautsak.

9.2.3. Agintera

Agindu, erregu eta aholkuak adierazteko, agintera deritzon moduko adizkiak erabiltzen ditugu zenbaitetan:

(1.112) **Idatz ezazu** eskutitz bat.

(1.113) **Barka** iezadazu, arren.

(1.114) Poliki joan zaitez.

(1.115) **Egon** zaitez pixka batean.

Berariazko adizki horietaz gainera, beste era batzuk ere badira aginduak emateko: aditz-partizipioarekin (edo aditzoinarekin, Iparraldean) (1.116-1.117), eta, *nor* erako adizki trinkoen kasuan, indikatiboko forma bera perpausaren hasieran emanik (1.118-1.119):

(1.116) a. **Idatzi** eskutitz bat.

b. **Idatz** eskutitz bat.

(1.117) a. **Barkatu**, arren.

b. **Barka**, arren.

(1.118) **Zoaz** poliki.

(1.119) **Zaude** pixka batean.

Lehen pertsonan, subjuntiboko aditzez baliatzen gara (*-n* amaierakoez): «isil nadin», «goazen etxera», «gatozen harira», «egin dezagun dantza»...

9.2.4. Aginterazko adizki trinkotuak

Aditzaren arabera, aginterazko adizkia izan daiteke perifrastikoa («egin iezaiozu», «eraman ezazu») edo trinkotua (*egiozu, eramazu...*). Adizki trinkoak dituzten aditzei dagokie berez bigarren aukera hori (*egin, eraman, ekarri...*), eta *Euskal aditz batua* liburuan eman zituen Euskaltzaindiak horien forma homologatuak (1979). Esate baterako,

bereizi egiten dira han, *utzi* aditzak dituen forma trinko bakanetan, *utzazu* (hau da, 'utz ezazu') eta *uztazu* ('utz iezadazu').

Forma trinkoa, arauturik dagoenean, hobestekoa da. Esate baterako, «egiozu kasu» aukera lehenesten dugu «egin iezaiozu kasu» aukeraren aldean. Tauletan agertzen ez diren kasuetan (*begiratu* eta «begiraiozu», adibidez) edo zalantzazkoetan, forma perifrastikoa erabiltzea da aukera segurua («begira iezaiozu») ⁹⁵.

Hona hemen forma arautuetako zenbait. Haien artean, okerbidea dakarten batzuk:

eman: *emazu*, *emadazu* (**emaidazu*), *emaguzu* (**emaiguzu*)...

esan: *esadak/n* (**esaidak/n*), *esaiok/esaion*

eraman: *eramak/n* (**eramazak/n*), *eramaguzu*, *eramazkiguzu*

ekarri: *ekark/ekarna*, *ekarzu*, *ekardazu* (**ekarridazu*), *ekarguzu*

eutsi: *eutsiozu*

jakin: *jakik/n* (**jakizak/n*), *jakizu*...

utzi: *utzazu* ('utz ezazu'), *uztazu* ('utz iezadazu'...)

Ezezkoetan, ahoskera gorabehera, *ez* hitza bereiz idatzi behar da: «ez ezazu esan», «ez iezaiozu galdetu», «ez dezazula esan» (**etzazula*, **ez ezazula*)...

Bedi ez da adizki trinkoa, laguntzailea baizik: «izan bedi», «egin bedi»... Esate baterako, «hala **bedi*» esapidea ez da zuzena; «hala izan bedi» (aditz perifrastikoz) eta «hala biz» (adizki trinkoz) dira zuzenak. Laguntzailea da *bekit* ere, eta, beraz, «zilegi *izan bekit*» da forma zuzena, eta ez «zilegi **bekit*».

Eginen adizki trinkoei dagokienez, forma desberdinak dira *dagit* (nik) eta *degit* (hark niri). Beraz, «on degizula» da esapide zuzena, eta ez «on **dagizula*». Halaber, «zin dagit» (nik) eta «zin degizut» (nik zuri) dira forma zuzenak.

⁹⁵ Taula horietan ez dira ageri zenbait forma, aski erabiliak: *galdeiozu*, *erantzuidazu*, *eragiok/n*...

9.3. Adizki jokatuabeak

9.3.1. Aditzoinen forma

Euskaltzaindiak erabaki bat emana du (28. araua), aditzoinen formari buruz. Ez du esaten aditzoina noiz erabili, baizik eta kasuan kasuko aditzoinak zer forma duen.

Oro har, bereizi egiten dira partizipioa eta aditzoina: a) Aditzaren partizipioa *-tu/du* amaierakoa bada, amaiera hori gabekoa da aditzoina: *azter* (aztertu), *bil* (bildu)... b) Partizipioa *-i* amaierakoa bada, hori gabekoa da aditzoina: *ikas* (ikasi), *irakats* (irakatsi), *ibil* (ibili)...

Ez *-tu* eta ez *-i* amaitzen diren aditzetan, forma bera da partizipio eta aditzoin: *erre, joan, laga, eman...*

Gauzak orokorrean horrela izanik, kontuan izan behar dira zenbait berezitasun:

a) Beste kategoria batetik eratorria bada *-tu/-du* amaierako aditza, eta aditzoinerako oinarriko hitzaren forma berbera gelditzen bada, bi formak har daitezke aditzoin gisa: *ur, urtu; gizon, gizondu; gorri, gorritu; hobe, hobetu...*

b) Aditzoinaren bukaera afrikatua denean (*-ts, -tz*), eutsi egin behar zaio forma horri: *irakats* (**irakas*), *buts* (**bus*), *zorrotz* (**zorroz*)... Puntu honetan, gogoan izan behar da aurreko paragrafoan esandakoa: adibidez, *zorrotz* eta *zorrotzu*, biak erabil daitezke aditzoin gisa.

c) Partizipioaren amaiera *-i* duten aditz batzuek berezkoa dute *-i* hori, eta ez dute galtzen aditsoinean: *jaiki, jalgi, ireki...* Beraz, ez da **jaik, *jalg* edo **irek* aditzoinik (nahiz azken hori, adibidez, erabiltzen den ipar-ekialdeko euskalkietan). *Eutsi* eta *iritzi* aditzen kasuan, bi aukerak uzten ditu arauak: *euts/eutsi; iritz/iritzi*⁹⁶.

⁹⁶ *Itxi* aditzaren kasuan, forma bakarra du aditzoinak: *itxi*.

d) Ondoko kasu hauetan bakarrik onartzen da *-t* bukaera aditzoinetan: 1) aditz eratorria bada eta haren oinarria *t*-duna (*laket*); 2) literatura-tradizioan jokabide hori izan badu (*ohart*, *ezagut*); eta 3) *-di* bukaerako oinarri batetik eratorria izanik, forma laburtu gabetik semantikoki bereizia bada (*hant*, *ert*). Kasu horietan guztietan, bi formak erabil daitezke aditzoin gisa: *laket*, *laketu*; *ohart*, *ohartu*... Gainerakoetan *-t* gabekoa da aditzoina: *urrun*, *urrundu* (**urrunt*); *lagun*, *lagundu* (**lagunt*); *neur*, *ezkon*...

9.3.2. Aditzoina noiz (oro har)

Euskaltzaindiak ez du arautu noiz erabili behar den aditzoina. Hala ere, joera hau nagusitu da euskara batuaren garaian, oro har:

a) Ahalerazko, subjuntiboko eta aginterazko aditz laguntzaileekin erabiltzen da aditzoina: «*eros ezazu*», «*eros dezala*», «*eros dezake*»; «*sar dezakezu*», «*sar dadin*», «*sar ezazue*»...

b) Aditz jokatu gabea erabiltzen bada aginduak emateko, partizipioa erabili ohi da Hegoaldean («*ez sartu!*», «*kendu!*»...) eta aditzoina Iparraldean («*ez sar!*», «*ken!*»)...

c) Aditzoinak bi forma onartu dituenean (partizipioa bera eta aditzoin berezia), partizipioa proposatzen dugu ikasmaterialetarako: «*urtu dadin*», «*urrundu dadila*»...

d) Hegoaldean, bada partizipioaren erabilera bat aditzaren izendatze soila egitekoa. Kasu horretan, ez da kontuan hartzen partizipioaren berezko aspektu burutua. Erabilera horretan, aditzoinaren baliokide gerta daiteke partizipioa.

- (1.120) a. Zer ikusi, hura ikasi. Zer entzun, hura erantzun.
b. Zer ikus, hura ikas. Zer entzun, hura erantzun.

- (1.121) a. Ez dakit nor maitatu eta nola kontsolatu.
b. Ez dakit nor maita eta nola kontsola.

Hegoaldeko tradizioan, bada, laguntzaile jokatuarekin doanean bakarrik erabili ohi da aditzoina.

9.3.3. Aditz laguntzailea isiltzean, aditzoina ala partizipioa?

Aditzoina dagokien perpausak juntatzean (ahalera, subjuntiboa edo agintera), bigarrenaren aditz laguntzailea isilduz gero, partizipioa (Hegoaldean) zein aditzoina (Iparraldean) erabil daiteke.

- (1.122) a. Edozein mugimendu **deskonposa daiteke**, eta bi planotan **hartu**.
b. Edozein mugimendu **deskonposa daiteke**, eta bi planotan **har**.

Lehenbiziko perpausaren aditz laguntzailea isiltzea, berriz, Hegoaldeko tradiziokoa da:

- (1.123) Edozein mugimendu, **deskonposatu**, eta bi planotan **har daiteke**.

Aditz soilak juntatzen direnean, berriz ere, bi aukerak zuzenak izanik ere, adizkiarekin zuzenean ez doazenak partizipioan ematea hobesten dugu ikasmaterialetarako (a):

- (1.124) a. Taulak, nahi izanez gero, **tamainaz aldatu, moldatu eta edita ditzakezu**.
b. Taulak, nahi izanez gero, **tamainaz alda, molda eta edita ditzakezu**.

9.3.4. Aditz laguntzailea isiltzean, aspektua berdindu

Bi perpaus juntatzean bigarreneko aditz laguntzailea isiltzen bada, perpaus nagusiari dagokion aspektu-marka gordetzea hobesten dugu:

- (1.125) a. Udazkena irailaren 21ean **hasten da**, eta abenduaren 21ean **bukatzen**.
b. ▼Udazkena irailaren 21ean **hasten da**, eta abenduaren 21ean **bukatu**.
- (1.126) a. Neurri horrek % 30 **gutxituko lituzke** heriotzak, eta bestelako ondorio txar asko **murriztuko**.
b. ▼Neurri horrek % 30 **gutxituko lituzke** heriotzak, eta bestelako ondorio txar asko **murriztu**.
- (1.127) a. Bi abesti **kantatuko dituzte** mutilek, eta bi dantza **egingo** neskek.
b. ▼Bi abesti **kantatuko dituzte** mutilek, eta bi dantza **egin** neskek.

9.3.5. Aditz-izena vs «partizipioa (+ *izan*) + -a»

Aditz-izenaren lekuan, «partizipioa + -a» edo «partizipioa + *izana*» erabiltzen da batzuetan Hegoaldean⁹⁷: «egitea» / «egina», «egin izana». Aditz-izena («egitea») beti da egokia, ez baita markatua aspektuari dagokionez. Beste moldearekin, delako egitatea burutua dela zehaztu edo azpimarratu baino ez da egiten.

- (1.128) a. Ongi irudituko zaio (atzo, orain, bihar) etxean **gelditzea**?
b. Ongi irudituko zaio (atzo, lehen) etxean **gelditu izana**?
- (1.129) a. Unibertsitateko irakasle bati zor diot ikerketa zirrargarri hartan **murgiltzea**.
b. Unibertsitateko irakasle bati zor diot ikerketa zirrargarri hartan **murgildua**.
c. Unibertsitateko irakasle bati zor diot ikerketa zirrargarri hartan **murgildu izana**.

Ezezkoetan, *izan* erabiltzen bada, bi tokitan jar daiteke *ez* hitza: aditz nagusiaren aurretik («ez ikusi izana») eta ondotik («ikusi ez izana»).

- (1.130) Damu du hark afixa **ez ikusi izana**, aukera hura galdu izana berari zerbait esateko.
- (1.131) Harritzekoa duk lehenago elkar **ikusi ez izana**, baina bihar gauean irten behar diat.

Burutua izateak ez du berez esan nahi iraganean gertatzen denik:

- (1.132) Haurrei inongo mugarik **ez jartzea** da guraso askoren okerra. Gerora, damutuko zaie haurrei inongo mugarik **jarri ez izana**.

Gogora dezagun, azkenik, kontzesiozko/kausazko banaketa gerta daitekeela *-gatik* loturarekin, zeri eransten zaion: *partizipioa + a* formari erantsiz gero kontzesiozko zentzua hartzen du perpausak, eta edo *-t(z)e* aditz-izenari erantsiz gero, berriz, kausazkoa.

- (1.133) a. *Eskerrik asko **etorri izanagatik**.
b. Eskerrik asko **etortzeagatik**.

⁹⁷ Iparraldean, *bait-* perpaus jokatuak erabiltzen dira halako jokatuagabeen partez: «Ez da harritzeko jende anitz bildu baita ehorzketan» ('jende anitz bildu izana').

9.3.6. «Egin ala ez» egituran, aditz-izenik ez

Partizipioa da erabiltzekoa «egin ala ez» egitura hautakarian, eta ez aditz-izena, zenbait testutan ikusten den bezala.

- (1.134) a. *Berdin dio hori **egitea ala ez**.
b. Berdin dio hori **egin edo/ala/zein ez (egin)**.
- (1.135) a. *Ihesaldia geroko **uztea ala ez** gogoetan ari zela, hiri aldera abiatuak zirela jakin zuen.
b. Ihesaldia geroko **utzi ala ez** gogoetan ari zela, hiri aldera abiatuak zirela jakin zuen.

9.3.7. Partizipioa predikatu-osagarrian

Lotura-aditza *egon* edo *eduki* denean, aditz-partizipioa bi modutan ager daiteke predikatu-osagarrian: *-a* artikularekin (izenondo moduan, komuntadura singularrean nahiz pluralean egiten duela), eta *-ta* edo *-(r)ik* atzizkiekin, aditzondo moduan.

- (1.136) a. **Nekatua** dago.
b. **Nekaturik/nekatuta** dago.
- (1.137) a. Bata bestearen ondoan **jarriak dauzka**.
b. Bata bestearen ondoan **jarrita/jarririk dauzka**.
- (1.138) a. Hogei minutuko kapituluz **osatua** dago.
b. Hogei minutuko kapituluz **osaturik/osatuta** dago.
- (1.139) a. Dena **esana** daukagu.
b. Dena **esanik/esanda** daukagu.

Lotura-aditza *izan* edo *ukan* denean, ezin da *-ta/-rik* aukera egin (okerrak dira 1.140b eta 1.141b); aukera horrek *egon* edo *eduki* aditza erabiltzea eskatzen du (1.140c, 1.141c).

- (1.140) a. **Nekatua** naiz.
b. ***Nekaturik/nekatuta** naiz.
c. **Nekatua/nekatuta/nekaturik nago**.
- (1.141) a. Film hori **ikusia dut**.
b. *Film hori **ikusita** dut.
c. Film hori **ikusia/ikusita/ikusirik daukat**.

Laburbilduz: *izan* eta *ukan* aditzekin *-a(k)* bakarrik erabiltzen da, eta *egon* eta *eduki* aditzekin, berriz, *-a(k)* nahiz *-(r)ik/-ta*.

9.3.8. Partizipioa eta kasu instrumentala

Partizipioari *-(e)z* lotura erantsiz egiten diren perpausak bi modutan erabiltzen dira euskaraz: *-(e)z* partizipioari zuzenean erantsiz (*ikusiz, emanaz*) eta *-a*-rekin (*ikusiaz, emanaz*). Batasunerako araurik ez da eman, eta testuetan *-a* gabeko ereduak da nagusi.

Ikusiaz ereduak, partizipioa *-a* amaierakoa duten aditzetan *-e* sartzen da: *boteaz, atereaz...*

9.4. Adizki jokatuak: aspektua eta tempusa

9.4.1. Erdarazko «orainaldi historikoa»

Kalko okerrak liburukian esan bezala (52.-54. orrialdeak), iraganeko gertaeren kontra arrunterako («jaino zen») ez da egoki «jaiotzen da» moldera jotzea (erdaraz *presente histórico / présent historique* deritzen moldera, alegia⁹⁸). Hitzuna kokatuta dagoen denborarako iraganak diren egitateak iraganaldi burutuan azaltzekoak dira:

- (1.142) a. *1956an, Epistemologia Genetikoaren Zentroa **sortzen du**.
b. 1956an, Epistemologia Genetikoaren Zentroa **sortu zuen**.

Desegoki da, era berean, iraganetik gerora jauzi egitea kontakizunean: «handik lau urtera *irabaziko du* lehen txapela». Zilegi izan daiteke, ordea, gertakizuna iraganeko kokatu eta «*irabaziko zuen*» esatea: «handik lau urtera *irabaziko zuen* lehen txapela». Iragana da kontatzen ari garen uneko ikuspegitik, baina, ezartzen dugun erreferentzia batekiko, gertakizun.

- (1.143) a. *Hogeita hiru urterekin **jokatzen du** lehenengo final nagusia. Handik lau urtera **irabaziko du** lehen txapela.
b. Hogeita hiru urterekin **jokatu zuen** lehenengo final nagusia. Handik lau urtera **irabazi zuen** lehen txapela.
c. Hogeita hiru urterekin **jokatu zuen** lehenengo final nagusia. Handik lau urtera **irabaziko zuen** lehen txapela.

⁹⁸ Besterik da orainaldi narratiboa (ikus 9.4.2).

Hona adibide gehiago, lehenaldiko gertakizun diren aditz hauenak:

- (1.144) Laster **etorriko zen** hego urrunetako lurraldeetara hegaldatzeko tenorea.
- (1.145) Horri zor zaio urte batzuk geroago **idatziko zuen** nobela ezaguneko protagonistaren izena.
- (1.146) Arratsa sartzan ari zen eta berehalaxe **piztuko zuten** gasa: orduan **idatziko zuen**.

Azken perpaus horretan, zehar-estilo libre deritzona ageri da: adierazpen-perpaus osagarri baten balioko perpausa, baina perpaus nagusirik eta loturarik gabe ematen dena, hari honi jarraikiz: 1) «*orduan idatziko dut*», *pentsatu zuen*; 2) *orduan idatziko zuela* *pentsatu zuen*; 3) *orduan idatziko zuen*.

9.4.2. Orainaldi narratiboa

Zenbait gertaera kontatzean (pasadizo, txiste eta abar), hurbiltasuna emateko, kontaeraren unera ekartzen da sarritan kontagaia, eta orainaldian azaltzen. Halakoetan, perpausaren hasieran eman ohi da aditza, orainaldi burutuan (a) zein burutugabea (b):

- (1.147) a. **Atera da, hartu du** zakua bizkarrean eta hor **joan da** aldapa behera...
- b. **Ateratzen da, hartzen du** zakua bizkarrean eta hor **joaten da** aldapa behera...

Burutuan ari garelarik ere, ohikoa da joko trinkoa duten aditzak forma trinkoan erabiltzea⁹⁹.

- (1.148) c. **Atera da, hartu du** zakua bizkarrean eta hor **doa** aldapa behera...
- d. **Ateratzen da, hartzen du** zakua bizkarrean eta hor **doa** aldapa behera...

9.4.3. Kalkulu-problemen formulazioa

Kalkulu-problema aurkezteko moduari dagokionez, molde bat baino gehiago erabiltzen da irakaskuntzan (ikus *Kalko okerrak* liburukia,

⁹⁹ Ohikoa da, halaber, adierazpen-aditzak ez-burutuan ematea: «Atera da leihora, begiratu dio jendeari, eta **esaten du**: (...)».

59. or.), kontakizuna nola irudikatzen den: a) dena delakoa une horretan gertatzen ari balitz bezala, orainaldi narratiboan (aspektu ez-burutuan); b) dena delakoa jadanik gertatua balitz bezala (aspektu burutuan). Hona bi moduak, bi adibidetan:

- (1.149) a. Andoniren ikasgelako lagun guztiak mendira **doaz**. Beste gauza batzuen artean, 14 tortilla **daramatzate**. Eguerdian, tortilla bat **banatzen dute** hiru laguneko, eta askaltzeko, berriz, bat lauko. Zenbat lagun **dira**?
- b. Andoniren ikasgelako lagun guztiak mendira **joan dira**. Beste gauza batzuen artean, 14 tortilla **eraman dituzte**. Eguerdian, tortilla bat **banatu dute** hiru laguneko, eta askaltzeko, berriz, bat lauko. Zenbat lagun (**joan**) **dira**?
- (1.150) a. Jai batean, 25 neska-mutil **elkartzen dira**. Martak 6 mutilekin **egiten du** dantzan; Errosek, 7rekin; Maitek, 8rekin; eta horrela, hurrenez hurren. Alaitzek denekin **egiten du** dantzan. Zenbat **dira** neskak, eta zenbat mutilak?
- b. Jai batean, 25 neska-mutil **elkartu dira**. Martak 6 mutilekin **egin du** dantzan; Errosek, 7rekin; Maitek, 8rekin; eta horrela, hurrenez hurren. Alaitzek denekin **egin du** dantzan. Zenbat **dira** neskak, eta zenbat mutilak?

9.4.4. Gertakizun-aspektuaren balio bereziak: ustea

Askotan, gertakizun-aspektuak ez du «artean gertatu gabeko zerbait» adierazten; bestelako balioak ere baditu. Esate baterako, ustea adieraz dezakegu «Irakaslea izango da, ezta?» esanez ('hori irakaslea bide da' / 'esango nuke hori irakaslea dela'). Jakina da, bestalde, baldintza-ondorioetan ere gertakizun-aspektua erabiltzen dela.

(1.151) Lehenago esan bagenio, lehenago **etorriko zen/zatekeen**.

(1.152) Bi zenbakiren batura 66 da. Zenbaki horietako bat 44 bada, zein (**izango**) **da** bestea?

Baldintza-ondoriorik edo usterik tartean ez denean, ordea, ez da hain egoki gertakizun-aspektua, honako galdera honek erakusten duen moduan:

(1.153) a. ▼Kubo baten ertz guztien batura 24 cm da. Kalkula ezazu buruz zenbat zentimetroko luzera **edukiko duen** ertz bakoitzak.

- b. Kubo baten ertz guztien batura 24 cm da. Kalkula ezazu buruz zenbat zentimetroko luzera **duen** ertz bakoitzak.

Halako galderetan *ote* erabiltzea ere ez da aukera normalena, ez baitago lekurik, berez, partikula horrek adierazten dituen zalantza eta gainerako ñabarduretarako (ikus 1.3.2.1 puntua).

- (1.154) c. ▼Kubo baten ertz guztien batura 24 cm da. Zenbat zentimetroko luzera **ote du** ertz bakoitzak?
 d. Kubo baten ertz guztien batura 24 cm da. Zenbat zentimetroko luzera **du** ertz bakoitzak?

9.5. *Lo egin* erako aditz-lokuzioak

Oinarrizko aditz bati (*egin, eman, hartu...*) izen bat erantsiz, hainbat aditz-lokuzio osatzen dira: *lo egin, negar egin, hitz egin, kalte egin, dei egin, huts egin, berri eman, lo hartu, parte hartu...* Aditz horiek guztiak ez dira lexikalizazio-maila berekoak, ordea; ikusi besterik ez dago, adibidez, batzuek galdegai-jokoaren arabera onartzen duten ordena-aldaketa (lan honen 2.1.1 puntuan azaldua):

- (1.155) a. **lo egin** dut
 b. ondo **lo egin** dut / ondo **egin** dut lo

Beste batzuek ez dute onartzen halako mugikortasunik: «*hitz egin du*»; «ondo *hitz egin du*» (*ondo *egin du hitz*). Kasuan kasuko ihartze-mailari zor zaio alde hori.

Horrekin batera, kontuan izan behar da aditz-lokuzio gisa erabiltzen diren horietako batzuk joko sintaktiko arruntean ere ager daitezkeela:

- (1.156) a. Bilerara **dei egin** du. ('dei egin' da aditza)
 b. Bilerarako deia **egin** du. ('egin' da aditza, eta 'deia' osagarri zuzena)
- (1.157) a. Bi aldiz **huts egin** du. ('huts egin' da aditza)
 b. Sekulako hutsa **egin** du. ('egin' da aditza, eta 'hutsa' osagarri zuzena).
- (1.158) a. Bidaiarien **berri eman** digu.
 b. Espero ez genuen berria **eman** digu bidaiariei buruz.

9.6. Aditz modalak

Hiru aditz hartzen ditugu modalen sailean: *nahi izan*, *behar izan* eta *ahal izan*¹⁰⁰. Modala da *ezin* hitza ere, baina aurrekoek ez bezalako jokabidea du eta ez da benetako aditzat hartzen *ezin izan*. Honela datoz lau sarrera horiek *Hiztegi Batuan*:

nahi izan du ad.

behar izan, behar izaten, beharko.

ahal izan, ahal izaten, ahalko / ahal izango: (...) *etortzen ahal da* (...)

ezin izan: *ezin da etorri* (**ezin du etorri*); *ezin du egin*.

9.6.1. Erregimena: *nahi izan*, *behar izan*, *ahal izan*

a) *Du* hartzen dute *nahi izan* eta *behar izan* aditzek, laguntzen duten aditza *da* erakoa izan nahiz *du* erakoa izan. Aldiz, laguntzen duen aditzaren arabera jokutzen da *ahal izan*: «hurbiltzen ahal naiz», «erosten ahal dut».

(1.159) hurbildu nahi du hurbildu behar du hurbiltzen ahal da
 erosi nahi du erosi behar du erosten ahal du

b) Datiboarekin, *nahi izan* eta *behar izan* ere *da/zaio* aditz gisa jokutzen dira: «hurbildu nahi natzaio», «hurbildu behar natzaio».

c) Hizkera batzuetan, *da* erako aditzen ondoan doazenean *da* laguntzailea har dezakete *nahi izan* aditzak (ipar-ekialdeko euskalkietan, zenbaitetan) eta *behar izan* aditzak (gehiagotan): «hurbildu nahi zen», «hurbildu behar zen». Euskaltzaindiaren 113. eta 114. arauetan, azaldurik dago jokabide hori.

d) *Ezin* hitzarekin osaturiko esapideetan, *Hiztegi Batuko* sarrerek agintzen duen moduan, komunztadura gorde behar da: «ezin da hurbildu» (**ezin du hurbildu*), «ezin du erosi».

¹⁰⁰ Oinarritzko hiru horien aldaerak ere badira: *gogo izan*, *gura izan*.

9.6.2. Oinarriko aditzaren forma

Nahi izan eta *behar izan* partizipioari eranstean zaizkio. *Ahal izan*, berriz, *-t(z)en* formari, ipar-ekialdean. Ugaltzen ari dira «hurbildu ahal da» eta «egin ahal du» formak, besteen analogiaz, baina tradizio urrikoak dira, eta ez ditugu gomendatzen.

(1.160)	hurbildu nahi du	hurbildu behar du	hurbiltzen ahal da
	erosi nahi du	erosi behar du	erosten ahal du

9.6.3. Gertakizun-aspektua eta alegiazko formak

Zenbaitetan *izango* eranstean bada ere gertakizun-aspektua adierazteko, aditz modalek berek har dezakete aspektu-marka hori: «hurbildu nahiko du», «hurbildu beharko du», «hurbiltzen ahalko da». *Hiztegi Batuan*, aditz bakoitzaren hiru formak adieraztean, horiek jasotzen dira, eta baten kasuan bakarrik ageri da *izango* aukera: «ahal izango» (ez, esate baterako, «behar izango»). *Ahal izango* erabiltzen den kasuan, ugariago dira «hurbildu ahal izango» moduko adibideak «hurbiltzen ahal izango» formakoak baino.

(1.161)	hurbildu nahiko du	
	hurbildu beharko du	
	hurbiltzen ahalko da	(hurbildu ahal izango da)
	erosi nahiko du	
	erosi beharko du	
	erosten ahalko du	(erosi ahal izango du)

Alegiazko formei dagokienez, hiru aditzekin erabil daitezke *-ko* gabeko forma, eta horixe da lehen aukera, gainera:

(1.162)	hurbildu nahi balu	(hurbildu nahiko balu)
	hurbildu behar balu	(hurbildu beharko balu)
	hurbiltzen ahal balitz	(hurbiltzen ahalko balitz)
	erosi nahi balu	(erosi nahiko balu)
	erosi behar balu	(erosi beharko balu)
	erosten ahal balu	(erosten ahalko balu)

9.6.4. «Beharrezko» eta «ezinezko»; «ikusi beharreko» eta «ikusi ezineko»; «ezin ikusizko»

Adjektibo gisa aski erabiliak dira *beharrezko* eta *ezinezko*; sarrienik, atributu gisa: «beharrezko(a) da», «ezinezko(a) da», «beharrezko deritzogu»... Hor ez dago zalantzarik.

Beste egitura batean ere sarri sartzen dira *behar* eta *ezin*: partizipioarekin batera izenlaguna osatzen dutela:

- (1.163) a) egin **beharreko** lana
- b) ikusi **beharreko** filma

Horretan ere ez bide da zalantzarik, baina bai egitura berean *ezin* sartzen denean: «egin *ezineko* lana» ez ezik, «egin *ezinezko* lana» ere frankotan irakurtzen da. *Hiztegi Batua*k eta idazle askoren erabilerak uxa dezakete zalantza hori. Hona hiztegi horretako arrasto bat, eta literaturako adibide pare bat:

- (1.164) **ezineko**: *mugatu ezineko handinabikeria* (*ezin* sarreraren azpisarrera, *Hiztegi Batua*)
- (1.165) Laster, ordea, **jasan ezineko** estresarekin eta zailtasunekin egin zuen topo.
- (1.166) Niri, berriz, bihotzean **kabitu ezineko poza** sortu zitzaidan.

Baliteke zenbaitetan beste egitura honen interferentzia gertatzea: «*ezin* + *partizipioa* + *-zko* + *izena*». Hona adibideak:

- (1.167) **ezin agortuzko** (*agortu* sarreraren azpisarrera, *Hiztegi Batua*)
- (1.168) **ezin ahaztuzko** (*ahaztu* sarreraren azpisarrera, *Hiztegi Batua*)
- (1.169) Berebiziko mina nuen buruan eta lepoan, eta **ezin eramanezko** beroa azalean.
- (1.170) Gero, ordea, baztertu egiten du, tratu txarra ematen dio, badirudi **ezin gaintuzko** higuina, **ezin eramanezko** nazka sentitzen duela emaztearentzat.

9.7. Alokutiboa

Euskaltzaindiak 14. arauan erabaki zituen hikako adizki alokutiboen batasunerako formak, baina ez zituen arautu erabilerak: ez

morfosintaxiari dagozkion gorabeherak, ez ingurumariari dagozkionak. Hemen, morfosintaxiari dagozkion ohar batzuk egingo ditugu.

a) Hika mintzatzean, bigarren pertsona ez dugu *zu* baizik *hi*:

(1.171) *zu* etorri *zara* → *hi* etorri *haiz*

